


# ELKARTASUNA LANTZEKO JARDUERA BILDUMA



ACSUR




Las Segovias



INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL  
NAZIOARTEKO LANIKIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA  
UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO · EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

# ELKARTASUNA LANTZEKO JARDUERA BILDUMA



INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL  
NAZIOARTEKO LANIKIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA  
UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO - EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA



Gida hau TrebaKintza proiektuaren barruan dago. Programa honen bitartez, Hegoak bi helburu bete nahi ditu: batetik, heziketa komunitatearen eta beste erakunde batzuen esku jartzea prestakuntza lanetarako laguntza materialak eta baliabideak; eta, beste alde batetik, mundu globalizatuan Garapenerako Hezkuntzak dituen erronkei buruzko gogoeta eta eztabaida prozesuak bultzatzea eta horren inguruko proposamenak egitea.

Proiektu hau babesten du:



ETXEBIZITZA ETA GIZARTE  
GAIETAKO SAILA  
Guzarte Ongizateko Saiburuzordetza  
Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y  
ASUNTOS SOCIALES  
Vicesecretaría de Bienestar Social  
Dirección de Cooperación al Desarrollo



Europako Batzardea

Agiri hau Europako Erkidegoaren laguntza finantzarioraekin egin da. Gidaliburu honen edukia egileen erantzukizunpekoa da, eta inolaz ere ez da ulertu behar Europar Batasunaren jarrera islatzen duenik.

Edizioa eta egokitzapena:



INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL  
NAZIOARTEKO LANKIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA  
UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO - EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Ekonomi Zientzien Fakultatea (UPV/EHU)  
Lehendakari Aguirre etorbidea 83 • 48015 Bilbao  
Tfnoa.: 94 601 70 91 • Faxa: 94 601 70 40  
E-mail: hegoa@bs.ehu.es

Campus-eko Liburutegia (UPV/EHU), 138 kutzatila  
Nieves Cano, 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz  
Tfnoa.: 945 01 42 88 • Faxa: 945 01 42 87  
E-mail: hegoa@vc.ehu.es

[www.hegoa.ehu.es](http://www.hegoa.ehu.es)

Laguntzaileak:



Lege-Zenbakia: BI-3407-05  
Euskarazko itzulpena: Labayru Ikastegia  
Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.  
Inprimaketa: Lankopi, S.A.



# Aurkezpena

Gogo handiz egin dugu honako jarduera bilduma, hezitzaile eta irakasleoi gai sozial esanguratsuak jarduera ludiko eta parte hartzezkoen bitartez lantzen laguntzeko gogoak bultzatuta.

Era aktibo batean ikasteko, ikasleengan motibazioa pizteko, eta ezagutza kritikoa sortzeko asmoz sortutako dinamika sail zabalaren arteko gutxi batzuk baino ez dira hemen biltzen direnak: ikerketarako proposamenak, rol-jokoak, dramatizazioak, testu-interpretazioak, eztabaidak eta irudien analisia... holako eta bestelako estrategia didaktikoak bildu nahi izan ditugu material didaktiko honetan. Alde horretatik, argitalpen hau zorretan dago erakunde askok egindako lanarekin: aisialdiko taldeak, pedagogi berrikuntzako mugimenduak, GGKE eta ikasteko eta irakasteko bide berriak urratzeko adorea izan duten bestelako erakunde ugariak.

Jarduerak fitxa formatoan aurkezten dira; fitxa bakoitzean proposatutako gaiaren inguruko oinarrizko datuak, dinamikaren laburpena eta garapena, helburuak eta adin gomendatua biltzen dira. Gainera, behar adina informazioa eskaintzen da fitxa bakoitzari laguntzen dion eranskinean.

Bai dinamikak lantzeko gomendatutako adina, eta baita ezagutza-arloak ere gutxi gorabeherakoak dira; izan ere, dinamikak Hezkuntza Formalean zein Ez Formalean landu daitezke.

Argi da, gure poza argitalpen honek Garapenerako Hezkuntza ikuspegi kritiko eta elkartasunezko batetan oinarrituta landu nahi duten guztiei laguntzen dien neurriaren arabera izango da.

Hegoa






# Aurkibidea

The Body Shop	7
Haize-arrosa	10
Elikagai transgenikoak	13
Premia eta kontsumoa	16
Ez-indarkeria, gerraren aurrean	18
www.globalizazioa!!!	21
Bananak	25
Nortasun anitzak	29
Larrialdi-laguntzak, benetan al dira lagungarri?	33
Istorio-misterio!!!	41
Gatazketako biktimak	47
Albistegia	52
Biluztu gaitzen	53
Non nago? Non gaude?	56
Globingo	59
Arkatzaren jokoa	61
Oinarrizko premien dinamika	63
Gorriak urdinen aurka, zuriak beltzen aurka.	64
Zorioneko jatekoa!	66
Iparraldea-hegoaldea galde-sorta	68
Ideen barometroa	70
Nortzuk gara?	73
Nire eskubideak, gure eskubideak, euren eskubideak	75
Argazki-hitza	85
Kanpoko zorra neurtzen ikasten	86
Arabiarrak eta musulmanak	89



Egutegi musulmana	93
Herrixka globala	97
Globalizazioa komunikazioa da	99
Zer da globalizazioa?	102
Idaztera!	105
Publizitate sexista	107
Herrien Auzitegi Iraunkorra Tribunal Tibeterako	112
Zaborra arakatzen	121
Logela alokagai... Etxebizitza partekatua...	123
Barra bat ogi jokoa	125
Jarrerren jokoa	126
Kartelen ariketa	128
Kutxa txikiaren jokoa	129
Piramidearen jokoa	131
Lankidetzeta-laukiak	133
Munduko anabasa	135
Aktoreen jokoa	137
Dudalandia	139
Ezkatuko inmigrazioa	140
Indar bateratua	142
Izpiritu olinpikoa	148
Edango ez duzun urari... ez utzi joaten	154
Nolako balioak ditugun!	158
Errepideen mapa	160
Iheslarien zentroa Ronfleurren. Rolen jokoa	168
Eragile bila... ikerketa-ekintza	177
Gazteei bost axola die politikak?	180
“Clandestino”	182
Umeen esplotazioa. Jarduteko ideiak	185



<b>Izenburua:</b>	The Body Shop
<b>Gaia:</b>	Kontsumo eta Bidezko merkataritza
<b>Hartzaileak:</b>	12-16 urte
<b>Iraupena:</b>	Ordubete
<b>Arloa:</b>	Gizarte Zientziak
<b>Beharrezko materiala:</b>	Mapamundia, Internet, 1., 2., 3. eta 4. eranskinen fotokopiak.
<b>Helburuak:</b>	Beste batzuek ez bezala diharduen enpresa multinazionalaren adibidea aztertzea.

#### Laburpena / Nondik norakoak:

Enpresa multinazional gehienek antzeko ezaugarriak dituzte, eta antzera dabilta: sarritan lehengaiak ez ezik, langileak ere esplotatzen dituzte. Horrez gain, mozkin handiak lortzeko antolatzen dira, eta euren herrialdeko mugetatik haratago merkaturatzen dituzte euren produktuak. Horrelaxe dabil The Body Shop?

#### Dinamikaren garapena:

Ikertu egingo dugu. Enpresa horri buruzko ahalik eta informazio gehien bilatu beharko dute. Horretarako, [www.thebodyshop.es](http://www.thebodyshop.es) web orrira jo dezakete, idatzi egin dezakete edo sukurtsalen batera joan daitezke datu gehiagoren bila (helbide hurbilena web orrian bertan dago ikusgai). Ondoren, honako ariketa hauek egin ahal izango dituzte:

1. Mapamundi batean, The Body Shop enpresak zer herrialdetan dituen lantegiak eta bulegoak eta zer herrialdetan saltzen dituen bere produktuak adieraziko dute. Gero, euren artean erkatuko dituzte (1. eranskina).
2. The Body Shop enpresari buruzko informazioa bilatuko dute Interneten, eta enpresari buruzko ikerketa-fitxa osatuko dute (2. eranskina).
3. The Body Shop enpresaren helburuak, jarrera etikoa eta merkataritza-portaera nolakoak diren jarriko dute zerrenda batean (3. eranskina).
4. Taldean, The Body Shop enpresak eskaintzen dituen argudioak alderatuko dituzte. Izan ere, bere proiektuek oihan tropikala babesten dutela adierazi du enpresak, politika horren balizko arriskuen inguruko kritika ugari jaso dituen arren (4. eranskina).
5. Informazio hori guztia gainerako taldeei aurkeztuko diote, eta alde onak zein txarrak azalduko dituzte. Labur-labur esanda, The Body Shop globalizazioko ohiko enpresan den ala ez eta zergatik azalduko dute.



## 1. eranskina. Produktuen sorterrriak

Lekua	Produktua
Brasil	Brasilgo intxaurren olioia
CEI (Siberia)	Eskuz egindako orraziak, eguzkitik babesteko olioia
India	Masajeak egiteko arrabolak
Mexiko	Gorputzerako krema esfoliatzailea
Nepal	Eskuz egindako paperezko produktuak
Nikaragua	Sesamo-hazi organikoaren olioia
Salomon Uharteak	Belzteko olioia
Tanzania	Ezti organikoa
Erresuma Batua (Ingalaterra)	Egoitza nagusia (Littlehampton)
Erresuma Batua (Eskozia)	Xaboiak, manufakturaioa
Amerikako Estatu Batuak (Mexiko Berria)	Blue Corn produktuak
Zambia	Ezti organikoa

## The Body Shop dendeen kokapena

Alemania

Amerikako Estatu Batuak

Andorra

Antigua

Arabiarr Emirerri Batuak

Australia

Bahamar Uharteak

Bahrein

Belgika

Bermuda Uharteak

Borneo

Danimarka

Espainia

Faro

Uharteak Filipinak

Finlandia

Frantzia

Grezia

Gibraltar

Holanda

Hong Kong

Indonesia

Irlanda

Islandia

Italia

Japonia

Kaiman

Kaiman Handia

Kanada

Korea

Kuwait

Luxenburgo

Malaysia

Mexiko

Norvegia

Portugal

Malta

Oman

Saudi Arabia

Singapur

Suedia

Suitza

Tailandia

Taiwan

Uharteak

Zelanda Berria

Zipre

**2. eranskina.** Ikerketa-fitxa

Web orria .....

Nork idazten du? .....

Zeri buruzkoa da? .....

Alderdikaria da? .....

**3. eranskina.** Nola dabilen enpresa

The Body Shop enpresaren iritzi, *Laguntza barik merkataritza ideiak* irtenbide egokia eskaintzen du munduko ekonomiaren arazoaren aurrean.

“Dirulaguntzak eman behar, beharrezko tresnak eta baliabideak eskaintzen dizkiegu erkidegoei, euren kabuz bizirauteko aukera izan dezaten. *Laguntza barik merkataritza esaldia* zenbait herrialdetan daukagun programen eslogana da. Merkataritzari begira, programa guztiak bideragarriak izan behar dira alderdi bientzat. Horrela bada, elkarrekiko errespetuan eta onuran oinarritutako harremana sustatzen dugu epe luzera, eta ez dute inolako menpetasun etsigaririk jasaten, ohiko laguntza-programetan gertatzen den bezala.”

**4. eranskina.** Oihan tropikaleko fruituak

Oihan tropikala, Cultural Survival eta The Body Shop:

Britainia Handiko Cultural Survival erakundeak eta xaboiaren zein kosmetikoen The Body Shop enpresak batera lan egiten dute oihan tropikaleko zenbait proiektutan. Proiektu horien ideia nagusiaren arabera, epe luzera oihan tropikaletan lortutako produktuak egurgintza edo nekazaritza baino errentagarriagoak direla egiaztatuko balitz, oihan tropikalen babesa sustatuko lukete gobernuek.

Hona hemen ikuspegi horren arazoak:

1. Kanpoko munduaren ustez oihaneko produktuak ondasun ustiagarriak direnean, historiak egiaztatu egin du bertako biztanleak produktuak erazteko esplotatzen dituztela eta, batzuetan, oihana bera ere berdin-berdin suntsitzen dutela (merkaturatzean interesgarriak diren landareei baino ez dietelako hazten uzten).
2. Teoria horrek baieztatu egiten du bertako biztanleen arazoak mendebaldeko merkatuei esker konpondu daitezkeela, baina ez du kontuan hartzen eskaria gorabeheratsua dela eta gelditu ere egin daitezkeela.
3. Oihan tropikala eta bertako biztanleak hondatzen dituzten zenbait faktore badaude ere, gobernuek bultzatutako kolonizazioa da arrazo nagusia. Oihaneko produktuak merkaturatzeko aukerak are kolono gehiago erakarri ohi ditu.

*A briefing by* Survival International. A organization supporting tribal peoples. 1992ko ekaina.  
[www.survivalinternational.org](http://www.survivalinternational.org)



<b>Izenburua:</b>	Haize-arrosa
<b>Gaia:</b>	Garapena
<b>Hartzaileak:</b>	12-18 urte
<b>Iraupena:</b>	2 ordu
<b>Arloa:</b>	Gizarte Zientziak
<b>Beharrezko materiala:</b>	Argazkiak, orriak, koloreetako errotuladoreak, kartoi meheak, azetatoak eta gardenkien proiektorea. 1., 2. eta 3. eranskinen fotokopiak.
<b>Helburuak:</b>	Tokian tokiko errealitatearen eta errealitate globalaren arteko loturak zeintzuk diren jakitea. Gizarte, ekonomia, ingurumen eta politika arloko alderdien artean dauden loturak antzematea.

#### Laburpena / Nondik norakoak:

Haize-arrosa zenbait egoeratan agertzen diren antzekotasunei erreparatzen laguntzeko tresna da. Tokian tokiko errealitate hurbileko gaiak edo leku urrunetako, guretzat ezezagunak diren munduko beste leku batzuetako gaiak arakatzeko erabili daiteke. Guretzat hain ezaguna ez den egoeran egin litezkeen galderak abiapuntutzat hartu genitzake, gure tokian tokiko egoeran ideia berriak eskaintzeko.

Haize-arrosak edozein lekutan edo egoeratan garapenarekin zerikusia duten gaien buruzko galderak egitera bultzatzen gaituen esparrua da. Izan ere, tokian tokiko edo nazioarteko edozein gairi buruzko galderak egiteko eta arakatzeko erabili daiteke, beti ere gai horiek ikasleentzat interesgarriak badira.

#### Dinamikaren garapena:


Taldeko dinamizatzaileak haize-arrosaren nondik norakoak azalduko ditu, 2. eranskinean agertzen den eskemaren arabera.

Argazkiak banatu eta taldeei eskatu interesgarriena iruditzen zaien argazkia aukeratzeko. Taldeek kartoi mehe handi baten erdi-erdian jarri beharko dute argazkia, eta, haize-arrosaren bitartez (1. eranskina), lau puntu kardinalekin eta ardatz diagonalekin zerikusia duten galderak asmatu eta orrietan idatziko dituzte. Batzuek ardatz guztietako galderak asmatuko dituzte.

Beste batzuek bururatzen zaizkien galderak egingo dituzte eta haize-arrosaren esparruan jarriko dituzte.

Taldeek argazkiak iradokitako galdera guztiak egin dituztenean, kartoi mehean idatziko dituzte (edo gardenkien proiektorean erabili daitezkeen azetatoan), haize-arrosari dagozkion arloetan, hain zuzen ere. Taldean bertan eztabaidatuko dute; eta ondoren, guztien artean.

Lan horretan oinarrituta, ikerlana antolatu daiteke, egingako galdera guztiei erantzuten ahalegintzeko.

**1. eranskina.** Haize-arrosa**2. eranskina**


Haize-arrosa garapenarekin zerikusia duten gaiei buruzko galderak eta garapenak ingurumenarekin, ekonomiarekin, gizartearekin eta politikarekin dituen loturei buruzko galderak egiteko erabiltzen da. Horretarako, iparraldea, hegoaldea, ekialdea eta mendebaldea alde batera utzi eta honako baliokide hauek erabiltzen dira: izadia, harreman sozialak, ekonomia eta moldaketa politikoa. Puntu diagonalek lau puntu nagusien arteko lotura nabarmentzen dute. Esate baterako, ipar-ekialdeak auzitan jartzen du nolako eragina duten jarduera ekonomikoek ingurumenean bertan. Hego-ekialdeak galderak egiten ditu pertsonen bizimoduan eragina duten alderdi ekonomikoiei buruz.

**IZADIA:**

Ingurumenarekin eta ekologiarekin zerikusia duten galderak: energia, airea, ura, lurzorua eta ingurune naturalaren babesarekin lotura daukaten beste batzuk.

**MOLDAKETA POLITIKOA:**

Honako hauei buruzko galderak: boterea, nork hartzen dituen erabakiak, zer arlotan, nork irabazten duen eta nork galtzen duen erabakien ondorioz eta zeintzuk diren kostuak.

**EKONOMIA:**

Finantzekin, merkataritzarekin, laguntzarekin, jabetzarekin, erosketarekin eta salmentarekin zerikusia daukaten galderak.

**HARREMAN SOZIALAK:**

Biztanleekin, euren harremanekin, ohiturekin, kulturekin eta bizimoduarekin zerikusia duten galderak. Era berean, honako hauei buruzko galderak: generoa, etnia, gizarte-maila, adina eta gizarte-harremanetan eragina duten beste dimentsio batzuk.

### 3. eranskina. Informazio osagarria

Haize-arrosak zeresan adierazgarria izan du gizakien historian, eta garrantzi handiko tresna izan da nabigazioari eta mapei begira.

Zer ikuspegitatik aztertzen dugu egoera?

#### Sinbolismoa

Haize-arrosaren punta bakoitza munduan iparraldearen eta hegoaldearen artean eta ekialdearen eta mendebaldearen artean dagoen banaketa handiaren sinboloa izan da betidanik. Beraz, pentsaeren, lehentasun politikoen eta egitura ekonomikoen adierazgarri da, edozein azalpen geografiko baino gehiago. Sarritan, eskala-kontzeptutzat barik, gure toki-errealitatetzat hartzen dugu tokikotasunaren kontzeptua. Zenbaitek iradokitakoaren arabera, tokian tokikoa/nazionala/globala dimentsioa erabili liteke, munduko edozein lekutako errealitatea aztertzeko. Errealitate hurbilena leku onena izan daiteke, gai globalak jorratzen hasteko. Era berean, gaiaren konplexutasuna eta bertan eragina izan dezaketen faktoreak erakusteko aukera ere eskaintzen du.

#### Zenbait maila

Haize-arrosaren bidez, iraganeko tokian tokiko edozein alderdi arakatu daiteke, eta etorkizunerako aurreikuspenak egin daitezke. Izan ere, egindako galderen sakontasuna adierazle ezin hobea da, haize-arrosa nola erabili daitekeen eta nolako trebetasunak garatu daitezkeen jakiteko.

#### Testuinguru orokorra

Haizeetako arrosaren bitartez, hobeto ulertu daiteke nolako den testuinguru orokorra eta nolakoak diren sistema ekonomiko, politiko eta natural orokorrenekin zerikusia duten faktoreak. Horrez gain, zenbait eragin-eskala aztertu daitezke, tokian tokikotik orokorrera. Haize-arrosaren bidez, tokian-tokian, eskualdean, nazioan eta nazioartean zer faktorek duten eragina eta kasuz kasu nola adierazten diren hausnartu daiteke. Era berean, interesgarria da zenbait mailaren arteko loturak aztertzea.



<b>Izenburua:</b>	Elikagai transgenikoak
<b>Gaia:</b>	Kontsumo eta Bidezko merkataritza
<b>Hartzaileak:</b>	14-16 urte
<b>Iraupena:</b>	Ordubete
<b>Arloa:</b>	Natura Zientziak
<b>Beharrezko materiala:</b>	Internet. 1. eta 2. eranskinen fotokopiak.
<b>Helburuak:</b>	Ezagutza handitzea eta elikagai transgenikoei eta gizartean dituzten eraginei buruzko iritzi kritikoa sortzea.

#### **Laburpena / Nondik norakoak:**

Ikasleek iritzi desberdineko bi testu irakurriko dituzte elikagai transgenikoei buruz. Irakurritakoan, are gehiago ikertuko dute gaiari buruz, eta gatazka horren inguruan daukaten jarrera zehaztuko dute. Osteen, taldeak egingo dituzte, eta elikagai transgenikoen aldeko edo aurkako argudioak prestatuko dituzte, taldearen jarreraren arabera. Amaitzeko, moderatzailearen eztabaida egingo dute ikasgelan bertan.

#### **Dinamikaren garapena:**

---

Iruzkina egiteko bi testu irakurriko dituzte (1. eta 2. eranskinak). Eztabaidatu baino lehen, honako hiru galdera hauek proposatuko zaizkie:

- Argi eta garbi dago elikagai transgenikoek era guztietako iritziak eta jarrerak sortarazten dituztela eta oso zaila dela gatazka baretzea. Testuak irakurritakoan, zer iritzi duzue gaiari buruz?
- Asko eta asko idatzi da gai eztabaidatu honi buruz. Gehiago ikertu, horrelako elikagaien inguruan zer jarrera daukazu zehazteko. Informazio gehiagarria: [www.aula21.net/Nutriweb/transgenicos.htm](http://www.aula21.net/Nutriweb/transgenicos.htm)
- Iritzi berekoak zareten bost laguneko taldeak egin. Zuen iritzia oinarritzeko argudioak azaldu, osteko eztabaidan defendatu ahal izateko.

Eztabaidaren ostean:

- Azaldutako gatazkaren aurrean, nola garatu duzue eztabaida?
- Nolako zailtasunak izan dituzue? Zertan lagundu dizue ariketaren dinamizatzailerak?
- Zuen ustez, beharrezkoa da kanpoko norbait egotea zenbait gatazka jorrazteko orduan?
- Noiz da interesgarria bitartekaritza edukitzea?
- Ados jarri zarete edo antzeko ikuspegiak izan dituzue?

## 1. eranskina. Genetika eta elikagaiak: hobe prebenitzea sendatzea baino

(...)

Testu hau Ramón Vidalen artikuluari emandako erantzuna da, eta, gure ustez zehaztugabetasun eta akats zientifiko handiak agertzen dira bertan. Era berean, testuan bertan azaldu egiten da zergatik uste dugun gizarteko zenbait sektorek (zientzialariek, kontsumitzaileek, ekologistek, sindikalistek, nekazariek...) manipulazio genetikoaren ondorioz lortutako elikagaiak gaur egun ez direla batere seguruak.

Manipulazio genetikoaren ondorioz lortutako elikagaiak (transgenikoak edo errekonbinanteak) ingeniariatza genetikoaren bidez beste espezie batzuen geneak jaso dituzten organismoetatik datozenak dira. Landare edo animalia jangarrikan kanpoko geneak sartzeko, ingeniariatza genetikoan eraldaketarako bektorea deritzon tresna erabili beharra dago: sarritan sarkomak, leuzemiak eta antzeko gaixotasunak eta tumoreak eragiten dituzten “bizkarroi genetikoak”; esate baterako, plasmidoak eta birusak. Euren ezaugarri patogenoak desagerrarazteko asmoz, bektore horiek laborategian “moztu” ohi badira ere, bektore horiek berriro aktibatzeo eta patogeno berriak sortzeko gaitasuna dutela egiaztatu da. Horrez gain, bektore horiek gene markatzaileak daramatzate askotan, eta erresistentzia sortzen dute antibiotikoen aurrean. Horra hor kanamizina (Novartisko tomate trans-

genikoan dagoen genea). Bestetik, erresistentzia horiek bakterioekin bat egin dezakete (gure hesteetan, uretan edo lurzoruan). Antibiotikoei aurre egiten dieten andui bakteriano patogeno gehiagoren agerpena arriskutsua da osasun publikorako, eta ez dago inolaz ere arazoa puzterik (OME - Osasunerako Mundu Erakundeak behin eta berriro gogorazten digu arazoa).

Ingeniaritza genetikoak geneak manipulatzeko tresna ahaltsua izan arren, gaur egun hutsune handia dago manipulatu beharreko landarearen edo animaliaaren funtzionamendu genetikoari buruzko ezagutzan. Zer gene aktibatu eta desaktibatzen dira organismoaren bizi-zikloan zehar, nola eta zergatik? Nolako eragina du sartutako gene berriak genomaren gainerako funtzionamenduan? Nola aldatzen du inguru-neak landatutako landarearen geneen pizketa edo itzalketa? Gaur egun, galdera horiek guztiek ez dute erantzunik, neurri handia batean.

Manipulatutako organismoaren genomaren gene berriak sartzen direnean, aurretik esan ezin diren aldaketak gertatzen dira bere funtzionamendu genetikoan eta zelulen metabolismoan. Horren ondorioz: a) kontsumitzaileengan alergia-prozesuak eragiten dituzten proteina arrotzak sortu daitezke (Pioneerreko soia transgenikoari buruzko azterlanek egiaztatu egin zuten erreakzio alergikoak sortzen zituela, manipulatu gabeko soiak

halakorik eragiten ez bazuen ere. b) manipulatu gabeko elikagaian ez dauden substantzia toxikoak sortu daitezke (AEBetan, genetikoki aldatutako bakterioak eragindako aminoazido triptofanoa irenstean, 27 lagun hil ziren eta 1.500etik gora kaltetu egon ziren. c) ezaugarri elikagarriak aldatu daitezke (azukreen, koipeen, proteinen, bitaminen... proportzioa).

Ingurumenerako arriskuak osasunerako arriskuak baino askoz kezagarriagoak dira. Laborantza transgenikoen hedapenak biodibertsitatea jartzan du arriskuan, higadura zein kutsadura genetikoak sustatzen ditu eta herbiziduen erabilera bultzatzen du. Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundearen (ELGEn) txostenaren arabera, azken urteotan laborantza transgenikoen bidez egin diren landa-saiakuntzen %66k herbizidei aurre egiteko moduko landareak sortzea izan dute helburu.

(...)

Gregorio Álvaro Campos, bioteknologoa, UCMko Biokimika eta Biologia Molekular Saileko irakaslea eta Aedenat-eko kidea.

Jorge Riechmann, politologoa, Bartzelonako Unibertsitateko irakaslea eta CCOOko Konfederazioko Ingurumen Saileko kidea.

EL PAÍS, 1998ko otsailaren 4a, asteazkena

## 2. eranskina. Nutrizioa eta elikagaien bioteknologia

Azken asteotan, zenbait talde ekologistak elikagai transgenikoen aurkako kanpainak egin dituzte berriro. Argudioa bera da: arriskutsua da elikagaiok jatea, arazoak sortzen dituzte ingurumenean eta ekoizten dituzten transnacionalentzat baino ez dira onuragarriak. Egia ote da? Lehenengo eta behin, elikagaiok zer diren ulertu behar da: produktu bioteknologikoak dira, eta, lortzeko orduan, ingeniari-tza genetikoko teknikak erabili dira. (...)

Seguruak dira osasunerako? Irizpide zientifikoak kontuan hartuz gero, supermerkatuko edozein bezain seguruak edo seguruagoak dira. Teknologia genetikoa esker, askoz hobeto dakigu zeintzuk diren patata transgenikoan sartutako aldaketak hobekuntza klasikoaren bidez erdietsitako landare horren ohiko barietatean baino. Horrez gain, patata transgeniko hori merkaturatu ahal izateko, laborategiko proba luzeak gainditu behar ditu, zer osaketa duen jakiteko eta toxikoa ez dela egiaztatzeko. Orduan baino ez da saltzeko prest egongo. Ez dira ohi bezalako edo garrantzirik gabeko probak. (...) Kontrol horren aurrean, gogoan izan behar dugu hobekuntza klasikoaren bitartez lortutako ohiko elikagai guztiek ez dituztela proba horiek gainditu behar. Hala ere, inork ez du ezer esaten, bere ondare genetikoko zenbat leku aldatu diren ez jakin arren. Kontsumitzaileok kontrol-maila bera eskatu beharko genuke elikagai guztietarako, transgenikoak izan ala ez izan.

Transgenikoak arriskutsuak dira naturarentzat? Elikagai horien aurka dau-

denek halaxe uste dute, eta, batez ere, barazki transgenikoak omen dira arriskutsuenak. Batetik, adierazi egiten dute aldatutako genea barietate transgenikotik espezie basatietara transferitu daitekeela, eta, horren ondorioz, oreka ekologikoa hautsi daitekeela. Transferentzia-fenomeno horiek oso oso gutxitan gertatzen dira naturan. Hori dela eta, espezie transgenikoen liberazioa kontrolatzen da. Dena den, irakurleek jakin egin behar dute kontrol hori egin egiten dela eta, landare transgenikoak ingurumenera liberatu nahi izanez gero, adituen batzordeak ebaluatutako eta jarraitutako eskabideak egin behar dela alde aurretik. Bestetik, zenbait talde ekologistaren ustez, landare-barietate transgenikoek biodibertsitatea mehatxatu dezakete. Historiara joz gero, argi eta garbi ikusiko dugu kontsumitzaileok elikagaien biodibertsitatearen aurkako eraso handienak garatzen ditugula egunero. (...)

Agerikoa denez, transgenikoak ekoizten dituzten konpainiek mozkinak lortu nahi dituzte produktuok saltzean. Konpainia batzuek bere garaian adierazi zuten transgenikoek munduko goseari aurre egingo ziotela. Inolako zalantzarik gabe, publizitate-kanpaina baldarra izan zen, oso nabaria delako arazoak ingeniari-tza genetikorik gabe daukala erantzuna. Izan ere, soberako elikagaiak hobeto banatu besterik ez dago. Bestetik, transgenikoen aurkako azaldu egiten dute hazi transgenikoen merkaturatu konpainia transnacional gutxi batzuen esku egongo dela

eta, horren ondorioz, monopolioak sortzeko arriskuak daudela. Badakizue zenbat konpainiaren esku dago hazi ez-transgenikoen salmenta? I+Gn inbertitzeko gaitasuna eta ausardia eduki duten konpainia berberen esku. Automobiletan gertatzen den bezala, bi dozena konpainia baino ez dira. Labur-labur esanda, agerikoa da transgenikoen ondorio ekonomikoak zeintzuk izango diren esaterik ez dagoela, neurri batean, eta ondorio horiek oso garrantzitsuak direla, garapen teknologiko guztietan bezala. Edonola ere, hausnarketa ekonomiko hau amaitzeko, oso garrantzitsua da kontsumitzaileei adieraztea transgenikoak ez direla laborategi pribatuetan bakarrik gartzten. Hain zuzen ere, finantziario publikoa daukaten zentro publikoek ere ikertzen dute ekoizpen hori.

Transgenikoen ekoizpena zentro publikoetan ikertzen dugunok bi talderen arteko gatazka dugu aurrean. Multinazional ekoizleez eta ekologiko multinazionalez ari gara. Funtzionario publikoek gure soldata ordaintzen duten kontsumitzaileei azaldu behar diegu zein den errealtate zientifikoa. Horrela, bada, erabaki hartu ahal izango du. Zoritzarrez, Espainian erraza da esaten baina ez egiten. Zerk saltzen du gehiago: produktu baten aurkako publizitate-kanpainari buruko albistek ala iritzi zientifiko arrazoituak?

Daniel Ramón Vidal, CSICko Elikagaien Zientzia eta Teknologia koordinatorazale nazionala.

EL PAÍS, 1997ko abenduaren 20a, larunbata.





<b>Izenburua:</b>	Premia eta kontsumoa
<b>Gaia:</b>	Kontsumo eta Bidezko merkataritza
<b>Hartzaileak:</b>	16-18 urte
<b>Iraupena:</b>	50 minutuko bi saio
<b>Arloa:</b>	Ekonomia
<b>Beharrezko materiala:</b>	Internet. Fotocopias 1. eranskina.
<b>Helburuak:</b>	Gaur egungo kontsumo-ereduari eta kontsumo arduratsuen garrantziari buruz hausnartzea eta zer den jakitea. Datuak eta ehunekoak behar den moduan erabiltzen ikastea eta datuotan oinarritutako irudikapen grafikoak egitea.

#### **Laburpena / Nondik norakoak:**

Testuan eta galderetan oinarrituta, ikasleek taldean hausnartu eta eztabaidatuko dute premiei eta kontsumo-ereduari buruz.

#### **Dinamikaren garapena:**

---

Gaur egungo kontsumo-ereduari eta premiei buruzko testu laburrean oinarrituta, kontsumo nabarmenaren gainean hausnartuko dute taldeetan. Horretarako, publizitatea aztertuko dute, eta pertsonen urteko batez besteko gastuari buruzko datuak bilatu eta erkatu egingo dituzte (1. eranskina). Amaitzeko, txirotasunaren eta kontsumo-ohituen arteko gatazka azaldu eta ikasleei eskatu maila pertsonalean eta globalean gatazka horri nola aurre egin behar dioten hausnartzeko.

#### **IRADOKIZUNAK:**

Ikasleek urteko batez besteko gastuari buruzko datuak bilatzen lagundu nahi izanez gero, Estatistikako Institutu Nazionalaren web orrira jo besterik ez dago: [www.ine.es/](http://www.ine.es/)

Horrez gain, Nazio Batuen Garapenerako Programak (NBGPk) egindako Giza Xirotasunaren Indizea (GTI) eman diezaiekegu, eta garapen handiko zein garapen ertain-txikiko herrialdeentzat dauden aldeak balioetsi ditzakete: [www.undp.org.ni/publicaciones/superar\\_pobreza\\_humana/index.htm](http://www.undp.org.ni/publicaciones/superar_pobreza_humana/index.htm)

**1. eranskina**

Hasiera batean, jarduera ekonomikoak oinarrizko premiei aurre egitea beste helbururik ez zuen.

**Gure ustez, zer dira premiak?**

Premiak gabeziak gehi gabezia horiek desagertzeko desioak dira. Hona hemen premia-motak:

- Ezinbestekoak edo oinarrizkoak: elikadura, etxebizitza, osasuna, hezkuntza...
- Materialak: autoa, zinea, antzerkia...
- Sozialak: maitasuna, taldekidetzatza...
- Estimaziokoak: prestigioa, estatusa...

Gaur egun, premiei aurre egiteko prozesua sustatzen da, pertsonen maila ekonomiko eta sozialaren arabera. Horiek horrela, azken 50 urteotan, gizakiok lehen baino askoz diru gehiago gastatzen dugu garraioetan, komunikazioetan, etxebizitzan, berokuntzan eta argian.

Gizarteak bilakatzean, aldaketak gertatu dira. Gaur egun, oinarrizko premiei aurre egiten diegu, eta, aldi berean, kontsumo nabarmenari bidea urratzen dioten azaleko beste gabezia batzuk estaltzen ditugu.

Kontsumo-ereduak aldatu egin dira estali nahi ditugun premien arabera. Hala ere, zeintzuk dira benetako premiak eta azaleko premiak? Oso garrantzitsua da antzematea, baliabideak ez eralgitzeko.

Taldean hausnartzeko:

1. Ohiko kontsumoaren adibideak eta kontsumo nabarmenaren adibideak hartuko ditugu kontuan.
2. Aurreko adibideak, baliagarriak dira Indiako familia batentzat? Zergatik?
3. Zuen ustez, nola edo zergatik sortzen da kontsumo nabarmena?
4. Zer faktorek daukate eragina gure premiak zeintzuk diren zehazteko orduan? Zergatik kontsumitzen ditugu gauza batzuk edo beste batzuk?
5. Zenbait egunetan, telebista ikusi, prentsa idatzia irakurri eta itxurazko premiak sortu eta kontsumo nabarmena bultzatzen duten publizitate-iragarkiak bilatu.
6. Pertsonako urteko batez besteko kontsumoari buruzko gaur egungo datuak bilatu ehunekotan eta grafiko batean irudikatu. Duela 50 urteko datuak bilatu, grafikoan irudikatu eta emaitzak erkatu. Zer adierazten digute? Nolako premiak estaltzen ditugu gaur egun?  
*Kontsumo nabarmena txirotasunarekin dago gatazkan, hau da, pertsonen premia-egoerarekin edo eskasiarekin. Egoera horretan, hain zuzen ere, pertsonak ez dituzte oinarrizko premiei aurre egiteko besteko baliabideak. Egoera hori herrialde guztietan gertatzen da, intentsitatea desberdina bada ere.*
7. Nola aurre egin txirotasunaren gatazkari kontsumoari dagokionez? Gure kontsumo-jarrerak inolako zerikusirik daukate egoera horren sendotasunarekin?



<b>Izenburua:</b>	Ez-indarkeria, gerraren aurrean
<b>Gaia:</b>	Bakea eta gatazkak
<b>Hartzaileak:</b>	14-16 urte
<b>Iraupena:</b>	50 minutuko bi saio
<b>Arloa:</b>	Gizarte Zientziak, Etika eta Historia
<b>Beharrezko materiala:</b>	1. eranskinaren fotokopiak.
<b>Helburuak:</b>	Ez-indarkeria aktiboan oinarrituta, gatazkak negoziatzeko, tratatzeko eta konpontzeko estrategiak ikastea eta barruratzeko errealitateak hartutako zenbait kasu praktikoren bidez. Testuinguruak, egoera bakoitzeko osagai bereziak eta euren ikuspegi, interes zein premien ondorioz pertsonen artean ezartzen diren alde politikoak eta ideologikoak balioestea.

#### **Laburpena / Nondik norakoak:**

Taldeka, konpondu beharreko zenbait gatazka proposatuko dizkiegu, eta, gatazkek aztertu eta konpondu ondoren, taldearen aurrean azalduko dituzte.

#### **Dinamikaren garapena:**

Ikasleak bost taldetan banatu eta, banan-banan, 1. eranskinean adierazitakoak bezalako lurralde eta etnia gatazkak azaldu. Gatazkak azalduzakoan, taldeei eskatu arazoari aurre egiteko, bertan esku hartzen duten osagai guztiak eta bete beharreko baldintza orokorrak kontuan hartuta. Esate baterako, bortitzak ez diren prozeduren erabilera edo gatazkak tratatzeko faseen edo urratsen ezarpena. Hori guztiori kontuan hartuta, lehenetsitako helburuak eta gutxienez lortu daitezkeen xedeak zehazteko eskatu.

Egindakoa denen aurrean azalduko dute, eman ditzaketen irtenbide ugarien artean zein aukeratu duten alderatzeko. Horiek horrela, jokoan jarritako balioak eta jarrerak argituko dituzte, eta gaur egungo zein historiako benetako egoerak ebaluatuko dituzte.

#### **ZENBAIT GOMENDIO:**

Batez ere, ez-indarkeria aktiboaren ekarpena eta bere prozedurak balioetsi behar dira, azalduzako gatazkei aurre egiteko orduan. Sormen eta irudimen handia eduki behar da, eta bakearen aldeko alderdi aktibo eta dinamikoak utzi behar dira agerian. Ekintza ez-bortitzak oso egoera gatazkatsuen aurrean ebaluatzeko orduan, oso egokia da John Paul Lederachek “Educar para la Paz, objetivo escolar”, Bartzelona, Fontanamara, 1984, (68-92. orr.) liburuan horri buruz egiten dituen hausnarketak.

**1. eranskina.** Gatazka etnikoen zenbait adibide**1. taldea**

Alboko estatuan, programa ultra nazionalista oldarkorra daukan alderdiak gobernatzen du, biztanleen gehiengoaren babespean. Bertako armadak zuen lurraldea inbaditu eta okupatu egin du indarrez, zuenean euren etniako jendea bizi delako eta “sorterrira” itzuli behar delako. Jende “desberdin” hori aspaldi iritsi zen, eta bertako gainerako biztanleekin nahastuta daude. Dena den, meataritzako baliabide ugari dituzten eskualde mugakideetan, erkidego handiak osatzen dituzte herri handienetan.

**2. taldea**

Zuen lurraldean, bi etnia nagusi daude: bata lurraldean zehar sakabanatuta dago, herrixka txikietan eta landa-guneetan; bestea hiri nagusietan finkatu da eta industria zein merkataritza ditu bizibide. Orain arte, ez zegoen arazorik bi etnien arteko bizikidetzan, baina gaur egungo krisi ekonomikoaren ondorioz nekazari askok hirietara emigratu behar izan dute eta hiriguneetako industriak eta saltegiak itxi dituzte. Bi etniak lanpostuengatik borrokatzen direnez eta aldirietako bizi-baldintzak txarrak direnez, indarkeria areagotu egin da eta alderdi politikoak euren hauteskunde-kanpainak erabiltzen ari dira, euren jarraitzaileak mugiarazteko.

**3. taldea**

Historiari begira, zuen lurraldea herri eta etnia desberdinen nahasmenduan oinarrituta eratu da. Urteak joan, urteak etorri, ordea, integrazio kulturalaren eta gizarte-homogeneotasunaren maila nolabaitekoa da. Etniari eta kulturari begira oso desberdinak diren atzerri ugari iritsi dira herrialde horretara. Hala ere, euren prestakuntza oso ona hezkuntzaren eta lanbidearen arloan. Gehienek arrazoi politiko eta ekonomikoaren ondorioz emigratu dute. Hori dela eta, oreka demografikoa sortu da, etorkinen kopurua nabaria delako eta iritsi berriak indarrez bota nahi dituzten talde xenofoboak agertu direlako.

#### 4. taldea

Bi etnia daude, taldekideen erdiak batekoak dira; eta beste erdiak, bestekoak. Biak lehian ari dira euren arteko lurralde mugakidearen ondorioz. Bataren esanetan, lurrok euren jatorrizko leku historikoak izan ziren; eta bestearentzat, eremu hori ezinbestekoa da biziraupen ekonomikoari begira. Muga politiko banatzaileak lurraldea gurutzatzen duen arren, etnia bakoitzak beretzat nahi du oso-osorik. Sarritan, muga zaintzen duten patruilen arteko eraso armatuak gertatzen dira. Bi herrialdeetako alderdi politiko gehienek negoziatutako edo indarraren bidezko atxikimendua aldarrikatzen dute euren programetan, eta komunikabideak gatazka bera sustatzen dute.

#### 5. taldea

Hizkuntzari eta kulturari begira oso nortasun bereizgarria daukan herria lurralde batean bizi da, eta Europako kolonizazioak zenbait estatutan banatu zuen. Estatu bakoitzean, gainera, aipatutako herrikoa ez beste era bateko etnia da nagusi. Orain, banatuta dagoen herriak berezko estatua eduki nahi du, bere batasuna hausten duten estatuetako lurraldeen kontura. Estatu bakoitzeko bizimodua oso desberdina da, diktadura militarretako edo mendebaldekoen antzeko demokrazia formaletako araubide politikoaren arabera eta autonomia-mailaren arabera. Izan ere, kasuan kasuko gobernuak apartheid alde batera utzi eta bete-betean onetsi ditu eskubide linguistiko eta kulturalak, bai eta autogobernurako erakunde politikoak ere. Herrian bertan, banaketa handia dago ekintza bortitzen aldekoen eta negoziaketaren zein presio politikoaren aldekoan artean. Beraz, norgehiagoka irekiak gertatu dira, eta barruko gerra zibila ere eragin dezakete.

#### Beste material lagungarri batzuk:

Datuak era guztietako agiri osagarrien bidez biribildu daitezke. Horra hor mapak, estatistika errazak, izenak eta testu historikoak. Edozein urtekaritan, xehetasunez azaltzen dira gaur egungo gatazkak, eta, horri esker, aurkeztutako kasuetako errealitateak kokatu daitezke geografiari eta historiari dagokienez. Era berean, historiara ere jo daiteke, ikasgelara eramatean motibatzaileak diren gatazka-ereduak aurkezteko.



<b>Izenburua:</b>	www.globalizazioa!!!
<b>Gaia:</b>	Komunikazioa
<b>Hartzaileak:</b>	16-18 urte
<b>Iraupena:</b>	Ordubete
<b>Arloa:</b>	Gizarte Zientziak
<b>Beharrezko materiala:</b>	Internet. Fotocopias de los Anexos 1 a 4.
<b>Helburuak:</b>	Teknologia berriek herrialde aberatsen eta herrialde txiroen arteko haustura nola areagotzen duten aztertzea.

**Laburpena / Nondik norakoak:**

Gazteek testu bana irakurri eta galdera batzuei buruz hausnartu behar dute.

**Dinamikaren garapena:**

Taldekideek 1. eranskinean agertzen diren testuak irakurri behar dituzte, 2. eta 3. eranskinetako grafikoak aztertu, eta jarraian proposatutako ariketak burutu.

1. Taula hau osatzeko, 2. eranskinaren grafikoaren informazioa erabili eta munduko biztanleen erroldak bilatu.
2. Zer ondorio atera ditzakezu herrialde garatuetan Internetek daukan erabilerari buruz, osatutako taulari erreparatuta?
3. Laburpentxo batean azaldu gaur egun zergatik erabiltzen den gutxiago Internet garapen-bidean

dauden herrialdeetan herrialde garatuetan baino. Honako alderdi hauek aipatu behar dira:

- a. Konexio-kostu handiek duten eragina Internet erabiltzeko orduan.
- b. Non bizi diren ingeles-hiztun gehienak. Ingelesa Interneten gehien erabiltzen den hizkuntza da eta munduko biztanleen %15ek hitz egiten dute.
- d. Zergatik dauden ordenagailudun pertsona gutxiago leku batzuetan eta gizarte-maila jakin batzuetan.

Kontinentea	Interneteko erabiltzaileen kopurua, 10.000 biztanleko
Ipar Amerika	
Australia	
Europa	
Asia	
Amerika Latinoa	
Afrika	

e. Lehen adierazitako guztiaren ondorioz, leku batzuetan ordenagailuen arteko konexio gutxiago daude. Zeintzuk dira leku horiek eta zer eragin dute Interneten erabileran?

Eranskinean agertzen den testua irakurri ondoren, jarduera hauek egin behar dituzte:

1. Balantza marraztu eta Interneterako sarbideak hiru herrialdetako hiru pertsonari dakartzkien abantailak eta desabantailak jarri alde batean eta bestean. Herrialde bat aukeratu zerrenda bakoitzean:
  - Kanada, Zelanda Berria, Espainia, Japonia.
  - Brasil, Txina, Mexiko, Polonia.
  - Ghana, Vietnam, Bangladesh, Zambia.

2. Zure ustez, zer herrialdetan da erabilgarriagoa Internet?
3. Gaur egungo egoera aldatu egingo dela dioen zantzurik ote dago? Interneten erabilgarritasuna berdina da aukeratu dituzun herrialdeetako pertsona guztientzat?

Informazio gehiago behar izanez gero:

- Network Wizards: [www.nw.com](http://www.nw.com)
- Hegoaldeko erakundeen ataria: [www.choike.org](http://www.choike.org)
- Worldwatch Institute: [www.worldwatch.org](http://www.worldwatch.org)
- Nazio Batuen Funtsa Biztanleentzat: [www.unfpa.org/sitemap/sitemap-esp.htm](http://www.unfpa.org/sitemap/sitemap-esp.htm)


**1. eranskina.** Nor dago sarera konektatuta?

Globalizazioak merkataritzan, inbertsioetan eta garapen ekonomiko eta sozialean izan du eragina, baina horrez gain, eragin itzela eduki du komunikazio orokorretan. Mundu zabaleko komunikazioek hobera egin dute, gero eta lagun gehiagok daukatelako sarera konektatutako ordenagailua. Hori dela eta, are handiagoa izan da globalizazioaren eragina. Dena den, komunikazioen hobekuntzak ez du eragin bera izan herrialde aberatsetan eta txiroetan.

Azken hamar urteotan, sare orokorrera konektatutako ordenagailuen kopurua bikoiztu egin da urtero (ikus 2. eranskina). Zenbatespenen arabera, ordenagailu bakoitza 3-6 lagunek erabiltzen dute. Era berean, 1999an sarera konektatuta zeuden 60 milioi ordenagailuak mundu zabaleko 200 milioi inguru lagunek erabiltzen zituzten.


Hori horrela izanik ere, Interneteko erabiltzaileen banaketa oso desberdina da munduan (ikus 3. eranskina). Interneterako sarbidea daukaten lagunen %90 baino gehiago herrialde aberats eta industrializatuenetan bizi dira. Hain zuzen ere, Interneterako sarbidea daukaten pertsonen erdiak baino gehiago Amerikako Estatu Batuetan bizi dira; bosten bat, Europan; eta seiren bat, gutxi gorabehera, Asian (Japonia kontuan hartuta).

Munduko biztanleen %80 inguru herrialde txiroetan bizi direla aintzat hartuz gero, Interneterako sarbidea daukaten pertsonen kopurua oso txikia da herrialde horietan, mundu zabaleko erabiltzaileen %8 inguru baino ez direlako (irakurri 4. eranskina).

**2. eranskina.** Interneteko domeinuen kopuruaren bilakaera



### 3. eranskina. Interneteko erabiltzaileak, kontinenteen arabera



Iturria: Nua Internet Surveys, Interneteko Erabiltzaileen Elkartearen wen orritik hartua ([www.aui.es](http://www.aui.es))

### 4. eranskina. Zer gertatuko da etorkizunean?

Interneten erabilerari begira, mundu garatua oso aurreratuta badago ere, herrialde txiroak egunean jartzen ari dira gai honi dagokionez. Txinan, Errusian eta Brasilen, oso azkar igo da Interneterako sarbidea daukaten lagunen kopurua. Hori dela eta, globalizazioaren ondorioak onak dira herrialde horietako jende askorentzat. Esate baterako, Interneterako sarbideari esker, garapen-bideko herrialdeetako zenbait lagunek euren produktuak merkaturatu ditzakete munduko merkatuetan. Horiek horrela, erosteko eta saltzeko gaitasun handiagoa daukate, informazioa hobeto eskuratzen dute eta dirua irabazteko aukera gehiago dituzte.

Munduko milioika lagunek ez dute osasuna, elikagaiak eta hezkuntza eskuratzeko aukerarik, eta saneamendu-sistematik ez duten hiri eta herrietan bizi dira. Merkataritza-helburuetarako Interneterako sarbideak ez die inolako etekinik sortzen pertsona horiei, epe laburrari begira, behintzat. Planetako leku txiroenetan bizi diren pertsonentzat, Internet erabilgarria izan aiteke euren medikuari osasun-informazioa bidaltzeko (medikua urrun badago) edo giza eskubideei edo ingurumenaren hondamendiari buruzko informazioa jasotzeko.

<b>Izenburua:</b>	Bananak
<b>Gaia:</b>	Kontsumo eta Bidezko merkataritza
<b>Hartzaileak:</b>	12-16 urte
<b>Iraupena:</b>	Ordubete
<b>Arloa:</b>	Gizarte Zientziak
<b>Beharrezko materiala:</b>	1., 2. eta 3. eranskinen fotokopiak.
<b>Helburuak:</b>	Munduko merkataritzaren loturak nolakoak diren eta merkataritza horrek tokian tokiko ekonomietan nolako eragina duen ulertzea. Bidezko merkataritzaren ahalmena arakatzeko.

#### Laburpena / Nondik norakoak:

Azken urteotan, Barlovento Uharteetako industria itzelezko presiopean egon da, Costa Ricako, Ekuadorreko eta antzeko herrialdeetako “dolar bananen” ekoizle handien lehiaren ondorioz. Hurrengo ariketetan, Barlovento Uharteetako biztanleek, ekonomiak eta ingurumenak jasaten duten presioak eragindako “domino-efektua” aztertuko da.

#### Dinamikaren garapena:

Testua (1. eranskina) eta 2. eranskinean marraztutako fitxetako esaldiak irakurtzeko eskatu neska-mutilei. Euren arteko lotura dutenak parekatu ondoren, taldean azalduko dute zer uste duten *"Zer gertatzen zaio antzina oparoa zen eskualdeari?"* galderari buruz.

Taldeek gainerako ikaskideekin eztabaidatuko dituzte ondorioak. 2. eranskinaren kopia itsatsi daiteke kartoi mehean eta esaldiak ebaki daitezke, taldeek domino-pieza moduan erabili ditzaten. Nolako izango litzateke eragina kate horretako bananak desagertuko balira?

3. eranskina irakurri eta gero, galdera hauek erantzun behar dituzte eztabaida sustatzeko:

- Zer egingo zenuke horrelako aurrekontua izanda?
- Zeintzuk izango lirateke abantailak eta desabantailak dirua bi astean behin edukitzean?
- Eta dirua urtean behin jasotzean?

Web orri interesgarriak:

Human Rights Watch:

[www.hrw.org/spanish/informes/2002/cosecha6.html](http://www.hrw.org/spanish/informes/2002/cosecha6.html)

Fyffes Bananas: [www.fyffes.co.uk](http://www.fyffes.co.uk)

Oxfam fair trade: [www.maketrade4fair.com/es/index.htm](http://www.maketrade4fair.com/es/index.htm)

Fairtrade foundation: [www.fairtrade.org.uk](http://www.fairtrade.org.uk)

#### Ebaluazioa

- |   |  |
|---|--|
| • Zeintzuk dira gai honetako bi gauza garrantzitsuak? | • Nolako eragina du nigan?                       |
| • Zergatik dira garrantzitsuak?                       | • Nola erabiliko dut orain daukadan informazioa? |
| • Nola sentitzen naiz?                                | • Zer gehiago jakin nahi nuke gai honi buruz?    |

## 1. eranskina. Barlovento Uharteak

Barlovento Uharteak Kariben daude. Estatu-uharte independente txikiak uhartedia osatzen dute. Bananagintza esportazio industrialaren eta lanpostu gehieneren oinarri nagusietakoa da. Bananondo gehienak lursail txikietan landatzen dituzte familia nekazariak, emakumeak, batez ere.

Azken urteotan, Barlovento Uharteetako industria itzelezko presiopean egon da, Costa Ricako, Ekuadorreko eta antzeko herrialdeetako “dolar bananen” ekoizle handien lehiaren ondorioz. Hurrengo ariketetan, Barlovento Uharteetako biztanleak, ekonomiak eta ingurumenak jasaten duten presioak eragindako “domino-efektua” aztertuko da.

## 2. eranskina. Barloventoko misterioa. Zer gertatzen zaio antzina oparoa zen eskualdeari?

BANANEN SALMENTA DIRU-SARREREN OHIKO ITURRIA DA FAMILIA NEKAZARIENTZAT.

BANANEN MERKATARITZAK HERRIXKETAKO, HERRIETAKO ETA HIRIETAKO BIZTANLEEI EMATEN DIE LANA.

BARLOVENTO UHARTEETAKO FAMILIA GEHIENEK BANANAREN LABORANTZA DUTE BIZIBIDE.

FAMILIA NEKAZARIEK BEHAR DUTENA EROSTEN DUTE TOKIAN TOKIKO MERKATUETAN ETA HIRIETAN.

BANANAK BARLOVENTO UHARTEETAKO PRODUKTU ESPORTATUENAK DIRA.

FAMILIEK NESKA-MUTIKOENTZAKO ESKOLA-LIBURUAK EROSTEN GASTATZEN DITUZTE IRABAZI GEHIENAK.

BANANAK SALTZEAN LORTUTAKO DIRUA ESKOLAK ETA ERKIDEGOKO BESTE ZERBITZU BATZUK HOBETZEKO ERABILTZEN DUTE.

ESPAINIAKO JENDEAK BANANA MERKEAK EROSI NAHI DITU.

	LANGABEZIA-TASAK GORA EGIN DUENEZ, KRIMINALTASUN-INDIZEA ETA SEGURTASUNIK EZA AREAGOTU EGIN DA HIRIETAN.		GERO ETA FAMILIA GEHIAGOK EMIGRATZEN DUTE HIRIETARA LAN BILA.
BANANAK EKOIZTEA ASKOZ GARESTIAGOA DA BARLOVENTO UHARTEETAN, LURZORUA OSO MALKARTSUA DELAKO.		ERDIALDEKO AMERIKAKO HERRIALDEEK BANANA MERKEAGOAK EKOIZTEN DITUZTE.	
	BANANEN KOPURUAK BEHERA EGINEZ GERO, LANGABEZIAK GORA EGINGO DU.		BANANONDOAK BEDERATZI HILABETETAN DAUDE LEHENGO MODUAN, URAKANAK IGARO OSTEAN.
EREMU ASKOTAN, LUIZIAK EGON OHI DIRA, LURZORUA OSO MALKARTSUA DELAKO.		BARLOVENTO UHARTEETAN URAKANAK DAUDE URTERO.	
	UHARTEETARA DOAZEN TURISTEN KOPURUA JAITSI EGINGO DA.		MANGOAK ETA BESTE PRODUKTU BATZUEK 10 URTE ERE BEHAR DITUZTE, URAKANAK IGARO ONDOREN LEHENGO MODUAN EGON AHAL IZATEKO.
TOKIAN TOKIKO ESKOLAK URAKANEI AURRE EGITEKO MODUAN ERAIKI DIRA.		NESKA-MUTIKOEK EUREN LIBURUAK EROSI BEHAR DITUZTE ESKOLARA JOATEKO.	

### 3. eranskina. Zergatik landatzen dituzte bananondoak?

*“Barlovento Uharteetan bananondoak landatzen dituztenek bidezko merkataritza egiten dute, uharteetan ekoiztiko banana guztiak horrelaxe merkaturatzen ez badira ere.”*

Simeone Greene, Barlovento Uharteak

Familia nekazari gehienek ekainean jasotzen dute urteko uztaren truke dagokien soldata nagusia. 80 hektareako lurrek 7.500 euroko urteko irabaziak sortzen dituzte Barlovento Uharteetan.

Urtean zehar, familia nekazariak sortutako gastuak ordaintzen gastatzen dute dirua (esate baterako, gasolina, jatekoa, etxebizitza...). Horren ondorioz, lursail txikiek gastu askori aurre egin behar diete, diru gutxi eduki arren. Aurrezki gehiago dituzten lursail handientzat, ordea, ez da hainbesteko arazoa.

Familia nekazariak langileei soldatak ordaintzen eta ustiatagia artatzen gastatzen dituzte irabazien erdiak. Soberako dirua astero administratu behar dutena da. Zer gertatuko litzateke apirilean edo maiatzean aste horietarako aurreikusitakoren %20 gastatuko balute? (Esate baterako, medikuarenera joan beharko balira edo eskolarako liburuak erosi beharko balituzte). Zer geratuko litzaieke bizitzeko?

Bananak ez dira urtaroen arabera biltzen, hau da, urtaro guztietan hazten dira eta etengabe hazten ari dira. Hori dela eta, nekazariak hamabost egunean behin saldu dezakete bildutakoa, ez bakarrik urtean behin. Azkenean, urteko uztaren bidez beste irabazten dute, baina pixkanaka-pixkanaka lortzen dute dirua.



<b>Izenburua:</b>	Nortasun anitzak
<b>Gaia:</b>	Kultura artekotasuna
<b>Hartzaileak:</b>	6-12 urte
<b>Iraupena:</b>	Ordubete
<b>Arloa:</b>	Gizarte Zientziak
<b>Beharrezko materiala:</b>	Mapamundia, koloretako errotuladoreak. 1., 2. eta 3. eranskinen fotokopiak.
<b>Helburuak:</b>	Beste leku batzuekin ditugun lotura ugariak irudikatzea. Jende guztiak dituen “nortasun anitzak” aztertzea.

**Laburpena / Nondik norakoak:**

Nortasunaren zati batean, zeresana daukate zenbait lekutako pertsonekin dauzkagun loturek. Nola hasten gara hitz egiten ezezagunekin? Dinamika honek gurekin hitz egiten dagoen pertsonarekiko lotura ezartzea du helburu nagusi.

---

**Dinamikaren garapena:**

Banan-banan, 1. eranskinean agertzen den testua irakurriko dute eta idatziz erantzungo diote “Zer lekurekin bat egiten dut?” galde-sortari (2. eranskina). Gero, loturak aztertuko dituzte eta zer urrun dauden euren etxetik. Era berean, adibide moduan emandakoa bezalako diagrama egingo dute: “Nola nago lotuta?” (3. eranskina).

Bikoteka, loturak edo pareko lekuak dituzten aztertuko dute. Loturaren bat dutela ikustean, biribila marraztuko dute inguruan. Herrialdeko, kontinenteko eta munduko mapak erabili ditzakete, lotura horiek ikusteko.

## 1. eranskina

### Lotura anitzak

Zenbat aldiz hasten gara ezezagunekin hitz egiten? Loturak ezartzen ahalegintzen gara gurekin hitz egiten ari den pertsonarekin. Nortasunaren zati batean, zeresana daukate beste pertsona batzuekin ditugun loturek. Guztiok hainbat eta hainbat lotura ditugu zenbait lekurekin. Horren bidez, geure nortasuna zehazten dugu. Beharbada, gure izenaren bitartez, munduko beste leku batzuekin lotuta gaude. Beharbada, zerikusia dauka non bizi diren gure aitona-amonak. Beharbada, bizitzan zehar adiskidetasun-harremanak ezarri ditugun lekuen bidez lotuta gaude. Beharbada, erosketak egiteko azoka edo gustuko dugun janariaren jatorria dira lotuneak. Nortasuna loturen sarea da neurri batean.

### Nortasun anitzak

Leku guztietan, nortasun desberdineko jendea dago. Izan ere, egon ez balego, harrigarria izango litzateke. Erkidego bat bera ere ez da homogeneoa. Guztiok lotura orokorrak ditugu, eta interesgarria da zeintzuk diren jakitea. Hiritarregana oro har hurbilduz gero, gure eguneroko bizimoduan dauden lotura horiek onetsi eta ezarri egingo ditugu. Hala ere, gure herrialdean eta munduan dauden loturei eta elkarloturei buruzko ezagutza handitu behar dugu aldi berean.

**2. eranskina.** Zerekin bat egiten dut leku bakoitzean?

Lotura	Jendea eta/edo lekuak	Jendea eta/edo lekuak
Non bizi da familia hurbila?		
Non bizi dira aitona-amonak?		
Non bizi dira familiako beste kide batzuk?		
Non bizi dira familiaren lagunak?		
Non jaio nintzen?		
Non bizi izan naiz?		
Non dago eskola?		
Non daude tokian tokiko dendak?		
Non erosten dut jatekoa?		
Non erosten ditut beste gauza batzuk?		
Nongoa da gustuko dudak jatekoa?		
Nork hornitzen du kontsumitzen dudak ura?		
Nora doa zaborra?		
Nongoa da ikusten dudak telebista?		
Nongoa da entzuten dudak irratia?		
Nongo egunkariak/aldizkariak erosten ditut?		
Nongo jolas-instalazioak erabiltzen ditut?		
Nora joaten naiz jaiegunetan?		
Nora joaten naiz asteburuetan, bidaiatuz gero?		
Nora joaten naiz oporrak herrialdean bertan ematen ditudanean?		
Nora joaten naiz oporrak atzerrian ematen ditudanean?		
Zeintzuk dira erabili ohi ditudan errepide nagusiak?		
Nora joateko erabiltzen dut autobusa?		
Nora joateko erabiltzen dut trenak?		
Zer futbol-taldeko jarraitzailea naiz?		
Zer kirol-taldetako jarraitzailea naiz?		
Nor da ordezkatzeko nauen diputatua?		
Zer udalerritan bizi naiz?		
Zer lurraldetan bizi naiz?		
Zer autonomia-erkidegotan bizi naiz?		
Zer herrialdetan bizi naiz?		
Zer kontinentetan bizi naiz?		
Beste bat		
Beste bat		



## 3. eranskina. Nola nago lotuta beste leku batzuekin?

### Nazioartekoa

- Estatuak Nazio Batuetan, G8n... dauka ordezkaritza.
- Bidaiak Europara, Estatu Batuetara...
- “Made in...” arropak, autoa, etxetresna elektrikoak...
- Kirolak, munduko kopak...
- Jateko txinatarra, indiarra, japoniarra, mexikarra...
- Eguraldi-aldaketaren eraginpeko toki-eguraldia.
- TBko nazioarteko informazioa, egunkaria...
- Internet.

### Nazionala

- Errepide eta trenbide sarea.
- Parlamentu nazionala.
- Komunikabide nazionalak, TB, egunkariak...
- Familiako lotura hegoaldean,...
- Urteko oporlekua...
- Futbol-taldea, txapelketak...
- Ikasteko lekuaren aukeraketa.

### Eskualdekoa

- Erosketak.
- Irratia, TB, egunkariak.
- Aisialdia.
- Eskualdeko plan ekonomikoak.
- Ur-hornikuntza.
- Erkidegoko parlamentua.

### Tokian tokikoa

- Eskola.
- Hiriko informazio-aldizkaria.
- Udalbatza, toki-planak eta zerbitzuak.



<b>Izenburua:</b>	Larrialdi-laguntzak, benetan al dira lagungarri?
<b>Gaia:</b>	Garapena
<b>Hartzaileak:</b>	12-16 urte
<b>Iraupena:</b>	30 minutu
<b>Arloa:</b>	Etika
<b>Beharrezko materiala:</b>	1. eranskina. “Arazoak” multzoko kartak. 1., 2. eta 3. eranskinen fotokopiak (koloretako paperean fotokopiatu, ondoren plastifikatu eta banan-banan moztu).
<b>Helburuak:</b>	Larrialdietarako laguntzak hartzaileentzako benetan lagungarri diren edo ez aztertzea.

#### Laburpena / Nondik norakoak:

Sarritan, larrialdi-laguntzak berez onuragarri direla pentsatzeko joera izaten ohi dugu, besterik gabe pertsona kaltetuek “zerbait” jasotzen dutelako. Jarduera honekin delako “laguntzak” abantailak bezain beste kalte ekar ditzakeen ideia aztertzen du, eta harremanetan jartzen du “larrialdi-laguntza” eta “eusgarritasun” kontzeptuak, tokiko biztanleria programetan inplikatzek dakartzan onurak errekonozituta.

#### Dinamikaren garapena:

Prestaketa: 1., 2. eta 3. eranskinen fotokopia bana egin, talde bakoitzari emateko. Aukeran, hobe litzateke fotokopiak kolore desberdinetako paperetan egitea, ikasleei kasta-taldeak elkarren artean bereizten laguntzeko. Eta, gainera, plastifikatuz gero, aurrerantzean ere erabilgarriak izango dira.

Lehen zatia: 15 minutu

- Ikastaldea 4ko talde txikitara banatuko da.
- Talde txiki bakoitzari “Arazoak” (1. eranskina) eta “Larrialdi-laguntza” (2. eranskina) karta-multzo bana emango zaio.
- Ez banatu artean “Istoria, bere osoan” kartamultzoa (3. eranskina).

- Taldeek 5 - 10 minutuko denbora tartea hartuko dute, “Larrialdi-laguntza” multzoko kartak eta bakoitzari dagokion arazoa elkarrekin lotu, eta bikoteak osatzeko.
- Ondoren, iritziak trukatzeko tartea emango zaie taldeei.
- Kontuz!, kartak egoki parekatu dituztela begiratu behar da.
- Behin karta-bikoteak behar bezala parekatuta daudela baieztatu ondoren, galdetu egingo zaie taldeei ea beren ustetan programetakoren bat bereziki lagungarria den, hots, dirua egoki erabili izan al den.

- Beste galdera bat egingo zaie: programaren bati laguntzeko 20 € edukiko balute, zen programa aukeratuko lukete?
- Bukatzeko, taldeei eskatuko zaie kartak parekatuta gordetzeko, horrela beharko dituztelako ariketaren hurrengo zatian.

Bigarren zatia: 15 minutu

- Talde txiki bakoitzari “istorioa, bere osoan” karta-multzoa (3. eranskina) eta 2. eranskineko “lagungarria” eta “ez lagungarria” txartel-bikote bana banatuko zaio.
- Taldeen lana “Istoria, bere osoan” multzoko kartak, eta aldez aurretik “Arazoak” eta “Larrialdi-laguntza” multzokoekin egindako bikoteak egoki parekatzea izango da. Ondoren, laguntza mota hori lagungarria al den edo ez erabaki beharko dute. Beraz, informazio gutzia bi zutabetan sailkatu beharko dute, “lagungarria” eta “ez lagungarria” txartelen azpian.
- Hona iritziak mahai gainean jartzen laguntzeko galdera sorta bat:
- Konturatu al zarete laguntza-jarduera batzuk ez direla aldez aurretik pentsatu bezain lagungarriak? Zergatik gertatu da hori?


- Ba al dute ezer komunean jarduera lagungarriek? Zer ote da?
- Azpimarratu beharreko ideia bat: tokiko langileak programetan integratzeak eusgarritasun-maila ahalik eta handiena lotzen laguntzen du.
- Zer ikasi behar lukete herrialde aberastuek larrialdietarako laguntzei, eta berauek eskaintzeko erari buruz?

#### AZPIMARRATZEKO MODUKO IDEIAK:


1. Larrialdietarako laguntza-programetan oso garrantzitsua da tokiko biztanleak jardueretan integratzea.
2. Larrialdi-laguntzek koherentzia gorde behar dute konpondu nahi dituzten egoerarekiko.
3. Herrialde aberastuek ez lukete bereganatu beharko larrialdi-laguntzak onuragarri direla beti, berez eta edozein moldez. Alderantziz, herrialde pobretuetako biztanleen artean galdetu beharko lukete zeintzuk diren beren benetako beharrak.

**1. eranskina.** Arazoak multzoko kartak

**Ghana:** Haur goiztiarrek hiltzeko arrisku handiagoa dute.




**Ginea Bissau:** Pertsonek erabiltzeko ur gezaren gabezia nabarmena da.



**Guinea Bissau:** Nekazariek ez dute euren produktuak azokara eramaterik. Garraio publikoa oso garestia da; oinez eramatea, aldiz, neketsuegia, eta denbora gehiegi eskatzen du errentagarri izateko.




**Liberia:** Gerra Zibilaren ondorioz, Liberian pertsona asko beren etxeetatik bota dituzte, eta egun kanpalekuetan bizi dira. Gabezia handia dute, baita janariarena ere.




**Burkina Faso:** Uholde-urek higitzen ari dira landu daitekeen lurren kopurua.




**Nepal:** Lur-jausiak ugariak dira, eta sarritan suntsitzen dituzte nekazal lurak.



**Tanzania:** Kokoaren olioia baliabide- eta diru-iturria garrantzitsua da emakume askorentzat. Alabaina, olioia lortzeko erabiltzen dituzten birringailuek zauriak sortzen dizkiete, eta sarritan ez dabilta.




**India:** Haur Hezkuntza testu-liburuen gabezia handia dago eskoletan. Bigarren Hezkuntza ere liburu behar handia dago.

**1. eranskina.** Larrialdi-laguntza multzoko kartak

Haurrentzako inkubagailua.




Ur-ponpa bat.



Asto eta gurdia.



Gari-zakuak.



LAGUNGARRIA

EZ LAGUNGARRIA



## 3. eranskina. Istorioa, bere osoan multzoko kartak

Ospitaleetako argi-indarra eten egiten bada, ezin dira inkubagailuak erabili. Gainera, Afrikako osasun-langileek ez dute makina konplexu honen erabilerari buruzko formazio osagarririk eduki izan.



Ur-ponpak Japoniak eraman zituen. Gurrpilak Japonian eginak dira eta, beraz, bertan egindako piezak erabiltzen dituzte. Ponpak izorratuz gero, ginearrek ezin dute ordeztu piezarik lortu ponpak konpontzeko. Gainera, ez diete ponpak nola konpondu irakatsi.



Gurdiak tokian tokiko lehengaiekin egiten dira; beraz, erraz konpon daitezke behar denetan. Astoa eta gurdiaren laguntzak nekazal produktuak azokara fresko eta baldintza egokienetan eramatea errazten du eta, ondorioz, prezio hobean salduko direla bermatzen du.



Kanadako gobernuak garia bidaltzen du Liberiara, nahiz eta bertako biztanleak batez ere arrosa kontsumitzen duten. Liberiarrei, oro har, ez zaie garia gustatzen, eta gainera ez dakite gariarekin nola janaria prestatu.



Zapaldek ura gorde, eta higadura saihesten laguntzen dute. Emakume nekazariak beren gain hartu dute zapalden eraikuntza. Horri esker, landatzeko lurren eremu zati handi bat berreskuratu dute, eta ekoizpena areagotu egin da.



Kanpotik etorritako ingeniariak tokiko langileak hezi dituzte. Ingeniari horiek tokiko nekazariekin batera egiten dute lan, hauek direlako bertako landareta hobekien ezagutzen dutenak. Ondorioz, basetxeetan lurra babesten eta errepedeak garbi gordetzen ikasten dute.



Ikerketaren bitartez, beste birringailu diseinu bat lortu dute, eta erabiltzeko errazagoa denez, olio-produkzioa handitu egiten du. Birringailua bertan egiten dute. Emakumeen birringailu berriak eros ditzakete, epeka ordaindu daitezkeelako astero-astero.



Britainia Handiko eskola batetik Indiara bidalitako testu-liburuak erabili gabe geratu ziren; izan ere, liburuak ingelesez idatziak daude, eta soilik kultur maila handikoek irakurri ahal dituzte. Gainera, edukiak antzinakoak dira eta informazioa zaharkituxe dago.



<b>Izenburua:</b>	Istorio-misterio!!!
<b>Gaia:</b>	Garapena
<b>Hartzaileak:</b>	12-14 urte
<b>Iraupena:</b>	Ordubete eta 10 minutu
<b>Arloa:</b>	Ekonomia
<b>Beharrezko materiala:</b>	1. eranskinaren fotokopiak, plastifikatu eta moztuak. Taldeak bezain beste gutun. 2. eranskinaren fotokopiak.
<b>Helburuak:</b>	Kanpo-zorraren eraginak aztertzea Zambiano eguneroko bizitzan. Taldekideei arazo jakin bat konpontzeko, eta pentsatzeko gaitasuna lantzeko aukera eskaintzea.

#### Laburpena / Nondik norakoak:

Kanpo-zorra egun herrialde pobretuek garapenaren bidean aurrera egiteko duten oztoporik nagusienetakoa da. Herrialde pobretu gehienek arazo sozial eta ekonomiko larriak dituzte Iparreko herrialdeekin, Nazioarteko Moneta Fondoarekin eta Munduko Bankuarekin egin zuten zorraren trukeko zerbitzuen gorakada etengabea dela eta.

Jarduera honek kanpo-zorra nola sortu den eta pertsonen bizitzan nola eragiten duen (hain zuzen Zambiano pertsona gazte bati) ulertzeko laguntza ematen du.

#### Dinamikaren garapena:

Jarduera honetan hiru pertsonako taldeetan lan eginez misterio jakin baten erantzuna aurkitzea proposatzen dugu. Ahal dela, interesgarria litzateke taldeak trebetasun heterogeneoak dituzten pertsonekin osatzea, zenbat eta heterogeneoago, orduan eta hobeto. Inportantea da baita taldeak animatzea, detektibe direla eta esku artean konpondu beharreko kasua duten ideia nabarmenduz. Hona ebatzi beharreko misterioa: Zergatik Nickson ez da joaten gehiago eskolara?

Prestaketa. 1. eranskinako txartelak fotokopiatu, plastifikatu eta moztu, talde bakoitzarentzat joko bana. Talde bakoitzari gutun bana ere banatuko zaio, barruan txartel-multzo hori

sartzeko. Gutun itxiaren azalean ondoko galdera idatziko dugu: Zergatik Nickson ez da joaten gehiago eskolara?

Jarduera bi saiotan garatuko dute.

Lehen saioa:

Talde bakoitzari gutunazal bana emango diegu. Taldekideek "misterioaren gako" irakurri beharko dute, gutunazal itxiaren aurrealdean idatzia. Gutunazala ireki gabe, minutu batzutan talde bakoitzean barnean balizko erantzunak hausnartuko dituzte. Horren ondoren, dinamizatzaileak bururatu zaizkien ideiak azaltzeko eska diezaiokie bizpahiru talderi.

Iturria: Leat, D.: Thinking through Geography. Honakoan aipatua: Cuthbert, C.: Exploring Our World. Investigating issues of interdependence and social justice in the 21st Century. Belfast, One World Centre for Northern Ireland, 2001.

Iritzien hartu-eman labur hori eta gero, taldeek gutunazalak ireki ditzakete, eta barruan dauden txartelak banatu, taldeko kide guztiek ikus ahal ditzaten. Txartel guztiak irakurri beharko dituzte, eta ulertzen ez dituzten kontzeptuak argitu. Taldearen zeregina txartelak erabiliz misterioaren irtenbidea aurkitzea izango da.

Horretarako, txartel guztietako informazioa aztertu beharko dute, kontua ez baita galderari erantzun diezaiokeen txartel bat edo bi aukeratu eta horrekin lasai geratzea, baizik eta erantzun osoa bilatzea, hari guztiak kontuan hartuko dituen. Txartelak sailkatzea lagungarri gerta dakieke.

Argibideak talde guztiei azaldu beharko zaizkie, banan-banan, behin baino gehiagotan. Beraz, ez dago denbora gehiegi erabili beharrik talde txiki guztiei batera azalpenak ematen.

Jarduera bitartean talderen batek arazoak balitu, lagundu genieke txartelen bat har dezatela eta bertakoarekin harremanetan dagoen informazioa eskaintzen duten beste batzuekin sailka dezatela proposatuz.

Behin lana burututa, delako taldearen ondorioa sinplistegia baldin bada, esaterako: “Nickson ez da eskolara joaten bere gurasoek ezin dutelako ordaindu”, dinamizatzaileak galdera gehiago egin beharko dizkie erantzuna sakontze aldera, esaterako: “eta... zer dela eta ezin dute ordaindu? Zenbat ordaindu behar dute eskola? Zergatik ordaindu behar dute”. Ikasleak **zergatien** bilaketan aritzen animatu behar dira.

Dinamizatzaileak taldeetako argudioak eta ezatabidagunak entzun eta bilduz eman dezake denbora, gero talde handian lana harremanetan jartzerakoan lagungarri izango baitzaizkio.

Asko jota 25 minututan behar lukete arazoa konponduta. Behin ariketa bukatuta, beren erantzunak laburtuta idatz ditzatela eskatuko zaie taldeei, edota ondorioak oinarritu dituzten txarteletako zenbakiak biltzeko. Erantzunak jasotzeak lagundu egingo die ikasleei eztabaida aurretik utzi duten puntu berean jarraitzeko.

Bigarren saio baterako:

Berriro banatuko dira gutunazalak taldeen artean, orain 5 minututan soilik ariketa eta planteatutako arazoa konpontzeko irtenbideak gogora ditzaten.

Talde handiko bateratze-lana hasteko, dinamizatzaileak hautatuko du arrazoizko ondorioak baina, aukeran, guztiz osatu gabeak aurkitu dituen talderen bat. Dinamizatzaileak bide eman behar du ikasleek aurkitutako ondorioak aipatu et arrazoitu daitezen, baina baita, horrekin batera, besta auzi osagarri batzuk pizten jarraitu, galderen bidez, esaterako: “Azal al zenezake pixka bat gehiago kontu hori?”, edota beste taldeei parte hartzera animatu, esandakoari burua informazio gehiago eskatuz, edota ekarpen berriak erantsiz.

Interesgarria iruditzen zaigu ikasleek informazio nola prozesatu duten aztertzea, eta beraiekin batera aztertzea; horretarako, holako galderak egin daitezke: zer egin duzue paperekin?, nola joan dira aldatzen taldeko eta bakoitzaren ideiak eztabaidarekin batera?, zer moduz egin duzue lan taldean?, ba al da lider papera hartu duenik?, eta beste...

Ariketa bukatzeko, ikasleek erantzun oso bat idatziko dute auziaren, misterioaren, gakoaren inguruan (eta, gogora dezagun, hauxe da: “zergatik Nickson ez da joaten gehiago eskolara?”). Ikasleen trebetasun-maila gorabehera, emaitza paragrafo soila izan daiteke, edota idazlan osatuagoa.



1. eranskina. Nicksonek ezin du gehiago eskolara joan. Zergatik ote da?

1

Zambian ondasunak garestitu egin dira bertako merkaturako produktuen ekoizpena murriztu den neurri berean. Landatzeko lur gehienak beste herrialde batzuetara esportatzeko landaketetarako erabiltzen da.

2

Nazioarteko Moneta Fondoak dirua uzten dienean herrialdeei, mailegu-baldintza hertsia eta gogorak ezartzen dizkie. Horiei Egiturazko Doikuntza Politika deritzaie.

3

Solita irakaslea da. Ez du soldatarik jaso izan azken 9 hilabeteetan. Lanean jarraitzen du eskolan, baina bere lankide askok aspaldi utzi zioten lan egiteari.

4

1990 urterako, Zambiak ordaindua zuen alde aurretik bankuak utzitakoa baino diru gehiago.

5

Egiturazko Doikuntza Politikek gastu sozialak murriztera eta dibisak irabaztera behartzen dituzte herrialdeak, horretarako esportazioak areagotuz, batez ere landaketenak.

6

Nazioarteko Moneta Fondoak eta Munduko Bankuak nahikoa diru utzi zioten Zambiarri, herrialdeak alde aurretik eginak zituen zorrak kitatzeko.

7

Nickson Zambian bizi da, Afrikako hegoaldean. 12 urte ditu.

8

1970an, mendebaldeko herrialdeetako bankuek diru asko zuten petrolioaren prezio altuari esker. Inbertsio gisa dirua uztearen interes ekonomikoa ikusi zuten. Zambiak eta beste herrialde batzuk diru-maileguak eskatu zituzten. Maileguaren interesak txikiak ziren, eta ezin zuten sumatu ere egin mailegua itzultzeko arazoak izango zituztela.

9

Nicksonek lagundu egin behar die etxekoei baratzeko lanetan; izan ere, familiak ez dauka beste langile bat(zuk) soldatapean hartzeko adina diru.

10

Nickson eskolara joatekotan, bere gurasoek hileroko prezioa, uniformea eta liburuak ordaindu beharko lituzkete.

11

Azken 15 urteotan Zambiak gobernua zerbitzuetarako aurrekontuak moztu izan ditu progresiboki, esaterako osasuna eta hezkuntzarenak.

12

Nazioarteko Moneta Fondoa eta Munduko Bankua herrialdeei beren zorrak kitatzen eta garapen bidean jartzen laguntzeko dirua uzten duten erakundeak dira.

13

Zambian eskola ugari itxi izan da. Hain gutxi direnez irekita jarraitzen dutenak, batzuetan 100 ikasle eta baita gehiago ere pilatzen dira gelako.

14

Nicksonen gurasoek ezin dute ordaindu semea eskolara bidaltzea.

15

Nicksonen gurasoak etxalde txiki batean bizi dira. Bertan landatzen dutenak etxekoek jan ahal izateko oinarrizkoena ematen du, eta baita apur bat gehiago, azokan saldu eta nahitaezko beste produktu batzuk erosteko, hala nola olio, arropa...

16

70eko hamarkadaren bukaera aldera, interes-tasek goraka egin zuten ziztu bizian. Horren ondorioz, maileguak eskatu zituzten herrialdeek eskatutakoa baino askoz diru gehiago itzuli behar izan zuten. Zambiak diru gehiago eskatu behar izan zuen hasieran eskatutako kreditua itzuli ahal izateko.

17

Nicksonen herriko eskola itxi egin da, eta orain eskola gertuena 2 ordotara dauka oinez.

## 2. eranskina. Kanpo-zorrek Zambiak eragindako krisiri buruzko informazio osagarria

- 1998an Zambiak lau bider gehiago gastatu zuen Kanpo-zorren interesak ordaintzen Lehen Hezkuntzan baino.
- Zambian, 3 haurretik bat ez da eskolara joaten.
- Bigarren Hezkuntzako eskolak 100 ¤ baino gehiago balio du pertsona eta urteko, baina familia askotan seme-alaba bat baino gehiago dituzte, eta batez besteko hileko soldata 30 ¤ra ozta-ozta iristen da.
- Zambiako biztanleriaren %85 pobrezia-mailaren azpitik bizi da.
- Zambia bizi-itxaropena 54 urtekoa zen 1991ean, baina 40koa 1997an.
- Oinarrizko produktuen prezioa igotzen ari da. 1999ko apirilean familien oinarrizko produktuen multzoa hileroko soldata baino hiru bider garestiagoa zen batez beste.
- Kanpo-zorren ondorioz, Osasuna ikaragarri garestitu da. Hilkortasun-tasa igo egin da: 1990an %122koa zen, baina 1997an %202koa.

---

Fuentes: Lenten Campaign 1999 - Post Primary School Teacher's Resource, Trocaire Catholic Commission for Justice and Peace.  
The World Guide 1999/2000 New Internationalist publications Ltd.  
Human Development Report 2000 United Nations Development Programme.



<b>Izenburua:</b>	Gatazketako biktimak
<b>Gaia:</b>	Bakea eta gatazkek
<b>Hartzaileak:</b>	12-16 urte
<b>Iraupena:</b>	40 minutu
<b>Arloa:</b>	Historia
<b>Beharrezko materiala:</b>	1. eta 2. eranskinen fotokopiak; bigarren eranskinakoak plastifikatu eta moztuta. Talde bakoitzeko txartel-multzo bana.
<b>Helburuak:</b>	Garapenaren gaia lantzea ikasleekin batera, eta bereziki, Ruandaren kasua genozidioa gertatu ondoren.
<b>Laburpena / Nondik norakoak:</b>	Garapena zer den definitzea da xedea, horretarako kasu jakin bat erabiliz, genozidioaren ondorengo Ruandakoa alegia.

### Dinamikaren garapena:

Ikasleei Ruandari buruzko informazioa banatuko zaie (1. eranskina). Ariketa hau egiteko, aldez aurretik dinamizatzaileak kopiatu eta ebaki egin behar ditu txartelak (2. eranskina). Ikasleak lau laguneko bi taldetan banatuko dira, eta talde bakoitzari txartel multzo bat emango diogu. Dinamizatzaileak talde biei 10 txartelak ordenatzeko eskatuko die, bakoitzean esaten denarekiko adostasun-.mailaren arabera, 1 zenbaki emanez adostasun handiena sortzen duenari, ea 10 adostasun txikiena eragiten duenari.

Talde bakoitzari beren ranking-a, beren sailkapena, beste taldeen aurrean azal dezatela eskatuko zaie, eta hiru definizio egokienak zein ote diren erabakiko dute, kontzentzu bidez erabaki ere.

Azkenik, ikasle-taldeen “Garapena” hitzari buruzko definizio bana idatzi eta irakurriko dute. Gero, rankigeko hiru definizio onenak eta bakoitzarena konparatu beharko dituzte.

Hona “Garapena” kontzeptuaren balizko definizio bat: Garapenak esan nahi du jendeak elkarrekin eta batera lan egiten duela komunitatearen onuraren bila: indarrak bilduaz pertsonen bizimodua hobetzea, oinarrizko beharrak betetzea eta, elkartasunezko izpirituak bultzatuta, bakoitzaren eta guztien giza-duintasuna bermatzea.

Galderak:

1. Gauza bera al dira “Garapena” eta “Aberastasuna”?
2. Ba al liteke Munduko leku desberdinetan garapenari buruzko ikuspegi desberdinak izatea, esaterako Afrikako eta Europako herrialde banatan?
3. Zergatik esaten da Garapena “gatazken biktima” dela? Adibidez, gatazka armatuetan eskolak, etxeak, ospitaleak, eta abarrak suntsitzen dira, pertsonak hiltzen...



## 1. eranskina. Ruandari buruzko informazioa



Genozidioaren ondorengo belaunaldiak oraindik oso bizi dauka oroimenean 1994ko hondamendia; horrez gain, beren egunerokotasuna tragedia eta garai ikaragarri haren ondorio da, baina etorkizun berri eta hobearen esperantza ere badute herri txiki honetako biztanleek.

Ruandako genozidioa 1994ko apirilean hasi zen. 100 eguneko sarraskia deitu den bora-tartean milioi bat pertsona inguru hil zutela uste da: gizonezko eta emakume, gazte eta heldu, biolentziaren biktima eta ekintzaile izan ziren. Gainera, milaka pertsona heriotzaren eskuetan utzi zituzten zauri larriekin, eta beste askok ihes egin zuten herrialdetik. Anabasa auzo-herrialdeetara ere zabaldu zen, esaterako Kongoko Errepublika Demokratikora, non gerra eta heriotza oraindik ere eguneroko ogia diren. Hamar urte beranduago Laku Handien eskualdean anabasatik irten eta gizarte kohesionatua eraikitzearen aldeko borrokan dihardute.

### Ruandari buruzko datuak

Zabalera:	26.338 km <sup>2</sup> . (Galizia baino zertxobait txikixeago)
Biztanleria:	8.4 milioi pertsona
Hiriburua:	Kigali
Moneta:	Franko ruandarra
Talde etnikoak:	Hutu: %85, tutsi: %14, twa: %1 baino gutxiago
Erligioa:	Katolikoa: 50%, tradiziozkoak: 20%, protestantea: 20%, islama: 10%
Hizkuntzak:	Ofizialak ruanda, ingelesa eta frantsesa (baita swahili eta watusi)
Bizi-itxaropena:	41 urte.
Eskolatzeta-tasa:	Lehen Hezkuntza: %66. Bigarren Hezkuntza: %10.
BPG per capita:	2000 urtean 943 U\$. (Espainiar estatuan, urte berean, 19.472 U\$-koa dela estimatzen da)
GGI:	2005ean Ruanda 159. lekuan zegoen aberastasunaren arabera munduko herrialdeen hurrenkeran, bere indizea 0,450koa izanik (urte horretan bertan Espainia 21. lekuan zegoen, eta 0,928ko indizea zuen).

Ruanda Afrikako herrialde txikienetako bat da, eta baita biztanle-dentsitate handiena duena. Bere hedadura 26.338 Km<sup>2</sup>-koa da, hots, Galizia baino pixka bat txikixeagoa, eta 8 milioi biztanle ditu.

Mendi-malda berdeek herrialde oso hartzen dutelarik, Ruandari “milaka muinoen lurraldea” deitu ohi zaio, baina biztanle-dentsitatea horren handia izanda, ia-ia lur-sail erabilgarri oro landatzen da. Ederragatik ere, herrialde hau genozidioaren sinonimo bihurtu da, 1994ko gertariez geroztik: 100 egun inguruan milioi bat pertsona hil baitziren.

**Ruandan zehar bidaide:**

- Hiru etniak osatzen dute Ruandako biztanleria. Hutuak biztanleriaren %85 dira, tutsiak % 14, eta twa etniakoak %1 baino gutxiago. Historian zehar taldeon arteko tentsioak ugari izan dira.
- Belgikak Ruanda kolonizatu zuen arte, tutsien etniakoek gobernatzen zuten herrialdea, sistema feudal baten arabera, non hutu etniako nekazariak lurraz arduratu eta jangaiak landatzen zituzten.
- Belgikak tinkatu egin zuen are gehiago tentsioaren hari, tutsiei hezkuntzarako aukera hobeak suspertuz, eta aginte-karguak emanez.
- 1959an hutu etniakoak matxinatu egin ziren eta boterea hartu. Belgikak alde egin zuen, eta diktadura ezarri zen, tentsio une gogorreko urteek jarraitu ziotena.
- 1990 eta 1993 bitartean Ugandan bizi ziren errefuxiatu tutsiak armen indarrez sartu eta bizitzeko lurraz eskatu zituzten. Boterea hartu zuten lpar aldean, eta horrekin batera are gehiago tinkatu ziren tentsioak.
- Biolentziaren gorakada gero eta nabarmenagoa zen, harik eta 1994ko apirilaren 6an Ruandako presidentea hil zuten arte.
- Egoera honek okerrera egin zuen gehiago, hilketa- eta sarraski-bolada bihurtzeraino. Sarraskiak presidenteak berak eta bere inguruko eliteak prestatu zituzten aurreko hilabeteetan, boterea galtzen ari ziren beldurrez.
- Hilketa masiboak hutu etniako heriotz-eskuadroiek burutu zituzten: hutu erregimenarentzako mehatxu izan zitekeen edonor hil zuten.
- 100 egunetan milioi bat pertsona inguru hil zuten, tutsiak, baina baita genozidioaren aurka agertu ziren hutu moderatuak.
- Tutsien arteko hirur herenak hil zituzten. Genozidioaren ondoren, milaka hutu hil zituzten tutsiek, erantzun zutenean, batez ere Ugandatik etorritako tropen bitartez.
- Genozidio honen inguruan errudun ugari dago. Erantzukizuna dute hilketa masiboak planifikatu eta burutu zituztenen pertsonak, baina baita parte hartu zutenek, eta gertatuko zela jakinda ekiditzeko ezer egin ez zutenek.
- Belgikak, Frantziak, Estatu Batuek eta Nazio Batuek sarraskia prestatzen ari ziren susmoa zuten. Dena hasi baino hilabete batzuk lehenago, Ruandako Nazio Batuen delegazioak arrisku biziaren berri eman zuten. Alabaina, inork ez zuen ezer egin sarraskia ekiditzeko. Ondorioz, milioi bat pertsona hil zituzten.


*Gaizkia, euriaren antzera gainera datorkigunean, ez dago nork geratuko duen! Krimenak bata bestearen atzetik pilatzen direnean, ikusezin bihurtzen zaizkigu. Atsekabea gehiegizko denean, oihuak ere mututu egiten zaizkigu. Udako euria nola, honela datozkigu baita oihuak goitik behera.*

Bertolt Brecht

**Zeri deitzen diogu genozidio?**

Genozidio terminoa Ruandarekin lotua agertzen da 1994tik, herrialde horrek etnien arteko gorrotoaren ondoriozko bortizkeria eta sarraskia bizi izan zituenetik. Funtsean, “izaera nazio-, etnia-, arraza- edo erlijio-gizatalde jakin bat, osorik edo bere zati bat, suntsitzeko saioari” deitzen zaio.

## 2. eranskina. Garapena




Garapenak esan nahi du pertsona orok garbigailua, telebista, autoa, eta abarrak dituela.




Garapenak garraio- eta komunikazio-bide modernoak dakartza berekin, esaterakoa autobideak, teknologia informatiko aurreratua...




Garapenak esan nahi du jende guztiak dituela eskura hezkuntza, osasuna babesteko sistema, eta bestelako zerbitzu sozialak.



Erabateko pobrezia eta gosea erotik kenduta daudela esan nahi du garapenak.



Garapenak pertsonak zer pentsatzen duten esateko beldurrik ez duten, eta etorkizuna erabaki dezaketen egoera islatzen du.



Garapenak zerikusia dauka ingurunearen babesarekin, batez ere aurrerantzean etorriko diren belaunaldiari begira.




Garapenak botere mota oro kudeatzeko, eta biztanleen artean ahalik eta modurik orekatuenean banatzeko gaitasuna adierazi nahi du.



Garapenak Bakean bizitzeko gaitasuna adierazten du.



Garapena hazkuntza ekonomikoaren, eta horrek sortzen dituen aberastasun eta lanaren emaitza da.



Garapenak badu zerikusirik beste besteei beren arazo eta traumak gainditzen laguntzarekin, horrela beren bizitza aurrera eraman ahal dezaten.



<b>Izenburua:</b>	Albistegia
<b>Gaia:</b>	Garapena
<b>Hartzaileak:</b>	10-12 urte
<b>Iraupena:</b>	20 minutu
<b>Arloa:</b>	Gizarte Zientziak
<b>Beharrezko materiala:</b>	Zeloa edo kateorrazak, boligrafoak, txartelak, aulkiak.
<b>Helburuak:</b>	Beste herri eta errealitate batzuei buruz zer dakigun eta alde zurretiko ezagutza hori zer neurritan den zuzena antzematea.

#### **Laburpena / Nondik norakoak:**

Taldekideek herrialde edo herri bana aukeratuko dute (edo esleitu egingo zaie), eta horrekin zerikusia duten ezaugarriei buruz hausnartuko dute. Hasierako ariketari esker, taldeak herrialdeei buruz daukan ezagutza orokorra nolakoa den jakingo dugu. Ondoren, beste saio batzuk egin beharko lirateke, ezagutza hori sakontzeko edo errealitatearen zenbait alderdi xehetasun handiagoz lantzeko.

#### **Dinamikaren garapena:**

---

Pertsona guztiak, bat izan ezik, jesarri egingo dira eta biribila osatuko dute. Guztiek txartel bana eramango dute bularrean itsatsita, eta, bertan, argi eta argi ikusiko da zein den aukeratu duten herriaren edo herrialdearen izena.

Aulkirik ez duen pertsona erdian jarriko da eta herrialde batzuek bete beharreko ezaugarriren bat esango du, honako formatu honen arabera: “Gaur, honako herri edo herrialde hauek dira albiste: (Esate baterako: petrolio gehien dutenak, gerran daudenak, indigenak dituztenak,

musulmanak direnak...)”. Baldintza hori betetzen duen herrialdearen ordezkariak altxatu egingo dira eta beste aulki batera joango dira. Erdian dagoena ere saiatu beharko da lekua hartzen. Aulkirik gabe geratzen dena erdian jarriko da eta dinamika berari eutsiko dio.

Ariketaren ostean hausnartzekoa: Zer alderdi izan dira berriak? Zer izan da harrigarria (norberaren eta beste taldekideen aukeran)? Era berean, taldean sortutako zalantzak landu daitezke.



<b>Izenburua:</b>	Biluztu gaitezen
<b>Gaia:</b>	Kontsumo eta Bidezko merkataritza
<b>Hartzaileak:</b>	6 urtetik aurrera
<b>Iraupena:</b>	2 ordu
<b>Arloa:</b>	Ekonomia
<b>Beharrezko materiala:</b>	Mapamundia, post-it txartelak. 1. eta 2. eranskinen fotokopiak.
<b>Helburuak:</b>	Gure bizimoduari buruz, bizimodu horren eragilei buruz eta iparraldeko bizimoduko ekintzek beste pertsona batzuen bizitzan duten ondorioei buruz hausnartzea.

#### **Laburpena / Nondik norakoak:**

Taldekidetok sorterrian ekoizita ez dauden produktuak eta jantziak botako dituzte.

#### **Dinamikaren garapena:**

Irakasleak Peters mapa erakutsiko die eta, Mercator proiektzioaren aldean, mundua zergatik irudikatzen den horrela azalduko die gaitetik.

Asmakizun moduan, taldeari eskatuko dio banan-banan inguruko edo eurekin daramatzaten (gimnasiako prakak, aluminiozko papera, freskagarri-latak, pilak, makillajea, jertsea, edalontziak, oinetakoak, botak, motxilak, poltsak, txokolata...) edo erabiltzen ari diren edozein objektu zerez eginda dagoen esateko eta beste herrialde batzuetan oso-osorik edo zatika egindakoak botatzeko. Ez dago jokoa zertan amaitu, negua bada eta atari zabalean bagaude, batez ere.

Gero, mapara hurbilduko dira eta post-it txartelen bidez adieraziko dute zer eremu edo herrialdeetatik datozen produktu horiek. Ondoren, irakasleak mapan jarritako lehengaien lekupena zuzendu eta handiagotu egingo du. Amaitzeko, talde guztiak mapari buruz hitz egingo du. Ariketa hau egiteko, geografiako ezagutzak izan behar dira, eguraldiak bereizi behar dira, produktuak ezagutu behar dira, herrialdeen izenak jakin behar dira...

#### **ALDAGAIK:**

Gosaritan edo beste otordu batzuetan jaten dituzten produktuen jatorriari buruz, euren gustuko musika-taldeei buruz... ere galdetu diezaieke.

Gazteei edo nagusiei informazioa bilatzeko eta honako hauei buruzko azalpenak egiteko eskatu ahal zaie: XVI. mendeko kolonialismoa, XIX. mendeko kolonialismoa eta XX-XXI. mendeetako neokolonialismoa. Era berean, ariketa zailagoa egin daiteke, taldearen ezaugarrien arabera. Garaietako eta sasoi horietako produktu gogokoenen eskemak eta kronologiak egin ditzakete. Horiek horrela, gaur egungo munduaren antolamendua azalduko dute, eta elkartasunerako, lankidetzarako eta mobilizaziorako modu berriak sustatuko dira.

Ezagutza horiek osatzeko, honako gai hauek azaldu beharko lituzke irakasleak: kolonialismoaren eta neokolonialismoaren fenomenoak, kolonietako lehengaien bilaketa eta ekoizpena eta metropolietako industriarako edo kontsumorako produktuen eskaria.

## Ebaluazioa

Oso interesgarria da ikustea zer alde dagoen produktuak manufacturatu dituzten lekuen eta produktuak etiketatu dituzten lekuen artean. Esate baterako, goi-mailako teknologiako produktu gehienak Taiwanen, Korean... ekoizten dira, iparraldeko herrialdeetan etiketatzen diren arren. Izan ere, herrialde horietako eskulana merkeagoa da, eta kontrol gutxiago dago laneko eskubideen arloan.

Hona hemen zenbait galdera: Zer herrialderekin gaude lotuta? Zer dakigu herrialde horiei buruz? Zer baldintzatan bizi dira? Zer ematen diete horren truke herrialde horiei? Zer lotura dago produktu horiek beste herrialde batzuetan erosteko prezioaren eta hemengo kontsumitzaileek azkenean ordaintzen duten prezioaren artean? Nork zehazten ditu prezioak? Norentzat da onuragarria? Zer ez dugu behar?



**1. eranskina**

Makillajea:	Petrolio gordina...	Tebeoak:	Egurra, tindagaiak.
Zuntz sintetikoak:	Petrolio gordina...	Txokolatea:	Kakaoa.
Aluminiozko papera:	Bauxita.	Jertsea:	Artilea.
Freskagarri-lata:	Bauxita.	Motxila:	Larrua, petrolio, bauxita...
Pilak:	Kobrea, merkurioa...	Bendak:	Kotoia.
Toailak:	Kotoia.	Coca cola:	Kafea.
Kristala:	Beruna.	Plastikoa:	Petrolio.
Oinetakoak:	Larrua, petrolio gordina...	Arkatza:	Egurra, beruna.
Ezpain-zapiak:	Kotoia, petrolio gordina, papera...		

**2. eranskina**

- Petrolio. Hona hemen bere erabilerak: energia, olio, plastikoak, nylon... Estatu espainolean inportatutako petrolioaren %50 Mexikotik, Nigeriatik eta Iranetik dator.
- Bauxita. Aluminiozko oinarria da latetan, autoetan, bizikletetan, etxetresna elektrikoetan, mendiko materialetan... Australiak eta Gineak munduko bauxitaren %40 ekoizten dute.
- Kobrea. Ezinbestekoa da elektrizitaterako eta motor elektrikoetarako: kableak, dinamoak, bobinak, telefonoa, pilak. Zinkarekin batera, latorria osatzen du; eta eztaingarekin batera, brontzea. Munduko kobrearen %40 Txilen eta AEBetan ekoizten dute.
- Koltana. 2 mineralen uztarketa da, eta lehengai estrategikoa da teknologia berrien garapenari begira (%60 sakeleko telefonoetan erabiltzen da; eta gainerakoa, bideojokoetan, gurpilik gabeko trenetan, medikuntzako diagnostikoetarako tresnetan, zuntz optikoan...).
- Burdina. Batez ere, honako hauek egiteko erabiltzen da: automobilak, etxetresna elektrikoak, higiezinaren eraikuntza... Munduko burdinaren %55 Ekialdeko herrialdeetan, Txinan eta Brasilen lortzen da.
- Kotoia. Hona hemen bere erabilerak: kamisetak, bendak, toailak... Munduko kotoiaren %55 Txinan, AEBetan eta ekialdeko herrialdeetan lortzen da.
- Kakaoa. Txokolatea eta edariak egiteko erabiltzen da. Kakaoaren %56 Boli Kostatik, Brasildik eta Ghanatik dator.
- Kafea. Kafea, cola-freskagarriak... egiteko erabiltzen da. Munduko kafearen %45 Brasilgoa, Kolonbiako eta Indonesiako da.



<b>Izenburua:</b>	Non nago? Non gaude?
<b>Gaia:</b>	Ingurumena
<b>Hartzaileak:</b>	12-14 urte
<b>Iraupena:</b>	30 minutu
<b>Arloa:</b>	Gizarte Zientziak
<b>Beharrezko materiala:</b>	Testa (1. eranskina) eta idazteko materiala. 2. eranskina.
<b>Helburuak:</b>	Ingurune hurbilari buruz zer dakigun asmatzea.

#### Laburpena / Nondik norakoak:

Testu hau oinarrizko "testa" da, pertsonak euren inguru hurbilean zer antzematen duten jakiteko.



#### Dinamikaren garapena:

Taldekieei testaren fotokopia bana emango diegu (1. eranskina). Era berean, testa pantaila batean proiektatu dezakegu, gardenkien proiektorerik edo proiektzio-kanoirik badaukagu (horrela, papera aurreztuko dugu). Galderei banan-banan erantzungo diete.

Ondoren, ondo dauden erantzunak egiaztatu eta zenbatu egingo dituzte, eta 2. eranskineko balioespen-eskemarekin parekatuko dute emaitza.

Eztabaida txikia egingo dute taldeak inguruneari daukan ezagutzari buruz.

**1. eranskina.** Testa

1. Zenbat egun falta dira ilbeterako? (2 eguneko akatsa onartzen da). Etxetik ikusten duzu?  
.....
2. Zer distantzia dago zentral nuklear hurbileneraino? .....
3. Lurzorutik zenbat metrora lo egiten duzu? (ez da logelakoa kontuan hartu behar, lurrekoa baizik...) .....
4. Nongoak izan dira azken otorduko elikagaiak? .....
5. Nora doaz zaborrak? .....
6. Zein da eskualdeko haize nagusia? .....
7. Zer garaitan iristen dira enarak? .....
8. Zein da etxetik hurbilen dagoen zuhaitza? Eta taberna? .....
9. Nondik dator edaten duzun ura? .....
10. Test hau non irakurtzen ari zaren kontuan hartuta, adierazi non dagoen iparraldea. ....
11. Zer soinu entzuten dituzu lanean ari zaren bitartean? .....
12. Zer hilabetetan loratzen dira almendrondoak? .....
13. Oinpean daukazun lurzorua, silizioa, kareduna edo buztintsua da? .....
14. Zein zen zure eskualdeko antzinako biztanleen bizibidea? .....
15. Inguruan hazten diren 5 sendabelar esan. ....
16. Inguruko elkarte ekologistaren bat aipatu. ....
17. Zein da zure bizilekuaren izenaren jatorria? .....
18. Inguruko espezieren bat dago desagertzeaz? .....
19. Zenbat denbora behar da etxetik lanera edo basotxo hurbilenera bizikletaz joateko? .....
20. 5 auzokoren izena esan. ....

## 2. eranskina.

Balioespena

- |                    |  |
|--------------------|--|
| - 0 erantzun ondo: | Ezinezkoa, gutxienez taberna asmatuko zenuen.  |
| - 1etik 6ra:       | Noizean behin, burua atera leihotik eta begiratu: autoak ez ezik, beste gauza batzuk ere mugitu egiten dira. |
| - 7tik 12ra:       | Gaur egungo egoera kontuan hartuta, nahikotxo.   |
| - 13tik 17ra:      | Ez dituzu begiak itxita.   |
| - 18tik 20ra:      | Eskerrak norbaitek badakien non bizi den.  |



<b>Izenburua:</b>	Globingo
<b>Gaia:</b>	Kultura artekotasuna
<b>Hartzaileak:</b>	12-14 urte
<b>Iraupena:</b>	30 minutu
<b>Arloa:</b>	Gizarte Zientziak
<b>Beharrezko materiala:</b>	Galderak eta taulak dituen fotokopia (1. eranskina).
<b>Helburuak:</b>	Orokortasunaren eta tokikotasunaren arteko loturak ezartzea. Taldekideen ezagutza hobetzea.

#### **Laburpena / Nondik norakoak:**

Dinamika hau bingo-jokoaren antzekoa da. Zenbait orri emango dizkiegu “kartoiak” balira bezala. Parte-hartzaileek gainerako taldekideei galdetuko dizkiete datuak, kartoi horiek bete ahal izateko.

#### **Dinamikaren garapena:**

Lauki zuridun paperezko orriak -kartoiak- banatu (1. eranskina). Parte-hartzaileek ahalik eta lauki zuri gehien bete beharko dituzte euren kartoiari, eta, horretarako, beste taldekideei itaunduko diete oinarritzko 16 galderen bidez (A-tik P-ra daude zerbaituta). Erantzuna ematen dietenean, herrialdearen izena eta informazioa eman dion pertsonaren izena idatziko dituzte dagokien laukian.

Pertsona horren izena behin baino ez da agertuko orri osoan. Lauki-ilara horizontala, bertikala edo diagonalak osatzen dutenean, Globingo! oihukatuko dute. Taldea harrirituta geratuko da munduan zenbat lotura dauden ikustean.

Hasieran eztabaidatu ostean, parte-hartzaileei eskatu munduko lotura-motak sailkatzeko. Esate baterako, merkataritza-harremanak, kulturako harremanak, komunikabideen harremanak, emigrazioko harreman ahaztuak...

Ondoren, munduko mapa jarri horman eta aurreko ariketako herrialdeak mapan bertan kokatzeko eskatu neska-mutilei. Txintxetak eta koloretako artileak erabili herrialdea eta lan-taldearen udalerrira lotzeko. Orokortasunaren eta tokikotasunaren arteko lotura oso koloretsua izango da.

## 1. eranskina

Honako pertsona hau aurkitu:

- A. Atzerriko herrialderen batean egon behar izan da.
- B. Beste herrialde bateko norbaiti idatzi behar dio.
- D. Beste hizkuntza bat ikasi behar du.
- E. Familia eduki behar du beste herrialde batean.
- F. Beste herrialde bateko turista bati lagundu egin behar izan dio.
- G. Beste herrialde bateko musika-talderen bat izan behar du gogoko.
- H. Beste herrialde batean egindako arropa eraman behar du.
- I. Beste herrialde bateko jatekoa izan behar du gustuko.
- J. Beste herrialde bateko kirolari ospetsuren baten izena jakin behar du.
- K. Familiaren autoa atzerriko markaduna izan behar da.
- L. Beste herrialde batean bizi izan den norbaitekin hitz egin behar izan du.
- M. Hizkuntza bat baino gehiago erabiltzen den etxean bizi behar da.
- N. Beste herrialde bati buruzko albisteren bat irakurri behar izan du egunkarian.
- O. Orain dela gutxi, beste herrialde bateko zerbait ikasi behar izan du telebistan edo irratian.
- P. Atzerriko herrialderen batean egindako telebista edo beste etxetresna elektriko bat eduki behar du.
- R. Aita edo senitartekoren bat beste herrialde batean jaiotakoa izan behar da.

<p><b>A</b></p> <p>Izena: .....</p> <p>Herrialdea: .....</p>	<p><b>B</b></p> <p>Izena: .....</p> <p>Herrialdea: .....</p>	<p><b>D</b></p> <p>Izena: .....</p> <p>Herrialdea: .....</p>	<p><b>E</b></p> <p>Izena: .....</p> <p>Herrialdea: .....</p>
<p><b>F</b></p> <p>Izena: .....</p> <p>Herrialdea: .....</p>	<p><b>G</b></p> <p>Izena: .....</p> <p>Herrialdea: .....</p>	<p><b>H</b></p> <p>Izena: .....</p> <p>Herrialdea: .....</p>	<p><b>I</b></p> <p>Izena: .....</p> <p>Herrialdea: .....</p>
<p><b>J</b></p> <p>Izena: .....</p> <p>Herrialdea: .....</p>	<p><b>K</b></p> <p>Izena: .....</p> <p>Herrialdea: .....</p>	<p><b>L</b></p> <p>Izena: .....</p> <p>Herrialdea: .....</p>	<p><b>M</b></p> <p>Izena: .....</p> <p>Herrialdea: .....</p>
<p><b>N</b></p> <p>Izena: .....</p> <p>Herrialdea: .....</p>	<p><b>O</b></p> <p>Izena: .....</p> <p>Herrialdea: .....</p>	<p><b>P</b></p> <p>Izena: .....</p> <p>Herrialdea: .....</p>	<p><b>R</b></p> <p>Izena: .....</p> <p>Herrialdea: .....</p>



<b>Izenburua:</b>	Arkatzaren jokoa
<b>Gaia:</b>	Bakea eta gatazkak
<b>Hartzaileak:</b>	12-16 urte
<b>Iraupena:</b>	Ordubete
<b>Arloa:</b>	Hezkuntza Plastikoa eta Tutoretza
<b>Beharrezko materiala:</b>	1. eta 2. eranskinak. Arkatzak eta paperak.
<b>Helburuak:</b>	Gatazken konponbideari eta interesei buruz hausnartzea.

#### **Laburpena / Nondik norakoak:**

Gauza desberdinak marraztuko dituzten bi pertsonak gauza bera marraztuko dute azkenean, arkatz bakar baten bitartez.

### **Dinamikaren garapena:**

---

Neska-mutilak binaka jarriko dira paperezko orri zuriaren aurrean. Bikote bakar bat, orri bakar bat eta arkatz bakar bat. Bi pertsonak arkatza batera oratu eta ez dute askatuko. Ezin izango dute arkatza inolaz ere askatu. Ez dute hitz egiterik.

Bi eskuz batera oratutako arkatzaz, marrazten hasiko dira. Ez bata ez besteak ez daki zer marraztu nahi duen besteak. Bikoteak banan-banan nahi dutena marrazten ahalegindu beharko dira. Aldez aurretik irudikatutakoaren antzeko zerbait marraztu duenak irabaziko du.

Minutu bat izango dute zerbait pentsatzeko eta irudikatuzko; eta hiru minutu, marrazteko. Hona hemen ustezko emaitzak:

- Bietako batek amore emango du une oro eta bestearen esku utziko du guztia. “Nik galdu egingo dut, zuk irabazteko”.

- Ez bata ez besteak ez dute amore ematen. Ez bata ez besteak ez dute ezer marrazten. “Nik ez dut irabaziko, ezta zeuk ere”.
- Txandaka amore eman eta zerbait marrazten dute. “Ederto, biok irabaziko dugu”.

Ariketa errepikatuko dute, eta, oraingoan, hitz egiteko aukera izango dute.

Hitz eginda eta hitz egin gabe lortutako emaitzak alderatuko dituzte.

Jokoa amaitutakoan, ikasleei eskatu gerrari, bakeari eta gatazken konponbideari buruzko idazlan laburra idazteko. Hurrengo testuak erabili ditzakete eredu moduan (emandako bi testuen edukiaren azterketa laburra ere egin dezakete).

## 1. eranskina

Gerra itzelezko esfortzua da, eta, ekidin nahi izanez gero, bakea are ahalegin handiagoa dela ulertu besterik ez dago. Esfortzu zailen sistema da, eta buru-argitasunaren zorioneko partaidetza behar dute neurri batean. Gainerakoa akats nabaria da benetan. Desagertuz gero gerrak utziko lukeen hutsunea bakea dela interpretatzea izango litzateke bestea. Beraz, ez litzateke kontuan hartuko gerra egiten den gauza bada bakera ere egin beharreko gauza dela, giza ahalmenen bitartez. Bakea ez “dago hor” besterik gabe, gizakien gozamenerako prest. Bakea ez da zuhaitzen berezko fruitua.

La rebelión de las masas. José Ortega y Gasset. 1937.

## 2. eranskina

Bakeak badu arazorik, ez dagoelako alde bakar batetik egiterik. Bakea eratzeko, laguntza behar izango dugu beti. Hain zuzen ere, inoiz eskatuko ez geniokeenaren laguntza ere behar izango dugu. Gure etsaien laguntza... Zeregina ezinezkoa dela esango luke edonork: laguntza behar dut eta etsaiak baino ez didate emango... Lagunduko balidate, ez lirateke etsaiak izango. Izan ere, etsaiak dira, lagundu nahi ez didatelako.

Zeregina, ordea, ez da ezinezkoa. Teoriari begira, zaila ere ez da. Nahikoa izango litzateke gure etsaiak adieraztea eurek ere asko irabaziko luketela lagunduko baligute. Konbentzitu, hitzarmena lortu eta bi alderdiek hitzartutakoa bete.

Une txar bat nahikoa da gerrari ekiteko, baina bakea ahalegin etengabearen emaitza da.

Ensayo sobre la perspectiva. Txomin Lamikiz, Hegia argitaletxea, 1973.

<b>Izenburua:</b>	Oinarrizko premien dinamika
<b>Gaia:</b>	Garapena
<b>Hartzaileak:</b>	12-16 urte
<b>Iraupena:</b>	Ordubete
<b>Arloa:</b>	Etika
<b>Beharrezko materiala:</b>	Papera eta idazteko tresnak.
<b>Helburuak:</b>	Oinarrizko premiei eta giza garapenari buruz hausnartzea.

#### Laburpena / Nondik norakoak:

Simulazio-jokoa da, eta, bertan, parte-hartzaileek euren bizitzarako ezinbestekoak diren osagaiak aukeratu beharko dituzte. Etenik gabe, hipotesiak aurkeztuko dizkiegu, aukeratzen jarraitzeko.

#### Dinamikaren garapena:

Parte-hartzaileek paperezko orri eta arkatz bana edukiko dituzte. Honako galdera hau egin eta banan-banan erantzun beharko diote:

*Zeintzuk dira zure oinarrizko premiak, eurak barik bizitzerik ez duzula edo pertsona moduan garatzerik ez duzula pentsarazten dizutenak?*

Galdera horri erantzuteko, oso erabilgarria izan daiteke jaikitzen direnetik oheratu arte egiten dituzten jarduerak berrikustea eta zerrenda batean idaztea zer gauza erabiltzen dituzten, nolako zerbitzuak behar dituzten, norekin dituzten harremanak...

Banan-banan, zutabe batean jarriko dituzten euren bizitzan behar dituzten gauza materialak; eta beste batean, ezinbestekoak iruditzen zaizkien beste era bateko premiak. Hori egindakoa, garrantzi handitik txikirako irizpideen arabera sailkatuko dituzte premiak.

Gero, honako hipotesi hau aurkeztuko diogu taldeari:

*Jo dezagun gure hirian eraso nuklearra gertatzeaz dagoela. Taldekideek 12na gauza edo pertsona eraman ditzakete aterpera. Ondo aukeratu behar dituzte, etorkizuneko bizitzari begira ezinbestekoak izango direlako. Izan ere, giza garapenerako osagai asko falta ahal izango dira bertan.*

Zerrenda bana prestatuko dute.

Aukeraketa egindakoa, adierazi egingo diegu aterpera jende ugari joango denez aurreko zerrendako lau gauza edo pertsona utzi beharko dituztela kanpoan. Ikaskideei azalduko diete zer aukeratu duten.

Zortzi gauza dituztenean, aterpeko segurtasun-arazoan ondorioz pertsona eta gauza gutxiagorentzako lekua dagoela esango diegu. Beraz, zerrendako 4 osagai baino ez dituzte eramango. Aukeraketa berria egindakoa, auzokoei esango diete. Puntu hau amaitutakoa, 35 minuturen ostean, atsedentzako emango diogu taldeari.

Lauko taldeetan, honako galdera hauek aztertuko dituzte:

- Nola sentitu zara bizitzarako edo giza garapenerako aukerak murriztean?
- Nolako ondorioak izango lituzkete murrizketa horiek zure bizitzan edo bizitzeko aukeran bertan?

Hamar minuturen ostean, talde guztiak batzarrean parte hartuko du, jokoan adierazitakoa eta gaur egungo errealitatea uztartzeko moduko ondorioak lortu ahal izateko.





<b>Izenburua:</b>	Gorriak urdinen aurka, zuriak beltzen aurka
<b>Gaia:</b>	Bakea eta gatazkak
<b>Hartzaileak:</b>	12-16 urte
<b>Iraupena:</b>	45 minutu
<b>Arloa:</b>	Etika
<b>Beharrezko materiala:</b>	Arbela eta klarionak edo kartoi mehea eta errotuladoreak, papera eta boligrafoak.
<b>Helburuak:</b>	Norgehiagoketan elkarlanean jarduten badugu guztiok irabazi egingo dugula ulertzea. Talde aurkarien arteko komunikazioaren garrantzia balioestea.

#### Laburpena / Nondik norakoak:

Taldeetan banatuta, ahalik eta puntu gehien erdietsi beharko dituzte, eurek hartutako erabakien arabera.

#### Dinamikaren garapena:

Jokoaren garapenean, baldintza-aldaketaren arabera lau une daude, jokalariek horren berri ez badute ere. Parte-hartzaileak lau taldetan banatuko ditugu (gorria, urdina, zuria eta beltza). Zuriak beltzen aurka eta urdinak gorrien aurka, eta guzti-guztiak erdialdera begira. Taldea txikia bada, bi kolore baino ez dira aukeratuko, bata bestearen aurka, alegia. Taldeek behatzaile bana aukeratuko dute.

Ariketaren dinamizatzaileak kolorearen arabera deituko die taldeei. Jokoaren urratsak azalduko dizkiegu:

- Gorriak eta urdinak auzo batean bizi dira; zuriak eta beltzak, beste batean. Auzo bateko zein beste taldeak aurkariak dira.
- Etxeak eraiki dituzte auzo bietan eta talde bakoitzak ahalik eta etxe gehien lortu nahi ditu.

d. Etxeak erdiesteko, 3 txanda egongo dira. Txanda bakoitzean, taldeek X-en edo Y-ren aldeko apustua egingo dute. 3 aukera daudela azalduko diegu:

- Auzoko bi koloreek Y aukeratuko dute: koloreek etxe bana irabaziko dute.
  - Taldea batek X eta besteak Y aukeratuko dute: X-ek bi etxe irabaziko ditu; eta Y-k, bat ere ez.
  - Biek X aukeratuko dute: ez bata ez besteak ez dute etxerik lortuko.
- e. Jokaldi bakoitzean, auzoko hiru etxe banatuko dira gehienez ere.
- f. Jokaldi bakoitzean, taldeek bi minutuko barne-etzabaida garatu ahal izango dute, X-en ala Y-ren aldeko apustua egingo duten erabakitzeko.

Erabakitakoa paperean idatziko dute. Hiru txanda egingo dira estrategia horren bidez.

Dinamizatzaileak arbelean edo kartoi mehean idatziko du kolore bakoitzak jokaldi bakoitzean zer irabazten duen.

Lehenengo 3 txanden ondoren, taldeari azaldu gutuna iritsi berri dela, etxe gehiago eraikiko dituztela jakinarazteko. Lehen bezala, hiru txanda egongo dira, baina azken bietan etxeen kopurua bikoiztuko da, kilikagarriagoa izateko.

Berriro ere, gutuna iritsiko da eta etxe gehiago lortzeko aukera ere bai. Oraingoan, aurreko zailtasunak konpontzeko, euren artean komunikatu ahal izango dira taldeak. Taldeek kide bana aukeratuko dute negoziaketarako, eta, hurrengo hiru txandetan, kide hori beste talde bateko parekoarenera joan ahal izango da, hitzarmena erdiesteko. Hemen, etxeen kopurua hirukoiztu ahal izango da (bederatziko apustua egingo da txanda bakoitzean), taldeak zirikatzeke.

#### Ebaluazioa

1. Euren kokalekutik mugitu gabe, jokoaren garapena ebaluatuko da. Nolakoa izan da prozesua?
2. Behatzaileek euren kolorean zer ikusi duten azalduko dute.
3. Lau taldeak nahastu egingo dira, eta taldekideak biribilean jarriko dira, ariketa balioesteko. Taldeen estrategiak aztertuko dira, komunikaziorik ez zegoenean elkarlanean aritzea zaila zen ala ez, komunikazioa zegoenean elkarlanak hobera egin zuen ala ez, beste kolorea etsaitzat hartu zuten ala ez, negoziatzean irudi hori aldatu zen ala ez...

<b>Izenburua:</b>	Zorioneko jatekoa!
<b>Gaia:</b>	Garapena
<b>Hartzaileak:</b>	12-18 urte
<b>Iraupena:</b>	Ordubete
<b>Arloa:</b>	Ekonomia, Gizarte Zientziak
<b>Beharrezko materiala:</b>	1. eranskinaren fotokopiak.
<b>Helburuak:</b>	Munduko gosearen arazoiei buruz hausnartzea.

**Laburpena / Nondik norakoak:**

Munduko goseari zergatik aurre egin ez diogun hausnartuko dute.



**Dinamikaren garapena:**

---

Hausnarketarako gaia proposatzen duen lehenengo fitxa banatu (1. eranskina). Zenbait minutuz hausnartu eta taldean azaldu. Ostean, behean agertzen diren galderak irakurri behar dugu zer iradokitzen dien azaldu dezaten.

1. Zer ondorio atera ditugu ariketa egitean?
2. Elikagairik eza da munduko goseari aurre egiteko arazoa?
3. Zein da nazioarteko erkidegoaren zeregina arazo larri honi aurre egiteko orduan?
4. Zergatik banatzen ote dira bidegabekeriak aberastasuna eta elikagaiak?
5. Garrantzitsua da kontsumitzaileen zeregina?

**1. eranskina**

1963. urtean, John F. Kennedy Estatu Batuetako presidentea bi helburu zehaztu zituen 60ko hamarkadaren amaieran: gizakia ilargira iritsiko zela eta gosea desagertu egingo zela. Lehenengoa asmo handikoa bazen ere, orain dela 30 urte lortu zuten. Bigarrena, ordea, inoiz baino urrunago omen dago. Zergatik gertatu ote da hori? Hutsuneak bete futbol-zelaian.

**ILARGIA**  
1

Zergatik lortu zuten?

**GOSEA**  
0

Zergatik ez zuten lortu?

<ul style="list-style-type: none"> <li><input type="radio"/> Mendebaldeko gizartearen aberastasunagatik</li> <li><input type="radio"/> Estatu Batuen nagusigoagatik</li> <li><input type="radio"/> .....</li> <li><input type="radio"/> .....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li><input type="radio"/> Mendebaldeko txirotasunagatik</li> <li><input type="radio"/> Mendebaldeko gobernuen interes ezagatik</li> <li><input type="radio"/> .....</li> <li><input type="radio"/> .....</li> </ul>
--	--



<b>Izenburua:</b>	Iparraldea-hegoaldea galde-sorta
<b>Gaia:</b>	Garapena
<b>Hartzaileak:</b>	12-16 urte
<b>Iraupena:</b>	20 minutu
<b>Arloa:</b>	Etika, Gizarte Zientziak
<b>Beharrezko materiala:</b>	1. eranskinaren galde-sortaren fotokopiak ikasle bakoitzarentzat eta idazteko materiala.
<b>Helburuak:</b>	Iparraldeko-hegoaldeko errealitateari buruz daukagun ezagutza nolakoa den jakitea. Ongizatearen inguruko zenbait estereotipo apurtzea.

**Laburpena / Nondik norakoak:**

Galde-sorta bete eta erantzunak azaldu. Erantzunak banatu eta eurei buruz hitz egin.

**Dinamikaren garapena:**

Dinamika hau banan-banan edo hirutik beherako taldeetan landu beharra dago. Galde-sorta (1. eranskina) banatu eta 10 minutu eman betetzeko. Ondoren, dinamizatzaileak bost galdera aukeratuko ditu guztien artean, zer erantzun duten jakiteko. Galderak

banan-banan egingo dizkie, eta bi edo hiru laguni eskatuko die zer erantzun duten eta euren aukeraketa zertan oinarritu duten esateko. Erantzunak arbelean idatzi. Amaitzeko, erantzun zuzen guztiak eskaini eta eztabaidari ekin.

**Ebaluazioa**

- |   |   |
|---|---|
| 1. Zer erantzun izan dira harrigarrienak? Zergatik?   | 3. Galde-sortan eskainitako datuak kontuan hartuta, zeintzuk dira kezkarrienak? |
| 2. Zer neurritan datoz bat datu horiek herrialde/eskualde bakoitzari buruz daukagun iritziarekin? | 4. Zeintzuk urratzen dituzte giza eskubideak?                                   |

**1. eranskina.** Galde-sorta

Honako esaldi hauek beherago agertzen diren zenbait lekuren bitartez osatu behar dira. Gogoan izan errepikatu egin daitezkeela eta ez direla guztiak ezinbestean irten behar.

Amerika, Asia, Europa, herrialde garatuak, Suitza, garapen-bidean dauden herrialdeak, Estatu Batuak, Etiopia, Kalkuta, Herbehereak, Zaire, Peru, Anberes, Kuba, Kanbodia, Espainia, herrialde txirotak.

- CO<sub>2</sub> igorpenei dagokienez, \_\_\_\_\_ da munduko herrialde kutsatzaileena, urtero 20,5 tona igortzen ditu-eta.
- \_\_\_\_\_ etako neska-mutikoen %90 ia-ia tuberkulosiaren aurka daude immunizatuta.
- \_\_\_\_\_ etan, biztanleen %44,1ek ez daki nola bete edozein produktu eskatzeko orria.
- \_\_\_\_\_ n, bost lagunetatik batek ez daki zenbat pilula eman behar zaizkien umeei prospektuko argibideak irakurri ondoren.
- Bederatzi segundoan behin, emakume bat abusu sexualaren biktima da \_\_\_\_\_ etan.
- Ekonomiaren eta politikaren arloko erabakiak hartzeko orduan, emakumeen partaidetzaren indizea handiagoa da \_\_\_\_\_ n Frantzia baino.
- \_\_\_\_\_ etan, 200 miloi su-arma baino gehiago daude zirkulazioan.
- \_\_\_\_\_ n, 50 milioi inguru pertsona bizi dira txirotasunean eta 18 milioi pertsona daude langabezia.
- \_\_\_\_\_ etan, 3.300 laguni ezarri diete heriotza-zigorra.
- \_\_\_\_\_ n, jatorrizko basoen %1 baino ez dago zutik.
- 40 milioi lagunek ez dute osasun-estaldurarik \_\_\_\_\_ etan.
- \_\_\_\_\_ en, emakume zuriak salerosteko sareen biktimak diren 1.500 inguru emagaldu kalean eta erakusleihoetan jartzen dituzte ikusgai.



- Erantzunak:
- CO<sub>2</sub> igorpenei dagokienez, Estatu Batuak da munduko herrialde kutsatzaileena, urtero 20,5 tona igortzen ditu-eta.
  - Herrialde txirotetako neska-mutikoen %90 ia-ia tuberkulosiaren aurka daude immunizatuta.
  - Herbehereetan, biztanleen %44,1ek ez daki nola bete edozein produktu eskatzeko orria.
  - Suitzan, bost lagunetatik batek ez daki zenbat pilula eman behar zaizkien umeei prospektuko argibideak irakurri ondoren.
  - Bederatzi segundoan behin, emakume bat abusu sexualaren biktima da Estatu Batuetan.
  - Ekonomiaren eta politikaren arloko erabakiak hartzeko orduan, emakumeen partaidetzaren indizea handiagoa da Kuban Frantzia baino.
  - Estatu Batuetan, 200 miloi su-arma baino gehiago daude zirkulazioan.
  - Europan, 50 milioi inguru pertsona bizi dira txirotasunean eta 18 milioi pertsona daude langabezia.
  - Estatu Batuetan, 3.300 laguni ezarri diete heriotza-zigorra.
  - Europan, jatorrizko basoen %1 baino ez dago zutik.
  - 40 milioi lagunek ez dute osasun-estaldurarik Estatu Batuetan.
  - Anberesen, emakume zuriak salerosteko sareen biktimak diren 1.500 inguru emagaldu kalean eta erakusleihoetan jartzen dituzte ikusgai.



<b>Izenburua:</b>	Ideien barometroa
<b>Gaia:</b>	Garapena
<b>Hartzaileak:</b>	12 urtetik aurrera
<b>Iraupena:</b>	20 minutu
<b>Arloa:</b>	Etika, Gizarte Zientziak
<b>Beharrezko materiala:</b>	Horman itsasteko eta “Aldekoa / Benetakoa” edo “Aurkakoa / Gezurrezkoa” jartzeko pare bat kartel. Atari zabalean bagaude, bi eremuak banatzeko irudizko marra egin besterik ez dugu. Jorratu nahi dugun gaiari buruzko baieztapen eztabaidatuen zerrenda. Adibide moduan emandako zerrenda (1. eranskina).
<b>Helburuak:</b>	Zerk batzen dituen eta zerk bereizten dituen jakiten laguntzea parte-hartzaileei. Egitateen eta iritzien artean bereiztea.

#### Laburpena / Nondik norakoak:

Parte-hartzaileek balio-judizioa dakarren proposamenari buruzko iritzia emango dute. Erabat alde edo erabat aurka egongo dira edo bitarteko jarrera eduki ahal izango dute (+ / -), baina ez dira inolaz ere neutralak izango.

#### Dinamikaren garapena:

Bi kartel jarriko dira gelan, izkina banatan. Bata “Aldekoa / Benetakoa” izango da; eta bestea, “Gezurrezkoa / Aurkakoa” izango da.

Dinamizatzaileak jokoaren arauak azalduko ditu. Banan-banan, proposamenak aurkeztuko dira, eta pertsonak euren inguruko jarrera adierazi beharko dute isiltasunean. Dinamizatzaileak taldea zati orekatu samarretan banatzen duen proposamena bilatu behar du. Ezin da jarrera neutralik egon, nork bere iritzia izan behar du. Baieztapenak ulertu bezala hartu behar dira, ez dagoelako inolako azalpenik eskatzerik.

Proposamenei buruzko jarrera hartzean, eremu batean edo bestean lekuratuko dira: “Aldekoa / Benetakoa”, eskuinerantz; “Aurkakoa / Gezurrezkoa”, ezkererantz; eta + / -, bien artean, banatuta.

Jokoaren arauak ondo ulertutakoan, dinamizatzaileak esaldi eztabaidatua proposatuko du (horra hor 1. eranskinean proposatutako esaldien zerrenda). Esaldi bakoitzean, taldekideak eremu batean lekuratuko dira (“Aldekoa / Benetakoa” edo “Aurkakoa / Gezurrezkoa”). Talde osoa lekuratu denean, eztabaidari ekingo diote, eta euren aukeraketaren arrazoiak azalduko dituzte.

Bi aldeetako arrazoiak entzun ondoren, jarreraz aldatu ahal izango dira, eta beste proposamen bat egin ahal izango dute (esaldi berria ez da hasierakoaren testuingurutik irtengo, baina adostasun handiagoa sortuko du).

Esaldiak amaitutakoan, jarraitzaileen eta gaitzesleen artean orekatuen egon den esaldia aukeratu daiteke, sakon eztabaidatzeko eta entzumen aktiboko ariketa egiteko.

*“Aldekoa / Benetakoa”*

*“Aurkakoa / Gezurrezkoa”*

#### Ebaluazioa

- Erraza ala zaila izan da esaldien inguruko jarrera adieraztea?
- Arrazoibideak entzun ahala, zer aldaketa gertatu dira?
- Zuentzat hurbila izan daiteke zuek ez bezalako ideiak edo balioak dituen pertsona?



## 1. eranskina. Zerrenda bat, adibide moduan

- Telebistako iragarkiek eragina dute nire erosketetan.
- Markadun arropa janzten dut, oso gustuko dudalako.
- UPA Dancekoen, Beckhamen... antzeko arropa daramat.
- Duela urte bat, bi edo hiru urteko marka berberak janzten ditut.
- Haserretzeko eskubide osoa daukat, gurasoek zerbait erosi ez badidate.
- Batzuetan, behar ez ditudan gauzak erosten ditudala uste dut.
- Behar dudana baino ez dut erosten.
- Oso kontuan hartzen dut nolako ondorioak izan ditzaketen nire erosketek beste pertsona batzuetan, ingurunean...
- Oso kontuan hartzen dut non egiten den arropa.
- Ez dut ezer egiterik esplotatutako langileen egoera aldatzeko.
- Hegoaldeko herrialdeetako neska-mutikoek lan egingo ez balute, euren familiak gosez hilko lirateke.
- Laneko esplotazioa multinazionalen arazoa da.
- Beste herrialde batzuetako langileek zortzi orduz lan egiten dute eta astean bitan hartzen dute atsedena.



<b>Izenburua:</b>	Nortzuk gara?
<b>Gaia:</b>	Kultura artekotasuna
<b>Hartzaileak:</b>	12 urtetik aurrera
<b>Iraupena:</b>	Ordubete
<b>Arloa:</b>	Hizkuntza, Gizarte Zientziak, Etika, Historia
<b>Beharrezko materiala:</b>	Aldez aurretik banatu bibliografia (1. eranskina). Idazteko materialak. Internet.
<b>Helburuak:</b>	Bizitzan zehar pertsonak lurraldez aldatzen direla eta erkidegoak une desberdinetan zein arrazoi desberdinengatik harantz eta honantz dabilzan pertsonak osatzen dituztela ikustea.

**Laburpena / Nondik norakoak:**

Abizenen bidez, pertsonen jatorriari buruz ikertuko dute.

---

**Dinamikaren garapena:**

Nork bere zuhaitz genealogikoa egingo du, eta, horretarako, honako hau hartuko du kontuan:

- Gutxienez, zortzi abizen jakin beharko dira.
- Bertan jasotako abizenen jatorria adierazi beharko da.

Inkesta egin daiteke, senitartekoen jatorriari buruzko informazioa lortzeko (8 abizen = 4 belaunaldi) eta urteetan zehar gaur egunera arte zer mugimendu egin duten jakiteko. Horrela, bada, zuhaitzean agertzen diren senitartekoen jaioterria adierazi daiteke zuhaitzean bertan. Esate baterako, "aitonamonak "X-n" jaio ziren, baina "Y-ra" joan ziren".

Aurreko ariketetako informazioa eskuratutakoan, mapa bana egingo dute:

- Aurreko 4 belaunaldietan egondako migrazio-fluxuak.
- Abizenen jatorria.

Zer ondorio atera daitezke, emaitzak kontuan hartuta? Talde txikietan, euren jatorriari buruzko idazlan laburra egin dezakete, senitartekoen zer leku zeharkatu dituzten adierazita. Ondoren, honako gai hauei buruz eztabaidatu dezakete talde handi batean: mugikortasuna, migrazioak, arrazoiak, lekuz aldatzean pertsonak dituzten itzaropenak, abantailak eta desabantailak...


## 1. eranskina. Bibliografía eta web orriak


### Euskal abizenak

- [www.kaixo.com](http://www.kaixo.com)
- Diccionario onomástico y heráldico vasco. Jaime de Querexeta ([www.paisvasco.net/heraldica](http://www.paisvasco.net/heraldica))
- Apellidos vascos. Luis Mitxelena, Donostia, Txertoa argitaletxea, 1973.
- [www.iraairgi.org](http://www.iraairgi.org) (Euskadiko Ondare Dokumentalaren Zentroa).
- Blasones y linajes de Euskalherria. Endika de Mogrobejo.

### Gaztelaniazko abizenak

- Diccionario heráldico y genealógico de apellidos españoles y americanos. Antonio y Alberto García Carraffa, Madril, 1935.
- Diccionario heráldico de apellidos españoles. Julio de Atienza Navajas, Aguilar argitaletxea, Madril, 1959.
- Diccionario hispanoamericano de heráldica, onomástica y genealogía. Endika de Mogrobejo, Mogrobejo-Zabala argitaletxea, Bilbo, 1996.
- [www.elanillo.com](http://www.elanillo.com)
- Manual de heráldica española. Eduardo Pardo de Guevara y Valdés, Aldaba Ediciones, Madril, 1987.
- Libro de oro de apellidos españoles. Ernesto Vilches.
- Origen de trescientos apellidos castellanos vascongados. Luis de Salazar.
- Diccionario histórico genealógico y heráldico. Luis Vilar y Pascual.





<b>Izenburua:</b>	Nire eskubideak, gure eskubideak, euren eskubideak
<b>Gaia:</b>	Giza Eskubideak
<b>Hartzaileak:</b>	12-16 urte
<b>Iraupena:</b>	Ordubete
<b>Arloa:</b>	Etika, Gizarte Zientziak
<b>Beharrezko materiala:</b>	Ikasleentzako kasu praktikoak (1. eranskina), irakasleentzako erantzunak (2. eranskina) eta kontsultatzeko bibliografia (3. eranskina).
<b>Helburuak:</b>	Nazio Batuetako Giza Eskubideen Adierazpenaren ezagutzan sakontzea.

**Laburpena / Nondik norakoak:**

Irudizko zenbait kasutan oinarrituta, giza eskubideei buruz hausnartuko dute.

**Dinamikaren garapena:**

Kasu praktikoak eskaintzen dituen agiria banatuko diegu. Egoera zehatz horietan, eskubide-motaren bat urratuko da. Kasuak taldeetan irakurriko dituzte. Taldekide guztien artean, zer eskubide urratzen den eta Adierazpen Unibertsaleko zer artikulutan jasotzen den eskubide hori adieraziko dute.

Kasuak irudizkoak diren arren, oinarrizko eskubideen urraketen adierazgarri dira, eta etengabe gertatzen dira

munduko leku askotan. Irakasleak bosna kasu emango dizkie taldeei. Taldekideek benetako beste 5 kasu bilatu beharko dituzte, eta eskubideak urratu beharko dira bertan. Amaieran, taldeek benetako kasuak azalduko dizkiete gainerako ikaskideei. Era berean, nola konpondu daitezkeen eta egoera horiei nola aurre egin ahal diegun adieraziko dute.

## 1. eranskina. Ikasleentzako kasu praktikoak

### 1. KASUA

Tutoreak ageriko inolako arrazoirik gabe zigortu zaitu. Azalpenak eskatu dizkiozunean, adiskide bati idatzi diozun gutuna erakutsi dizu, eta, bertan, gogor kritikatzan zenuen. Antza denez, zure karpeta ireki du Hezkuntza Fisikoko klasean zeunden bitartean.

URRATUTAKO  
ESKUBIDEA:   
ARTIKULUA:

### 3. KASUA

Herrialdeko gobernua ez dute inoiz hiritarrek aukeratu, eta hiritarrek ez dute inolako eraginik gobernuaren erabakietan.

URRATUTAKO  
ESKUBIDEA:   
ARTIKULUA:

### 5. KASUA

Aurton, ikastetxeko matrikulen kopurua erdira jaitsi dute. Ikasgelako bost neska-mutili ikastetxean ikasten jarraitzea debekatu diete, eta, hamasei urte eduki arren, lanean hasi behar dira.

URRATUTAKO  
ESKUBIDEA:   
ARTIKULUA:

### 2. KASUA

Familiak orubetxoa dauka hirian. Udalak saltegi handiak eraikiko ditu bertan, eta lursaila desjabetuko dizue, horren truke ezer eman gabe.

URRATUTAKO  
ESKUBIDEA:   
ARTIKULUA:

### 4. KASUA

Adiskide bat janari azkarreko establezimendu batean hasi da lanean. Arduradunari sindikatuko hauteskundeei buruz galdetu dionean, aitzakiak besterik ez dio jarri. Hurrengo egunean, inolako arrazoirik gabe kaleratu dute.

URRATUTAKO  
ESKUBIDEA:   
ARTIKULUA:

### 6. KASUA

Ahizpa/Arreba hepatitisak jota dago. Gaixotasunak luze joko du, eta aitak, amak eta zuk hil egingo dela uste duzue. Zuen hirian, ordea, ez dago ez medikurik ez osasun-langilerik. Hori dela eta, ez dauka nor atenditu.

URRATUTAKO  
ESKUBIDEA:   
ARTIKULUA:

### 7. KASUA

Oso gustuko duzu literatura eta horretan jardun nahi duzu. Filologia ikasi nahi duzu, eta, ahal izanez gero, idazlea izan nahi duzu. Nolanahi ere, gurasoek Ingeniaritza ikastera behartu zaituzte, zuk nahi ez baduzu ere eta irakasleek aurkakoa gomendatu badute ere.

URRATUTAKO  
ESKUBIDEA:   
ARTIKULUA:

**8. KASUA**

Matematiketako azterketa ondo egin duzu, eta ongi edo bikain aterako duzula uste duzu. Irakasleak emaitzak eman dizkizunean, gutxiegi duzula ikusi duzu eta ez duzu zergatik ulertzen. Berarekin hitz egitera joan zarenean, azterketak erakusten eta berrikusten ez dituela esan dizu. Bidezkoa ez dela adierazi diozu, baina ez du zurekin hitz egin nahi eta ebaluazioa suspenditu dizu. Ikasketa-buruarengana jo duzu, baina bere eskumena ez dela esan dizu. Haserre bizian, zuzendariarenera joan zara, baina irakaslearen hitzaren aurrean ezer egiterik ez dagoela esan dizu, legeak ikasgaiaren gaineko erabateko boterea ematen diolako irakasleari.

URRATUTAKO  
ESKUBIDEA:   
ARTIKULUA:

**10. KASUA**

Katolikoa zara, herrialdeko erlijioa beste bat izan arren. Ez duzu mezataria joaterik eta jendaurrean edo eremu pribatuan otoiiz egiterik. Agindua bete ezean, kartzelaratu egingo zaituzte.

URRATUTAKO  
ESKUBIDEA:   
ARTIKULUA:

**12. KASUA**

Osaba hil ostean, alarguna (izeko) ezer barik geratu da: ez zeukaten aurrezki askorik eta izekok ez du inoiz etxetik kanpo lan egin. Orain, 70 urte dituela, ez dauka gainerakoen karitatetik haratago bizirauteko aukerarik.

URRATUTAKO  
ESKUBIDEA:   
ARTIKULUA:

**9. KASUA**

Hirian bat-bateko lurrikara gertatu da, eta etxebizitza, denda, ospitale... guztiak lurpean geratu dira. Biztanle guztiak etxea eta lana galdu dituzte. Elikagairik, edateko urik eta sendagairik ez dagoenez, alboko hirira joan zarete, eta zutik dago. Ibilaldiari ekitean, harrituta ikusi duzue alboko hiriko agintariak zaintza-kameradun harresia eraiki dutela eta segurtasun-polizia jarri dutela, inor ez sartzeko.

URRATUTAKO  
ESKUBIDEA:   
ARTIKULUA:

**11. KASUA**

Herrialdeko gobernua gehiago eztabaida ezinaz aukeratu dute hiritarrek. Inguruabar horren babespean, etorkizunean hauteskunderik egongo ez dela eta herrialdearen mesederako gobernatuko duela beti jakinarazi die hiritarrei.

URRATUTAKO  
ESKUBIDEA:   
ARTIKULUA:

**13. KASUA**

Gau batean, adiskideekin zaude parke batean hitz egiten. Bat-batean, motordun lagun-taldea iritsi eta irainka hasi zaizue. Zure lagun bat jo dute, eta euren "lurraldetik" alde egiteko esan dizuete. Egoera hori asteburu batean baino gehiagotan gertatu da.

URRATUTAKO  
ESKUBIDEA:   
ARTIKULUA:

**14. KASUA**

Norbaitek Hizkuntzako irakaslea iraindu du ikasgelako arbelean. Zigor moduan, irakasleak bost ikasle ausaz bota ditu ikasgelatik eta irailera arte suspenditu die ikasgaia.

URRATUTAKO  
ESKUBIDEA:   
ARTIKULUA:

## 15. KASUA

Neskato bat patera batean jαιο da Gibraltarko itsasartean. Hona iristean, ez dute Espainiako hiritartzat hartu, eta, gurasoak sorterrira itzuli direnean, umea atzerritara dela eta herrialdeko eskubideak ez dituela esan diete bertako agintariak.

URRATUTAKO  
ESKUBIDEA:   
ARTIKULUA:

## 17. KASUA

Lagun batek eta zuk udan lan egiteko erabakia hartu duzue, eta hipermerkatu batean kontratatu zaituztete. Hiru hilabetez, hipermerkatuko kutxan lan egin duzue. Uda amaitutakoan, ordaindu egin dizuete. Harri eta zur geratu zarete, zure lagunak zuri ordaindutakoaren erdia baino ez duelako jaso, biek lanpostu berean jardun arren.

URRATUTAKO  
ESKUBIDEA:   
ARTIKULUA:

## 19. KASUA

Herrialdea gerran dago. Halako batean, militar-taldea iritsi da ikastetxera, eta aberriak zuen premia duela esan dizue. DBHko 4. mailako ikasle guztiak errekrutatatu dituzte.

URRATUTAKO  
ESKUBIDEA:   
ARTIKULUA:

## 16. KASUA

Adiskideekin hitz egiten ari zarela, iritzi zehatz bat adierazi duzu ahoz gora. Hurrengo egunean, agintariak eskola-espetze batera eraman zaituzte, eta, bertan, egunez egun bonbardatu zaituzte zureak ez bezalako teorien bitartez, harik eta konbentzitu egin zaituzten arte. Orduan, askatu egin zaituzte.

URRATUTAKO  
ESKUBIDEA:   
ARTIKULUA:

## 18. KASUA

Biologiako klasean lan bat taldean egiteko agindu dizuete. Zure lau ikaskideek “landa-lan” guztia egin dute: landare-laginak hartu dituzte, euren ezaugarriak azaldu dituzte eta herbarioa egin dute. Zuk lanaren laburpena eta ondorioak ordenagailuz idatzi besterik ez duzu, eta bihar irakasleak horixe baino ez du eskatuko. Hala ere, zinera joan zara eta ez duzu taldeko ikaskideek agindutako ezer egin. Hurrengo egunean, esku hutsik joan zara ikasgelara eta taldekide guztiek suspenditu dute ikasgaia.

URRATUTAKO  
ESKUBIDEA:   
ARTIKULUA:

## 20. KASUA

Udan, lana aurkitu duzu hipermerkatu bateko merkantziak husten. Egutero joan zara goizeko 8:00etatik gaueko 8:00etara. Lehenengo egunean, enpresa horretan ez direla bazkaltzera irteten eta ogitartekoa eraman behar duzula esan dizute. Ostiralean, ezohiko eskaera iritsi dela eta larunbatean zein igandean lan egin behar duzula esan dizute. Egoera hori behin eta berriro gertatu da hilabete osoan zehar. Hilabetearen amaieran, 30 euro ordaindu dizkizute. Protesta egin duzunean, “horixe besterik ez dagoela” esan dizute. Kontraturik egin ez dizutenez, ez dakizu nori erreklamatu.

URRATUTAKO  
ESKUBIDEA:   
ARTIKULUA:

**21. KASUA**

Ikaskide batek zorroa lapurtu diozula egotzi dizu. Errugabea zara eta badakizu faltsutasunez salatu zaituela. Kasua aztertzeko batzordea sortzeko eskatu duzu, eta, lortu duzunean, batzorde horretako zuzendaria salatu zaituen mutilaren aita da. Agerikoa denez, aitak zuri baino gehiago sinesten dio semeari. Ikastetxetik bota zaituzte.

URRATUTAKO  
ESKUBIDEA:

ARTIKULUA:

**23. KASUA**

Batxilergoko azken maila amaitu duzue. Zure lagun minak zuk baino askoz espediente bikainagoa dauka, zure kaskar samarra da-eta. Zoritxarrez, familiak ezin dio unibertsitatea ordaindu. Hori dela eta, zu unibertsitatera joango zara, baina bera, ez.

URRATUTAKO  
ESKUBIDEA:

ARTIKULUA:

**25. KASUA**

Norbaitek pintada egin du ikastetxeko horman. Tutoreak horren berri eman dizuenean, zu zeu izan zarela esan dizu. Hain zuzen ere, inondik inora egiaztatzerik ez badu ere, oso seguru dago zeu izan zarela. Ahal duen guztia egingo du zu zeu agerian uzteko. Ez duzu pintadarik egin, eta ez dakizu nor izan ote den. Hala ere, salaketa horren ostean, kide guztiek zeu izan zarela uste dute eta irakasleek behin eta berriro esan dizute aitortzeko.

URRATUTAKO  
ESKUBIDEA:

ARTIKULUA:

**22. KASUA**

Informazioaren Zientzietako lizentziaduna zara, eta egunkari batek oso gogoko duzun lana eskaini dizu. Nolanahi ere, estatuak Nortasun Agiriaren bulegoan lan egitera behartu zaitu, zuk nahi ez duzun arren.

URRATUTAKO  
ESKUBIDEA:

ARTIKULUA:

**24. KASUA**

Laguna eta zu supermerkatuan sartu zarete. Zu konturatu gabe, lagunak zerbait lapurtu du, korrika hasi da eta ihes egin du. Supermerkatuko jabeak harrapatu egin zaitu eta lagunaren datuak eskatu dizkizu. Zuk ez dizkiozu eman nahi izan. Polizia iritsi denean, supermerkatuko biltegira eraman zaituzte eta joka hasi zaizkizu, harik eta eurek nahi dutena esan arte. Ezer esan ez diezunez, mehatxatu egin zaituzte, eta are txarragoa izan da. Ezer ez badiozu, sare elektrikora konektatutako kableaz kiskalduko zaituztela esan dizute.

URRATUTAKO  
ESKUBIDEA:

ARTIKULUA:

**26. KASUA**

Orain dela lau hilabete, oso gustuko duzun mutilarekin irteten hasi zara. Behin batean, ikastetxearen ostean iritsi zara etxera, eta egun horretan senarra ezagutuko duzula esan dizute gurasoek. Orduan, inoiz ikusi ez duzun hamasei urteko mutila gurasoekin heldu da zuenera. Egongelan kafea hartzen egon zareten bitartean, zure eta bere gurasoek zuen ezkontzaren eguna eta ordua hitzartu dituzte.

URRATUTAKO  
ESKUBIDEA:

ARTIKULUA:



## 27. KASUA

Eskualdeko erreserba naturaletik hurbil zentral nuklearra eraiki nahi dutenez, zenbait ikastetxetako ikasleen artean antolatutako manifestaldi baketsuan parte hartu duzu. Bertan, lanak eteteko eta energia berriztagarriak erabiltzeko eskatu duzue. Atxilotu eta espetxeratu egin zaituztete.

URRATUTAKO  
ESKUBIDEA:

ARTIKULUA:

## 29. KASUA

Beste herrialde batera bizitzera joan zara familiarekin. Bertan, ikastetxe berri batean ikasten hasi zara. Historiako irakaslea iritsi denean, Antoñete izena jarri dizu, “español guztiak toreroak direlako. Irakurtzen eta idazten dakizun eta telebista zer den badakizun galdetu dizu. Herrialde “azpigaratuetan” nola bizi den jendea galdetu dizu.

URRATUTAKO  
ESKUBIDEA:

ARTIKULUA:

## 31. KASUA

Amak ustelkeria-kasu ikaragarria aurkitu du herrialdeko gobernuan. Hirugarren munduari laguntzeko bildutako dirua armetan inbertitu du Defentsa Ministerioak, eta gobernuko goi-mailako karguek ere dirutza sartu dute euren poltsikoetara. Komunikabide batean salatu du, eta polizia gainera etorri zaio. Zu eta zure familia Frantziara ihes egiten ahalegindu zarete, baina mugako jendarmeek eragotzi egin dizuete eta zuen herrialdeko agintariengana eraman zaituztete, zuek egoera zein den azaldu badiozue ere.

URRATUTAKO  
ESKUBIDEA:

ARTIKULUA:

## 28. KASUA

Gurasoek multinazional bateko enpresa ezagunean lan egiten dute hirian bertan. Egun batean, enpresa itxi egingo dutela iragarri dute, Amerika Latinoko herrialde batera joango direlako. Biak lanik gabe geratu direnez, etxea saldu behar izan duzue, eta berokuntzarik gabeko etxebizitza txiki-txikia alokatu behar izan duzue, familia osoarentzat bainugela bakarra badu ere.

URRATUTAKO  
ESKUBIDEA:

ARTIKULUA:

## 30. KASUA

Azterketa batean zaude. Ez dakizu nola erantzun galderetako bati eta “txuleta” atera duzu. Irakasleak ikusi egin zaitu. Ikastetxeko jolastokira irteteko agindu dizu. Belaunikatzeko eta besoak gurutzean jartzeko esan dizu bertan. Horrez gain, letra handi-handiz “Laburra naiz eta ez daukat nire kabuz gainditzeko bestekorik” dioen kartela jarri dizu. Atsedendaldi osoan zehar, horrelaxe egon zara ikaskide guztien aurrean.

URRATUTAKO  
ESKUBIDEA:

ARTIKULUA:

## 32. KASUA

Astelehenero, lagun batzuek eta zuk bilera egiten duzue, ikasgelako egoeraz eta ustezko konponbideez hitz egiteko. Horren berri izan dutenean, ikastetxean bertan zein ikastetxetik kanpo bilera horiek egitea debekatu dizuete irakasleek. Bildu egin zareta jakinez gero, zigortu egingo zaituztete.

URRATUTAKO  
ESKUBIDEA:

ARTIKULUA:

**2. eranskina.** Irakasleentzako erantzunak**1. KASUA**

URRATUTAKO ESKUBIDEA: INTIMIDADERAKO ESKUBIDEA (INJERENTZIARIK EZ).

**12.** ARTIKULUA: “INORK EZ DU INJERENTZIA ARBITRARIORIK JASANGO BERE BIZITZA PRIBATUAN, FAMILIAN, ETXEAN EDO GUTUNETAN, EZ ETA BERE OHOREAREN EDO IZEN ONAREN AURKAKO ERASORIK ERE.

GIZAKI GUZTIEK LEGEAREN BABESA JASOTZEKO ESKUBIDEA DUTE, HALAKO INJERENTZIAK EDO ERASOAK JASATEN DITUZTENEAN.”

**3. KASUA**

URRATUTAKO ESKUBIDEA: GOBERNUAN PARTE HARTZEKO ESKUBIDEA.

**21.1.** ARTIKULUA: “GIZAKI GUZTIEK EUREN HERRIALDEKO GOBERNUAN ZUZENEAN EDO ASKATASUNEZ HAUTATUTAKO ORDEZKARIEN BIDEZ PARTE HARTZEKO ESKUBIDEA DUTE.”

**5. KASUA**

URRATUTAKO ESKUBIDEA: HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA.

**26.1.** ARTIKULUA: “GIZAKI GUZTIEK HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA DUTE. HEZKUNTZA DOAKOA IZAN BEHAR DA, OINARRIZKO ETA FUNTSEZKO MAILETAKOA, BEHINTZAT. OINARRIZKO HEZIKETA DERRIGORREZKOIA IZANGO DA. HEZIKETA TEKNIKOA ETA PROFESIONALA OROKORRA IZAN BEHAR DA. GOI-MAILAKO IKASKETETARAKO SARBIDEA BERDINA IZANGO DA GUZTIENTZAT, KASUAN KASUKO MEREZIMENDUEN ARABERA.”

**7. KASUA**

URRATUTAKO ESKUBIDEA: ASKATASUNERAKO ESKUBIDEA.

**3.** ARTIKULUA: “GIZAKI GUZTIEK BIZITZARAKO, ASKATASUNERAKO ETA EUREN SEGURTASUNERAKO ESKUBIDEA DUTE.”

**2. KASUA**

URRATUTAKO ESKUBIDEA: JABETZARAKO ESKUBIDEA.

**17.1.** ARTIKULUA: “GIZAKI GUZTIEK BANAN-BANAKO ETA TALDEKAKO JABETZA IZATEKO ESKUBIDEA DUTE.”

**4. KASUA**

URRATUTAKO ESKUBIDEA: SINDIKATU BATEKO KIDEA IZATEKO ESKUBIDEA.

**23.4.** ARTIKULUA: “GIZAKI GUZTIEK SINDIKATUAK SORTZEKO ETA SINDIKATUKO KIDEAK IZATEKO ESKUBIDEA DUTE, EUREN INTERESAK DEFENDATU NAHI DITUZTENEAN.”

**6. KASUA**

URRATUTAKO ESKUBIDEA: BIZI-MAILA EGOKIRAKO ESKUBIDEA.

**25.1.** ARTIKULUA: “GIZAKI GUZTIEK BIZI-MAILA EGOKIRAKO ESKUBIDEA DUTE. HORRELA, BADA, EUREK ETA EUREN FAMILIEK OSASUNA ETA ONGIZATEA IZANGO DITUZTE BERMATUTA, BAINA BATEZ ERE, ELIKADURA, JANTZIAK, ETXEBIZITZA, OSASUN-LAGUNTZA ETA BEHARREZKO GIZARTE-ZERBITZUAK. ERA BEREAN, GIZAKI GUZTIEK ASEGURUETARAKO ESKUBIDEA DAUKATE HONAKO EGOERA HAUTAN: LANGABEZIAN, GAIXOTASUNEAN, ELBARRITASUNEAN, ALARGUNTZAN, ZAHARTZAROAN EDO BORONDATEAREKIN ZERIKUSIRIK EZ DUTEN INGURUABARREN ONDORIOZ BIZIRAUPENERAKO BALIABIDEAK GALTZEN DITUZTENEAN.”

**8. KASUA**

URRATUTAKO ESKUBIDEA: OINARRIZKO ESKUBIDEEN DEFENTSA.

**8.** ARTIKULUA: “GIZAKI GUZTIEK AUZITEGI NAZIONAL ESKUDUNETAN HELEGITE ERAGINKORRA AURKEZTEKO ESKUBIDEA DUTE, KONSTITUZIOAK EDO LEGEAK ONETSITAKO OINARRIZKO ESKUBIDEAK URRATZEN DITUZTEN EGINTZETATIK BABESTEKO.”

## 9. KASUA

URRATUTAKO ESKUBIDEA: Askatasunez zirkulatzeko eskubidea.

**13.1. eta 13.2.** ARTIKULUA: “GIZAKI GUZTIEK ASKATASUNEZ ZIRKULATZEKO ETA ESTATU BATEKO LURRALDE BATEAN EGOITZA AUKERATZEKO ESKUBIDEA DUTE.” “GIZAKI GUZTIEK EDOZEIN HERRIALDETATIK IRTETEKO, EURENETIK ERE BAI, ETA EUREN HERRIALDERA ITZULTZEKO ESKUBIDEA DUTE.”

## 11. KASUA

URRATUTAKO ESKUBIDEA: HERRIAREN BORONDATEA ERRESPESTATZEKO ESKUBIDEA.

**21.3.** ARTIKULUA: “HERRIAREN BORONDATEA BOTERE PUBLIKOAREN AGINTEAREN OINARRIA DA. BORONDATE HORI BENETAKO HAUTESKUNDEEN BITARTEZ ADIERAZIKO DA, ETA ALDIAN-ALDIAN EGINGO DIRA, SUFRAGIO UNIBERTSAL ETA BERDINEZ ETA ISILPEKO BOTOAREN BIDEZ EDO BOTOAREN ASKATASUNA BERMATUKO DUEN BESTE PROZEDURA BALIOKIDE BATEN BITARTEZ.”

## 13. KASUA

URRATUTAKO ESKUBIDEA: TRATU ANKERRIK EZ JASATEKO ESKUBIDEA.

**5.** ARTIKULUA: “INORK EZ DU ZIGOR EDO TRATU ANKERRIK, KRUELIK EDO IRAINGARRIRIK JASANGO.”

## 14. KASUA

URRATUTAKO ESKUBIDEA: ARBITRARIOTASUNEZ ZIGORTUA EZ IZATEKO ESKUBIDEA.

**9.** ARTIKULUA: “EZ DUTE INOR ARBITRARIOTASUNEZ ATXILOTUKO, ESPETXERATUKO ETA ERBESTERATUKO.”

## 15. KASUA

URRATUTAKO ESKUBIDEA: NAZIONALITATERAKO ESKUBIDEA.

**15.1.** ARTIKULUA: “GIZAKI GUZTIEK NAZIONALITATEA IZATEKO ESKUBIDEA DUTE.”

## 10. KASUA

URRATUTAKO ESKUBIDEA: GURTZEKO ASKATASUNERAKO ESKUBIDEA.

**18.** ARTIKULUA: “GIZAKI GUZTIEK PENTSERA, KONTZIENTZIA ETA ERLIJIO ARLOKO ASKATASUNERAKO ESKUBIDEA DUTE. ESKUBIDE HORRI ESKER, BANAN-BANAN EDO TALDEKA ERLIJIOZ EDO SINESMENEZ ALDATZEKO ASKATASUNA ERE BADUTE, BAI ETA BANAN-BANAN EDO TALDEKA EUREN ERLIJIOA EDO SINESMENA JENDURREAN NAHIZ BIZITZA PRIBATUAN IRAKASBIDEAREN, JARDUNAREN, GURTZAREN ETA BETEARAZPENAREN BIDEZ ADIERAZTEKO ASKATASUNA ERE.”

## 12. KASUA

URRATUTAKO ESKUBIDEA: KONPENTSAZIOA JASOTZEKO ESKUBIDEA, BIZIRAUTEKO BALIABIDEAK GALDUZ GERO.

**25.1.** ARTIKULUA: “GIZAKI GUZTIEK BIZI-MAILA EGOKIRAKO ESKUBIDEA DUTE. HORRELA, BADA, EUREK ETA EUREN FAMILIEK OSASUNA ETA ONGIZATEA IZANGO DITUZTE BERMATUTA, BAINA BATEZ ERE, ELIKADURA, JANTZIAK, ETXEBIZITZA, OSASUN-LAGUNTZA ETA BEHARREZKO GIZARTE-ZERBITZUAK. ERA BEREAN, GIZAKI GUZTIEK ASEGURUETARAKO ESKUBIDEA DAUKATE HONAKO EGOERA HAUETAN: LANGABEZIAN, GAIXOTASUNEAN, ELBARRITASUNEAN, ALARGUNTZAN, ZAHARTZAROAN EDO BORONDATEAREKIN ZERIKUSIRIK EZ DUTEN INGURUABARREN ONDORIOZ BIZIRAUPENERAKO BALIABIDEAK GALTZEN DITUZTENEAN.”

## 16. KASUA

URRATUTAKO ESKUBIDEA: PENTSATZEKO ASKATASUNA.

**19.** ARTIKULUA: “GIZAKI GUZTIEK EUREN IRITZIA EMATEKO ETA ADIERAZTEKO ASKATASUNERAKO ESKUBIDEA DUTE. ESKUBIDE HORRI ESKER, INORK EZ DITU EUREN IRITZIEN ONDORIOZ GOGAITUKO ETA INFORMAZIOAK ZEIN IRITZIAK IKERTU, JASO ETA ZABALDU EGIN AHAL IZANGO DITUZTE EDOZEIN ADIERAZPIDEREN BITARTEZ, INOLAKO MUGARIK GABE.”

## 17. KASUA

URRATUTAKO ESKUBIDEA: LANEAN BAZTERTUA EZ IZATEKO ESKUBIDEA.

**23.2.** ARTIKULUA: “GIZAKI GUZTIEK LAN BERAREN TRUKE SOLDATA BERA JASOTZEKO ESKUBIDEA DUTE INOLAKO BEREIZKERIARIK GABE.”

**18. KASUA**

URRATUTAKO ESKUBIDEA: ERKIDEGOAREKIKO BETEBEHARRAK DAUDE.

**29.1. ARTIKULUA:** “GIZAKI GUZTIEK ERKIDEGOAREKIKO BETEBEHARRAK DITUZTE, BERTAN BAINO EZ DUTELAKO EUREN NOR-TASUNA ASKATASUNEZ ETA BETE-BETEAN GARATZERIK.”

**20. KASUA**

URRATUTAKO ESKUBIDEA: BERDINTASUNEZKO BALDINTZETAN LAN EGITEKO ESKUBIDEA.

**23.1. ARTIKULUA:** “GIZAKI GUZTIEK BERDINTASUNEZKO ETA BEHAR DEN MODUKO LAN-BALDINTZETAN LAN EGITEKO, EUREN LANA ASKATASUNEZ AUKERATZEKO ETA LANGABEZIAREN AURKA BABESTUTA EGOTEKO ESKUBIDEA DUTE.”

**22. KASUA**

URRATUTAKO ESKUBIDEA: LANA ASKATASUNEZ AUKERATZEKO ESKUBIDEA.

**23.1. ARTIKULUA:** “GIZAKI GUZTIEK BERDINTASUNEZKO ETA BEHAR DEN MODUKO LAN-BALDINTZETAN LAN EGITEKO, EUREN LANA ASKATASUNEZ AUKERATZEKO ETA LANGABEZIAREN AURKA BABESTUTA EGOTEKO ESKUBIDEA DUTE.”

**24. KASUA**

URRATUTAKO ESKUBIDEA: TORTURARIK EZ JASATEKO ESKUBIDEA.

**5. ARTIKULUA:** “INORK EZ DU ZIGOR EDO TRATU ANKERRIK, KRUELIK EDO IRAINGARRIRIK JASANGO.”

**25. KASUA**

URRATUTAKO ESKUBIDEA: ERRUGABETASUN-PRESUNTZIORAKO ESKUBIDEA.

**11.1. ARTIKULUA:** “AUZIPERATUTAKO GIZAKI GUZTIEK ERRUGABETASUN-PRESUNTZIORAKO ESKUBIDEA DUTE, EUREN ERRUDUNTASUNA LEGEAREN ARABERA ETA EUREN DEFENTZARAKO BERME GUZTIAK ZIURTATZEN DITUEN JENDAURREKO EPAIKETAN FROGATZEN EZ DEN BITARTEAN.”

**19. KASUA**

URRATUTAKO ESKUBIDEA: BIZITZARAKO, ASKATASUNERAKO ETA EUREN SEGURTASUNERAKO ESKUBIDEA.

**3. ARTIKULUA:** “GIZAKI GUZTIEK BIZITZARAKO, ASKATASUNERAKO ETA EUREN SEGURTASUNERAKO ESKUBIDEA DUTE.”

**21. KASUA**

URRATUTAKO ESKUBIDEA: AUZITEGI INDEPENDENTEAK ENTZUTEKO ESKUBIDEA.

**10. ARTIKULUA:** “GIZAKI GUZTIEK ERABATEKO BERDINTASUNEZKO BALDINTZETAN ETA JUSTIZIAZ AUZITEGI INDEPENDENTEAK ETA INPARTZIALAK JENDAURREAN ENTZUTEKO ESKUBIDEA DUTE. HORRELA, BADA, EUREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK ZEHAZTU AHAL IZANGO DIRA EDO EUREN AURKAKO EDOZEIN ZIGOR-SALAKETA AZTERTU AHAL IZANGO DA.”

**23. KASUA**

URRATUTAKO ESKUBIDEA: MEREZIMENDUEN ARABERA, GOI-MAILAKO IKASKETAK BERDINTASUNEZ EGITEKO ESKUBIDEA.

**26.1. ARTIKULUA:** “GIZAKI GUZTIEK HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA DUTE. HEZKUNTZA DOAKOA IZAN BEHAR DA, OINARRIZKO ETA FUNTSEZKO MAILETAKOA, BEHINTZAT. OINARRIZKO HEZIKETA DERRIGORREZKOA IZANGO DA. HEZIKETA TEKNIKO ETA PROFESIONALA OROKORRA IZAN BEHARKO DA. GOI-MAILAKO IKASKETETARAKO SARBIDEA BERDINA IZANGO DA GUZTIENTZAT, KASUAN KASUKO MEREZIMENDUEN ARABERA.”

**26. KASUA**

URRATUTAKO ESKUBIDEA: ETORKIZUNEN SENAR-EMAZTEEN ONESPENPEAN BAKARRIK EZKONTZEKO ESKUBIDEA.

**16.2. ARTIKULUA:** “EZKONDU AHAL IZATEKO, ETORKIZUNEN SENAR-EMAZTEEN ERABATEKO ONESPEN ASKEA EGON BEHARKO DA EZINBESTEAN.”

## 27. KASUA

URRATUTAKO ESKUBIDEA:      BAKEAN ELKARTZEKO  
ASKATASUNERAKO ESKUBIDEA.

20.1. ARTIKULUA: “GIZAKI GUZTIEK BAKEAN BILTZEKO ETA ELKARTZEKO ASKATASUNERAKO ESKUBIDEA DUTE.”

## 29. KASUA

URRATUTAKO ESKUBIDEA:      TALDE ETNIKO ETA ERLIJIOSO  
GUZTIEN ARTEKO TOLERANTZIARAKO ETA  
ADISKIDETASUNERAKO HEZKUNTZA.

26.2. ARTIKULUA: “HEZKUNTZAK HONAKO HAUEK IZANGO DITU HELBURU NAGUSI: GIZA NORTASUNA BETE-BETEAN GARATzea, GIZA ESKUBIDEEN ETA OINARRIZKO ASKATASUNEN ERRESPECTUA SENDOTZEA, NAZIO GUZTIEN ETA TALDE ETNIKO EDO ERLIJIOSO GUZTIEN ARTEKO ULERMENA, TOLERANTZIA ETA ADISKIDETASUNA BULTZATZEA ETA NAZIO BATUETAKO JARDUEREN GARAPENA SUSTATZEA, BAKEARI EUTSI AHAL IZATEKO.”

## 31. KASUA

URRATUTAKO ESKUBIDEA:      ASILORAKO ESKUBIDEA,  
JAZARPENAK GERTATZEN DIRENEAN.

14.1. ARTIKULUA: “JAZARPENIK GERTATUZ GERO, GIZAKI GUZTIEK ASILOA EDOZEIN HERRIALDETAN BILATZEKO ETA ASILOAZ GOZATZEKO ESKUBIDEA DUTE.”

## 3. eranskina.      Giza eskubideei buruzko informazioa

- .....
- [www.es.amnesty.org/](http://www.es.amnesty.org/) (Amnistía internacional).
- [www.amnistiainternacional.org/](http://www.amnistiainternacional.org/) (Amnistía internacional).
- [www.derechos.org](http://www.derechos.org) (ingelesez).
- [www.derechos.org/esp.html](http://www.derechos.org/esp.html) (gastelaniaz).
- [www.unhchr.ch/udhr/lang/bsq.htm](http://www.unhchr.ch/udhr/lang/bsq.htm) (Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala)

## 28. KASUA

URRATUTAKO ESKUBIDEA:      BIZI-MAILA EGOK  
ETA DUINERAKO ESKUBIDEA.

25.1. ARTIKULUA: “GIZAKI GUZTIEK BIZI-MAILA EGOKIRAKO ESKUBIDEA DUTE. HORRELA, BADA, EUREK ETA EUREN FAMILIEK OSASUNA ETA ONGIZATEA IZANGO DITUZTE BERMATUTA, BAINA BATEZ ERE, ELIKADURA, JANTZIAK, ETXEBIZITZA, OSASUN-LAGUNTZA ETA BEHARREZKO GIZARTE-ZERBITZUAK. ERA BEREAN, GIZAKI GUZTIEK ASEGURUETARAKO ESKUBIDEA DAUKATE HONAKO EGOERA HAUETAN: LANGABEZIAN, GAIXOTASUNEAN, ELBARRITASUNEAN, ALARGUNTZAN, ZAHARTZAROAN EDO BORONDATEAREKIN ZERIKUSIRIK EZ DUTEN INGURUABARREN ONDORIOZ BIZIRAUPENERAKO BALIABIDEAK GALTZEN DITUZTENEAN.”

## 30. KASUA

URRATUTAKO ESKUBIDEA:      TRATU ANKER EZTA UMILIAGARRIAK  
ERE EZ JASOTZEKO ESKUBIDEA.

5. ARTIKULUA: “INORK EZ DU ZIGOR EDO TRATU ANKERRIK, KRUELIK EDO IRAINGARRIRIK JASANGO.”

## 32. KASUA

URRATUTAKO ESKUBIDEA:      BILTZEKO ASKATASUNERAKO  
ESKUBIDEA.

20.1. ARTIKULUA: “GIZAKI GUZTIEK BAKEAN BILTZEKO ETA ELKARTZEKO ASKATASUNERAKO ESKUBIDEA DUTE.”



<b>Izenburua:</b>	Argazki-hitza
<b>Gaia:</b>	Bakea eta gatazkak
<b>Hartzaileak:</b>	12-14 urte
<b>Iraupena:</b>	20 minutu
<b>Arloa:</b>	Hizkuntza
<b>Beharrezko materiala:</b>	Ikasleek aldizkarietan pixkanaka-pixkanaka aukeratu ditzaketen argazkiak.
<b>Helburuak:</b>	Argazkilaritzak eskaintzen dizkigun proiektzio-irudietan oinarrituta, sentipenak, esperientziak eta ideiak adieraztea.

**Laburpena / Nondik norakoak:**

Taldeka, zenbait argazkiren esanahia aztertu eta azaldu egingo dute.

---

**Dinamikaren garapena:**

Talde txikietan banatutako neska-mutilei honako hauei buruzko argazki ugariak eman: bakea, alaitasuna, ongizatea, gerra, indarkeria eta oldarkortasuna. Argazkiak arretaz begiratzeko astia eman eta ideia kontrajarrien adierazgarri diren bina argazki aukeratzeko eskatu taldekideei.

Txandaka, taldekideek gainerakoei azalduko diete zer esanahi duten aukeratutako argazkiek. Hausnartzen laguntzeko, honelako galderak eman aldez aurretik (edo arbelean idatzi):

- Zein da argazkion gaia?
- Zer esaldi jarriko zenioke argazkioi?
- Zer xehetasun antzematen dituzu?
- Zer sentiarazten dizute?

Galdera horien helburua ez da argazkiak azaltzea edo euren esanahia aldez aurretik epaitzea, arretaz begiratzen eta argazkien arteko loturari eta gaiari berari erreparatzen laguntzea baizik. Beharrezkoa izanez gero, idatziz ere erantzun ditzakete.

Taldeak bi argazki esanguratsuenak aukeratu dituzte, bai eta ordezkaria ere. Horiek horrela, ikaskide guztien aurrean azalduko dituzte alderdi interesgarrienak eta aukeratutako bi argazkiak erakutsiko dituzte.

Talde txikien irudiak eta ondorioak bildu eta horma-irudia egin. Talde guztiak ikasleen ideien eta hausnarketaren adierazgarri den izenburua aukeratu du.



<b>Izenburua:</b>	Kanpoko zorra neurtzen ikasten
<b>Gaia:</b>	Garapena
<b>Hartzaileak:</b>	12-16 urte
<b>Iraupena:</b>	Ordubete
<b>Arloa:</b>	Ekonomia
<b>Beharrezko materiala:</b>	Oinarrizko datuak jasotzen dituzten fotokopiak (2. eranskina) eta galde-sorta (1. eranskina). Kalkulagailuak.
<b>Helburuak:</b>	Oinarrizko adierazle ekonomiko batzuk ezagutzea eta kanpoko zorrak herrialde batean daukan zeresana neurtzen ikastea. Kanpoko zorraren adierazleak eta beste aldagai ekonomiko eta sozial batzuk erkatzea. Datu desberdinak erabiltzea eta eragiketa errazak egitea euren bidez.

#### **Laburpena / Nondik norakoak:**

Munduko zenbait herrialdetako biztanle-kopuruari, BPGri, zorrari, gastu militarrei... buruzko datuak jasotzen dituen taulan oinarrituta, sailkatzeko eta argudiatzeko ariketa praktikoak egingo dituzte.

#### **Dinamikaren garapena:**

---

Erantsitako taula (2. eranskina) eta landu beharreko galde-sorta (1. eranskina) banatu. Banan-banan, binan-binan edo hirunaka egin ahal izango dute. Herrialde lar badira, talde edo pertsona bakoitzak herrialde-multzoak aztertu ditzake.

Ondoren, galde-sortaren emaitzak erkatuko dituzte, eta zorra neurtzeko orduan kontuan hartu beharreko aldagai batzuk nabarmenduko ditu hezitzaileak.

**1. eranskina.** Galde-sorta

1. Herrialdeak sailkatu, Barne Produktu Gordinaren (BPGren) arabera.
2. BPG zati biztanle-kopurua egin eta irizpide horren arabera sailkatu herrialdeak.
3. Herrialdeak sailkatu, zor guztiaren zenbatekoaren arabera.
4. Zenbat zor dute herrialde horietako umeez jaio direnean?
5. Kanpoko zor guztia BPGren ehuneko moduan kalkulatu (zaitu besterik ez duzu) eta emaitza horren arabera sailkatu herrialdeak.
6. Herrialdeak sailkatu, esportazioen ehunekotan adierazitako zorraren zerbitzuaren arabera. Item horren eta 3., 4. eta 5. itemen emaitza ikusi ostean, zer herrialdek dauka zor handiena? Zer herrialdek dauka arazo larriena kanpoko zorrari begira?
7. Kanpoko zorraren adierazleak eta gastu militarrek, hezkuntzako gastuak eta garapenerako laguntza ofiziala erkatu, loturarik ikusten duzu? Zeintzuk? (pertsona edo talde bakoitzari eskatu lotura hori herrialde batean edo bitan aztertzeko).




## 2. eranskina. Herrialdeen datuak

Herrialdea / Indizea	BPG guztira (milioika dolarretan)	Zorra guztira <sup>1</sup> (milioika dolarretan)	Biztanle-kopurua	Zorrenen zerbitzua. Esportazioen <sup>2</sup> %	Gastu militarrik. BPGren %	Garapenerako laguntza ofiziala. BPGren %	Hezkuntzako gastuak. BPGren %
Angola	11.400	10.612	12.092.000	%17	%6,4	%19,4	%4,9
Aljeria	132.700	33.260	31.000.000	%33	%4,0	%0,8	%5,6
Bolivia	21.700	5.174	8.000.000	%33	%2,1	%14,6	%6,6
Brasil	1.023.100	179.047	166.000.000	%43	%2,1	%0,1	%4,6
Burundi	3.800	1.127	6.500.000	%31	%4,1	%19,4	%2,8
Guinea Bissau	1.100	937	1.161.000	%42	%2,9	%72,9	****
Honduras	13.000	4.453	6.147.000	%33	%1,3	%9,5	%3,9
India	1.493.000	89.827	982.223.000	%27	%2,8	%0,6	%3,5
Indonesia	652.300	129.033	206.338.000	%41	%2,1	%0,6	%1,2
Maroko	89.700	21.767	27.377.000	%30	%4,3	%4	%4,9
Mexiko	809.200	177.400	95.831.000	%31	%0,8	****	%3,8
Mozanbiki	9.000	5.842	18.880.000	%42	%3,75	%72,2	%6,3
Myanmar	44.588	5.184	44.497.000	%11	%1,3	****	%1,3
Nikaragua	7.900	5.929	4.807.000	%35	%1,5	%60,6	%3,9
Errusia	630.700	124.800	147.434.000	%6,56	%11,4	%0,28	%4,4
Senegal	14.100	3.6637.113	9.003.000	%17	%1,7	%1,7	%3,6
Sierra Leona	2.400	1.167	4.568.000	%46	%5,9	%24,1	%0,9
Venezuela	181.400	35.344	23.242.000	%20	%1,2	%0,1	%5,2
Zambia	7.900	7.113	8.781.000	%25	%1,8	%19	%1,8

.....  
<sup>1</sup> Kanpoko zorrenen zenbateko osoa handia bada ere, zor handiagoak ez du esan nahi zorrenen zama handiagoa denik. Guztira zenbat zor den ikustea bezain garrantzitsua da zenbat ordaindu behar den ikustea: ehun milioi zor badituz, baina nire ondarea mila milioikoa bada, asko zor dut baina zama ez da handia. Bestetik, milioi bat zor baduz, baina nire ondarea milioi erdikoa bada, gutxi zor dut baina zama oso handia da. Hori dela eta, zorra neurtzeko, herrialdeko Barne Produktu Gordinarekin alderatzen da, hau da, herrialdeak urtebetean ekoizten dituen ondasun eta zerbitzu guztiekin.

<sup>2</sup> Era berean, garrantzitsua da zorrenegatik urtero zenbat ordaintzen den (hau da, zorrenen zerbitzua) eta esportazioak alderatzea. Zergatik? Oro har, zorra dolarretan kontratatuta dagoelako eta herrialdeek esportatu, kanpoan saldu behar dutelako dolarrik lortzeko (horrez gain, ez dituzte dolar horiek inportazioetan gastatu behar). Ehunekoak adierazi egiten digu zenbat dolar behar diren zorra ordaintzeko herrialdeak esportazioetan irabazten dituen dolarretatik.



<b>Izenburua:</b>	Arabiarrak eta musulmanak
<b>Gaia:</b>	Kultura artekotasuna
<b>Hartzaileak:</b>	14-16 urte
<b>Iraupena:</b>	Ordubete
<b>Arloa:</b>	Historia, Hizkuntza
<b>Beharrezko materiala:</b>	Mapamundia, errotuladore gorria eta berdea. “Arabiarrak eta musulmanak” testua (1. eranskina) eta Islamaren eta mundu arabiarraren maparen (2. eranskina), albiste-ebakiak eta hiztegia.
<b>Helburuak:</b>	Ikasleak kultura arabiarrarekin eta Islamarekin zerikusia duten terminoen erabilera egokiaren inguruan kontzientziatzea eta sentsibilizatzea. Islamarekin eta mundu arabiarrarekin zerikusia duten terminoen erabilera aztertzea eta bereiztea. Mapamundian bertan, Islamaren eta mundu arabiarraren eraginpean dauden eremuak lekuratzea.

**Laburpena / Nondik norakoak:**

“Arabiarrak eta musulmanak” testua irakurri (1. eranskina), bi terminoak nola azaltzen diren jakiteko. Ondoren, narrazioan jorratutako zenbait alderdi sakon azertu. Amaitzeko, ikasleei eskatu “arabiarra” eta “musulmana” terminoen erabilerari buruzko bizipenak trukatzeko, kaleko hizkuntzari eta komunikabideei dagokienez.

**Dinamikaren garapena:**

“Arabiarrak eta musulmanak” testua (1. eranskina) banatu eta aipatutako lekuak (gorriz) zein kontzeptu eta ideia nagusiak (berdez) azpimarratu bertan.

Gero, ikasleek honako galdera hauei erantzungo diete, testuko datuak kontuan hartuta:

- Zer sinonimo erabiltzen dituzue arabiarrei, marokoarrei edo musulmanei buruz hitz egin nahi duzuenen? Ondo erabiltzen dituzue termino horiek? Zer esanahi dute? Hiztegian begiratu, zalantzak argitzeko.

- Komunikabideek ondo erabiltzen dituzte termino horiek? Zergatik? Ezagutzen dituzuen adibideak eman.

Talde txikietan hitz egingo dute, eta, bibliografia osagarriaren bidez, sortutako zalantzak argituko dituzte. Azkenik, Islamaren eta mundu arabiarraren mapa aztertu ondoren, mapa batean adieraziko dute zeintzuk diren Islamaren eraginpeko eremuak eta mundu arabiarra osatzen duten eskualdeak:

- Zer herrialdek osatzen dute?

- Zer ondorio atera dituzue?
- Zer alderdi izan dira deigarriak?
- Nola azalduko zenukete zer den “arabiarra”? Eta “musulmana”? Zeintzuk dira euren antzekotasunak eta desberdintasunak?
- Zuen inguruneko pertsonen artean, zer erlijio dira nagusi?, zein da euren gurtza-lekua?, jendea fededuna da eta elizara joaten da ala sinetsi egiten du eta ez da elizara joaten?, zein da zure kasua?
- Erlijio hauetan, zein da gizonen eta emakumeen zeregina?, zein da euren partaidetza-maila?, berdinak ote dira denak?
- Gaztelania munduan gehien hitz egiten diren hizkuntzetako bat da. Zeintzuk dira arrazoiak, hizkuntza horren jatorrizko eremu geografikoa hain

txikia denean? Mapamundi batean adierazi non hitz egiten den gaztelaniaz eta Islamaren nahiz mundu arabiarren maparekin erkatu.

Talde txikien ondorioak azaldu eta ikaskide guztien artean eztabaidatuko dira.

#### ALDAGAIAK:

Aldez aurretik, bi terminoak azaldu ditzakete “ideien euriaren” bitartez. Ondoren, emaitzak erkatu eta osatu ditzakete, testuan lortutako datuen bidez.

Ariketa bideratzeko, zenbait galdera egin eta erantzunak idatzi daitezke:

- Nortzuk dira arabiarra?
- Nortzuk dira musulmanak?
- Geografiari begira, non daude?

**1. eranskina.** Arabiarrak eta musulmanak

Arabiako Penintsulako jatorrizko eta gaur egungo biztanleak dira arabiarrak. Era berean, jatorriari, hizkuntzari, erlijioari eta kulturari begira eurekin zerikusia duten herriei ere esaten diete horrela, musulmanak izan nahiz ez izan. Beraz, jatorri historikoarekin eta lotura etniko, linguistiko eta kulturekin dauka zerikusia.

Mundu arabiarra lau eskualde-multzotan banatuta dago, eta honako hauek dituzte osagai:

- Arabiako Penintsula, Islamaren sorlekua. Bertan, Saudi Arabiak dauka hegemonia politikoa.
- Nilo ibaiko bailarako herrialdeak; esate baterako, Egipto eta Sudan.
- Ekialde Hurbila. Bertako erkidegoek proiektu eta nortasun desberdinak dituzte; esate baterako, Libano, Siria eta Palestina.
- Magreb arabiarra. Gaur egun, Marokok, Aljeriak, Tunisiak, Libiak eta Mauritaniak osatzen dute.


Arabiera euren batasun kulturalaren lotune nagusia da. Gaur egun, 200 milioitik gora lagunek hitz egiten dute hizkuntza hori, eta talde semitikoaren hizkuntza garrantzitsuena da. Horrez gain, dialekto ugari ditu.


Erlijioa, Islama, beste lotune bat da gehienentzat. Hizkuntzaren eta erlijioaren arteko lotura estu-estua da, musulmanen liburu santua den Koranaren bitartez.

“Musulmana” terminoak erlijioarekin dauka zerikusia. Musulmanak Koranen jasotako agerkunde jainkotiarraren jarraitzaileak dira. Hori dela eta, erkidego islamikoko kideak dira. Munduan, mila milioi musulman daude gutxi gorabehera. Islama, hain zuzen ere, era guztietako eskualde geografiko, kultural eta etnikoetan loratu da. Hona hemen erkidego musulmana osatzen duten talde etniko nagusiak: arabiarrak (gehienak Ipar Afrikakoak eta Ekialde Hurbilekoak dira); herri turkiarrak eta otomandarrak (Turkiakoak, lehengo Sobietar Batasunekoak eta Erdialdeko Asiakoak dira); irandarrak, afganistandarrak eta indiar-musulmanak (Pakistangoak, Indiakoak eta Bangladeshekoak dira); Asiako hego-ekialdeko erkidegoak (Malaysiakoak, Indonesiakoak eta Filipinetakoak dira); eta txinatarren ehuneko txikia. European, Islama bigarren erlijio nagusia da kristautasunaren ostean.

Beraz, arabiarrak eta musulmanak ez dira termino berdinak. Herrialde arabiarren barruan, Islama ez beste sinesmen erlijioso batzuk dituzten erkidegoak daude; esate baterako, Egipton (kristau koptoak) eta Libanon (marondarrak). Era berean, beste herrialde batzuetan gehienak musulmanak badira ere, ez dira arabiarrak; esate baterako, Turkian, Iranen, Pakistanen, Afganistanen edo Indonesian.

## 2. eranskina





<b>Izenburua:</b>	Egutegi musulmana
<b>Gaia:</b>	Kultura artekotasuna
<b>Hartzaileak:</b>	14-16 urte
<b>Iraupena:</b>	2 ordu
<b>Arloa:</b>	Gizarte Zientziak
<b>Beharrezko materiala:</b>	1. eta 2. eranskinen fotokopiak.
<b>Helburuak:</b>	Kulturek euren jai-adierazpenak dituztela onestea. Kronologia desberdinen erabilera ikertzea. Egutegi gregorianoko urteak egutegi musulmanera bihurtzen ikastea eta alderantziz.

**Laburpena / Nondik norakoak:**

“Egutegi musulmana” testua (1. eranskina) irakurri, kultura arabiarren jaien eta ohituren ezagutzan sakondu, euren kulturarekin erkatu eta indarreko kronologia desberdinak ikertu.

**Dinamikaren garapena:**

Inguruneko (herriko, hiriko, autonomia-erkidegoko, herrialdeko...) jaiak buruzko elkarrizketa ezarri eta sortu zituzten motibazioak azaldu: erlijiosoak, zibikoak... Era berean, bertakoak diren objektuen, sinboloen, jaien... adibideak bilatu eta beste kultura batzuetakoak diren ikusi.

Bigarrenez, egutegi musulmaneko jaiak edo beste tradizio batzuk aipatu, erreferentziak badituzte edo ospatu egiten badituzte. Ondoren, “Egutegi musulmana”

1. eranskineko testua irakurri eta egutegi musulmanaren zein gregorianoaren artean dauden antzekotasunen eta desberdintasunen ondorioak atera, indarreko beste kronologia batzuk daudela kontuan hartuta (esate baterako, egutegi txinatarrak edo judua) eta historian zehar beste kultura batzuek beste batzuk erabili dituztela kontuan hartuta (esate baterako, egutegi azteka, inka...). Alderatzeko taula handitu egin dezakete.

### Ariketa osagarriak:

- Zein da jai garrantzitsuenak? Zer garrantzi dute jai erlijiosoek? Antzekotasunak daude gure egutegiarekin?
- Zer da egutegi gregorianoa? Zergatik jarri diote izen hori? Noiztik erabiltzen da? ¿Nortzuek erabiltzen dute kronologia hori? Zergatik? Nola zenbatzen zuten denbora antzina?...
- Beste kronologia batzuk ezagutzen dituzue? Indarrean daude?
- Egutegiko hilabeteen esanahiak jasotzen dituen taula irakurri eta egutegi gregorianoa hilabeteen esangura ikertu.
- Aurten, zer egunetan ospatuko da Ramadan?
- Noiz ospatzen da Urte Berri txinatarrak? Zergatik?
- Noiz ospatzen da Urte Berri judua? Zergatik?

- Zer baliokidetasun dago ilargi-urte musulmanaren eta egutegi gregorianoaren artean?

Hona hemen bi formula erraz, erantzun zuzena zein den jakiteko.

$$M = \text{ilargi-urte musulmana} \quad G = \text{egutegi gregorianoa}$$
$$M = G - 622 + [(G - 622)/32] \quad G = M - (M / 33) + 622$$

Aurreko formularen bidez, beharrezko bihurketak egin, egutegi musulmanean gaur egungo urtearen, zure jaiotegunaren, ikastetxean hasitako urtearen... baliokidea zein den jakiteko. Ohitura, pertsonaia eta jai musulmanen irudiak bildu, euren edukia ikertu (lekuak, egunak...) eta irudi-testua edo orri-oina idatzi. Gero, jai musulmanak kontuan hartzen dituen kultura arteko egutegi egiteko erabili. Horrez gain, beste kultura batzuetako jaiak ere agertu daitezke.

Ohitura, pertsonaia eta jai musulmanen irudiak bildu, euren edukia ikertu (lekuak, egunak...) eta irudi-testua edo orri-oina idatzi. Gero, jai musulmanak kontuan hartzen dituen kultura arteko egutegi egiteko erabili. Horrez gain, beste kultura batzuetako jaiak ere agertu daitezke.

Irudia eta irudi-testua

Egin argazki-oin bat.

Hilabetea: ..... Urtea: .....

Astelehena  Asteartea  Asteazkena  Osteguna  Ostirala  Larunbata  Igandea

### Ebaluazioa

- Egutegi gregorianoa egun esanguratsuen egutegi musulmanaren arabera bihurtuko dituzte.
- Euren ingurunean aberastasun kulturala ezagutu eta balioetsi egingo dute.

**1. eranskina.** Egutegi musulmana

Mahomak Mekako hiritik Medinarantz ihes egin zuenean hasi zen aro musulmana. Kronologia musulmana gertaera horretatik aurrera ezarri zen.

Ilargi-urte musulmanak 12 hilabete ditu, eta ilbete baten zein hurrengoaren artean dagoen epea dauka oinarri, hau da, ilargiak lurrari bira emateko behar dituen 29 egun eta erdiak. Hilabeteak egutegi kristaukoak baino laburragoak direnez, egutegi musulmanak 11 edo 12 egun egiten du aurrera urtero, eta 31 edo 32 urtean behin ematen dio bira eguzki-urteari.

Izena	Jatorrizko esanahia
1. Muharram	Urte berriaren hilabetea
2. Sáfar	Gerrara joateko hilabetea
3. Rabi al-awal	Udaberriaren hilabetea
4. Rabi al-thaany	Udaberriaren jarraipena
5. Jumaada al-awal	Lehortearen hilabetea
6. Jumaada al-thaany	Lehortearen jarraipena
7. Rajab	Errespetuaren eta abinentziaren hilabetea
8. Sha`baan	Erneketaren hilabetea
9. Ramadaan	Bero handiaren hilabetea
10. Shawwal	Animaliak estaltzeko hilabetea
11. Thw al-Qi`dah	Jaitsieraren hilabetea
12. Thw al-Hijjah	Erromesaldiaren hilabetea

**Egutegi musulmaneko jaiak**

- Muhárram hilabeteko lehenengo egunean, urte berri musulmana ospatzen da. Egun horretan, Kristo osteko 622ko uztailaren 16an profetak eta jarraitzaile-taldeak Mekatik Medinarantz egindako Hégira edo emigrazioa gogoratzen da.
- Hilabete bereko 10. egunean, Ashura ospatzen da, musulmanek onetsitako profeta biblikoak ziren Noeren eta Moisesen omenez. Ondoren, Mawlid Al-Nabi edo Mahomaren jaiotza ospatzen da Rabí-al-awalaren 12an. Egun horretan, hain zuzen ere, musulmanek profetaren panegirikoak entzuten dituzte, eta haren bizitza gogorarazten dute.
- Hilabete eta erdi geroago, Rajabaren 27an, Lailat al-Miraj edo “igokundearen gaua” ospatzen da. Orduan, Mahoma zerura igo zeneko eguna eta Allahek eman zizkion gomendioak gogorarazten dituzte; esate baterako, egunean 5 aldiz otoitz egiteko betebeharra.
- Ramadaanaren 27an, Lailat al-Kadr edo “patuaren gaua” ospatzen da. Korana irakurri eta otoitz egiten dute.
- Profetak berariaz adierazi zuen ospatu behar ziren bi jaiegun. Batetik, Aid al-fitr edo “Ramadanaren amaierako jaia”. Bertan, barauaren amaiera ospatzen da, eta pertsonak zoriontasuna opa diote elkarriz. Horretarako, opariak trukatu eta senitartekoak zein lagunak ikustera joaten dira. Bestetik, Aid al-adha edo “sakrifizioaren jaia”. Bertan, arkumea hiltzen dute, Abrahamen omenez.
- Hala ere, jai islamiko guztiak ez daude ilargi-egutegian oinarrituta. Horra hor ekainaren 24an udako solstizioaren omenez ospatutako Ansra. San Joan eguneko jaiaren baliokidea dela esan daiteke.



2. eranskina

## Martxoa

## 2003

Astelehena Asteartea Asteazkena Osteguna Ostirala Larunbata Igandea

1 2

3 4 5 6 7 8 9

10 11 12 13 14 15 16

17 18 19 20 21 22 23

<sup>24</sup>/<sub>31</sub> 25 26 27 28 29 30

### 1423

### 1424

## ذو الحجة • محرم

الاثنين الثلاثاء الأربعاء الخميس الجمعة السبت الأحد

28 27

6 5 4 3 2 1 29


فاتح محرم

13 12 11 10 9 8 7

عاشوراء

20 19 18 17 16 15 14

27 26 25 24 23 22 <sup>21</sup>/<sub>28</sub>



<b>Izenburua:</b>	Herrixka globala
<b>Gaia:</b>	Garapena
<b>Hartzaileak:</b>	8-10 urte
<b>Iraupena:</b>	Ordubete
<b>Arloa:</b>	Tutoretza
<b>Beharrezko materiala:</b>	Artilezko matazak, orriak, boligrafoak eta zeloak.
<b>Helburuak:</b>	Guztion partaidetzapeko harreman pertsonalen sarea ezagutzea. Beste leku batzuetako pertsonekin zerk batzen gaituen jakitea.

**Laburpena / Nondik norakoak:**

Sarea eratuko dugu mapa batean, eta, horretarako, matazaren bidez lotuko ditugu familia, lagunak... ditugun lekuak.

---

**Dinamikaren garapena:**

1. fasea

Neska-mutikoeekin hitz egin, Lurraren tamainaren gainean zer dakiten, nola irudikatzen duten aztertzeko. Horrez gain, bertan zenbat gizaki bizi garen dakiten galdetu.

Euren ustez, herrixka zer den galdetu. Ondoren, globala zer den itaundu. Amaitzeko, “herrixka globala” kontzeptua landu.

Era berean, Lurreko biztanleen artean nolako lotura estuak edo ez hain estuak ditugun eta lotura horiek nola adierazten diren azaldu.

2. fasea

Parte-hartzaile guztiak aulkietan eseri biribilean. Orri bana eman umeei. Orria banatu eta lau zatitan ebakitzeko eskatu. Euretako batean, euren izena idatziko dute; eta beste hiruretan, beste lurralde batzuetan bizi diren lagunaren edo senitartekoen izenak.

Ikasle guztien paperak nahastu eta neska-mutikoen artean banatu. Inork bere paperak hartzen baditu, beste batekin trukatuko ditu. Horrela, bada, ikaskideen lagunaren izenak daramatzaten zenbait paper izango dituzte parte-hartzaile guztiak.

Denek batera, artilezko matazaren laguntzaz, ikasgelako “harremanen sare” bana sortuko dute.

Edozein pertsonatik hasi. Pertsona horrek matazaren muturra hartu eta bere paperetako bat daukan beste pertsona bati emango dio. Aldi berean, pertsona horrek haria hartu eta lehenengoaren paperetako bat daukan beste pertsona bati emango dio mataza. Horrelaxe egingo dute, harik eta lehenengo pertsonaren paper guztiak amaitu arte. Sarea osatzeko, ariketa egiten hasi zen lehenengo pertsonari itzuli behar diote haria.

Lehen esan dugunez, pertsona berean hasi eta amaituko den sarea osatu denean, haria ebaki eta lurzoruan itsatsiko da, egitura hautsi barik. Ertz guztiak zeloren bidez itsatsiko dira lurzorura, sarea ariketan zehar ez apurtzeko.

Erlojuko orratzen zentzuan, falta diren neska-mutikoek txandaka egingo dute zeregin bera. Zikloa amaitutakoan, ikasgelako “harremanen sarea” nola geratu den ikusiko dugu.

### Ebaluazioa

Ikasleei azaldu:

- Zer esan nahi duen egin duten “harreman-sareak” eta nola islatzen duen zenbait lekutako pertsonekin daukagun lotura.
- Jakin badakiten zenbat ezagun dituzten euren bizilekutik kanpo.
- Ea orain “herrixka globala” kontzeptua hobeto ulertzen duten.
- Kontzeptuari buruz hausnartu beharra, ariketan bertan ikusitakoa kontuan hartuta.
- Zeinen garrantzitsuak diren komunikazio-bideak eta lekuz aldatzeko sistemak, beste pertsona batzuk ezagutzeko eta harremanei eusteko orduan.
- Zer esan nahi duen “harremanen sareak”, ezagun dugun jendearen ikuspegitik.

<b>Izenburua:</b>	Globalizazioa komunikazioa da
<b>Gaia:</b>	Garapena
<b>Hartzaileak:</b>	8-10 urte
<b>Iraupena:</b>	Ordubete
<b>Arloa:</b>	Gizarte Zientziak, Hizkuntza
<b>Beharrezko materiala:</b>	Talde bakoitzarentzako jarraibideen fotokopiak (1. eranskina). Mezuaren testua (2. eranskina).
<b>Helburuak:</b>	Aurrerapen teknologikoen gure bizitzako zenbait alderditan daukaten garrantzia egiaztatzea. Komunikazio-sistemak garatzean gure bizimodua nola hobetzen den aztertzea.


**Laburpena / Nondik norakoak:**

Dinamika errazaren bidez, komunikazioari buruz, komunikazioa gertatzean ematen diren baldintzei buruz eta “osagai teknologikoak” egoteak edo ez egoteak komunikazioan izan dezakeen zeresanari buruz hausnartuko dute neska-mutikoek.

**Dinamikaren garapena:**

Ikasleak lagun-kopuru bereko hiru taldetan banatuko ditugu, ahal izanez gero.

Taldeak honako eskema honen arabera jarriko dira:



Talde guztiek testu bera izango dute (2. eranskina), eta lehenengo lekuan (A-n) dagoen pertsonatik azken lekuan dagoen pertsonaraino (B-raino) iritsi behar da, ahozko katearen bidez. Hala ere, pertsona bi horien artean ez da inolako komunikazio zuzenik egongo. Talde guztietan, komunikazioa belarrira egingo da, eta taldekide batek baino ez du “batera” hitz egiterik.

Taldeek komunikazioa egiteko jarraibide desberdinak izango dituzte. Irakasleak talde bakoitzari banan-banan emango dizkio jarraibideak jasotzen dituzten orriak, eta

komunikazioa garatzeko baldintzak nolakoak diren azalduko dio talde bakoitzari.

Lehenengo lekuan (A-n) daudenek aparte irakurriko dute mezua. 1. taldeko pertsonak baino ez ditu oharrak idatziko.

Talde guztiek euren mezuak eman dituztenean, azken lekuan daudenek idatzi duten testua eta euren taldearen jarraibideak irakurriko dituzte. Hirugarren taldetik hasi eta lehenengoan amaituko dugu.

#### Ebaluazioa

- Ariketa egitean nola sentitu diren galdetu.
- Taldeek historia nolako leialtasunaz helarazi duten erkatu eta agertu diren desberdintasunak nahiz arrazoiak aztertu.
- Talde bakoitzaren “aukera teknologikoen” arabera, errealitatean zer irudikatu dezaketen aztertu.
- Teknologiak pertsonen arteko komunikazioari nola lagundu ahal dion zehaztu.

**1. eranskina.** Jarraibideak**Lehenengo taldea:**

A-ren mezua B-raino iristeko, bitarteko kate-mailek galderak egin eta zalantzak nahi beste aldiz argitu ditzakete informazioa helarazten dien pertsonarekin. Kateko kide guztiek papera eta arkatza izango dituzte, eta oharrak idatzi ahal izango dituzte. Hala ere, ez dute orria pasatuko eta orri hori ezin izango du inolaz ere ikusi euren mezua jasoko duen pertsonak. Azkenean, B-k helarazi dioten mezua idatziko du.

**Bigarren taldea:**

A-ren mezua B-raino iristeko, bitarteko kate-mailek galderak egin eta zalantzak nahi beste aldiz argitu ditzakete informazioa helarazten dien pertsonarekin. Ezin dute informazio hori inon idatzi, buruz ikasi beharko dute. B izango da papera eta arkatza edukiko dituen pertsona bakarra, eta helarazi dioten mezua idatziko du.

**Hirugarren taldea:**

A-ren mezua B-raino iristeko, bitarteko kate-mailek informazioa jasoko dute, buruz ikasiko dute eta hurrengoari helaraziko diote. Ezin diote inolako azalpenik eskatu mezulariari, eta ezin diote mezua berriro esateko eskatu. B izango da papera eta arkatza edukiko dituen pertsona bakarra, eta helarazi dioten mezua idatziko du.

**2. eranskina.** Testua

Orain dela hiru urte, “El diario mañanero” egunkariko kazetari bat Saharan zegoen bidaiari eta Shebikara iritsi zen. Shebika, hain zuzen ere, basamortu sakonean galdutako herritarra tunisiarra da. Isolatuta egon arren, modernotasuna iritsi da Shebikara, eskolari, irratitari eta oporretan itzultzen diren etorkinei esker.

Kazetaria harrituta geratu zen herriarentzat modernotasuneko “objektu sakratuak” zirela boligrafoa eta erlojua. Lehenengoa, kulturaren sinboloa zen; eta bigarrena, denboraren menderakuntzaren sinboloa.

Espainiara itzultzean, kazetariak auzitan jarri zuen zeintzuk ziren guretzat modernotasunaren sinboloak.



<b>Izenburua:</b>	Zer da globalizazioa?
<b>Gaia:</b>	Garapena
<b>Hartzaileak:</b>	10-12 urte
<b>Iraupena:</b>	Ordubete
<b>Arloa:</b>	Hizkuntza
<b>Beharrezko materiala:</b>	“Letra-zopa” 1. eranskinaren fotokopiak. “Zer da globalizazioa?” 2. eranskinaren fotokopiak.
<b>Helburuak:</b>	Globalizazio ekonomikoa ezagutzen hasia. Globalizazioaren alderdi horren ezaugarri nabarmenenak ezagutzea.

#### Laburpena / Nondik norakoak:

Globalizazioa ezagutzen hasteko dinamika da. Letra-zopa egin eta testua irakurri ondoren, eztabaida erraza egin dezakete globalizazio ekonomikoaren alderdi kritikoenei buruz.

#### Dinamikaren garapena:

---

##### 1. fasea

- Ikasleei letra-zoparen kopia bana eman (1. eranskina) eta zortzi edo hamar minutu eman egiteko.
- Denbora hori igarotakoan, amaitu ez badute, letra-zopa arbelean jarri, baina ez azaldu kontzeptuak.

##### 2. fasea

- “Zer da globalizazioa?” testua banatu (2. eranskina) eta ahoz gora irakurri.
- Ikasleekin batera aztertu testua, bertako kontzeptuak eta ideiak ulertzen laguntzeko, letra lodiz nabarmendutako hitzak, batez ere.

#### Ebaluazioa

Ikasleekin batera aztertu:

- Globalizazio ekonomikoaren kontzeptuak argi geratu diren ala ez.
- Aldez aurretik zer zekiten kontuan hartuta, aldaketarik aurkitu duten.

**1. eranskina.** Letra-zopa

Honako hitz hauek bilatu letra-zopan:

baliabideak – merkatua – globalizazioa

komunikazioa – herrixka – txirotasuna

ekonomia – globala – berdintasuna





## 2. eranskina. Zer da globalizazioa?

Lurra, bizileku dugun mundua, oso-oso handia da. Egunero 8 orduz orduko 7 km-ko abiaduran ibiltzen hasiz gero, 714 egun, bi urte ia-ia, beharko genituzke munduari bira osoa emateko.

Azken urteotan, garraio eta komunikazio-bideetako aurrerapenen ondorioz, gizakiok askoz hurbilago gaude elkarrengandik. Gaur egun, gainera, Internetek uanean bertan komunikatzeko eta munduaren beste aldean dauden irudiak eta informazioa lortzeko aukera eskaintzen digu.

Hori guztiori ekonomian nabaritzen da gehien. Komunikazio-bideen ondorioz, merkantziak eta dirua erraz joaten dira leku batetik bestera, gizakien historian ezagun den modurik azkarrenean, alegia.

Ingurura begiratzen badugu, munduko zenbait lekutan egindako produktuak erabiltzen ditugu egunero, eta kontinente guztietako elikagaiak jaten ditugu. Txinan edo Indonesian egindako arropa eta oinetakoak ditugu, eta Afrikako ananak edo Amerikako egoskariak jaten ditugu. Soinean daramazuena non dagoen eginda eta egunean zehar zer jaten duzuen begiratu, harri eta zur geratuko zarete-eta.

Burtsako inbertsiogileek uanean bertan dakite zenbat balio duten akzioek New Yorkeko edo Tokioko burtsetan. Aldi berean, euren emaitzek eragin handia daukate mundu zabaleko burtsetan gertatzen den guztian.

Lurra merkatu handia da, eta, bertan, guztiok erosi eta saldu egin dezakegu. Paregabea da.

Hori guztiori dela eta, Lurra “herrixka globala” omen da, herrixketan gertatzen den bezala, pertsona guztiak elkarren artean komunikatu gaitezkeelako eta erraz-erraz izan dezakegu elkarren berri.

Herrialdeetako mugak gaindituta, mundu zabalean zehar komunikatzeko eta merkantziak zein dirua trukatzeko erraztasun horri globalizazioa esaten diogu.

Globalizazioa, ordea, ez da abantailatsua gizaki guztientzat. Izan ere, leku guztietan ez dute komunikatzeko erraztasunik, eta ez dute eskatutako edo agindutako baliabide egokirik. Globalizazioa leku askotan egotea dela kontuan hartzen badugu eta munduan zenbat lagunek sufritzen duten (bostetik, hiruk) aztertzen badugu, txirotasuna bera da “globalizatuena”.

Globalizazioak ekonomia sustatzen du, batez ere. Gaur egun diruarentzat pertsonentzat baino errazagoa da mundua leku batetik bestera zeharkatzea.

Horrez gain, globalizazioak beste arazo bat sortzen du. Gertakari hau zuzentzen duten herrialdeak, AEB, batez ere, aberatsenak direnez, “agindu” egiten dute eta euren kultura zein modak inposatzen dituzte. Horren ondorioz, berdintasun kultural handia gertatzen ari da munduan.



<b>Izenburua:</b>	Idaztera!
<b>Gaia:</b>	Kontsumo eta Bidezko merkataritza
<b>Hartzaileak:</b>	16-18 urte
<b>Iraupena:</b>	2 ordu
<b>Arloa:</b>	Ekonomia
<b>Beharrezko materiala:</b>	Interneterako sarbidea. Aukeran: <a href="http://www.ropalimpia.org">www.ropalimpia.org</a> web orriko eredu-gutunaren kopia bat ikasle bakoitzarentzat (Sinaduren Maratoi Olinpikoaren kanpaina). 1., 2. eta 3. eranskinen fotokopiak.
<b>Helburuak:</b>	Erakundeei erantzukizuna eskatzeko jarrera sendotzea. Horretarako, enpresei idatziko diete, eta euren lan-jarduerari buruzko galderak egingo dizkiete.

#### Laburpena / Nondik norakoak:

Transnasionalek oso kontuan hartzen dute kontsumitzaileen iritzia. Nolanahi ere, kontsumitzaile moduan nabarmentzeko orduan gazteegiak direla pentsatu dezakete neska-mutilek.

Ariketa honi esker, euren bizitzako produktu nabariak ekoitzi edo saltzen dituen enpresaren bati buruzko iritzia eman ahal izango dute.

#### Dinamikaren garapena:

Bikotetan edo talde txikietan lan egingo dute, eta ikertu nahi luketen enpresa aukeratuko dute, bere produktuak egiten dituzten pertsonak nola tratatzen dituen jakiteko.

Enpresaren web orrira jo dezakete, “Jokabide Koderik”, “Gizarte Erantzukizunaren Gidarik” edo atzekorik daukan ikusteko.

Enpresari buruzko informazio gehiago bilatu dezakete Interneten, “Materialak eta harremanak” atalean agertzen diren web orrien bitartez (1. eranskina).

Enpresak koderik badu, enpresari idatziko diote, euren kezken berri emateko edo bere hornitzaileen lantegietako edo ustiategietako baldintzei buruzko informazioa eskatzeko.

Enpresak koderik ez badu, enpresari idatziko diote, Jokabide Koderik daukan ala ez galdetzeko. Era berean, “Jokabide-kodeetan” (2. eranskinean) eta “Jokabide-kodeei buruzko alderdi garrantzitsuak” (3. eranskinean) adierazitako osagaiak dauzkan galdetu beharko liokete.

## 1. eranskina. Materialak eta harremanak

Ikasleek langileen eskubideei eta jokabide-kodeei buruzko informazio gehiago dute ikusgai [www.setem.org](http://www.setem.org) web orrian, bai eta beste web orri batzuetan ere:

[www.intermonoxfam.org](http://www.intermonoxfam.org)

[www.gloobal.info](http://www.gloobal.info)

[www.e-comerciojusto.org](http://www.e-comerciojusto.org)

[www.nodo50.org/espanica/ocj.html](http://www.nodo50.org/espanica/ocj.html)

[www.nikebiz.com](http://www.nikebiz.com)

[www.forbes.com](http://www.forbes.com)

[www.wto.org/indexsp.htm](http://www.wto.org/indexsp.htm)

[www.consumehastamorir.com](http://www.consumehastamorir.com)

[www.ropalimpia.org](http://www.ropalimpia.org)

## 2. eranskina. Jokabide-kodeak

1. Ez da lan bortxaturik egingo. da, familiak diru-sarrera horiek ez galtzeko. Astero, langileek egun bat libre izango dute, gutxienez.
2. Langileek talde moduan, sindikatu, esaterako, antolatze eta negoziatzeko eskubidea dute, eta errespetatu egin behar da.
3. Lan-baldintzak seguruak eta osasungarriak izango dira.
4. Ez da umeen esku-lanik erabiliko. Umeak lanean dauden lekuetan, hezkuntza eskainiko zaie, eta familiako beste kide bat kontratatuko
5. Bizitzeko besteko soldatak ordainduko dira, hau da, langileen eta euren familien oinarritzko premiei aurre egiteko, aurrezteko eta oinarritzkoak ez diren beste produktu batzuk erosteko bestekoak.
6. Astero, ez da 48 ordu baino gehiago lan egingo. Astero, aparteko 12 ordu lan egingo dira, gehienez ere.
7. Ez da langileen arteko bereizkeriarik egongo. Pertsona guztiek aukera berberak eduki behar dituzte, euren sexua edonolako dela ere.
8. Langileek legezko kontratuak eta lan egindako orduak nahiz kobratutakoa islatzen dituzten nominak eduki behar dituzte.
9. Ez da tratu txar fisikorik eta psikologikorik onartuko.

## 3. eranskina. Jokabide-kodeei buruzko alderdi garrantzitsuak

### Sindikatuak:

Kodeak tresna erabilgarriak dira, euren bidez enpresek kanpoko munduari erakusten diotelako lan-baldintza egokiak errespetatzen ari direla. Nolanahi ere, epe luzera oso garrantzitsua da langileek euren eskubideak defendatzea. Hori gertatzeko, talde moduan antolatze aukera izan beharko dute, eta, horretarako, sindikatuak sortuko dituzte. Enpresa guztietan, langileek antolatze eskubidea eduki beharko lukete, euren eskubideak defendatzeko orduan. Hori guztiori euren kodeetan agertu beharko litzateke.

### Kontrol independentea eta jendaurreko informazioa:

Enpresa batek bere lantegietan zer gertatzen den jendaurrean jakinarazten utziko ez balu, inork ez luke jakingo enpresa horrek langileen eskubideak benetan errespetatzen dituen edo bere kodeak nolabaiteko zentzurik edo eraginik daukan. Erakunde independenteek kontrolatu eta ikuskatu beharko litzateke enpresak, eta, lantegiak ikusitakoan, jendaurrean jakinarazi beharko lirateke euren ikerketetako emaitzak.



<b>Izenburua:</b>	Publizitate sexista
<b>Gaia:</b>	Generoa
<b>Hartzaileak:</b>	14-16 urte
<b>Iraupena:</b>	Ordubete
<b>Arloa:</b>	Filosofia eta Etika. Hezkuntza Plastikoa
<b>Beharrezko materiala:</b>	Fotokopiak: “Elkarteen erantzuna” 1. eranskina, “Publizitatea aztertzeko fitxa” 2. eranskina eta “Nola erantzun?” 3. eranskina.
<b>Helburuak:</b>	Publizitatea aztertzea, komunikabideetan behin eta berriro agertzen diren zeregin sexisten arabera.

**Laburpena / Nondik norakoak:**

Publizitate sexistaren aurka dauden erakundeek jarduketa-proposamenak irakurriko dituzte. Tailerra egiten dutenei deigarria egiten zaien iragarkiren bat aztertuko dute. Amaitzeko, jarduketa-proposamena egingo dute.

---

**Dinamikaren garapena:**

- Aldez aurretik, zenbait herrialdeetako ekintza-esperientziei buruz hitz egiten duen testua irakurriko dute (1. eranskina).
- Komunikabideren batean deigarria egiten zaien publizitate-motaren bat aztertuko dute: irratian, telebistan, prentsan, kaleko karteletan... (2. eranskina).
- Publizitate sexistaren aurkako ekintza-proposamena egingo dute (3. eranskina).

---

Iturria: Direction de l’Egalité des Chances. Ministère de la Communauté française Wallonie- Bruxelles avec la collaboration de Le monde selon les femmes: Femmes/Hommes dans le monde. Illustrations: Cécile Bertrand. Bruxelles 2004. Euskerazko egokitzea eta edizioa, Hegoa: Emakumeak eta gizonak munduan. Bilbo, Hegoa, 2005.

## 1. eranskina. Elkarteen erantzuna

La Meute (Frantzia)

“La Meute” elkartean, Florence Montreynaudek 2000ko irailaren 28an jaurtitako “Publizitate sexistarik ez” adierazpena sinatu zuten pertsonak biltzen dira. Publizitate sexistaren aurka dagoen nazioarteko sare feminista eta mistoa da.

“Adierazpenaren sinatzaileok honako hau adierazten dugu:

- 1. Jende guztiari eskatzen diegu publizitate sexistaren aurka erantzuteko eta publizitate horrek iragarritako produkturik ez erosteko. Indarkeria horri aurre egiteko, iragarkiek saldu nahi diguten produktua gaitzetsiko dugu.*
- 2. Publizistei eta iragarleei eskatzen diegu gizakiak laidogarritasunez, isekaz eta ankerkeriaz ez irudikatzeke.*
- 3. Komunikabideei eskatzen diegu publizitate sexistarik ez zabaltzeko.*
- 4. Kargu hautetsiei eskatzen diegu behar besteko neurriak hartzeko, publizitate sexista behin betiko amaitu dadin. Horretarako, publizistei, iragarleei eta komunikabideei agindu behar diete adierazpen hau sinatzen duten feministekin batera egindako kode deontologikoa garatzeko. Era berean, kargu hautetsiei eskatzen diegu publizitateko jarduerak arautzeko sexismoaren aurkako legea bozkatzeko.”*

Egiaztatu egin denez, komunikabideetan gustura ez dagoen pertsona baten gutun bakar bat jasotzen denean, isilik dauden MILA pertsonak jarrera bera izan dute. Beraz, enpresek badakite zeinen garrantzitsuak diren gutun horiek, beti erantzuten ez badute ere.

La Meute elkarteak zenbait eratako ekintzak garatu eta sustatu egiten ditu; esate baterako, kexak bidaltzen dizkio iragarleari edo publizitateko enpresari. Era berean, topaketak ere antolatzen ditu.

2003ko urtarrilean prestatutako plater baten publizitate sexistaren aurka garatutako kanpainan, pertsona askok eta askok gutunak bidali zituzten La Meute elkarteak egindako deiaren ostean, oso haserre zeudela adierazteko eta aurrerantzean marka horretako produkturik erosiko ez zutela esateko. Horrelako ekintzak erabilgarriak izan daitezke, enpresak honako hau erantzun zuelako kritikak jaso ondoren:

*“Eskerrik asko gure publizitateari buruz duzuen iritzia zein den adierazteagatik. Iragarkiak berak umorea zuen helburu, eta ez sexismoa eta bereizkeria. Iragarkiko umoreak sentsibilitateak mindu dituenez, kartelak kentzeko erabakia hartu dugu. Esan behar diguzuen guztia entzuteko prest gaude, garrantzi handia ematen diegulako gure kontsumitzaileek adierazitako iritziei.*

*Adeitasunez,  
Kontsumitzaileen Atentziorako Saila.”*

Informazio gehiago jaso nahi izanez gero, [www.lameute.fr/](http://www.lameute.fr/)

**ZORRA (Belgika)**

ZORRA publizitatean eta komunikabideetan sexuari buruz agertzen diren estereotipoak ikustea, ikertzea eta eurei erantzutea da flandeseraz.

Elkarte honek emakumeak eta gizonak, artasuna eta emetasuna, publizitatean eta komunikabideetan irudikatzeko darabilten moduari buruzko erantzun publikoak (erreklamazioak eta zorionak) biltzea du helburu. Ondoren, elkarteak iragarleei ematen die jendeak baztertzailatzat hartutako iragarkiak salatzen dituzten erantzunen berri.

Izan ere, elkarteak publizitatean bertan emakumeen eta gizonen gainean agertzen den irudikapen txarra desagerraraztea du xede nagusi.

Informazio gehiago jaso nahi izanez gero, [www.zorra.be](http://www.zorra.be)

**FACUA (Espainia)**

FACUA Kontsumitzaile Ekintzaileen Federazioa da. Zenbait elkarte biltzen dira bertan, eta erabiltzaileek merkatuen larregikerien aurrean dituzten eskubideak defendatzea daukate helburu.

Besteak beste, publizitate sexistak, arriskutsua edo estalia salatzen duten pertsonen edo taldeen protestak jasotzen ditu, eta enpresa iragarlearen aurrean bideratzen du.

Informazio gehiago jaso nahi izanez gero, [www.facua.org](http://www.facua.org)

Zergatik ez da saritzen sexista ez den publizitatea? Zergatik nabarmenduko ditugu alde txarrak bakarrik?

Iragarki “onak” balioesteko, elkarte batzuek estereotipo sexistak ondoen hausten dituen publizitatea sarituko dute urtero. Ideia hori Quebecen sortu bada ere, Belgikan Zorra elkarteak berreskuratu du; Frantzian, La Meute elkarteak; eta Perun, Emakumeen Azterlanetarako Zentroa.

*“Helburua ez da objektu bakar bat erakusten duen publizitate neutroa, emakumeak, gizonak edo bi sexuen arteko harremanak irudikatzeko pentsaerak bilakatu ditzakeen irudia baizik”, La Meute.*

## 2. eranskina. Publizitatea aztertzeko fitxa

Produktu-mota: .....

Marka: .....

Norentzat:  Neskak  Mutilak  Bereizi gabe

Lagina:  Gizabanakoa:  Neska  Mutila

Taldea:  Neskak  Mutilak  Mistoa

Familia:  Neskak eta mutilak  Neska bat  Mutil bat

Irudikapena:

Emakumearena/neskarena	Gizonarena/mutilarena	Gizonen eta emakumeen arteko harremanarena
------------------------	-----------------------	--

- |  |   |   |
|--|---|---|
| <input type="checkbox"/> Emakume objektua          | <input type="checkbox"/> Gizon objektua           | <input type="checkbox"/> Berdintzailea  |
| <input type="checkbox"/> Etxeko andrea             | <input type="checkbox"/> Aita bihozbera           | <input type="checkbox"/> Menderatzailea |
| <input type="checkbox"/> Emakume "lorontzia"       | <input type="checkbox"/> Ar lizuna                | <input type="checkbox"/> Sexuala        |
| <input type="checkbox"/> Emakumea-neska            | <input type="checkbox"/> Gizon aktiboa            | <input type="checkbox"/> Utilitarista   |
| <input type="checkbox"/> Maniki-panpina            | <input type="checkbox"/> Gizon bortitza           | <input type="checkbox"/> Askea          |
| <input type="checkbox"/> Guraria                   | <input type="checkbox"/> Gizon babeslea           | <input type="checkbox"/> Maitasuna      |
| <input type="checkbox"/> Zatitutako gorputza       | <input type="checkbox"/> "Beherago" dagoen gizona | <input type="checkbox"/> Adiskidetasuna |
| <input type="checkbox"/> Animalia-itxurakoa        | <input type="checkbox"/> Etxeko gizona            | <input type="checkbox"/> Jeloskortasuna |
| <input type="checkbox"/> Emakume biktima/bortxatua | <input type="checkbox"/> Gizon-puska              | <input type="checkbox"/> Jabetza        |
| <input type="checkbox"/> Emakume tentatzailea      | <input type="checkbox"/> Animalia-itxurakoa       |   |
| <input type="checkbox"/> Emakume deabrua           | <input type="checkbox"/> Gizon esklaboa           |   |
| <input type="checkbox"/> Prostituta                |   |   |
| <input type="checkbox"/> Gizona/luxua              |   |   |
| <input type="checkbox"/> "Gorago" dagoen emakumea  |   |   |
| <input type="checkbox"/> Emakume esklaboa          |   |   |
| <input type="checkbox"/> Emakumea/luxua            |   |   |

**Zure ustez, publizitate honek:**

- Lotura zuzena du iragartzen duen produktuarekin.
- Biluztasuna eta sexualitatea darabiltza, produktuarekin inolako zerikusirik ez badute ere.
- Gizonek eta emakumeek gizartean duten benetako zeregina erakusten du.
- Gizonei eta emakumei buruzko estereotipoak eta gure gizartean daukaten harremana sendotzen ditu.
- Harri eta zur utzi dezake jendea, emakumeak/gizonak edo euren arteko harremana nola erakusten dituen kontuan hartuz gero.
- Gizakiak eta euren arteko harremanak laidogarritasunez, isekaz eta ankerkeriaz irudikatzen ditu.
- Indarkeria legeztatzen/sustatzen du gizonen eta emakumeen arteko harremanetan.

**3. eranskina.** Nola erantzun?

Telebistan, eta kalean ikusten duzun publizitatea edo irratian entzuten duzun publizitatea harrigarria iruditzen bazaizu, ez izan zalantzarik eta

**erantzun!**

Hona hemen zer egin dezakezun publizitate sexista, arrazista edo baztertzaila ikusten duzunean:

- ✓ Bakarrik edo taldean gutuna bidali marka horretako enpresara, bere publizitate-kanpaina berria harrigarria irudi zaizula adierazteko.
- ✓ FACUAK, antzeko elkarteek edo publizitatearen behatokiek iragarki horiek euren web orrietan salatu dituzten begiratu eta, salatu ez badituzte, publizitatea azaltzeko mezua eta/edo argazkia bidali posta elektronikoaren bidez.
- ✓ Publizitate-kanpaina sexisten aurkako elkarteek antolatutako manifestaldietan parte hartu.
- ✓ Kexa bidali Emakumeen Institutuko eta antzeko erakundeetako edo Andaluziako Juntako Publizitatearen Behatokira. Bertan, telefonoak eta/edo eskabideak izango dituzu eskuragarri, kasuan kasuko salaketa egiteko.

[www.mtas.es/mujer/observpub.htm](http://www.mtas.es/mujer/observpub.htm)

[www.iam-publicidad.org](http://www.iam-publicidad.org)



<b>Izenburua:</b>	Herrien Auzitegi Iraunkorra Tribunal Tibeterako
<b>Gaia:</b>	Giza Eskubideak
<b>Hartzaileak:</b>	14-16 urte
<b>Iraupena:</b>	2 ordu y 30 minutu
<b>Arloa:</b>	Filosofia eta Etika. Gizarte Zientziak
<b>Beharrezko materiala:</b>	Aulki mugigarriak dituen areto handia. Auzitegiarentzako tarima edo leku garaia (ahal izanez gero). Aulki bat laguneko, Auzitegiarentzako mahai handiagoa eta taldeentzako mahai txikiak. Identifikazio-errotulua jarriko dute mahai gainean. Arbela eta klarionak. Fotokopiak: aurkezpena (1. eranskina) eta taldeen zereginaren orriak (2. eranskina). Herrien Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren fotokopia bat (3. eranskina). Taldeak berak mahaiaren aurrean jarriko du, Auzitegia bilduta dagoen bitartean.
<b>Helburuak:</b>	Esperientzia oinarrituta, Herrien Auzitegi Iraunkorraren helburuak eta funtzionamendua ezagutzeko. Tibet eta Txinaren arteko gatazkan inplikaturik dauden alderdiak zehazteko eta euren zereginaren berri izateko. Auzitegiaren funtzionamendura hurbiltzeko. Lekuratu eta esleitutako zeregina defendatzen ikastea. Eztabaidagaiari buruz hausnartzea.

**Laburpena / Nondik norakoak:**

Auzitegia simulatuko dute, eta, bertan, hasieran zehaztutako zeregina defendatu beharko dute parte-hartzaileek.




---

Iturria: Inma Llori i Juncadella: L'Àsia. Un continent divers. Països de L'Himàlaia. Nepal, El Tibet, El Bhutan. Icaria / Concertacio N/S - Frères des Hommes Europa, Bartzelona 1999. Euskerazko egokitzea eta edizioa, Hegoa: Asia. Askotariko Kontinentea. Himalayako Herrialdeak. Nepal, Tíbet, Buthan. Bilbo, Hegoa, 2005.

## Dinamikaren garapena:

---

Herrien auzitegi Iraunkorraren bileraren simulakroa egingo dute, Tibeteko herriaren eta Txinako gobernuaren arteko arazoari buruz eztabaidatzeko.

Honelaxe banatuko da denbora:

- Aurkezpena eta taldeen zein zereginen banaketa. (5 min).
- Auzitegiaren defentsa prestatzeko talde-lana. (20 min).
- Talde bakoitzaren defentsa. (15 min).
- Auzitegiak (ateak itxita) epaia ebazteko prozesua. (5 min).
- Auzitegiak erabakiaren berri emateko prozesua. (5 min).
- Azken eztabaida. (10 min).

Ariketaren hasieran, ikasleak sei taldetan banatu. Lehenengo lauak gatazkan inplikaturako alderdiak izango dira (erbestean dagoen gobernu tibetarra, Giza Eskubideen Nazioarteko Elkarte, Herrien Auzitegi Iraunkorri laguntzeko euskal taldea eta Txinako gobernuko ordezkariak). Beste biak, ordea, Herrien Auzitegi Iraunkorra eta albistearen berri emateko komunikabideak izango dira. Nahi izanez gero, beste bi talde egon litezke: presio-taldea eta behaketa-taldea.

Presio-taldeak (elkartasunerako plataformak, esaterako) aretotik kanpo jarraituko ditu gertaerak, manifestaldiak egingo ditu kalean, jakinarazpenak irakurriko ditu eta komunikabideen atentzioa erakarriko du. Behaketa-taldeak, aldiz, ez du ariketan zuzenean parte hartuko, eta ariketan zehar agertutako adierazpenei, gatazkei eta egoerei buruz idatziko du. Ondoren, azken eztabaidan azalduko ditu, joko amaitutakoan. Ariketa zuzentzen duen irakasleak ere eduki ahal izango du zeregin hori. Taldeek euren zereginaren arabera dagokien kasuari buruzko informazioa jasoko dute. 20 minututan, taldeek euren defentsa prestatuko dute, Auzitegiaren aurrean aurkezteko. Bien bitartean, Herrien Auzitegi Iraunkorrek eskura duen informazioa irakurriko du, eta komunikabideetako arduradunak inplikaturako alderdiekin bilduko da Auzitegian. Denbora hori igarotakoan, Herrien Auzitegi Iraunkorrek inplikaturako alderdi guztiei dei egingo die, euren argudioak entzuteko. Auzitegiak hitza emango du beti. Ez da taldeen arteko eztabaidarik egongo.

Azkenik, bertsio guztiak entzundakoan, Auzitegia leku pribatuan bilduko da erabakia hartzeko, eta, ondoren, berriro dei egingo die alderdiei, epaiaren berri emateko.

Auzitegiaren prozesua amaitutakoan, ariketa bera ere bukatu egingo da.

## 1. eranskina. Aurkezpena

1992ko azaroaren 16tik zora, Herrien Auzitegi Iraunkorra Estrasburgon bildu zen, Tibeteko egoerari buruz eztabaidatzeko. Auzitegia gobernu kanpoko erakundea da, eta herrien nahiz gobernuen arteko gatazkei buruzko epaiak ematea du helburu.

Auzitegiak zehatz-mehatz aztertu zituen testigantza ugari jasotzen zituzten agiriak, eta egiaztatu egin zuen Tibetek naziotzat edo estatutzat hartzeko baldintza guztiak betetzen zituela (lurraldea eta bertako biztanleak ditu, bertako dirua eta hizkuntza dauzka, administrazio-egitura eta komunikazio antolatuen sistema ditu). Ondoren, Herrien Auzitegi Iraunkorrak epaia eman zuen, eta, bertan adierazitakoaren arabera, Tibeteko herriari autodeterminaziorako eskubidea kendu zioten, 1950. urtean Txinak lurraldea okupatu zuenetik.

Herrien Auzitegi Iraunkorraren epaia ez da loteslea arlo judizialean, baina gomendio paregabea da, gatazka zehatz baten aurrean nazioarteko babesa lortzeko orduan. Hori dela eta, oso garrantzitsua da auzitegia biltzea eta ondorioak ateratzea.

## 2. eranskina. Zereginak

### 1. Herrien Auzitegi Iraunkorrari laguntzeko euskal taldea

Zuen taldeak Tibeteko herriaren auzia aurkeztuko du Herrien Auzitegi Iraunkorlean. Auzitegiak saioari hasiera ematen dionean, euren argudioak azaltzen dituzten lehenengoak izango zarete. Txinako gobernuaren aurkako akusazioa izango zarete.

“1949. urtean Txinako armadak Tibet inbaditu zuenean, 6 milioi biztanle zituen, eta, Nazioarteko Zuzenbidearen arabera, estatu independente eta subiranotzat hartzeko beharrezko baldintza guztiak betetzen zituen herrialdeak (zehaztutako lurraldea zeukan, lurralde horretan bizi ziren biztanleak zeuzkan eta nazioarteko politikan parte hartzeko prestatutako gobernu zuen). Une hartan, Tibetek harreman diplomatikoak zituen Nepalekin, Bhutanekin, Britainia Handiarekin eta Indiarekin.

Argi eta garbi dago nazioarteko jarduera garatzen zuela eta kanpoko politikako gaietan erabakiak hartzeko gaitasuna zeukala, munduko bi gerretan neutrala izan zelako, Britainia Handiak, AEBek eta Txinak ikaragarriko presioa egin bazioten ere. Izan ere, hiru herrialde horiek Tibeteko lurraldean zehar eraman nahi izan zituzten armak, Japoniak Myanmarreko (lehenago Birmaniako) igarobidea itxi zuzenean.

Tibeteko biztanleek ez dute inoiz sentitu txinatarrak direnik, eta Txinako biztanleek ere ez dituzte inoiz txinatartzat hartu. Bereizkuntza nazionala betidanik egon da.”

## 2. Txinako gobernuko ordezkariak

Zuen taldea Txinako gobernuaren ahotsa izango da gatazkan. Hain zuzen ere, egia esan, Herrien Auzitegi Iraunkorra biltzen denean, alderdi akusatua ez da sekula agertzen, Auzitegiak ez duelako inolako aginterik gobernuak agertzera eta defendatzera behartzeko. Hala ere, guk simulakroa egingo dugu, eta beharrezkoa da zuen defentsa azaltzea. 1950. urteaz geroztik Txina Tibetez jabetu izana justifikatzea daukazu helburu nagusi.

“Historiari begira, Tibet Txinako lurralde autonomoa izan da betidanik. Tibeteko gobernu autonomoaren eta Txinako gobernuaren arteko harremanak onak ziren eta oraindik ere badira. Dalai-lamak Pekinen bildu ziren Txinako gobernu zentralarekin.

Tibeteko armada ez da inoiz ondo prestatuta egon. Trebakuntzarik eta armarik ez zeukanez, nekez defendatu zitekeen atzerritarren inbasioetatik. Dena den, Txinako armadaren babesari esker, Tibeteko eskualdea alboko herrien erasoetatik defendatu egin ahal izan zen, lurralde autonomoa izaten jarraitu zuen.

Bestetik, milaka urtean zehar, Tibeteko biztanleak txirotasun larrienean bizi izan dira, nobleak eta eliz erakundeak ondo baino hobeto bizi izan diren bitartean. Monasterioetako abadeek eta nobleek eskualdeko lur guztiak zeuzkaten jabetzan. Dalai-lamak latifundista nagusiak ziren, eta fedea erabiltzen zuten, herria esplotatzeko eta menderatzeko.

Herritarrei zerbitzua eskaini nahi zieten monjeak eta mojak bizi ziren monasterioetan, eta, tradizioari eusteaz gain, biztanleak kontrolatzen zituzten. Ez zuten lurpeko mineralak erauzteko baimenik eman, euren ustiaketairen eta meatzaritzak sortutako mozkinen kontrola ez galtzeko. Budista ez zen eskolaren bat zabaltzen zenean, mendebaldeko balioetaranzko eta aurrerapeneranzko bidea urratu zezakeenez, ahal zuten guztia egiten zuten ixteko.

Monasterioetako hezkuntza erlijiosoa zen eskainitako hezkuntza bakarra. Urteetan zehar, umeek testu budistak buruz ikasi besterik ez zuten egiten.

Erljioa isolatuta, munduaren gainerakotik aldentuta, bizi zen, bertako biztanleen ezjakituria eta primitibismoa ezkutatu nahian-edo. 1950. urtean, Erdi Aro bete-betean bizi ziren artean.

Gure gobernuak, Pekingo gobernuak, eskolak, ospitaleak eta lantegiak ireki zituen; errepideak, zubiak eta ubideak eraiki zituen; nekazaritza eta meatzaritza antolatu zituen; eta Tibeteko herriari lagundu zion txirotasun larritik irteten.”

### 3. taldea. Erbesteratutako gobernu tibetarra

Zuen taldea Indiako Dharamsalako gobernu tibetarra izango da. Zuen gobernuko presidentea eta buruzagi izpirituala Dalai-lama da.

“Txinako okupazioa baino lehen, 1950. urtean, Tibetek autonomia politikoa eta ekonomikoa zeukan. Herrialdeak nekazaritza, abeltzaintza eta produktuen merkataritza-trukea zituen bizibide nagusi, eta nekazaritzako zein abeltzaintzako produktuen merkataritza garatzen zuen alboko herrialdeekin. Tibetek mea-erreserba onak ere bazituen (urrea, kobrea, zilarra, harribitxiak), eta arretaz ustiatzen zituen.

Bestetik, monasterioak eta gotorlekuak zituen herrialdean. Euren eginkizuna erlijiosoa bazen ere, monasterioen inguruan bizi ziren biztanleak babesten zituzten, etsaiek eraso egiten zieten.

Biztanle gehienek nekazaritza zuten bizibide. Herrialdeak zerealak, egoskariak, barazkiak, frutak eta arrosa ekoizten zituen. Ekoizpena nahikoa zen biztanle guztiak elikatzeko, eta Tibetek zerealak esportatzen zizkien Txinari eta beste herrialde mugakide batzuei. Tibetek ez da inoiz goseterik egon.

Beste biztanle batzuek ganaduen (ahuntzen eta jaken) transhumantzia zuten bizibide. Talde tribal nomadak ziren, eta oso ondo egokituta zeuden Tibeteko goi-lautadetako baldintza gogorretara. Talde horietako gizonak eta emakumeak oso zaldizko onak ziren. Udaberrian, ganaduekin irteten ziren bazkaleku berrien bila, eta, bide batez, elikaduran oso beharrezkoak ziren produktuak merkaturatzen zituzten; esate baterako, gatza, haragia, esnea, gurina eta gazta. Era berean, ahuntzen artilea eta jaken buztanak ere saltzen zituzten. Euren truke, ekoizterik ez zuten ondasunak lortzen zituzten, eta, ondoren, herrialdeko beste eremu batzuetan merkaturatzen zituzten.

Neguan, monasterioen ingurura edo herrixketara itzultzen ziren. Talde nomadak Tibetetik urrun zeuden herrien edo eskualdeen arteko komunikazio-bideak ziren. Hain zuzen ere, zeresan handia zuten herrialdeko ekonomian.

Era berean, biztanleak babesteko antolatutako eta prestatutako nobleak ere bazeuden herrialdean.

Tibet herrialde erlijiosoa da. Badira mende luze budismoa herrialdeko eta bertako biztanleen erlijioa dela. Tibeteko lurralde osoan, monasterio ugari zeuden, budismoaren jarraipena eta tibetarren izpiritualtasuna zaintzeko. Monasterioetan, liburu erlijiosoak eta herrialdeko arte-lan erlijiosoak eta literarioak gordetzen zituzten. Gizon eta emakume askok aukeratzen zuten monasterioko bizimodua.

Tibeteko gobernuak Lhasan (herrialdeko hiriburuan) zeukan egoitza nagusia, eta honako hauek osatzen zuten: estatuburua (Dalai-Lama), Ministroen Kontseilua, Batzar Nazionala eta lurralde osoa kudeatzeko moduko gorputz administratibo zabal-zabala.”

### 4. taldea. Komunikabideak

Zuen taldea komunikazio-agentzia izango da, eta Herrien Auzitegi Iraunkorrek Tibeteko herriari buruz egingo duen bileraren jarraipenaz arduratuko da. Informazioa bildu eta jendeari emango diozue horren berri, ahalik eta modu argi eta laburrenean. Hori lortzeko, Auzitegiaren aurrean ordezkaturako talde guztiak elkarrizketatu beharko dituzue, euren jarreraren eta argudioen laburpena eskaintzeko. Auzitegia (ateak itxita) biltzen den bitartean, kasuaren laburpena egingo duzue, eta, Auzitegiak bere jarrera azaltzen duenean, epaiaren berri emango duzue. Amaieran, taldeek Auzitegiaren epaiari buruz daukaten iritzia jaso eta argitaratu egin dezakezue.

## 5. taldea. Giza Eskubideen Defentsarako Nazioarteko Elkartea

Zuen taldean, nazioarteko elkarteko kideak egongo zarete. Zuen elkarteak giza eskubideen defentsaren eta errespetuaren alde lan egiten du, eta eskubideok urratzen dituzten gobernuak, taldeak edo gizakiak salatzen ditu. Gaur, Tibeten giza eskubideak etengabe urratzeagatik Txinako gobernuaren aurka egin duzuen salaketa defendatuko duzue.

“Txinak Tibet inbaditu zuenetik, milioi bat eta erdi lagun hil dira, gutxi gorabehera (herrialdeko biztanleen seirenak). Hamar lagunetatik bat espetxean dago. Amdoko eskualdea km2-ko preso gehien dituen eremua da munduan, 10 milioi preso daude-eta. Espetxeetan eta lan bortxaturako eremuetan, torturak ohikoak dira.

1991. urtean, kolono txinatarrek (7 milioi eta erdi inguruk) bertako biztanle tibetarren kopurua (6 milioi lagun inguru) gaitzitzen zuten, eta, gaur egun ere, txinatarrek birpopulatu ari dira Tibet.

Jaiotza-tasa kontrolatzeko politika (seme edo alaba bakarraren legea) zorrotz-zorrotz ezartzen dute Tibetean. Kontrol horretaz arduratzen diren osasun-langileak txinatarrek baino ez dira, eta estatuak pizgarri ekonomikoak ematen dizkie, esterilizatu dituzten emakume tibetarren kopuruaren arabera.

Zigorrek oso gogorak dira bi seme edo alaba baino gehiago dituztenentzat. Aitak eta amak isun bana ordaindu behar dute, jendaurrean apaltzen dituzte eta zigor ekonomikoak ezartzen dizkiete. Hirugarren semeak edo alabak ez du legezko eskubiderik (ez du eskolara joaterik, ez du lan egiterik, ez du bidaiatzerik eta ez du errazionamendu-liburuxkarik). Horrez gain, ez dute hiritartzat hartzen.

Tibeten, ez dago mugikortasunerako, adierazpenerako eta gurtzarako askatasunik. Irakaskuntza txineraz baino ez da eskaintzen. Jendaurrean ez dago inolako ekitaldi erlijiosorik egiterik.

Txinak debekatu egin du Tibetean budismoa irakastea eta ikastea. Monasterio, tenplu eta monumentu historiko gehienak suntsitu edo arpilatu egin zituzten, eta okupatzaileek arte-lan erlijiosoak eta literarioak hondatu zituzten. Badira zenbait urte monasterio eta tenplu batzuk zaharberritzen hasi direla. Hori dela eta, badirudi askatasun erlijioso berreskuratu dutela, baina ez da halakorik gertatu. Zaharberrikuntzak turismoa erakartzea eta Txinak nazioartean duen irudia hobetzea dauka helburu. Tibetarrei sarrera mugatu diete eskoletan, unibertsitateetan, enpresa txikietan... Langabezia orokorra, gosea, txirotasuna eta bazterketa gero eta larriagoak dira. Konpentsazio ekonomiko baten truke Txinatik Tibetera iritsi diren txinatarrek lanpostu onenak dituzte ikastetxeetan, enpresetan eta ospitaleetan. Tibet base militar handia da, eta 300.000tik gora soldadu txinatar daude bertan, bai eta Txinako arma nuklearren %25 ere.”

## 6. taldea. Herrien Auzitegi Iraunkorra

Zuen taldea Herrien Auzitegi Iraunkorra izango da, hau da, herrien eta gobernuen arteko gatazkei buruzko epaiak ematen dituen gobernuz kanpoko erakundea. Egunotan, Vitoria-Gasteizen elkartu zarete, Tibeteko herriaren egoerari buruz eztabaidatzeko. Beste taldeek defentsa edo akusazioa prestatzen duten bitartean, zuen taldeak Auzitegia egiteko aretoa antolatuko du. Aukeratutako aretoan leku garairik edo tarimarik badago, hantxe jarriko dituzue mahaia eta aulkiak, gainerakoetatik bereizteko eta urrunago egoteko. Aretoaren gaineratikoa prestatu eta talde bakoitzaren eremua zehaztu. Talde guztiak zuen mahaitik distantzia berera egon behar dira, eta ondo ikusi behar zaituztete. Talde guztiak prest daudenean, aurkeztu ondoren, ongietorria eman eta Auzitegiaren funtzionamendu-arauak gogoratu (orriaren amaieran daude). Herrien Auzitegi Orokorrari laguntzeko euskal taldeari emango diozue hitza, bere akusazioa aurkeztu dezan. Ostean, beste taldeei emango diezue hitza (egokien iruditzen zaizuen hurrenkeran). Lehenengo eta behin, euren burua aurkezteko eta argiak bezain zehatzak izateko eskatuko diezue. Guztiei entzun ondoren edo taldeak azalpenak ematen ari diren bitartean, edozein argibide eskatu ahal izango diezue, baina ez da taldeen arteko komunikazio zuzenik egongo. Gero, leku pribatu batean elkartuko zarete (ateak itxita), epaia ebazteko. Epai horretan, gomendioak emango dituzue. Ondoren, Auzitegiko aretora itzuli eta epaia irakurriko duzue. Era berean, bilera agurtu eta itxi ere egin beharko duzue.

---

---

### Herrien Auzitegi Iraunkorraren funtzionamendu-arauak:

- Herrien Auzitegi Iraunkorra agintaritza gorena da, eta errespetatua izan behar da.
- Auzitegiak berak emango du hitza. Alderdiek ez dute hitza hartuko, Auzitegiaren baimenik ez badute.
- Auzitegiak denbora bera emango die alderdi guztiei, argudioak azaltzeko orduan.
- Ez da taldeen arteko eztabaidarik egongo. Informazio guztiak Auzitegiari emango zaizkio, eta, ez, taldeetako bati edo talde guztiei.
- Auzitegian bertan, ez dago indarkeria fisikorik eta hitzezko indarkeriarik erabiltzerik.
- Auzitegiak taldeei hitza kentzeko eskubidea izango du, arauak hausten badituzte, euren agerraldia luzeegia bada edo hitz edo keinu desegokiak erabiltzen badituzte.
- Egokia iruditzen bazaio, Auzitegiak arautegia betetzen ez duten gizabanakoak eta taldeak bota ahal izango ditu aretotik.

**3. eranskina.** Herrien Eskubideen Adierazpen Unibertsala

## I. SEKZIOA: IZATEKO ESKUBIDEA

1. artikulua  
Herri guztiek izateko eskubidea dute.
2. artikulua  
Herri guztiek euren nortasun nazionala eta kulturala errespetatua izateko eskubidea dute.
3. artikulua  
Herri guztiek euren lurraldearen jabetzari eusteko eta kanporatuz gero bertara itzultzek eskubidea dute.
4. artikulua  
Ez dute inor bere nortasun nazional edo kulturalarengatik hiltzerik, jazartzerik, erbesteratzerik edo botatzerik. Era berean, bizi-baldintzek ez dute bere herriaren nortasuna edo osotasuna auzitan jartzerik.

## II. SEKZIOA: AUTODETERMINAZIO POLITIKORAKO ESKUBIDEA

5. artikulua  
Herri guztiek autodeterminaziorako nahi-taezko eskubidea dute. Nork bere estatus politikoa aukeratu behar du askatasunez, kanpoko inolako injerentziarik gabe.
6. artikulua  
Herri guztiek era guztietako menderaldi kolonial edo atzerritar zuzen edo zehar-kakoetatik eta erregimen arrazista guztietatik askatzeko eskubidea dute.
7. artikulua  
Herri guztiek hiritar guztiak etnia, sexu, sinesmen edo kolore arloko bereizkeriari gabe ordezkatzen dituen erregimen demokratikoa edukitzeko eskubidea dute. Erregimen demokratiko horrek, gainera, giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen errespetu eraginkorra bermatu behar die biztanle guztiei.

## III. SEKZIOA: HERRIEN ESKUBIDE EKONOMIKOAK

8. artikulua  
Herri guztiek euren aberastasunen eta baliabide naturalen gaineko eskubide bakarra dute. Arpilatu egin badituzte, berreskuratzeko eskubidea daukate, eta, modu berean, bidegabekeriak ordaindu-tako kalte-ordainak kobratzeko eskubidea ere badaukate.
9. artikulua  
Aurrerapen zientifikoa eta teknikoa gizakien ondare erkidearen osagaia denez, herri guztiek dute bertan parte hartzeko eskubidea.
10. artikulua  
Herri guztiek euren lanarengatik bidezko soldata jasatzeko eskubidea dute, eta, era berean, nazioarteko trukeak berdintasunez eta ekitatez egiteko eskubidea ere badute.
11. artikulua  
Herri guztiek eurek aukeratutako sistema ekonomiko eta soziala edukitzeko eskubidea dute. Horrez gain, garapen ekonomikoranzko bideari askatasun osoz eta kanpoko injerentziarik gabe ekiteko eskubidea ere badute.
12. artikulua  
Lehen aipatutako eskubide ekonomikoak munduko herrien arteko elkartasun-izpirituaz betearazi behar dira, euren interesak kontuan hartuta.
- IV. SEKZIOA: KULTURARAKO ESKUBIDEA
13. artikulua  
Herri guztiek euren hizkuntzan hitz egiteko, euren kultura zaindu eta garatzeko eta gizakien kultura aberasteko eskubidea dute.

14. artikulua  
Herri guztiek euren aberastasun artistikoak, historikoak eta kulturalak izateko eskubidea dute.
15. artikulua  
Herri guztiek atzerriko kultura inposatua ez izateko eskubidea dute.

## V. SEKZIOA: INGURUMENERAKO ETA BALIABIDE ERKIDEETARAKO ESKUBIDEA

16. artikulua  
Herri guztiek euren ingurunea artatzeko, babesteko eta hobetzeko eskubidea dute.
17. artikulua  
Herri guztiek gizakien ondare erkideak erabiltzeko eskubidea dute; esate baterako, itsas zabala, itsas hondoa, atmosferaz kanpoko espazioa.
18. artikulua  
Aipatutako eskubideak betearaztean, herri guztiek oso kontuan hartu behar dute euren garapen ekonomikoaren eta munduko herri guztien arteko elkartasunaren eskakizunak koordinatu behar dituztela.
- VI. SEKZIOA: GUTXITUEN ESKUBIDEAK
19. artikulua  
Estatu bateko herri bat gutxituta dagoenean, bere nortasuna, ohiturak, hizkuntza eta ondare kulturala errespetatuak izateko eskubidea dauka.
20. artikulua  
Talde gutxituko kideek inolako bereizkeriari gabe izan behar dituzte estatuko gainerako biztanleek bezalako eskubideak, eta berdintasunez parte hartu behar dute bitzta publikoan.



## 21. artikulua

Eskubide horiek betearaztean, erkidego guztiaren legezko interesak errespetatu beharko dira. Bestetik, ez dago estatuko lurralde-osotasunaren eta batasun politikoaren aurka egiterik, estatuak adierazpen honetan jasotako printzipio guztien arabera diharduenean.

## VII. SEKZIOA: BERMEAK ETA ZIGORRAK

### 22. artikulua

Adierazpen honetako xedapenak bete ezean, nazioarteko erkidego osoarekiko betebeharrak urratuko dira.

### 23. artikulua

Adierazpen hau urratzean sortutako kalte guztiak konpondu beharko ditu errudunak.

### 24. artikulua

Adierazpen honetako xedapenak urratzean herri baten kaltearen kontura aberastuz

gero, lortutako etekinak itzuli beharko dira. Gauza bera gertatuko da inbertsio atzerritarrengatik erdietsitako larregizko etekin guztietan.

### 25. artikulua

Herrien oinarrizko eskubideak urratuta sinatutako itun, hitzarmen edo kontratu desberdin guztiek ez dute inolako eraginik izango.

### 26. artikulua

Herrientzat larregizkoak eta jasanezinak izan diren kanpoko finantza-zamak ez dira inondik inora eskatuko.

### 27. artikulua

Herrien oinarrizko eskubideen urraketa larrienak (izateko eskubidearen aurkakak, batez ere) nazioarteko krimenak izango dira, eta eragileen banan-banako zigor-erantzukizuna sorraraziko dute.

## 28. artikulua

Euren oinarrizko eskubideak larriki urratu dituztenean, eskubideok borroka politiko edo sindikalaren bidez eta, azken beltzean, indarraren bidez balioesteko eskubidea dute herri guztiek.

## 29. artikulua

Liberazio-mugimenduek nazioarteko erakundeetan izan behar dute sarbidea, eta bertako borrokalariak gerraren eskubide humanitarioaren babespean egoteko eskubidea dute.

## 30. artikulua

Herri baten oinarrizko eskubideak larriki urratu dituztenean, nazioarteko erkidegoko kide guztiek ezinbestean berrezarri behar dituzte eskubide horiek.

<b>Izenburua:</b>	Zaborra arakatzen
<b>Gaia:</b>	Ingurumena
<b>Hartzaileak:</b>	8-10 urte
<b>Iraupena:</b>	Ordubete
<b>Arloa:</b>	Gizarte Zientziak, Natura Zientziak
<b>Beharrezko materiala:</b>	Zabor-poltsak. Hondakinak. Balizko Zerrenda: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Beirazko edo kristalezko botilak</li> <li>• PVCzko botilak</li> <li>• Freskagarri-latak</li> <li>• Hortzetako eskuila</li> <li>• Plastikozko poltsak</li> <li>• Aluminioko paperezko bolak</li> <li>• Aerosolak</li> <li>• Lixiba-txanbilak</li> <li>• Agoarras-botilak</li> <li>• Oihal-zatiak</li> <li>• Pintura-potoak</li> <li>• Tetra-brikak</li> <li>• Paperak, prentsa, kartoia</li> <li>• Ez kargatzeko metxeroa</li> <li>• 1,5eko pilak</li> <li>• Krotxo zurizko erretiluak (poliestirenoa)</li> <li>• Paperezko zapiak</li> <li>• Jogurtak</li> <li>• Garbigarri-botilak</li> <li>• Sakelako telefonoa</li> <li>• Sokak</li> <li>• Botoi-pilak</li> </ul>
<b>Helburuak:</b>	Sortzen ditugun hondakinei buruz, ahalik eta gehien murrizteko premiari buruz eta, oro har, kontsumo-egintzei buruz hausnartzea.

**Laburpena / Nondik norakoak:**

Eguneroko bizimoduan sortzen ditugun hondakin batzuk aztertuko ditugu, ingurumenean duten eragina balioesteko. Era berean, kontsumo-gizarteari buruzko hausnarketa orokorragoaren barruan kokatuko dugu azterketa hori.

## Dinamikaren garapena:

---

Ikasgelako edo tailerreko dinamizatzaileak aldez aurretik prestatu behar ditu zenbait hondakin dituzten zabor-poltsak. Hondakin horiek beherago proposatutakoan antzekoak edo bururatzen zaizkion beste batzuk izango dira.

Neska-mutikoak 3 taldetan banatu eta zabor-poltsa emango diegu. Bertan, edozein etxetan pilatu litekeen zabor adierazgarriaren hondarrak eta laginak aurkituko dituzte.

Hondakin guztiak atera eta taldearen irizpideen arabera sailkatuko dituzte. Izan ere, horixe bera izango da egin beharreko lehen ariketa, irizpideak zehaztea, alegia.


Hezitzaileak zabor-poltsa eduki dezake, eta, adibide moduan, ikasleei azaldu diezaieke nola sailkatzen dituen hondakinak. Bestetik, beste era batera ere egin daitekeela nabarmenduko du. Hona hemen zenbait sistema: materialaren arabera (plastikoa, kartoia, metala...), materialaren jatorriaren arabera (landare-jatorria, minerala, berriztagarria, ez-berriztagarria), degradatzeko denboraren arabera, kutsagarritasunaren arabera eta/edo ingurumenaren gaineko eraginaren arabera (biodegradagarria, toxikoa, kaustikoa, sukoia, leherkorra...).

Taldeek euren irizpideak ezarriko dituzte, eta idatziz adieraziko dituzte. Ondoren, zabor-poltsako hondakinak sailkatuko dituzte.

Talde guztiak euren zeregina amaitu dutenean, txandaka azalduko dute zein den euren sailkapen-sistema eta nolako emaitza lortu duten.

Txanda amaitutakoan, dinamizatzaileak gidatutako eztabaidari ekingo diote, zenbait gai lantzeko:

- Birziklapena. Ohiturak, abantailak, zailtasunak, jarduera sustatzeko zerbitzuak...
- Ingurumenaren gaineko eragina. Kutsadura, paisaiaren hondamendia eta animalientzako, landareentzako eta gizakientzako ondorioak.
- Kontsumo-gizartea. Zer erosten dugun, zer eskatzen dugun, kontsumo arduratsua...
- Zer egin dezakegun ingurumenaren alde. Ohiturak, banan-banako eta taldekako jarrerak, sentsibilizazioa, salaketa, aldarrikapenak...



<b>Izenburua:</b>	Logela alokagai... Etxebizitza partekatua...
<b>Gaia:</b>	Kultura artekotasuna
<b>Hartzaileak:</b>	18-25 urte
<b>Iraupena:</b>	90 minutu
<b>Arloa:</b>	Etika, Hizkuntza eta Literatura
<b>Beharrezko materiala:</b>	Papera eta boligrafoak. Dinamika sorrarazi duen suposamendua (1. eranskina). Agentziara bidali beharreko iragarkirako kartoi mehea: “Logela alokagai... (ezaugarriak eta baldintzak)” edo “Etxebizitza partekatua...”.
<b>Helburuak:</b>	Estereotipoak desegituratzen eta aurreiritziei aurre egiten ikastea. Pentsaera eta jarrera solidarioak sortzea.

#### Laburpena / Nondik norakoak:

Estereotipoen eta aurreiritzien aurka lan egingo dugu, bizi-esperientzia zehatz baten bitartez. Fikziozkoa bada ere, gazteen errealitate oso hurbil dago. Gurasoengandik urrun bizi diren ikasleak edo lizentziadun berriak direla eta etxebizitza partekatu behar dutela irudikatu behar dute. Orduan, egoera anitzak sortuko dira, eta idatzi, azaldu edo dramatizatu egingo dituzte, jokabide baztertzailak edo solidarioak aztertzeko asmoz.

#### Dinamikaren garapena:

Irakasleak taldeari azalduko dio ipuinak edo antzezlan laburrak (dramatizazioak) sortuko dituztela, zenbait suposamendu orokorretan oinarrituta (1. eranskina).

Ikasleek etxebizitza norekin alokatuko luketen, euren ametszko maizterra zein izango litzatekeen erabaki behar dute. Arrazoiak argudiatu behar dituzte, eta erabakia hartzean kontuan hartutako alde onak eta txarrak zeintzuk izan diren azaldu behar dute (aztertu egin behar dute eta hautagaiekin partekatutako bizitzaren suposamenduak aintzat hartu behar dituzte).

Denen aurrean azaltzean, taldean aztertuko dute zeintzuk izan diren zerrendako pertsonen abantailak eta desabantailak, estereotipoak edo aurreiritziak zer diren eta hautagaiekiko eguneroko bizitzako aurreikuspenen azterketa haztatua bezain errealista zer den bereizteko.

#### Aldagaiak:

- Banan-banan ere egin daiteke: narrazio literarioa (ipaina, elkarrizketa-drama), argudio-testua (kasu hipotetikoak, hautagaiak aukeratzeko edo gaitzesteko arrazoiak)... idatzi daitezke.
- Talde-sorkuntza egin daiteke 4 lagun baino gehiago ez dituzten taldeetan. Hiru etxebizitza berean bizi dira dagoeneko, eta laugarrena agentziako arduraduna izango da. Gidoia idatzi eta antzeztu egin behar dute. Irakasleak sorkuntzei eta/edo antzezpenei buruzko azken eztabaida moderatu beharko du, estereotipoetan eta aurreiritzietan oinarritutako ekintzak eta aniztasuna partekatzeke ekintzak bereizi ahal izateko. Horrek ez du esan nahi sortu daitezkeen gatazkak haztatuko ez dituztela. Hain zuzen ere, jarrera irekiaz aztertuko dira, eta konponbideak hartuko dira kontuan.

## 1. eranskina. Hasierako suposamenduak

Ez dakigu zergatik, baina taldearen kokalekua denboraren makina bihurtu da. Taldekideek 10 edo 15 urte gehiago dituzte. Ikasketak amaitzean daude edo ikasketak amaitu berri dituzte (Lanbide Heziketa, unibertsitatea...), eta lehenengo edo bigarren lanaren bila dabiltza. Beste hiri batean bizi dira, familiarengandik urrun. Etxebizitza handi bezain erosoan bizi dira. Orain, helduak dira, eta bizibideren bat izan behar dute. Etxebizitzaren alokairua eta gastuak oso handiak dira ikasle batentzat edo langabetu batentzat edo noizean behin txarto ordaindutako lanak dituenarentzat. Agentziaren laguntzaz, etxebizitza partekatzeke beste pertsona batzuk bilatuko dituzte. Agentziak iragarkia argitaratu du. Era guztietako pertsonen erantzunak jaso ditu, baina zenbait arrazoiren ondorioz, elkarrizketarik egiterik ez dagoenez, hautagaien zerrendara jo beharra dago hautaketa egiteko. Bertan, eskabideetan lortutako datuak agertuko dira.

Hona hemen zer pertsonaren artean aukeratu behar den:

- Hiru anaia marokoar. Hiriko hornidura-azokan lan egiten dute.
- Matematiketako bi irakasle (neska eta mutila). Hirira iritsi berri dira.
- Andre judua. Arropa-denda dauka eta banatu egin berri da.
- Gizon ijitoa. Arropa saltzen du azoka txikietan.
- Beste pertsona batzuk, beti ere irakaslearentzat interesgarriak badira.



<b>Izenburua:</b>	Barra bat ogi joko
<b>Gaia:</b>	Garapena
<b>Hartzaileak:</b>	10-12 urte
<b>Iraupena:</b>	10 minutu
<b>Arloa:</b>	Tutoretza, Gizarte Zientziak
<b>Beharrezko materiala:</b>	Barra bat ogi (ahalik eta luzeena). Aiztoa. Gizakien %20ren adierazgarri diren kartelak.
<b>Helburuak:</b>	Munduko biztanleen artean aberastasuna nolako desberdintasunaz banatuta dagoen antzematea eta ulertzea. Asiako herrialde eta herri guztiak txiroak ez direla eta Europako herrialde eta herri guztiak aberatsak ez direla ulertzea.

#### **Laburpena / Nondik norakoak:**

Aberastasanaren banaketaren ehunekoak kontuan hartuta, barra bat ogi banatuko dugu parte-hartzaileen artean, desberdintasuna nolakoa den ulertu dezaten.

### **Dinamikaren garapena:**

Dinamizatzaileak 5 taldekideri eskatuko die laguntza, eta berarekin bilduko dira. Pertsona bakoitza munduko biztanleen bostena, %20 izango da. Biztanle aberatsenen %20, hurrengo %20... harik eta biztanle txiroenen, baztertuen %20ra iritsi arte. Laguntzaileek kartel bana eramango dute, zer %20 diren jakiteko (aberatsena...). Keinuak edo jarrerak egin ditzakete, zer diren adierazteko.

Laguntzaileek eta dinamizatzaileak taldearen aurrean jardungo dute. Dinamizatzaileak barra handi bat ogi eta aiztoa hartuko ditu, eta honako hau esango die ikusentzuleei:

- Ogi-barra hau munduko aberastasuna da.
- “Zuen iritziz, zer zati ebaki behar dut biztanle aberatsenen %20 asetzeko?... %20, %30, %40?”.

Erantzuna %82! da, munduko biztanleen %20k aberastanaren %82 dituelako.

- Dinamizatzaileak ogi-barraren 4/5eko zatia ebaki du, eta biztanle aberatsenen %20ri eman die.
- Ondoren, honako hau esan du: “Barraren %20 baino gutxiago daukat, gizakien %80ren artean banatzeko. Zenbat eman behar diet biztanle txiroenen, baztertuen %20ri?”. Orduan, barraren hondarra erdibitu du (%10% + %10). Zati bat hartu eta 8 xerra berdinetan ebaki du. Xerra bakoitza ogi-barraren %1,2 da, eta planetako biztanle txiroenen %20ri eman die. Beraz, modu grafikoan irudikatu du gure munduan eguneko dolar bat baino gutxiagorekin bizi diren 1.200 milioi biztanlek zer jasotzen duten.



<b>Izenburua:</b>	Jarrerren jokoa
<b>Gaia:</b>	Garapena
<b>Hartzaileak:</b>	16-18 urte
<b>Iraupena:</b>	30 minutu
<b>Arloa:</b>	Tutoretza Gizarte Zientziak
<b>Beharrezko materiala:</b>	Ikasgela handia. Esaldidun lau karteltzar. Zeloa. Klariona / koloretako zinta, zinta itsasgarria edo antzekoa, zoruan bertan lau koadranteak mugatzen dituzten bi ardatzak markatzeko. Gaitzesteko edo onartzeko azal dutako proposamenak eta argudioak agertu daitezke poster batean.
<b>Helburuak:</b>	Argudioen bidez ideiak defendatzen ikastea. Beste argudio batzuk entzuten ikastea eta gureak ez bezalako ikuspegi baliagarriak egon daitezkeela onartzea.

#### Laburpena / Nondik norakoak:

Egoera jakin bat aldatzeko, abian jarri litzaketen ekintzei buruz daukagun ikuspegia emango dugu jakitera, iparraldearen eta hegoaldearen arteko harreman desberdinenetan edo European paperik gabe dauden egoeran.

Parte-hartzaileak ekintzaren bat prestatzen ari badira, egoera “kritikoetan” dituzten jokabideak nolakoak diren jakingo dute. Egin lezaketinari buruzko ideiak trukatu ditzakete, norberaren ikuspegia azaldu dezakete eta argudioen bidez defendatu dezakete... Horrez gain, aretoan dauden beste ikuspegiak emandako arrazoiak entzuten eta ulertzen ikasi behar dute.

#### Dinamikaren garapena:

---

Taldea 7 lagunekoa izango da gutxienez; eta 30 ingurukoa, gehienez. Talde onena 20-25 lagunekoa izango da.

Dinamizatzaileak 4 kartoi mehe eramango ditu, eta honako esaldi hauek agertuko dira bertan:

1. “Egin egiten dut”.
2. “Ez dut egiten”.

3. “Badabil”.
4. “Ez dabil”.

Kartelak horma banatan jarri, eta bi ardatz eratu. X ardatzak “Badabil” / “Ez dabil” kartelak jarriko ditu aurrez aurre; eta Y ardatzak, “Egin egiten dut” / “Ez dut egiten”. Parte-hartzaileek proposatutako esaldien inguruan duten jarrera adierazi beharko dute. Aukeretak baten alde egin beharko dute beti. Jarrera

hori zergatik hartu duten azaldu beharko dute. Eztatidatzea barik, argudiatzea da helburu nagusia.

Dinamizatzaileak desberdintasunen egoera zehatza proposatuko du, eta, ahal izanez gero, parte-hartzaileen ezagutza edo esperientzietatik hurbil egongo da. Esate baterako, multinazional bateko kirol-oinetakoen ekoizpena. Esportazioetarako ehundegietan (makiletan) egiten dituzte, eta, bertan, oinetakoen azken prezioaren %1-%2 irabazten dute langileek.

Dinamizatzaileak zenbait ekintza proposatuko dizkio taldeari, eta elkarren segidan aurkeztuko dizkio, errazenetik zailenera. Markadun kirol-oinetakoen adibideari dagokionez:

- Gaiari buruz hitz egin lagunekin.
- Eskaera sinatu, langileentzako lan-baldintza duinak eskatzeko.
- Inoiz ez erosi marka horretako oinetakorik.
- Enpresaren aurkako boikota antolatu.
- Protestatzeko / salatzeo kontzentrazioa antolatu enpresako zuzendaritzaren aurrean.
- Zuzendariei edo akziodunei enpresan sartzen ez utzi.

Aipatutako proposamen bakoitzaren ostean, parte-hartzaileak bi ardatzek mugatutako koadrantean jarriko dira (“Egin egiten dut eta badabil”, “Egin egiten dut, baina ez dabil”...).

Ondoren, dinamizatzaileak lau edo bost parte-hartzailei eskatuko die euren jarrera azaltzeko moduko argudioak eskaintzeko. Garrantzitsua da iritzi kontrajarriko edo urruneko pertsonak aukeratzea. Parte-hartzaileek jarreraz aldatu ahal izango dute, ondo azaldutako argudioen bat euren baina interesgarriagoa denean.

Amaieran, dinamizatzaileak taldekideengana joko du, eta beste ekintzarik ezagutu edo bururatu zaien galdetuko die. Proposamen berri horiek argudioen jokoaren arabera aurkeztu daitezke.

Oso ariketa egokia da, era guztietako ikuspegi eta argudioen bitartez ekintza-eredu desberdinak aurkezteko, aztertzeo, defendatzeko edo gaitzesteko, proposatutako ekintza beste batzuk baino hobea edo txarragoa den kontuan hartu gabe.



<b>Izenburua:</b>	Kartelen ariketa
<b>Gaia:</b>	Garapena
<b>Hartzaileak:</b>	Gazteak eta helduak
<b>Iraupena:</b>	Ordubete
<b>Arloa:</b>	Tutoretza, Gizarte Zientziak
<b>Beharrezko materiala:</b>	Ikasgela handia. Zelo. Gutxienez, 10 kartel edo joratu beharreko gaiarekin lotutako beste osagai batzuk. Paperak eta errotuladoreak, taldeek aurkezpena egin dezaten.
<b>Helburuak:</b>	Irudiak eta mezuak behatzen eta aztertzen ikastea. Mezu bat etikaren edo errespetuaren aurkakoa noiz den ulertzea. Mezuen hartzaile eta igorle moduan dugun zeregina aztertzea.

#### Laburpena / Nondik norakoak:

Taldearekin joratu beharreko gaiaren adierazgarri diren argazkiak, esaldiak edo datuak jasotzen dituzten kartelak aurkeztuko dizkiegu. Aztertu eta euren iritzia eman beharko dutenez, prestakuntzan parte hartzen dutenen ikuspegia zein den jakingo dugu. Dinamika hau motibazio moduan edo hitzaldi, eztabaida, film, txosten... bateko hitzaurre moduan erabili daiteke. Era berean, talde-lanaren aurkezpen grafiko moduan ere erabili daiteke: azterlana, txostena, ikerketa.

#### Dinamikaren garapena:

Zeloaren edo beste itsasgarri batzuen bidez, taldea bildu duen gaia jorratzen duten irudiak eta/edo testu-mezuak dauzkaten kartelak itsatsi horretan. Horrela, bada, esaterako, garapenerako hezkuntzako jardueretarako, garapenerako GKEen, larrialdietan laguntzeko GKEen... publizitate-kartelak jarri daitezke ikusgai. Kultura arteko komunikazioari buruzko prestakuntzarako, ordea, kontraste kultural ikaragarriaren edo gatazkatsuen adierazgarri diren argazkiak erabili daitezke.

Kartelen erakusketa antolatu ondoren, parte-hartzaileek erakusketa bisitatuko dute, eta argazkiak edo agiriak arretaz behatuko dituzte, ezer esan gabe.

Behatutakoan, zer argazki edo agiri ez zaien gustatu eta zein iruditu zaien interesgarriena esan beharko dute, eta

harrizten utzi duen kartelaren azpian jarriko dira. Aukeraketan bat egin dutenek taldeak eratuko dituzte. Pertsona asko isolatuta edo talde txikiegietan badaude, elkartu egingo dira eta talde egokia eratuko dute (4-6 lagunekoa).

Talde bakoitzean, aukeraketaren arrazoiei buruz eztabaidatuko dute. Taldekide bat bozeramailea izango da, eta taldearen azterketa aurkeztuko du. Guztien aurrean azaltzean, hautatutako kartelak txandakatu egingo dira, bozeramaileek euren taldean kartelaren aukeraketa edo gaitzespena arrazoitzeko emandako argudioak zeintzuk izan diren adierazten duten bitartean. Kartel bakoitzari buruzko eztabaida beste talde batzuetako kideen iritzien, arrazoen, argudioen edo galderen bidez osatuko da.



<b>Izenburua:</b>	Kutxa txikiaren jokoa
<b>Gaia:</b>	Kultura artekotasuna
<b>Hartzaileak:</b>	Gazteak eta helduak
<b>Iraupena:</b>	Ordubete
<b>Arloa:</b>	Tutoretza, Gizarte Zientziak
<b>Beharrezko materiala:</b>	Ikasgela handi bat eta eremu gehigarria; esate baterako, korridorea, ikasgela... Orriak, boligrafoak, erregelak eta kutxan sartuko diren beste objektu batzuk.
<b>Helburuak:</b>	Testuinguru urrunerako egokiak edo desegokiak diren teknologiei buruz hausnartzea. Ikaskuntzaren eta lankidetzaren dimentsio soziala eta kulturala ezagutzeko. Emaileen eta hartzaileen zereginari buruz hausnartzea.

#### **Laburpena / Nondik norakoak:**

Bidaia birtuala egingo dugu, eta, bertan, erkidego bi edo gehiago jarriko dira harremanetan. Batzuk txiroak izango dira, eta beste batzuk garapen tekniko handikoak izango dira, baina guztiek kultura desberdinak izango dituzte. Gaizkiulertuak, adostasunak eta desadostasunak gertatuko dira, harik eta arazoa konpontzeko teknologia egokia ezarri arte. Horrela, bada, ahalik eta kalte txikiena eragingo dio kultura hartzaileari.

#### **Dinamikaren garapena:**

8-10 laguneko taldearekin lan egingo dugu. 20 lagun badaude, bi taldetan banatuko dira eta aldi berean garatuko dute ariketa. Argibide guztiak 10 lagunentzako dira. Bi eremu behar dira: aretoa / ikasgela eta beste gela bat edo korridorea izan daitekeen beste eremu bat. Dinamizatzaileak taldea (10ekoa) bitan banatuko du, eta gizonen zein emakumeen kopurua orekatua izango da, ahal izanez gero.

Talde bat ikasgelan geratuko da, eta beste taldea hezitzailearekin joango da beste eremura. Argibideak emango dizkio azken talde horri: “Teknikari adituek osatutako taldea zarete, eta zuen ezagutza eramango duzue herri txiki eta urruneko erkidegora”. Ondoren, kutxa txikia aurkeztu eta honako hau esango die: “kutxa honetan,

material erabilgarriak daude, zuen tresna teknikoak izango dira (erregelak, papera, arkatzak, errotuladoreak, zeloak, mapak...). Bost minutu izango dituzue bertan helaraziko dituzuen edukien eta ezagutzen inguruan ados jartzeko”.

Dinamizatzaileak bertan utzi eta ikasgela nagusian dagoen taldearengana joango da. Honako hau azalduko die: “Zuen taldea herri txiki bateko erkidegokoa da. Etxean zaudete, ikasgela zuen lurraldea da. Giza talde guztiek bezala, nolabaiteko ezaugarri kulturalak dituzue eta zuen kulturako arauak errespetatzen dituzue. Zuen erkidegoan, batzarrean eta aho batez hartzen dituzue erabakiak. Zenbait debeku edo muga daude. Emakumeek ezin dute zuzenean jo gizonetzko atzeritar batengana. Gizonek ez dute euren

eskuez atzeritarren objektuak hartzerik: paperak, erregelak, errotuladoreak, arkatzak... bost minutu izango dituzue zuen eremua antolatzeko eta beste ezaugarri sozio-kultural batzuk eransteke. Horrela, bada, zuen erkidegoaren ezaugarriak bereizgarriak izango dira”.

Dinamizatzailea teknikarien taldera itzuli da, eta lankidetzarako zein irakaskuntzarako programaren inguruan estutu ditu. Honako hau esan die: “Zuen hegazkina bost minutuan aireeratuko da”.

Dinamizatzailea herrixkara itzuli da. Honako hau esan die: “Barkatu, baina eten egin beharra daukat. Albiste txarrak ditut zuentzat: iturri publikoa elikatzen duen ur-ponpa hautsi da eta herrixkan ez dago edateko urik”.

Dinamizatzailea teknikari adituen taldera hurbildu eta herrixkan lurreratzeko eskatuko die. Talde horrekin sartuko da herrixka-ikasgelan.

Dinamizatzailea behatzaile ikusezina izango da, ez duelako ekintzan parte hartuko. Ez die erantzun behar ez zalantzei ez galderei. Zekiena esan du eta kito. Taldeek 30 minutu

inguru beharko dituzte, elkar ulertzeko eta egoera balioesteko. Denbora gehiago utzi ahal izango zaie, azken azterketari begira erabilgarria bada.

#### ALDAGAIA:

Leku ezezagun batera joango ginatete. Teknikari adituak izan beharrean, turismo solidarioa egiten duten bidaiariak izango dira. Ekintzaren garapena berdina izango da ia-ia. Hona hemen nondik norakoak:

“Bidaiarien taldea izango zarete, eta zenbait aste emango dituzue ezagutzen ez duzuen herrialde urrun batean. Bidaia horretan, herrialde horretako errealitatea ezagutu eta truke kulturala egingo duzue biztanleekin. Herri txiki batera joango zarete... Bost minutuan, erkidego horri egin ahal diozuen ekarpen handiena zein den erabaki beharko duzue. Laguntzeko, honako tresna erabilgarri hauek izango dituzue.”


Ondoren, arkatzak, paperak eta sorterriko objektu bereizgarriak (edariak, jatekoa, postalak, mapak, musika, artisautza...) dituen kutxa txikia emango die.

#### Ebaluazioa

Hasieran, hiru galdera proposatu daitezke, azterketa, eztabaida eta ebaluazioa sustatzeko asmoz.

- Nola sentitu zarete zuen zereginen?
- Zeintzuk izan dira beste taldearekin komunikatzeko zailtasunak edo oztopoak?
- Ezer ikasi duzue ariketa honetan, xehetasunak eman ditzakezue edo sakondu egin dezakezue?

Azterketa eta ebaluazioa bi taldeetan garatuko dira. Taldeek kide bana aukeratuko dute, euren ideien eta ondorioen berri eman dezan. Esperientzia teknikoaren ustezko balioak, oztopoak eta tranpak izan daitezke hizpideak. Horrez gain, jokoak benetako egoerekin duen antzekotasuna antzeman daiteke. Dinamizatzaileak arazoaren adierazgarri diren adibide zehatzak biltzen baditu, askoz hobeto. Horrela, eztabaida sakonagoa izango da, eta parte-hartzaileen zalantzak, ideiak eta hausnarketak hobeto landuko dira.



<b>Izenburua:</b>	Piramidearen jokoak
<b>Gaia:</b>	Komunikazioa
<b>Hartzaileak:</b>	Gazteak eta helduak
<b>Iraupena:</b>	Ordubete
<b>Arloa:</b>	Hizkuntza
<b>Beharrezko materiala:</b>	Taldeak. Papera, boligrafoak, errotuladoreak eta papelografoa. Parte-hartzaile beste aulki. Eremu handia. Azaldutako zeinuak dituzten orriak. Bost laguneko
<b>Helburuak:</b>	Komunikaziorako baliabideak ondo erabiltzen ikastea. Informazioa zirkularazten ikastea. Botereari eta informazioari buruz hausnartzea.

**Laburpena / Nondik norakoak:**

Jokoaren bidez, ekintzarako hausnarketa garatuko dugu jarduera-katearen barruan zenbait leku betetzen dituzten pertsonen edo erakundeen artean informazioa igortzeko eta lankidetzazko mekanismoei buruz.

**Dinamikaren garapena:**

Bost laguneko taldeak eratuko ditugu. Parte-hartzaileen taldea bostaren kopuru zatigarria ez bada, soberako lagunak jokoaren behatzaileak izango dira, eta bete-betean parte hartuko dute amaierako azterketan eta eztabaidan.

Lan-eremua handia izan behar da, bost laguneko 5-6 taldek lan egiteko modukoa, alegia. Talde bakoitzeko parte-hartzaileak aulkian eseriko dira A-ri begira, honako eredu honen arabera:

A

B

D E F

Ondoren, parte-hartzaile guztiek, A-k ere bai, bosna karta jasoko dituzte. Bertan, honako zeinu hauek daude marraztuta: izarra, bihotza, gezia, lorea, laukia.

A-n dagoenak bost minututik beherako epean jakin behar du zein den parte-hartzaileek duten zeinu berdina (bat dago).


Hori lortzeko, B-rekin baino ez du komunikatzerik, eta idatziz, besterik ez. Aldi berean, B D-rekin, E-rekin eta F-rekin baino ez da komunikatuko, eta idatziz, besterik ez. Azken hirurak ere B-rekin baino ez dira komunikatuko, eta idatziz, besterik ez. Parte-hartzaile guztiek boligrafoak eta paperezko orri nahikoak izan beharko dituzte, trukeak egiteko.

Jokoa eten egingo da, A-k parte-hartzaile guztien zeinu berdina zein den asmatzen duenean. Zentzuzko denboran A-k zeinua asmatu ez badu, parte-hartzaileak lekuz aldatuko dira, eta beste bat izango da A. Jokoaren helburua ez da irabaztea, informazioaren zirkulazio egokia eragozten duten oztopoak zeintzuk diren asmatzea baizik.

Badago irtenbide errazik, A-k B-ri bere orria ematea, alegia. Horiiek horrela, zer zeinu dituen jakingo du. Hala ere, ez ohi da halakorik gertatzen, parte-hartzaileek botere-piramideari eusten diotelako. Hau da, A-k jokoa zuzentzen du eta informazioa eskatzen du, baina ez du uste informazioa eskaini behar duenik, eta besteek ere ez ohi dute halakorik pentsatzen.

#### Ebaluazioa

- Zer da informazioa?
- Zeren bidez nahastu / desitxuratu daiteke informazioa?
- Nola zirkulatu dezake informazioak oztopo gutxiagoz edo arinago?



<b>Izenburua:</b>	Lankidetzeta-laukiak
<b>Gaia:</b>	Lankidetzeta
<b>Hartzaileak:</b>	12-16 urte
<b>Iraupena:</b>	Ordubete
<b>Arloa:</b>	Tutoretza
<b>Beharrezko materiala:</b>	Bost gutunazal taldeko. Adierazi bezala banatu beharreko ebakiak. Horrela, bada, gutunazal batek ere ez ditu edukiko trukerik egin gabe laukia osatzeko behar diren pieza guztiak. Pantaila, papera, karpeta edo liburua, besteen piezak ez ikusteko.
<b>Helburuak:</b>	Taldean, lankidetzarako mekanismoei buruz hausnartzea. Lankidetzak irtenbideak bilatzen laguntzen duela ulertzea. Lehiak edo lankidetzarik ezak irtenbideak atzeratu edo eragotzi egiten dituela ulertzea.

#### Laburpena / Nondik norakoak:

Bost lagunek lauki baten zatiak dituzten gutunazalak jasoko dituzte. Hala ere, zati horiek ez dira nahikoak, irudia osatu ahal izateko. Isil-isilik, keinurik gabe, zatiak trukatu beharko dituzte, guztiek euren laukia osatzeko aukera izan dezaten. Taldeak amaitu egingo du, taldekideek tamaina bereko lauki bana dutenean. Ezinbestekoa izango da elkarlanean aritzea, eskatutako helburua lortu nahi badute.

#### Dinamikaren garapena:

Bost laguneko taldeak eratuko ditugu. Parte-hartzaileen taldea bostaren kopuru zatigarria ez bada, soberako lagunak jokoaren behatzaileak izango dira, eta bete-betean parte hartuko dute amaierako azterketan eta eztabaidan. Lan-eremua handia izan behar da, bost laguneko 5-6 taldek lan egiteko modukoa, alegia.

Parte-hartzaileak bost laguneko taldeetan bilduko dira mahaiaren inguruan. Talde bakoitzak laukiaren zatiak dituzten A, B, C, D eta E gutunazalak jasoko ditu.

Honako zati hauek egongo dira gutunazal bakoitzean:

A gutunazala: j, i, f

B gutunazala: a, a, a, d

D gutunazala: a

E gutunazala: e, g, k


F gutunazala: h, b, g, d

Gutunazalak eta zatiak nola dauden banatuta kontuan hartuta, ez dago erantzuna inolaz ere aurkitzerik,

parte-hartzaileek euren zatiak trukatzan ez badituzte. Bost laguneko talde bakoitzak bost lauki egin behar ditu, eta guzti-guztiak tamaina berekoak izan behar dira. Pieza batzuen bidez, badago lauki txikiagoak egiterik, baina ez da erantzun zuzena. Lana amaitu egingo da, taldekideek tamaina bereko lauki oso bana dutenean.

Parte-hartzaileek ez dute ez ahoz ez zeinu bidez komunikatzerik. Ez dute inolako eskubiderik beste

baten piezak eskatzeko edo hartzeko, eta ez dute zeinu bidez adierazterik pieza bat behar dutela euren laukia amaitzeko. Piezaren bat erabiltzerik ez dutela konturatzean, mahaiaren erdian utziko dute, eta beste pertsona batek hartuko du, beti ere ondo badatorkio. Mahaiaren erdian utzitako piezak baino ez dira hartuko. Ez dago piezak eta laukia inori erakusterik.



#### Ebaluazioa

- Nola aurkitu dute erantzuna?
  - Nola sentitu zuten norrek zeukan D gutunazala? Inor konturatu zen S gutunazalak pieza bakar bat zeukala?
  - Zerk sustatu du taldearen lankidetzeta eta zerk oztopatu du?
  - Zer esan daiteke arazoak batera konpontzeko moduari buruz?
- Jokoan, benetako lankidetzarako beharrezko baldintzak azpimarratzen dira. Honako hauek nabarmendu behar ditugu:
- Konpondu beharreko arazoa zein den jakitea.
  - Arazoa konpontzeko orduan, norberak zer egin dezakeen jakitea.
  - Gainerakoek arazoa konpontzen lagundu dezaketela onartzea.
  - Parte-hartzaileen arazoak ulertzea. Arazo horietan, gainera, baliteke laguntza behar izatea, guztien arazoa konpontzen hasi baino lehen.
  - Taldearen arazoa konpontzeko, baliteke norberaren arazoak berriro azaldu behar izatea, norrek bere zatiak jokoan jartzen dituen gertatzen den bezala.



<b>Izenburua:</b>	Munduko anabasa
<b>Gaia:</b>	Garapena
<b>Hartzaileak:</b>	14-16 urte
<b>Iraupena:</b>	2 ordu
<b>Arloa:</b>	Gizarte Zientziak
<b>Beharrezko materiala:</b>	Parte-hartzaile beste aulki. Aukeratutako herrialdeei buruzko oinarritzko datuen fitxak. Arbela edo papelografoa.
<b>Helburuak:</b>	Herrialde batzuen txirotasuna eta beste batzuen aberastasuna prozesu historikoaren emaitza dela ulertzea. Garapen ekonomikoak giza garapena bermatzen ez duela ulertzea.

**Laburpena / Nondik norakoak:**

Jokoaren bidez, nazioarteko egoera ekonomikoa aztertuko dugu, bai eta txirotzeko prozesuak eta aberastasunaren pilaketa ere, giza garapenaren adierazleekin dutelako zerikusia.

**Dinamikaren garapena:**

---

Taldekie guztiei eskatu aulkiak hartzeko eta zirkuluerdian jartzeko. Gero, oinetakoak kentzeko eta nor bere aulki gainean zutik jartzeko eskatu. Irakasleak txartel-multzoa hartuko du eta zirkuluerdiko parte-hartzaileengana hurbilduko da, bana aukeratu dezaten.

Txartel bakoitzean, sorterriari eta pertsonak hartu beharreko nortasun berriari buruzko informazioa jasota dago. Hain zuzen ere, parte hartzaile bakoitza munduko herrialde bateko ordezkaria izango da, eta herrialdeari buruzko informazio nahikoa dago txartelean bertan. Esate baterako:

Herrialdearen izena: _____	Udalerrria: _____
Goi-mailako karguetan dauden emakumeak: _____	BPG: _____
Per capita errenta: _____	Kanpoko zorra: _____
Umeen heriotza-tasa: _____	Analfabetismo-tasa: _____
Biodibertsitatea: _____	Gobernua: _____
Egoera (gatazka armatuaren, gerraren... historia laburra edo laburpena): _____	
Armen edukitza: _____	



Horrelako datu batzuk hementxe daude eskuragarri:  
Guía del Mundo ([www.guiadelmundo.org.uy](http://www.guiadelmundo.org.uy)).

Irakaslea Nazio Batuetako Giza Garapenari buruzko Txostena egiten dabilen taldeko ordezkaria izango da. Txosten horren arabera, herrialdeak antolatuko dira, zenbait adierazle kontuan hartuta. Parte-hartzaileei denbora nahikoa emango die, euren fitxa irakurtzeko eta herrialdeko ordezkaritza euren gain hartzeko.


Gero, ezkerretik eskuinera jartzeko eskatuko die, handienetik txikienerako irizpidearen arabera. Bigarren biran, BPGren arabera antolatuko dira; eta hirugarrean, per capita errentaren arabera. Gauza bera egingo dute, egokiak diren beste maila batzuen arabera. Taldekideek euren leku egokia aurkitu beharko dute, eta, horretarako, beste parte-hartzaile egin beharko dizkiete galderak.

Baldintzen artean, aulkiz aldatu beharko dira zorua ukitu gabe.

Bira bakoitzeko posizio-aldaketak zeintzuk izan diren idatzi beharko dute (irakasleak idatzi dezake, eta, horretarako, herrialdeen izenak jarri ditzake arbelean edo papelografoan, maila bakoitzaren azpian).

Lau edo bost biraren ondoren, zirkuluerdian jesarriko dira, erabilitako mailen arabeko aldaketei buruz hitz egingo dute eta egoera ekonomikoa aztertuko dute, giza eskubideak, egoera politikoa, ingurumenaren egoera... nolakoak diren kontuan hartuta.

Taldearen ezagutzaren arabera, sakon edo ez hain sakon eztabaidatu ahal izango dute ekonomiak beste aldagai batzuetan duen eraginari buruz, bai eta beste aldagai batzuek ekonomian duten eraginari buruz ere.



<b>Izenburua:</b>	Aktoreen joko
<b>Gaia:</b>	Kultura artekotasuna
<b>Hartzaileak:</b>	Gazteak eta helduak
<b>Iraupena:</b>	3 ordu
<b>Arloa:</b>	Tutoretza. Hizkuntza
<b>Beharrezko materiala:</b>	Areto handia, taldean lan egiteko eta pertsonaiak trukatzeko. Azaldu beharreko pertsonaien edo zereginen kartoi meheak. Boligrafoak, papelografoak, errotuladoreak. Aulkiak eta mahaiak.
<b>Helburuak:</b>	Errealitate zehatz baten eraginpean dauden eragileen eta/edo protagonisten ikuspegia zein den jakitea.

#### Laburpena / Nondik norakoak:

Egoera zehatz batean, zeregin (rola) edo ikuspegi berezi bana eman parte-hartzailei. Jokoaren helburua ez da antzezlan antzeztea, pertsonaiek euren zeregina idaztea eta beste batzuekin trukatzeko baizik. Horrela, bada, zenbait ikuspegi berri izango dute, uneren batean bere egin behar izan dituzte-eta.

#### Dinamikaren garapena:

##### 1. Pertsonaien banaketa (15 min)

5 edo 6 pertsonaia edo eragile aukeratuko ditugu, eta parte-hartzaileek azaldu egin beharko dituzte.

Hegoaldeko herrialde batean, garapenerako lankidetzako programa batean inplikaturik dauden eragileen adibidea:

- Nekazarien elkarteko ordezkaria.
- Tokian tokiko GGKEko arduraduna.
- Tokian tokiko/udaleko agintari administratiboa.
- Agintari nazionala (governuko funtzionarioa).
- Nazioarteko GGKEko lankide boluntarioa.
- Atzerri eta Garapenerako Lankidetzako ministroa.
- Europar Batasuneko funtzionarioa.

Adibide horiek aldatu egin daitezke, ikastaroa ematen dutenen irizpideen arabera. Beharbada, beste pertsonaia batzuk interesgarriagoak edo erabakigarriagoak izan daitezke, lankidetzazko aztertzeko orduan.

Europako hiri bateko auzoan, inmigrazioa gaitan inplikaturik dauden pertsonen adibideak:

- Araututako egoera administratiboan dagoen atzerritarra.
- Asiloa eskatu duen atzerritarra.
- Arautu gabeko egoeran dagoen etorkina.
- Harrera-elkarteko kidea.
- Polizia-agentea.
- Zentro publikoko gizarte-langilea.
- Gizarte-gaitako magistratua.

Lehen esan dugun bezala, prestakuntza ematen dutenen irizpideen eta premien arabera aukeratuko dira pertsonaiak.

Kartoi meheak prestatuko ditugu, eta, bertan, azaldu beharreko pertsonaiaren edo zereginaren izena agertuko da (pertsonaia batzuk, kartoi mehe batean baino gehiagotan idatzi ahal izango ditugu, 3 etorkin edo 2 gizarte-langile eduki nahi baditugu, esate baterako). Kartoi meheak emango dizkiegu parte-hartzailei. Parte-hartzaile beste kartoi mehe egon beharko dira.

Pertsonaiaren kartoi mehea jasotakoan, banan-banako ariketa hasiko da. Bertan, parte-hartzaileek euren pertsonaia sortuko dute, arazoaren ikuspegia emango diote edo euren perspektibaren, ezagutzaren, interesen... arabera zehaztuko dituzte jorratu beharreko gaiak. Horrela, bada, lankidetzeta-programetan edo etorkizun auzoetan sortutako zailtasunak eta aukerak zehaztuko dituzte, esleitutako pertsonaiaren ikuspegiaren arabera. Kartoi mehearen atzealdean idatziko dute.

## 2. Trukea (30-45 min)

Pertsonaiaren nortasuna eta ikuspegia azaldutakoan, parte-hartzaileak batetik bestera ibiliko dira gelan zehar, eta, beste batekin topo egiten dutenean, euren pertsonaiei buruz hitz egingo dute eta trukaturako dituzten ala ez negoziaturako dute. Nahi edo ahal beste aldiz aldatu ahal izango dituzte pertsonaiak, baina derrigorrezkoa izango da hasierakoa ez beste nortasun bat izatea amaieran. Ezin izango dute inor behartu nahi ez dituen aldaketak egitera. Beste kidea konbentzitu beharko dute, trukea onartu dezan.

## 3. Argudioaren idazketa (20 min)

Pertsonaia berdinak dituztenek (“asilo-eskatzzaileek”, esaterako) 20 minutu izango dituzte elkartzeko. Kartoi meheen atzeko aldean azaldutako egoerak desberdinak izango direnez, taldeak ados jarri beharko dira, pertsonaiaren egoera berriro egiteko, banan-banako kartoi meheetan adierazitako argudio nagusietan oinarrituta. Taldeek bozeramaile bana aukeratuko dute osteko eztabaidarako.

## 4. Parlamentua (30 min)

Parte-hartzaileak eremu bateratuan elkartzeko dira, eta Greziako antzokien antzekoa izango da. Bozeramaileek euren pertsonaia eta taldean elkarrekin adostutako argudioa aurkeztuko dituzte. Talde guztiek aurkezpen hori egin beharko dute.

## 5. Azalpena eta azterketa (30 min)

Ondoren, ariketako fase bakoitzaren alderdi interesgarrienei buruzko hausnarketa egingo dute osoko bilkuran. Parte-hartzaileek ikuspegi bat edo bestea onartzean edo gaitzestean eta erabakiak hartzean zer sentitu duten adieraziko dute. Eztabaidaren ondorioz, ahotsen polifonia sortuko da, berdintzat hartutako talde berean sortu daitezkeen ikuspegi desberdinen adierazgarri. Era berean, irudien eta ispiluen jokoa ere eratuko da, norberaren zein inoren balioespenaren eta nortasun zein iritzi desberdinen inguruko elkarrekiko ulermenaren edo ulertezintasunaren adierazgarri. Ikuspegi desberdin horiek lotzeko, hausnartu egin beharra dago. Horrela, bada, panorama konplexua eskainiko da, eta, bertan, ikuspegiak elkarren osagarri izango dira.

<b>Izenburua:</b>	Dudalandia
<b>Gaia:</b>	Giza Eskubideak
<b>Hartzaileak:</b>	10-12 urte
<b>Iraupena:</b>	Ordubete
<b>Arloa:</b>	Etika
<b>Beharrezko materiala:</b>	Egiazko eta gezurrezko eskubideak jasotzen dituzten bi kartoi mehe. Bi kartoi mehe gehiago, bat talde bakoitzarentzat. Errotuladoreak eta zeloak.
<b>Helburuak:</b>	Legezko eskubideen eta sortutako premien arteko aldea ulertzea.

#### Laburpena / Nondik norakoak:

Esaldiak egia ala gezurra diren norik asmatzen duen ikusteko lehiaketa da. Dudalandia izeneko herrialdean gaude, eta bertako biztanleak jendeare bere lurraldean sartzen uzten ez dion Esfingearen menpe bizi dira (Tebas bezala, Ediporen garaian). Esfingearak ez du inork jakiterik nahi Dudalandian adierazpen-askatasunik ez dagoela. Hori dela eta, egia eta gezurra etengabe nahasten dituzten hitzaldiak eta legeak idatzi ditu. Egia eta gezurra zer den asmatzen dutenek egia jakingo dute, eta adierazpen-askatasuna itzuliko diote Dudalandiari.

#### Dinamikaren garapena:

Irakasleak Esfingearen esaldiak jasotzen dituzten bi kartoi mehe eramango ditu. Bertan, benetako eskubideak eta gezurrezko asmoak aldarrikatzen dituzten esaldiak agertuko dira, hau da, egia eta gezurra egongo dira nahastuta.

Ikasleak bi taldetan banatuko ditu, eta ondoen lan egiten dutenak justizia eta giza eskubideak eramango ditu Dudalandiara.

Taldeek euren karteletako esaldiak aztertu beharko dituzte. Beste kartoi mehe batean, marra bertikal marraztuko

dute, eta bi zutabetan banatuko dute. Ezkerreko zutabearen, benetako eskubideak aipatzen dituzten baieztapenak jarriko dituzte; eta eskuinekoan, gezurrezko eskubideen aipamenak.

Denak elkartzen direnean, taldeek azaldu egin beharko dute zergatik hartu duten erabaki hori. Gezurra eta egia ondoen bereizten duen taldeak Dudalandia askatuko du, Esfingeara utziko du agerian eta adierazpen-askatasuna itzuliko dio herriari.

<b>Izenburua:</b>	Ezkutuko inmigrazioa
<b>Gaia:</b>	Giza Eskubideak
<b>Hartzaileak:</b>	Gazteak
<b>Iraupena:</b>	2 ordu
<b>Arloa:</b>	Hezkuntza Fisikoa
<b>Beharrezko materiala:</b>	Talde bakoitzarentzako rola eta jokabide-arauak. Areto handia eta oztopoak sortzeko osagarriak (zauririk eragiten ez dutenetakoak). Mafientzako eta etorkinentzako beste areto txiki bat. Ekintza-proposamenetarako papelografoa edo kartoi meheak eta errotuladoreak.
<b>Helburuak:</b>	Ezkutuko inmigrazioa bezalako gai konplexua aztertzea. Giza eskubideei eta urraketari buruz eztabaidatzea.

#### Laburpena / Nondik norakoak:

Dinamika honek ezkutuko inmigrazioa bezalako gai konplexua aztertzea eta horri buruz eztabaidatzea du helburu. Bertan, gizaki etsiak, krimenezko erakundeak eta estatuak daude inplikatur, eta, euren interesak defendatzearen, giza eskubideak urratzeko prest daude. Herrialdeek euren mugak babesten dituzte, eta mafiei egozten dizkiete delituak, estatuak eta politikak euren konplizeak badira ere. Joko honen bidez, krimenezko erakundeek etorkinak nola esplotatzen dituzten aztertuko dugu. Parte-hartzaile batzuk ezkutuko etorkinak izango dira, eta itsu-itsuan doaz oztopoz betetako mugarantz. Beste parte-hartzaile batzuk, ordea, mafiak izango dira. Etorkinei kobratu egiten diete, eta estortsioa egiten diete, ezbeharrari etekinak ateratzeko asmoz. Beste parte-hartzaile batzuk, muga zaintzen duten jendarmeak izango dira, eta ez diete etorkinei igarotzen utziko.

#### Dinamikaren garapena:

Taldea bildu eta ezkutuko inmigrazioaren nondik norakoak simulatzeko saioa egingo dugula azalduko diogu. Hiru talde egongo dira, eta hiru rol desberdin izango dituzte. Txartel bakoitzean, rola eta inprobisaziorako oinarrizko arauak azalduko dira. Dinamizatzaileak alde aurretik prestatuko du ariketa, bere talde pedagogikoarekin batera.

- 2/4 pertsona jendarmeak izango dira, eta mugaren alde batean eta bestean egongo dira. Ez diete etorkinei igarotzen utziko edo harrapatu egingo dituzte. Ikasgela handi batean edo atari zabaleko eremu zedarritu batean, muga fisikoa sortu beharko dute (aulkiak, kuxin handiak...). Jendarmeek muga zaindu besterik ez dutenez, ezin dira euren

Iturria: Hegoak egokitua, honako honetan oinarrituta: D' Andretta, P.: Il gioco nella didattica interculturale. Quaderni dell'interculturalita. 11. zk. Bologna, Editrice Missionaria Italiana, 1999.

lurraldeetan sartu. Irteerako herrialdean, oztopoak egongo dira bide guztian zehar. Muga gainditutakoan, harrerako herrialdean ez da oztoporik egongo. Etorkinek eta mafiosoek ez dute jakin behar non dauden oztopoak.

- Beste 2/4 pertsona mafiak izango dira. Etorkinak izango diren gainerako parte-hartzaileen erdiak edo laurdenak (kopuruaren arabera) mafiosoen kargura egongo dira. Mafiosoek hitzarmenak egin ditzakete euren artean, mozkinak hobetzeko eta mugak gainditzeko. Bi minutu izango dituzte, mugen eta oztopoen aretoa aztertzeko. Etorkinekin bilduko dira beste eremu batean. Hitzik gabeko komunikaziorako kodea ezarriko dute, oztopoen zehar bideratzeko (esate baterako, txistu bat, eskuinera; bi txistu, ezkerre...).
- Etorkinek simulatutako dirua ordainduko diete gidariei. Jendarmeei mafiak harrapatu ditzakete, baina mafiek jendarmeei erosi ditzakete. Etorkinak begiak estalita sartuko dira lurraldean. Herrestan edo kukubilko baino ez dira ibiliko. Oztopoen artean orientatuko dira, gidari mafiosoarekin adostutako soinuen arabera. 2 minutu izango dituzte mugara iristeko.
- Hezitzaileak zutik jartzen diren etorkinak edo iruzur egiten duten etorkinak (estalkia kentzen badute) zehatuko dituzte, eta atzera egin beharko dute. 3 minutu igarotakoan, ekintza etengo du.

- Gehienak ez dira mugara iritsiko, heldu direnak harrapatu egingo dituzte, mafiak aske egongo dira, euren irabazien zati bat eroskeriatan galdu arren...
- Ekintza azkar batean, tentsioa, nahasmena, oztopoak, txistu kontrajarriak, atxiloketak... izango dira nagusi. Oso etorkin gutxi edo bat ere ez da lurralde askera iritsiko. Aldez aurretik ordainduz gero, 2 minutuko beste aukera bat izango dute, baina emaitza ez da lar aldatuko.
- Ikasleak zirkuluerdian jarriko dira. Dinamizatzaileak hiru taldeetako ordezkariekin egindako prentsaurrekoak zuzenduko ditu. Jendarme batek mugen egoerari buruzko iritzia emango du. Mafioso batek euren eskuzabaltasunaz hitz egingo du, eta emandako zerbitzuaren truke mozkinak lortzea bidezkoa dela esango du. Etorkinen taldeko hiru testigantza egongo dira, gutxienez.
- Gehienez ere 5na minutu iraungo duten prentsaurreko laburren ondoren eta etorkinen 10 minutuko testigantzen ondoren, eztabaidagairi eutsiko diete berriro, hau da, giza eskubideez eta euren aldeko ekintzez hitz egingo dute (sentsibilizazioa, salaketa, laguntzarako erakundeekiko konpromisoa...). Proposamen guztiak kartoi meheetan, arbelean edo papelografoan idatzi ahal izango dituzte.

#### Ebaluazioa

Taldean eztabaidatu ariketak nahasmendua, frustrazioa eta bidegabekeria-sentsazioa sortu dituen, salatzen diren ideiak edo giza eskubideak errespetarazteko

moduak sortu diren... Banan-banako orriak edo kartelak prestatu daitezke, banan-banan edo taldeka erantzuteko.

<b>Izenburua:</b>	Indar bateratua
<b>Gaia:</b>	Elkartegintza
<b>Hartzaileak:</b>	18-25 urteko gazteak
<b>Iraupena:</b>	90 minutu
<b>Arloa:</b>	Hezkuntza ez-formala
<b>Beharrezko materiala:</b>	Orriak eta boligrafoak. 1., 2. eta 3. eranskinen fotokopiak.
<b>Helburuak:</b>	Gazteen elkartegintza aztertzea, batera ikasteko esperientzia da-eta. Tekniken bidez, gauzak batera egitean eta taldearen batasunaren indarpean sortutako abantailak aztertzea. Gazteen partaidetzari buruz hausnartzea, gazteen elkartegintzaren oinarriak dira-eta.

#### Laburpena / Nondik norakoak:

Indar bateratuaren jokoak ikaskuntza-taldearentzako elkarerraginezko jokoak da. Parte-hartzaileek aztertu egingo dute zer neurritan den handiagoa taldearen gaitasuna banan-banako baino, arazoak konpontzeko orduan. Aldi berean, arazoak gainerakoekin batera konpontzeko aukera izango dute. Horrela, bada, ideiak sendotuko dituzte, eta konturatu egingo dira elkartegintzak taldearen batasunaren indarra ematen diela gazteei.

Proben jokoak oso ohikoa da edozein jarduera ludikotan, eta, hasiera batean, taldeka lehiatzeko jokoak da. Nolanahi ere, bi talderen arteko lehiaketa ez ezik, saiakuntzazko teknika ere bada ariketa hau (baterako ikaskuntza). Horrela, bada, legez elkartuta egotea edo ez egotea abantailatsua eta desabantailatsua izan daitekeela ikusiko dute. Proben jokoak indar bateratuaren ariketaren jarraipena denez, lehenengo eta behin, interes berdinen alde bat egitean sortutako abantailak ikusiko ditugu; eta ondoren, batasun hori gazte-elkartean gauzatzean sortutako abantailak aztertuko ditugu.

#### Dinamikaren garapena:

Dinamizatzaileak testa banatuko du, eta dinamika azalduko du. Parte-hartzaileek ordu erdi izango dute testa banan-banan betetzeko.

Testak betetakoan, 5 edo 6 laguneko taldeetan banatuko dira, emaitzak aztertzeko eta talde osoaren ekarpenak jasotzen dituen test bateratua ateratzeko. Test bateratua egiteko, taldekide guztiak ados egon beharko dira edo boto gehien dituen aukera hautatuko dute. Hala ere, adostasuna lortzen saiatuko dira beti.

Ostean, talde handian aztertuko dituzte emaitzak, eta dinamizatzaileak testaren emaitza zuzenak idatziko ditu arbelean. Taldeek zenbat asmatu dituzten ikusi beharko dute, eta taldekideek banan-banan lortutakoekin erkatu beharko dituzte. Era berean, oso kontuan hartuko dute taldekide batzuek onartua izan ez zen eta bete-betean asmatu duen erantzuna iradoki zuten edo norbaitek auzitan jarri eta bete-betean asmatu duten erantzunak egon diren taldean bertan.

Dinamizatzaileak talde handian ateratako ondorioen laburpena egingo du. Era berean, ariketaren bidez batera ikasteko garatutako esperientzia nabarmenduko du, eta taldean lan egitean sortutako abantailak azpimarratuko ditu.

Ondoren, proben jokoa proposatuko du, probetako arbitroen zereginak eta aginduak banatuko ditu eta bi talde osatuko ditu parte-hartzaileen artean: talde bat legearen arabera eratuta egongo da, eta bestea legearen arabera eratuta ez dagoen taldea izango da (taldean 5 edo 6 lagun egongo dira gehienez, bazkideen zenbait elkartek eta ez-bazkideen zenbait elkartek probak aldi berean egin ahal badituzte ere, parte-hartzaile ugari egonez gero).

Proba bakoitzean, taldekide bat edo batzuk egon beharko dira, eta, dinamizatzaileak esandakoa argi edukita, proba egiten ari den taldeari kasu egingo diote, eta proba gaingintzeko erraztasunak edo zailtasunak jarriko dizkiote.

Dinamizatzaileak eta taldekide guztiak taldeek garatutako probak aztertu beharko dituzte, eta arbitroei esandakoa asmatu beharko dute.

Talde guztiak proba guztiak egin dituztenean, jokoa amaitu egingo da, eta talde handian azalduko dute zer sentitu duten. Dinamizatzaileak honako alderdi hauei eman beharko die lehentasuna:

- Zergatiak aztertzean sortutako abantailak eta zailtasunak.
- Probak egitean taldeek izan dituzten erantzunak, sentsazioak eta zailtasunak.
- Probetako arbitroek taldeei buruz duten ikuspegia.

#### Ebaluazioa

Hona hemen ariketako helburuen lorpenari buruzko ebaluaziorako irizpideak:

- Parte-hartzaileen artean gazte-elkartegintzaren aldeko jarrera ona garatzea.
- Nortasun juridikoa daukan gizarte-partaidetza den elkartegintzaren abantailak antzemateko gai izatea.

Dinamizatzaileak gazte-elkartegintzaren abantaila buruzko azterketa eta hausnarketa sustatu beharko ditu, egindako ariketetan antzemandako abantailak eta ariketa amaitzeko jasotako testuetan edo materialean agertutakoak kontuan hartuta.

Amaitzeko, dinamizatzaileak ebaluazioa egingo du talde parte-hartzailearekin, ariketako ebaluazio-fitxan jasotako alderdien arabera.

#### JARRAIPENA:

Ariketa egin bitartean, honako hauek izango dira dinamizatzailearen eginbeharrak:

- Gazte-elkartegintzaren abantailen balioespenari emango dio lehentasuna. Elkartegintzarekiko jarrera egokia sortuko du taldean bertan. Legez elkartutakoen eta legez elkartuta ez dauden arteko aldean azalduko ditu behar den moduan.
- Hausnartzeko eta ariketa egiteko giro atsegina sortuko du. Adi-adi egon beharko da, taldekide guztiak parte hartu dezaten eta iritziak zein ekarpenak giro lasaian azaldu ditzaten. Hala ere, dinamika serioitasunez garatuko dituzte.
- Galderak eta probak taldearen adinaren mailara egokituko ditu. Oso garrantzitsua da testeko galderak parte-hartzaileen ezaugarrietara eta gai edo arlo bati buruzko ezagutza-mailara egokitzea.

- Gazte-elkartegintzari buruzko ezagutzak eskuratzea.
- Argudio argien eta helburuen bidez, gazte-elkartegintzaren inguruko jarrera zehaztea.
- Baterako praktiken bidez, talde osoaren jardueretan parte hartzea.



## 1. eranskina. Banan-banako testeko galderen orria

Zenbait galdera proposatuko ditugu adibide moduan. Dinamizatzailleak aldatu edo beste batzuk asmatu ditzake, testuinguruaren eta parte-hartzaileen adinaren edo ezagutzen arabera. Galdera guztien erantzunak jakin beharko dituzte, eta euren azalpenak bilatu ditzakete liburuetan, hiztegietan...

Galderen adibideak:

**Zer** filmek irabazi du pelikula onenaren Oscar saria azken edizioan?

**Zeintzuk** dira zure autonomia-erkidegoko gobernuko lehendakariaren izen-abizenak?

**Zeintzuk** dira bainila-irabiakiaren osagaiak?

**Zein** da munduko mendi garaiena?

**Nork** idatzi zuen “El segundo sexo”?

**Nork** asmatu zuen telefonoa?

**Nor** da I Formulako gaur egungo munduko txapelduna?

**Zer** esan nahi du “injerentzia” hitzak?

**Zein** da munduko herrialde handiena?

**Zer** herrialde dira Europar Batasunekoak?

**Zenbat** pezeta dira euro bat?

**Zer** da “azalea”?

**Zer** esan nahi dute AM eta PM siglek, orduz hitz egitean?

**Zeintzuk** dira “Edurne Zuriren zazpi ipotxen” izenak?

**Zer** kolore nahastu behar dira berdea lortzeko?

**Zer** urtetan hasi zen Errusiako Iraultza?

**Nork** idatzi zuen “La Celestina”?

**Nori** eman zioten bakearen Nobel saria azken edizioan?

**Zenbat** kilometro daude Madriletik Bartzelonara?

**Zer** urtetan zapaldu zuen gizonak ilargia lehen aldiz?

**Zenbat** urte dira bosturtekoa?

**Zeintzuk** dira zure autonomia-erkidegoko banderaren koloreak?

**Nork** asmatu zuen penizilina?

**Zer** esan nahi du HIES siglak?

**Zeintzuk** dira uraren osagaiak?

**Zenbat** kolore ditu ostadarrak?

**Non** dago NBEko egoitza nagusia?

**Nola** da Kalagorriko gentilizioa?

**Zein** da “Meridaren” izen erromatarra?

**Nor** izan zen Giuseppe Verdi?

**2. eranskina.** Proben eta aginduen zerrenda

1. PROBA	Udal-bulegoan atenditzen duenarentzako aginduak:
<p>Elkartzeko lekua bilatu beharko duzue. Udaletxean, udalerriko taldeei ematen dizkiete lokalak, beti ere alde zurretik eskatzen badituzte. Udal-bulegora joan beharko zarete, nola egingo duzuen galdetzera.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udaletxean erregistratutako taldeek baino ez dute lokalak eskatzerik. Udaletxean erregistratzeko, legearen arabera eratutako elkarteak dela egiaztatzeko Erregistro Administrazioak egindako ziurtagiria eta estatutuak aurkeztu beharko dira. Udaletxean erregistratuta egonez gero, elkarteko presidentearen eskabidea aurkeztu beharko dute idatziz.</li> </ul>
2. PROBA	Gazteria Saileko zinegotziarentzako aginduak:
<p>Udalerrian, gazteei buruzko plana onartzeko eskatu nahi duzue, eta zuen taldeak sinadurak batzeko asmoa dauka (gizabanakoen eta erakundeen babesak), udalbatzari eskabidea egin ahal izateko. Udaleko Gazteria Saileko zinegotziarengana joango zarete, eta bere alderdi politikoak zuen eskaria babesteko eskatuko diozue.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udalak sinadurak eta babesak onartzeko, zenbait baldintza bete beharko dira (sinatzailearen NAN...). Horrez gain, legearen arabera eratutako erakundeak aurkeztu beharko ditu. Izan ere, partikularrek aurkeztuz gero, ez dute jendearen babesa lortuko, legezko ekimen egonkorrez baino ez delako fidatzen.</li> <li>• Zinegotziaren alderdi politikoaren babesa lortzeko, bermatu egin behar da elkarteak legezkoa dela eta ez direla astebetean elkarte bertan behera utzi eta inolako konpromisorik hartuko ez duten lau lagun.</li> <li>• Erakundeekin eta udalarekin hitz egiteko, ordezkaria izendatu behar da, aldian-aldian ez dutelako pertsona desberdinekin hitz egingo. Horrez gain, ordezkari hori legez aukeratu beharko dute, irizpideren baten arabera.</li> </ul>
3. PROBA	Udal-bulegoan atenditzen duenarentzako aginduak:
<p>Dirua lortu beharko duzue, zuen gazte-jarduerak egiteko (edonolakoak direla ere). Horretarako, dirulaguntza eskatuko diozue udalerriko Gazteria Zerbitzari. Udaleko Informazio Bulegora joango zarete eskabide-ereduaren bila.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Irabazi-asmorik gabeko erakundeek baino ez dituzte dirulaguntzak eskatuko. Hori dela eta, estatutuak eta irabazi-asmorik gabeko erakundeen erregistroko ziurtagiria aurkeztu beharko dituzte, horrelako erakundeak direla egiaztatzeko.</li> <li>• Elkarteko identifikazio fiskalerako zenbakia (IFZ) eta dirua sartzeko bankuko kontuaren zenbakia aurkeztu beharko dituzte, dirulaguntza jaso ahal izateko. Biak, gainera, elkartearen izenean egon beharko dira. Ogasunak IFZ egiteko eta bankuak kontua irekitzeko, elkarteko legezko ordezkariaren sinadura eta estatutuak aurkeztu beharko dituzte.</li> <li>• Dirulaguntza emandakoan, gastatutako guztiaren fakturak aurkeztu beharko dituzte, eta elkartearen IFZ agertu beharko da bertan, ezin direlako faktura pertsonalak edo elkartearenak ez beste jarduerak batzuetarako fakturak aurkeztu. Horrez gain, elkarteko kontuen liburu aurkeztu beharko dute, eta diru-sarreraren zein gastuen saldoa agertu beharko da bertan. Elkarteen Erregistroak kontuen liburua sinatu beharko du, eta legearen arabera eratuta dauden elkartei baino ez diete zigilua jartzen.</li> </ul>

<p><b>4. PROBA</b></p>	<p><b>Koordinakundearen atentitzen duenarentzako aginduak:</b></p>
<p>Manifestaldia antolatu nahi duzue udalerrian, udalari gazteen eskariak atentitzeko eskatu ahal izateko. Horretarako, udalerrri beste gazte-talde batzuekin elkartu nahi duzue, deialdia batera egiteko asmoz. Taldeen koordinakundera joango zarete, zuen ideia azaltzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Koordinakundeak koordinakundeko bertako elkarte bazkideen mobilizazioak baino ez ditu babesten. Koordinakundeak izateko, lege-agiria batean atxiki behar zarete, eta, bertan, zuen elkartearen legezko datuak agertu beharko dira. Partikularrek ez dute atxikitzerik. Horrez gain, koordinakundeko kideek kuota handi-handia ordaindu beharko dute, eta, horretarako, dirulaguntzak jasotzen dituen elkarteak eduki beharko da.</li> <li>• Manifestaldia egiteko, udalari eskatu beharko diozue baimena, eta, horretarako, legearen arabera eraturako elkarteak izateko eskatuko dizuete.</li> </ul>
<p><b>5. PROBA</b></p>	<p><b>Aurrezki-kutxan atentitzen duenarentzako aginduak:</b></p>
<p>Liburuxka bat egin nahi duzue, zuen taldean parte hartu nahi duten gazteei zer eskaintzen diezuen azaltzeko eta gazte gehiagok izena emateko. Era berean, zuen ideien, proposamenen, jardueren... argitalpen txikia atera nahi duzue. Udalerririko aurrezki-kutxek taldeen publizitatea finantzatzeko omen dute babesle moduan. Sukurtsal hurbileneko zuzendariarekin hitz egingo duzue, zuen argitalpenetarako finantziarioa eskatzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kutxaren politika kontuan hartuta, legearen arabera eraturako irabazi-asmorik gabeko elkarteak baino ez dira finantzatzeko. Hori dela eta, irabazi-asmorik gabeko elkarte moduan erregistratu zaudetela egiaztatuko beharko duzue.</li> <li>• Kutxak zuen publizitateagatik ordaindu duen diruaren zergak arindu ahal izango ditu. Horretarako, egiaztatuko egin behar du gizarte-helburua daukan irabazi-asmorik gabeko elkartearen babesean gastatu duela diru hori.</li> <li>• Oro har, kutxak aldeztu aurretik eskatzen dio elkarteari kutxan bertan kontua izateko edo babesa jasotzean irekitzeko. Horretarako, elkartearen IFZ eta legezko datuak eskatuko dizkizue. Ez da nahikoa izango taldekideren batek edo batzuek kontua irekita edukitzea, elkarteak berak ez badauka.</li> </ul>

### 3. eranskina. Gazte-elkartegintzaren abantailei buruzko agiria

“Elkarteko kide egin... zertarako?”

Elkarteko kide egitean, gizartean nola parte hartu nahi dugun aztertzen dugu. Gure gizartea hobetzeko estrategia da.

Irabazi-asmorik gabeko helburua lortzeko asmoz talde batek eraturako erakundea da elkarteak.

Zergatik ez da nahikoa taldea osatzea?

Taldeak ez du jarraipena bermatzen, ez du zereginen banaketa formala zehazten, ez du garatu beharreko proiektuen plangintza egiten eta ez du egindako proiektuen ebaluazioa egiten.

Helburua ez da paperak edukitzea eta paperei larregizko garrantzia ematea, paperik ezak ez geldiaraztea baizik.

“Elkarteko kide egin... zertarako?”

- Helburua lortzeko.

Edozein elkarte lortu beharreko helburua, epe luzerako xedea zehazten du. Xede eta helburu horiek elkartearen bidea urratu eta abioa orientatuko dute.

- Urrunago iristeko.

Ezer banan-banan lortzerik ez badugu, elkartuta lan egin besterik ez dago, errazagoa izan dadin.

- Talde-lanaren bidez aberasteko.

Guretzat oso aberasgarria da gainerakoen iritzia entzuten jakitea, gure adostasuna lortu ez duena onartzea eta beteranoenen esperientziatik ikastea. Talde-lanari esker, errespetu handiagoa daukagu, eta toleranteagoak, irekiagoak eta solidarioagoak gara.

- Jarraipena ziurtatzeko.

Jardueren jarraipena eta, batez ere, helburuen lorpena ziurtatzeko, antolatu egin behar gara, ezin dugu proiektuaren pisu guztia pertsona bakar batengan jarri eta karguak zein erantzukizunak banatu behar ditugu.

- Prestakuntza jasotzeko.

Elkarteek giza prestakuntza eta trebakuntza teknikoa eskaini behar dizkie kideei. Tresnak eta teknikak eman behar dizkie, euren zeregin zehatza egiteko.

- Baliabide ekonomiko eta materialak eskuratzeko.

Erakunde publikoek eta pribatuek ez diete inolako dirulaguntzarik ematen egituratuta ez dauden taldeei. Legearen arabera eraturako erakundeek, nortasun juridikoa duten erakundeek aurkeztu behar dituzte proiektuak.

<b>Izenburua:</b>	Izpiritu olinpikoa
<b>Gaia:</b>	Kontsumo eta Bidezko merkataritza
<b>Hartzaileak:</b>	12-16 urte
<b>Iraupena:</b>	2 ordu
<b>Arloa:</b>	Hezkuntza Fisikoa
<b>Beharrezko materiala:</b>	Peters-en mapamundi bat. Internet. Orriak eta boligrafoak. 1., 2., 3. eta 4. eranskinen fotokopiak.
<b>Helburuak:</b>	Kirol olinpikoaren bidez, merkataritza-logikaren errealitatera hurbiltzea, guztiontzat adibide argia delako eta guztiok onesten dugulako.

#### Laburpena / Nondik norakoak:

Ariketen sekuentzia da (testu-zatien irakurketa, taula estatistikoak, galderak...), eta joko olinpikoen atzean dagoen merkataritza-logikaren inguruko giltzarriak eskaintzen dira.



#### Dinamikaren garapena:

Dinamizatzaileak 1. eranskinaren fotokopiak banatuko ditu. Behin testuak irakurrita, eta dominak herrialdeka nola banatu diren aztertuta, ondoko galderei erantzungo die te nork bere kasa:

- Ados zaude aipamen horiekin? Zergatik?
- Taulako emaitzak kontuan hartuta, aztertu nola dauden banatuta dominak iparraldeko eta hegoaldeko herrialdeen artean.
- Zer faktore da erabakigarria Afrikak, Asiak edo Amerika Latinoak dominetan ordezkartitza eskasa edukitzeko edo inolako ordezkartitarik ez edukitzeko?

Jarraian 2. eranskina banatuko die. Dela Interneten, dela bestelako iturriren batean, zerrendako Batzorde Olinpikoei buruzko informazioa bilatu beharko dute, zutabe hutsak betetzera. Behin jarduera hori amaituta, ondoko galderen inguruan hausnarketa egiteko gonbitea luzatuko die:

- Zein marka handik laguntzen dituzte diruz holako eta halako kirol-modalitateak?
- Ezagun al dituzu?
- Zure ustetan, zergatik babesten dituzte diruz kirol-marka handiek kirol modalitateak Joko Olinpikoetan?
- Zure ustez, publizitate horrek baldintzatzen al ditu gure erosteko ohiturak?

3. eranskineko informazioa irakurri ondoren, Peters mapamundi baten aipatu herrialdeak kokatzeko eskatuko diegu. Jarraian, enpresa transnazionalek makilen bitartez urratzen dituzten eskubideei buruz hausnarketa egiteko galdera batzuk emango zaizkie:

- Zeintzuk dira kolektibo kaltetuenak?
- Zure ustez, zeintzuk dira ekoizpen-sistema horiek urratzen dituzten Giza- eta Lan-Eskubideak?
- Zure ustez, kontsumitzaile garen aldetik, ba al dugu inolako erantzukizunik?

Azkenik, 4. eranskinaren fotokopia emango diegu. Behin, bertako iritziak irakurri dituztela, idazketa lan labur bat egiteko eskatuko diegu, honako bi auzi hauei erantzuteko asmoz.

- Zer uste duzue zuek?
- Zein da gure zeregina? Gizartea mugituz gero, aldatu egingo ote da egoera? Zertarako inplikatu? Eta guk... zer egin dezakegu?

## 1. eranskina. Izpiritu olinpikoa. Garbi jokatu dezagun

Gutun Olinpikoan, izpiritu olinpikoa agertzen da aipatutako balioen eskalan. Gutunean, hain zuzen ere, mugimendu olinpikoaren ezarpenarako eta funtzionamendurako testuak, arauak eta oinarrizko printzipioak agertzen dira labur-labur.

*“Mugimendu olinpikoak mundu hobea eta baketsuagoa eratzen laguntzea du helburu nagusi. Horretarako, inolako bereizkeriarik gabe izpiritu olinpikoaren arabera egindako kirolen bidez hezten ditu gazteak, eta elkarrekiko ulermena, adiskidetasun-izpiritua, elkartasuna eta joko garbia ditu oinarri.”*

*“Joko Olinpikoetan, garrantzitsuena ez da irabaztea, parte hartzea baizik. Modu berean, bizitzan bertan, garrantzitsuena ez da garaipena, borroka baizik. Funtsezkoena ez da zerbait lortu izana, ondo borrokatu izana baizik.”*

Pierre de Coubertin baroia (Joko Olinpiko modernoaren sortzailea, 1894).

	Urrezkoa	Zilarrezkoa	Brontzezkoa	Guztira
EEUU	14	8	11	33
Australia	5	9	4	18
Holanda	5	1	2	8
Italia	3	1	2	6
Errumania	2	1	1	4
Ukraina	2	2	0	4
Suedia	1	2	1	4
Hungaria	1	0	0	1
Japonia	0	2	2	4
Errusia	0	1	1	2
Eslovakia	0	2	0	2
Frantzia	0	1	0	1
Hego Afrika	0	1	1	2
Alemania	0	0	3	3
Costa Rica	0	0	2	2
Kanada	0	0	1	1
Brasil	0	0	1	1
Espainia	0	0	1	1

**2. eranskina.** Ikuskizunaren negozioa. Babesleak

Batzorde Olinpiko Nazionala		Kirol-enpresa babeslea	Marka horretan kontsumitutako produktuak
Angola			
Hego Afrika			
EE.UU.			
Frantzia			
Australia			
Espainia	ADO (www.ado.es)		
	Atletismoa (www.rfea.es)		
	Saskibaloia (www.feb.es)		
	Eskubaloia (www.rfeb.com)		
	Futbola (www.rfef.es)		
	Tenisa (www.rfet.es)		
	Txirrindularitza (www.rfec.com)		



### 3. eranskina. Zer da “makila”?

*“Makila” azken produktua egiteko piezak txertatzen dituen enpresa da. Teknologia gutxi eta esku-lan ugari behar ditu. “Makilek” iparraldeko kontratistentzat lan egiten dute, eta lehengaiak edo txertatu beharreko piezak eskaintzen dizkiete.*

*“Makilak” “eremu frankoetan” finkatu ohi dira, hau da, hegoaldeko gobernuek “multinazional” handien inbertsioak erakartzeko sortutako industrialdeetan. Horretarako, gobernuek erraztasun ekonomiko handiak eskaintzen dizkiete enpresei: enpresek ez dute zergarik ordaintzen, dirua erraz atera dezakete herrialdetik eta tokian tokiko azpiegitura nahiz zerbitzuak dituzte.*

Guía Educativa para el Consumo Crítico. Sodepaz. Los libros de la catarata. 1998.

#### Beste marka batzuk

- Amerika Latinoan, 5 eta 14 urte arteko 5 umetatik batek lan egiten du; Afrikan, hirutatik batek; eta Asian, bitatik batek<sup>1</sup>.
- Dominikar Errepublikako multinazionalak azpikontrataturako lantegietan, 150.000tik gora lagunek lan egiten dute, eta gehienak emakumeak dira. Bertako langileek merkatuan balio duen baino 3.000 aldiz gutxiago kobratzen dute egindako praka bakoitzaren truke<sup>2</sup>.
- Indonesian, duintasunez bizi ahal izateko, milioi bat erdi errupiko soldata behar da gutxienez (178 USD). Bien bitartean, Reebookentzat lan egiten duten lantegi batzuetako hileko soldata estandarra 816 errupiakoa da (98,6 USD)<sup>3</sup>.
- Kanbodiako lantegi batean Adidasentzako arropa josten dute, eta bertako emakume langileek 960 praka josi behar dituzte egunean, 10 eta 12 USD<sup>4</sup> artean kobratu ahal izateko.

<sup>1</sup> Galindo, J. Centro de colaboraciones solidarias.

<sup>2</sup> Galindo, J. Centro de colaboraciones solidarias.

<sup>3</sup> Juega Limpio en la Olimpiadas txostena. CCOO, UGT, Setem eta Intermon-Oxfam.

<sup>4</sup> Juega Limpio en la Olimpiadas txostena. CCOO, UGT, Setem eta Intermon-Oxfam.

**4. eranskina.** Zer egin dezakegu guk?**MANU**

Oraindik gogoan dut milioika lagun irten zirela kalera gerraren aurka. Argazkia oso polita izan zen, baina zertarako balio izan zuen? Ezertarako ere ez. Nik ez ditut munduan dauden arazoak konponduko, posta elektronikoko mezuak bidali arren edo kazola batean koilaraz jo arren. Giderrak eskuetan dituztenei bost axola Manuel Castillejok egoera aldatu egin behar dela pentsatzeak. Ni ez naiz erruduna.

**MARTA**

Luzaroan langabezian egon ondoren, gaur egun daukadan lanpostuan irabazitako soldata ez da nahikoa nire kabuz bizi ahal izateko. Hau da, gurasoekin bizi naiz, nire kontratu zaborragatik ez dudalako alokairua ordaintzeko beste irabazten.

Jakin badakit munduan euren oinarrizko premiak ase ezin dituzten milioika lagun daudela eta emakume langile asko esplotatu egiten dituztela. Hala ere, leku guztietan txakurrak oinutsik, eta, gure herrialdean ere, konpondu beharreko hainbat arazo daude.

Nik buruhauste nahikoa ditut, kontsumitzen dudana emakumeak esplotatzen dituen marka batekoa den ala ez ikusteko. Nik prezioa begiratu eta merkeena edo eskaintzan dagoena erosten dut. Lehenengo eta behin, etxeko arazoak konpondu behar dira; eta ondoren, haratago begiratu ahal izango dugu.

**CARMEN**

Ez dakit mundua aldatu ahal izango dudan, baina badakit konponbidea ez dela besoak gurutzatuta geratzea. Ez dugu ezer egin gabe egoterik, egunez egun bidegabekeriak gertatzen direla ikustean. Guk bidegabekeriak jasaten dituzten pertsonen partez hitz egin behar dugu.

GKE bateko kidea naiz, eta zenbait elkarte solidariotan parte hartzen dut. Ikasi eta lan egiten dudan arren, denbora asko ematen dut bidegabekeriak salatzen ekintzak eta mobilizazioak egiten, bertan nahiz munduko beste leku batzuetan.

Produktuak nola egiten dituzten jakin nahi dut. Ez dirudien arren, enpresa batzuek euren langileak errespetatzen dituzte. Horrela, ekintza handi batean parte hartzen dudala uste dut: gauzak aldatzea nahi dudala diot. Egia esan, munduko boteredunek ez dituzten euren pribilegioak borondatez bertan behera utziko. Edonola ere, pixkanaka-pixkanaka, mundua aldatuko dugu. Beste mundu bat sortu daiteke.

<b>Izenburua:</b>	Edango ez duzun urari... ez utzi joaten
<b>Gaia:</b>	Garapena
<b>Hartzaileak:</b>	10-12 urte
<b>Iraupena:</b>	Bi egun oso
<b>Arloa:</b>	Natura Zientziak
<b>Beharrezko materiala:</b>	Lauzpabost litroko edukiera duen pertza. Ur baso bat, orriak eta boligrafoak.
<b>Helburuak:</b>	Partaidetzan oinarrিতා ikerketa aktiboa egitea, etxean eta ingurune hurbilenean ura nola erabiltzen den jakiteko. Ura behar den moduan erabiltzen den edo hobetu egin daitekeen aztertzea. Ikasleak uraren larregizko erabileraren inguruan kontzientziaztea. Ura kontsumitzeko ohiturak aldatzea.

#### Laburpena / Nondik norakoak:

Ariketa honetan, uraren kontsumoarekin zerikusia daukaten jokabide hurbilenak (norberarenak eta familiarenak) berrikusi eta aztertuko dituzte ikasleek, egokia den edo hobetu daitekeen balioesteko.



#### Dinamikaren garapena:

1. Uraren kontsumoa ikertzeko, familiaren eguneroko kontsumoa aztertu beharra dago. Hori dela eta, parte-hartzaileek banan-banan aztertuko dute zenbat ur kontsumitzen duten egunero etxean. Horretarako, etxeko ur-kontagailua begiratuko dute eguneko ordu zehatz batean, eta koaderno batean idatziko dute zenbakia. 24 ordu igarotakoan, ur-kontagailua begiratuko dute berriro, eta epea horretan zenbat ur gastatu den kalkulatu dute. Hortik aurrera, irakasleari egokia iruditzen bazaio, beste kalkulu batzuk egin ditzakete: familiaren urteko ur-kontsumoa, kontsumoa laguneko eta eguneko...
  2. Bestetik, kontsumoa ikertzeko, oso garrantzitsua da gure eguneroko zereginen ondorioz zenbat ur gastatzen den kalkulatzeko: bainatzean, dutxatzean, hortzak garbitzean...
- Kalkulu horiek egiteko, zenbait prozedura garatu behar dira:
- Bainua:**
- Bainuontzian tapoia jarri eta urez bete bainuontzia.
  - Ur-baldea aukeratu eta edukiera aztertu. Ohiko baldeak 4 eta 5 litro artekoak dira, eta bertan adierazita egon ohi da.

- Ondoren, bainuontzia hustu aukeratutako baldeaz, eta, harik eta erabat hustu arte, zenbat aldiz egingo dugun eragiketa hori kalkulatuko dugu.
- Amaitzeko, zenbaki hori eta baldearen edukiera biderkatu, bainatzeko erabilitako litroak zenbat diren jakiteko.

#### Dutxa:

- Baldea jarri txorrotaren azpian.
- Txorrota ireki eta baldea betetzeko behar duen denbora kalkulatu kronometroaz.
- Ondoren, dutxaren iraupena kalkulatu.
- Datu horiek kontuan hartuta, dutxan erabilitako litroak kalkulatu.

#### Hortzen garbiketa:

- Tapoia jarri konketan.

- Txorrota ireki eta irekita eduki hortzak eskuilatu bitartean.
- Amaitutakoan, konketa hustu edateko erabilitako edalontziaren bidez.
- Edalontziek 1/4 litro inguruko edukiera badute, lauaz biderkatu, zenbat litro erabili diren jakiteko.

3. Ariketaren hurrengo egunean, datuak azaldu jendaurrean eta txostena egin. Bertan, ikasleko gutxi gorabeherako eguneroko kontsumoaren batezbestekoa agertuko da.
4. Informazio horren bidez, ikasleen uraren kontsumoaren inguruko kontzientzia hartuko dute. Horrez gain, artikuluko datuekin erkatuko dute (1. eranskina), egunean zenbat eta zenbat ur gastatzen dugun egiaztatzeko, munduan ur-eskasia handia badago ere.

#### Ebaluazioa

- Ikasleek uraren eta kontsumoaren gaiari buruz dituzten ezagutzen bilakaera.
- Egindako behaketen kalitatea eta kopurua, kontsultatutako iturrien kopurua eta ugaritasuna.
- Iturrien bidez lan egiteko eta iturriak eskuratzeko trebetasunak edo arazoak.
- Jarrera-aldaketak, uraren kontsumoaren aurrean.

## 1. eranskina. Informazio gehigarria

Lurraren, planeta urdinaren hiru laurdenak ura dira. Ikerketa zientifikoaren arabera, gure planetan hainbeste ur dagoenez, nahikoa egon beharko litzateke pertsona guztientzat. Hori horrela izanik ere, 1.110 milioi lagunek baino gehiagok ez dute edateko urik, hau da, kutsatu gabe edo tratatuta eta edateko moduan dagoen urik.

Edateko ura ondasuna da, eta gizaki guztiok behar dugu premia higienikoetarako eta etxeko premietarako. Urik gabe, inork ez du bizitza osasungarri emankorra eramaterik. Gizakiok eguneko 20 litro ur edangarri behar dugu batez beste, gure oinarritzko premiei aurre egiteko.

Edateko urik ez dagoenean, osasun-arazo larriak sortzen dira, eta batzuk hilgarriak dira. Munduko Bankuaren informazioaren arabera, urtean 900 milioi lagunek dituzte urarekin zerikusia duten diarrea-gaixotasunak. Bestetik, ur-eskasiaren ondorioz, gutxi gorabehera 2 milioi lagun hiltzen dira urtean. Horrelako pertsona gehienak hegoaldeko herrialdeetan bizi dira, eta, arrisku horien aurrean, urmeak eta adinekoak dira kaltetuenak.

Bestetik, uraren kontsumoa oso desberdina da munduan. Esate baterako, iparramerikarren ur-kontsumoa afrikarrena baino zazpi aldiz handiagoa da; eta europarrena afrikarrena baino hiru aldiz handiagoa.

### Zenbat ur kontsumitzen dugu Espainian?

Espainian askoz gehiago kontsumitzen dugu, Europako batezbestekoaren bikoitza ia-ia, afrikarrek baino bost aldiz gehiago. Gure herrialdeko batez besteko ur-kontsumoa eguneko eta biztanleko 150 litrokoa da. Era berean, Espainian euri gutxi egiten du, eta euria urtaro eta eskualde jakin batzuetan agertzen da. Ura biltegitatzeko 1.200 urtegi ditugunez, munduko hirugarren herrialdea gara, biztanleko presen proportzioari dagokionez. Hori dela eta, dirutza gastatzen dugu ura urtegitatzen, ingurumenaren gaineko eragina handia izan arren. Ondoren, gainera, inolako neurririk gabe gastatzen dugu.

**Txorrota ixten**

Gurean, gutxienez hiru ur-txorrota daude, baina munduko leku askotan milaka lagunek zenbait kilometro egin behar dituzte egunero balde bakar bat ur lortzeko. Herrialde askotako auzo txiroetan, ehunka bizilagunek txorrota bakar bat daukate garbitzeko, edateko eta bazkaria prestatzeko. Era berean, iheslarien eremuetako milaka lagunek ere txorrota bakar bat daukate bizirauteko.

**Konponbiderik dago?**

Planetako baliabideak ez dira agortezinak, eta, etxean ura neurririk gabe kontsumitzen dugunez, planeta osoan dauka eragina. Uraren kontsumo horri eutsiz gero, ura hornitzeko gaitasunaren mugara iritsiko gara laster.

Edateko uraren eskasiarekin zerikusia daukaten arazo larrietatik haratago, oso garrantzitsua da irtenbideak daudela jakitea. Gure eta gure gobernarien esku dago baliabideak hobeto kudeatzea, erabilitako ura berrerabiltzea, ura aurrezteko teknologia berriak garatzea eta sustatzea, norberekeria alde batera uztea eta ura zentzuz erabiltzea.

**Zer egingo dugu etxean ura aurrezteko?**

- Harrikoa egin bitartean, txorrota itxiko dugu. Ontzi bat erabiliko dugu xaboia emateko; eta beste bat, uretan eragiteko.
- Ez dugu ontziteria luzaroan zikin utziko, are zailagoa izango delako garbitzea. Jan eta berehala egingo dugu harrikoa.
- Txorrota itxiko dugu, hortzak garbitzean edo bizarra moztean.
- Ez dugu txorrota tantak isurtzen utziko.
- Ur beroa noiz irtengo zain gaudenean, ur hotzaz beteko ditugu ontziak eta beste gauza batzuetarako erabiliko dugu.
- Bainatu beharrean, dutxatu egingo gara.

<b>Izenburua:</b>	Nolako balioak ditugun!
<b>Gaia:</b>	Balioak
<b>Hartzaileak:</b>	10-12 urte
<b>Iraupena:</b>	45 minutu
<b>Arloa:</b>	Etika
<b>Beharrezko materiala:</b>	Koloretako kartoi meheak, artaziak, kola, orriak, errotuladoreak, paper jarraitua.
<b>Helburuak:</b>	Gure balio-sistemari buruz hausnartzea eta sarritan gure diskurtsoa eta praktika bat ez datozela onartzea. Komunikabide handiek gizartean indarrean dauden balioen garapenean noraino eragin dezaketen aztertzea.

#### Laburpena / Nondik norakoak:

Neska-mutikoez euren balioak “berrikusiko” dituzte, eguneroko bizimoduan erabiltzen dituzten balioak, hain zuzen ere. Teknikaren lehenengo zatian, banan-banan lan egingo dute; eta bigarren zatian, taldean. Ondoren, sortuz joan diren balioak sistematizatuko dituzte (kontsumoarekin, elkartasunarekin, bizikidetzarekin... zerikusia dutenak).

#### Dinamikaren garapena:

Dinamizatzaileak errotuladore eta orri edo kartoi mehearen zati bana emango dizkie taldekideei. Gero, euren eskuaren silueta marrazteko eskatuko die.

Marraskia amaitutakoan, honako hau idatziko dute atzamar bakoitzean, banan-banan eta iradokitako hurrenkeran:

- Erpurua: gustukoaren dutena.
- Hatz erakuslea: nagusiak direnean eduki nahi duten lehen gauza.
- Hatz nagia: ondasun preziatuenak.
- Hatz luzea: zertarako lan egin nahi duten.
- Hatz txikia: bizitzako gauzarik garrantzitsuenak.

Taldea lanean ari dela, dinamizatzaileak paper jarraituaren zati bat itsatsiko du horman, eta bost zutabe handi marraztuko ditu. Honako hau idatziko du zutabeetan: “gustuko dugu”, “eduki nahi genuke”, “gure ondasun preziatuenak”, “zertarako lan egin nahi dugun”, “garrantzitsuenak”.

Talde handian, pertsona bakoitzak ahoz gora esango du zeintzuk izan diren bere erantzunak. Dinamizatzaileak paper jarraituan idatziko ditu. Egokiagoa iruditzen bazaio, taldekideek euren orria utzi dezakete plastikozko poltsa batean, orriak nahastu daitezke eta guztien artean banatu daitezke, inork bere ez edukitzeko. Horrela, baliteke parte-hartzaileek adierazteko askatasun handiagoa izatea.

Guztiak hitz egin dutenean, dinamizatzaileak proposatutakoaren laburpena egingo du, eta taldeari eskatuko dio idatzitakoari buruz hitz egiteko. Horiak horrela, honako gai hauek joratu ahal izango dituzte eztabaidan: gure gizartean zer neurritaraino hitz egiten dugun balio etikoei buruz (bakea, elkartasuna, maitasuna...), beste balio batzuen arabera jardun arren (kontsumoa, lehiakortasuna, gaztetasun fisikoa, dirua...); hori guztiori zer neurritan hartzen dugun kontuan gure jokabideetan...

Amaitzeko, talde osoak kartel handia egingo du, eta, horretarako, euren eskuei buruz egindako marrazkiak itsatsiko dituzte paper jarraituaren zati batean. Ahal izanez gero, aretoan bertan utziko dugu kartela, apaingarri eta erreferentzia zein kohesio osagai moduan.



<b>Izenburua:</b>	Errepideen mapa
<b>Gaia:</b>	Bakea eta gatazkak
<b>Hartzaileak:</b>	14-16 urte
<b>Iraupena:</b>	90 minutu
<b>Arloa:</b>	Tutoretza, Hezkuntza ez-formala
<b>Beharrezko materiala:</b>	Errepideen maparen taula (errepideen maparen eredua erantsi bada ere, 1. eranskinean, interesgarria izango litzateke taldeak bera mapa marraztea, beti ere bidegurutze, geltoki, sarrera eta irteera ugari baditu), kolore desberdinetako 4 fitxa, egoera gatazkatuen zerrenda (2. eranskina).
<b>Helburuak:</b>	Erabakiak hartzea. Balizko gatazkak konpontzea. Ustezko zalantzei aurre egitea, judizio moralaren / etikoaren garapena sustatzeko.

#### Laburpena / Nondik norakoak:

Bidaia-ibilbidea aukeratuko dugu, eta taldeak proposatutako probak gainditu beharko ditu. Horra hor eguneroko bizimoduan gertatu daitezkeen egoerei buruz hausnartzeko eta eztabaidatzeko aitzakia. Ariketan bertan, honako alderdi hauek jorratuko ditugu, besteak beste: gatazkak, estereotipoak, pertsonen arteko harremanak, ikuspegi kulturalak edo sexismoa.

#### Dinamikaren garapena:

Dinamizatzaileak taldeari esango dio bidaian joango direla. Ibilbidean zehar, azpitaldeek gatazka handiren bati aurre egin behar izango diote (azpitaldeak 4-6 lagunekoak izango dira, guztizko kopuruaren arabera.

Errepideen mapako taulan (1. eranskina), zenbait eratako laukiak edo ibilbidean aurkituko dituzten seinaleak agertu beharko dira:

“?”. Dinamizatzaileak taldeari egingo dizkion galderen ikurra izango da. Hona hemen gaiak: kultura eta/edo

herrialde askotako astronomia, ohiturak, txanponak, folklorea, politika, artea, hizkuntza, musika...

“X”. Bizikidetzakilometroen ikurra izango da. Hona iritsita, azpitalde guztiek bidaia gelditu eta bizikidetzak egingo dituzte gainerako taldeekin. Esate baterako, lasaitasunerako denbora (baterako masajea) edo inprobisazio-matxa (autoko bizikidetzak...).

⚡ Konpondu beharreko gatazken ikurra izango da (hausnarketarako egoerak).

Nola jokatu?


1. Jokoaren hasieran, azpitaldeek euren artean negoziatuko dute, taulan nondik sartuko diren erabakitzeke (iparraldetik/hegoaldeetik/ekialdeetik/mendebaldeetik).
2. Azpitaldeek zer ibilbide hartuko duten erabakiko dute, eta derrigorrean gelditu beharko dira bidean aurkitzen duten ikur guztietan. Lau azpitaldeek batera jokatuko dute, taulan bertan aukeratutako norabiderantz joko dute eta dagokien laukian jarriko dute fitxa.

Azpitaldeek gainditu beharreko probak entzuteko denbora egongo da, eta dinamizatzaileak azalduko

ditu. Bestetik, azpitaldeek probok prestatzeko, egiteko eta gainerako azpitaldeei erakusteko denbora izango dute. Aldi berean, gainerako azpitaldeek ondorioetarako ekarpenak egin ahal izango dituzte.

3. Norabideak taulako irteerarentz eramaten baditu, beste leku batetik sartuko dira, jokatzen jarraitu ahal izateko.
4. Helburuetan aurreikusitako jarrerak agertu egin direla uste duenean, dinamizatzaileak amaitutzat emango du ariketa.

1. eranskina. Errepideen mapa





## 2. eranskina. Hausnarketarako egoera gatazkatsuen adibideak.

Dinamizatzaileak taldeei eskatu diezaieke hurrengo egoerak antzetzeko edo entzunda bizitzeko.

### ITSASONTZIA

Itsasoan gaude eta itsasoa harrotzen hasi da. Bat-batean, den-dena hasi da mugitzen, eta jendea zorabiatu egin da (gonbitoak nonahi). Ondoan, ume batzuk daude, eta pilotaz ari dira jolasean, ezer gertatuko ez balitz bezala. Rafael pilotaz jo dute aurpegian, oka egin berri duenean, eta umeari esan dio pilota ... sartzeko. Amak barkamena eskatu dio, baina oihuka jarraitu du...

- Zer uste duzu bere laguna izanda?
- Nola sentitzen zara?
- Zer egiten duzu?

### AUTOA

Bidaia luzea egin behar dugu. Hiru ordu daramatzagu gelditu gabe. Pedro atzean eserita dago, eta gelditu egin nahi du komunera joateko. Mariari (gidariari) eskatu dio hurrengo gasolindegian gelditzeko. Iritsi direnean, Maria ez da gelditu, eta ez dela konturatu esan du (ahalik eta arinen heldu nahi duenez, etengabe geldituz gero inoiz iritsiko ez direla uste du). Pedrok bozina jo du autoa gelditzeko. Bestela, hantxe bertan egingo du.

- Zer sentitzen du Mariak eta nolakoa da bere jokabidea?
- Zer pentsatu eta sentitzen du Pedrok?
- Zer pentsatu, sentitu eta egiten dute gainerako lagunek?



## AUTOKARRA

Hiri batean gelditu gara, atsedentxo hartzeko eta zerbait edateko. 20 minutuan itzultzeko eskatu digu gidariak. Eztei-bidaian dagoen bikotea inguruko ibai batera joan da argazkiak ateratzera, eta 45 minutu berandu etorri da. Hori dela eta, autobuseko guztiak egon gara zain.

- Zer pentsatu, sentitu eta egiten duzu?

## Hegazkina

Hegazkinera igotzeko egon garenean, arazo teknikoen ondorioz atzeratu egin dela jakinarazi digute. Elena “erotuta ere” ez litzateke hegazkinera igoko, hegan egiteak beldurra ematen diolak: “ni ez naiz inolaz ere igoko arazo teknikoak dituen hegazkinera, hil egin nahi duzue, ala?”.

Luzaroan egon zarete bidaia hori antolatzen.

- Zer pentsatu, sentitu eta egiten duzue?

## Trena

Trenera igotzean, ilara luzea dago. Denok zutik gaude, jendea non eseriko zain. Halako batean, norbait etorri da atzetik eta poltsa guztiak zapaltzen ari da igarotzeko. Ez dakigu zer dioen austriarra delako...

Bazkaritarako ogitartekoak daramatzagu trenean, eta gure taldekide batek ez du ezer ekarri (beti bezala).

- Zer pentsatu, sentitu eta egiten duzu?



### Beste egoera batzuen adibideak

1. Ikasturte-amaierako bidaia. 30 lagun. Dena antolatuta. Habanako “El Malecón” hotelerara iristean, mendebaldekoentzako hotela dela eta kubatarrik onartzen ez dutela esan du harreragileak. Taldean, Maite dago. Mulatoa da, eta jaio eta hilabete gutxira adoptatu zuten. Harreragileak begiratu egin dio eta ez dela sartuko eta ez dela sartuko esan du. Maitek mailetak hartu eta dantzan alde egin du.

- Nola sentituko zinateke, Maite izango bazina? Eta kubatarra izango bazina?
- Talde moduan, nola erantzungo zenukete bereizkeriaren aurrean?

2. Maromarako igoera. Terentziok urez betetako kantineplorak eramateko esan du behin eta berriro, baina Ismaelek, Manuelak eta Jeremiasek erreka batzuk daudela eta ahalik eta pisu gutxien eraman behar dela esan dute. Nahi izanez gero, eramateko esan diote, baina gero, ezin izango die eskatu apur batean eramateko.

Uztailak 22, 20:00ak, 7:30etik igotzen, ez dago erreka horik: “Terentzio, ura emango diguzu?”

- Zer egingo zenuke, Terentzio izango bazina?
- Banan-banan hartutako erabakiek eragina dute taldean?

3. Familia beste herrialde batera joan da. Federico Castañas nekazaritzako peritua da, eta lanpostua eskaini diote Saudi Arabian, laborantza berriak ezartzeko asmoz (zitrikoak, batez ere). 3 urteko kontratua eskaini diote, bai eta Coinen gaur egun daukan lanpostuan 17 urtean irabaziko ez lukeen urteko soldata ere. Horrez gain, igerilekudun etxea eta autoa edukiko ditu. Federico Eloisa Blancoren ezkontuta dago, eta 17 urteko Terentzio semea eta 15

zein 13 urteko Elisa eta Rosa alabak dituzte. Federico, senar-emazteen familiek eta lagunak bostak Saudi Arabiarara joateko esan dute. Eloisak honako hau esan du: “Bertan, emakumeek ez dute auto gidatzerik ere”.

- Zer premia balioesten dira beste herrialde batera emigratzean?
- Zer uzten duzu herrialdetik alde egiten duzunean?
- Erraza da harrerako herrialdera moldatzea?
- Zer zailtasuna izan ditzakezu?

4. Terentzio, Ismael eta Manuela (Jeremias ez dago, iaz Tejada mendizerran hil zelako deshidratatuta) autoz doaz aireporturantz. Bertan, Madrilerako hegazkina hartuko dute, hurrengo egunean Espainiako Rosaren kontzertura joango dira-eta (sarrerak dituzte).

Autoa autobidean hasi da kea botatzean, eta, azkenean, gelditu egin da. Terentziok esan duenez, uraren arazoa da, eta Ismaelek irri zuriz galdetu dio kantineplorarik eraman ez duen. “Ez kezkatu”, esan du Terentziok, negarrari eutsi ezinik. “Taxi bati deitu eta aireportura joan. Ni hementxe geratuko naiz”.

- Zer egin daiteke arazo konpontzeko?
- Zer egingo zenukete, Terentzioren lagunak izango bazinete?

5. Luis Pérez, beste batzuetan bezala, eserleku bila dabil Malaga-Kordoba trenetan, oso gogoko du jende lar ez dagoen bagoian jesartzea. Txoko batean, neska gaztea dago eserita, irakurtzen ari diren eleberriak murgilduta (“La otra ciudad”, uste dut). Luis Pérezek 46 urte ditu, eta zolda dauka sorbaldetan, burusoil badago ere. Pixkanaka hurbildu da, eta atze-atzean jarri denean ukitu egin du neska gaztea. Nerabea estu eta larri dago, irakurri egin nahi du, baina ezinezkoa da.

Halako batean, Luis neskaren aurrean eseri da, eta genitalak ukitzen hasi da.

Flavia eta Apuleya 18 urteko ahizpa bikiak dira, eta Ismael zein Terentzio adiskideekin ari dira berbetan. Flaviak zerbait egin beharra dagoela esan du, eta nerabeak higuina edo gaitzespena adierazi arte ezer egiterik ez dagoela erantzun dio Ismaelek.

- Esku hartu egingo zenuke?, nola egingo zenuke?

6. Bartzelonan zaudete ikasketa-bidaian. Asko zaretenez, Eusebiok eta Clotik (bidaian doazen irakasleek) zenbait jarduera egiteko sei talde antolatu dituzte arratsalderako. Talde bakoitzeko kideak aukeratzeko, zerrenda hartu eta alfabetoaren arabera banatu dituzte. Zuen taldea Manuela Avellanasen hasi eta Terentzio Castañasen amaitu da. Zuen taldean, Gabriel Ballesteros, Gabi, dago. Gurgil-aulkian dago, eta zaldarrez beteta dauka aurpegia. “Port-Hidropedal” ur-parkera iristean, bibotedun eta betaurrekodun gizon batek ikaragarri sentitzen duela baina parkea zaharra denez elbarritzat egokituta ez dagoela esan dizue.

Zer egingo duzue? Terentzioren ustez, Gabi sarrerako hanburgesategian geratu beharko litzateke zain, gaztadun bikoitzaren eskaintza dago-eta. Manuelaren iritziz, ordea, denak Zientzia Museora joan beharko zinatekete, bertan ez delako inolako arazorik egongo Gabirentzat.

- Zer egingo zenukete zuek?
- Zer aukera daude?

7. Chiapasen zaudete, Mexikoko hegoaldean. Lagun-taldea herrixka indigena batean zaudete, eta bertako eliza ederra bezain ospetsua da bere errito bitxi ondorior. Sartu egin zarete. Santuen eskulturak otoitz egitera doazen indigenen arropaz jantzita daude. Eskulturen aurrean, eskaintzak daude: pepsi-cola botila bat, tabako-pakete bat, sardexka. Luisak Flaviari

proposatu dio pepsia edaten dagoela argazkia egiteko, argazkiak egitea debekatuta egon arren.

- Zer egingo zenuke?, beste argazki bat egingo zenuke?, barre egingo zenuke?
- Luisari esango zenioke lelokeriarik ez egiteko?, eta debekatuta egongo ez balitz?
- Zure eguneroko ohiturak barregarriak izan daitezke massaientzat?

8. Etxean zaudete oporretan / ikasketa-bidaian nora joango zareten erabakitzen. Hona hemen boto gehien lortu dituzten lekuak: Cáceres, abuztuko 15 egun bizikletan; eta zortzi eguneko isilaldia, San Millán de la Cogollako monasterio ederrean. Era berean, Maroko, Txekiar Errepublika eta Portugal ere aipatu dituzte. Orduan, bere lehengusua iaz “Kariben” egon zela eta zerbait edatera gonbidatzean “mulatonak” “gaueko gidari” bihurtzen zirela esan du Alfredok.

- Gustuko zenuke Alfredoren proposamena?
- Prostituzioaz ari da sakonean?
- Gau atsegina igaroko zenuke berarekin, tarte batean bakarrik elkarrekin egonez gero?

9. Hiru gau daramatzazue modernoa ez den hotelean, baina dantzaleku alaia dauka. Cloti (irakaslea) atezainarekin parrandan joan denez, dantzalekuan sartu zarete. Musika antzinakoa den arren, alai-alaia da. Edariak garestiak dira, baina zer demontre! Oporretan gaude. Zu eta zure taldea begira zaudete, eta Ismael Manuelarekin dantzatu nahian dabil. Badirudi Manuelak nahi ez duela. Ismael mozkor samar dago. Bat-batean, Manuelak dantzagunetik alde egin nahi du baina Ismaelek ez dio uzten. Neska askatzen ahalegindu da, baina mutilak indarrez heldu dio eskuturretatik eta musu eman nahi izan dio.

- Dibertigarria da gertatutakoa?
- Ismaeli esan diozu aurrera jarraitzeko, harik eta bere helburua lortu arte?
- Txarto iruditzen zaizu? Zergatik? Zer egingo duzu?

10. Fezko Medina labirintoa da. Abdul begi handiko mutila duzue gidari. Egunaren amaieran, etxera gonbidatu zaituzte kus-kusa jatera. Pezozko egongela freskoa bezain zabala da, eta ez du altzaririk. Aita eta hiru anaiak aurkeztu dizkizue. Aitarekin hitz egin du, eta aita sukaldera joan da. Bertan, Lafeta emazteari eta bi alabei eskatu die kus-kusa prestatzeko. Tarte luzea igaro ondoren prest dagoenean, Lafetak Abdul eta anaiei eskatu die kus-kusaren bila joateko sukaldera. Emakumeak ez dira agertu bazkaltzen egon zareten bitartean.

- Zer iruditzen zaizu gertatutakoa?

Terentziok txantxetan esan dio Manuelari sukaldera laguntzen joateko, eta berak zerbait esan dio neurona erdiari buruz.

- Abdul izan nahi zenuke? Eta Sara arreba?

11. Gauean. Nekatuta. Ohean ari zara hitz egiten indarrik gabe. Alfredo beste ohean dago, eta, beti bezala, lotan geratzen ari da. Alfredori esan diozu Cloti jatorra dela eta oso ondo dagoela, baina irakaslea da eta zuk Luisa duzu gustuko. Altxatu eta Alfredori galdetu diozu nor duen gustuko. Alfredo ez da mugitu, baina pentsatzen ari da erantzun baino lehen. “Ni homosexuala naiz”, erantzun dizu.

- Aurrerantzean, ez zinateke Alfredoren adiskidea izango?
- Gosaritan, denei esango zenieke barre egiteko?
- Nora demontre eraman zuen Clotik Ferdinando?
- Zer jarrera dute neskek gizonezkoen homosexualitatearen aurrean? Eta emakumezkoen homosexualitatearen aurrean?
- Zugan eragina izan dezake Alfredoren homosexualitateak?



<b>Izenburua:</b>	Iheslarien zentroa Ronfleurren. Rolen joko
<b>Gaia:</b>	Gizarte zibileko eragileak
<b>Hartzaileak:</b>	16-18 urte
<b>Iraupena:</b>	2 ordu
<b>Arloa:</b>	Etika, Gizarte Zientziak
<b>Beharrezko materiala:</b>	Belgikako asiloari buruzko fitxaren fotokopia (1. eranskina) talde bakoitzarentzat. Rolan fitxaren fotokopia (2. eranskina), azpitaldeen eman beharreko rola ebakitzeko.
<b>Helburuak:</b>	Irudizko erkidego batean iheslariak hartzeko “tokian tokiko eragileen” nozioan sakontzea. Eragileon helburuak, interesak eta euren artean dauden indar-harremanak zehaztea. Bigarren fasean, esperientzia hau eta benetako egoera alderatzea.

#### Laburpena / Nondik norakoak:

Jokoaren bidez, “eragilearen” nozioa jorratuko dute. Bertan, egoera berezia sortuko da, irudizko erkidego batean iheslarien zentroa jarri nahi dutenean. Oso gogoan eduki behar da simulazioan agertzen diren eragileak zehatzak direla eta tokian tokiko dinamikarekin zerikusia dutela. Etorकिनak hartzeko arazoetan gizarte zibileko beste eragile batzuk daude inplikaturata, eta, esate baterako, etorkinen eskubide sozial eta politikoen alde lan egiten dute arrazakeriaren aurkako borrokan edo “paperik gabekoen” eskubideen alde.

*Hegoaren oharra:* ez dugu Belgikan kokatutako jokoaren testuingurua aldatu, ez duelako inolako eraginik giza eskubideei eta kultura artekotasunari buruzko eztabaidan. Beste herrialde batzuetan garatzeko, taldeak bere herrialdean asiloa emateko prozedurari buruzko eta harrera-zentroyen funtzionamenduari buruzko informazioa bildu dezake.

#### Dinamikaren garapena:

##### Aldez aurretiko eskakizunak

- Agerikoa denez, joko hau egiteko, ikasleek jakin egin beharko dute zer den zentro irekia, zer leku duten Belgikako gobernuko asilo-politikan, zer den harrera eta zein den asiloa eskatzeko prozedura (ikus Belgikako asiloari buruzko fitxaren eranskina).

- Dinamizatzaileak bigarren fasea bakarrik egiteko erabakia hartu dezake, baina orduan, irudizkoa izanda ere egoera bizitzean sortutako inplikazioak eta dramatizazioak eskainitako ikaskuntza galduko luke taldeak. Lehenengo etapan, gainera, dinamizatzaileak ikasleen buruko irudikapenak nolakoak diren jakin ahal izango du, eta irudikapen horiek bigarren etapan bilakatu beharko lirarteke.

## Rolen jokoia (35 minutu)

Dinamizatzaileak ikasleei esango die Ronfleurko herri txikiko biztanleak izango direla. Bertan, iheslarienzako zentroa irekiko dute laster, eta Belgikan asiloa eskatu eta erantzun ofizialaren zain dauden 150 lagun hartuko dituzte. Ez dago auzitan jartzetik zentroa Ronfleurren irekitzea, Gizarteratzeko Ministerioak inposatutako erabakia delako. Hala ere, erkidegoari eta erakundeei eskatu diete instalazioaren prestaketarako neurri zehatzak hartzeko.

Hain zuzen ere, honako hau erabaki beharra dago: nola eskolaratuko dira asiloa eskatzen dutenen seme-alabak? Herriko bi eskoletan eskolaratuko dituzte, edo irakasle batzuk astean ordu batzuek joango dira zentroan bertan eskola ematera.

Hori dela eta, alkateak ezohiko osoko bilkurarako deia egin du, eta zenbait talde eta elkarte gonbidatu ditu. Hona hemen taldeak:

1. Zinegotzi guztiak eraturako udalbatza.
2. Iheslarien zentroko gizarte-langileen etorkizuneko taldea.
3. “Ronfleur Batua” auzokoen batzordea.
4. “Bihotza zabalik” elkarte pastoralak.
5. Bi iheslari, lekuko gonbidatu moduan.

Ikasleak 4 taldetan banatuta egongo dira, eta beste bi gazte iheslariak izango dira. Taldeek fitxa bana jasoko dute (ikus rol-fitxen eranskina), eta, bertan, euren egoera, interesak eta bilerarako proposamenak zeintzuk diren azalduko dira. Taldeek 10na minutu edukiko dituzte, euren rolaz jabetzeko eta bilerarako argudioak zein estrategia prestatzeko. Bilerak horretara, taldekideetako bat baino ez da joango ordezkari moduan.

Prestatu ondoren, azpitalde bakoitzeko ordezkariak mahaiaren inguruan bilduko dira dinamizatzailearekin, ezohiko osoko bilkurarako. Gainerako neska-mutilak behatzaileak izango dira, eta euren ordezkariak azpitaldean erabakitakoa dioen aztertuko dute. Animatzaileak saioari emango dio hasiera, eta pertsona guztiak eskertuko die udalbatzaren gonbidapenari erantzun izana. Taldeak aurkeztu eta lehenengo txanda emango die,

iheslariak hartzeko proposamenak zeintzuk diren azaldu dezaten. Ondoren, iheslariak emango die hitza, euren egoeraren eta itzaropenen berri eman dezaten. Gero, proposamenei eta neska-mutikoak eskolaratzeko prozesuari buruz eztabaidatzen hasiko dira. Dinamizatzaileak eztabaida sustatuko du, agerraldiak bultzatuko ditu eta hitzaren erabilerekin iraupena kontrolatuko du. Argudio guztiak ulertutakoan, zinegotziek bozkatu egingo dute, umeak eskolaratzeko prozesuari buruzko azken erabakia hartzeko.

10 minutu igarotakoan, eztabaida aurrera ez badoa, etenaldia egin ahal izango da (jokoan, dinamizatzaileak beste bilera baterako deia egingo die bertaratutakoei). Ordezkeriak euren taldearekin bilduko dira, argudioak berregiteko asmoz. Etenaldi horretan, azpitaldeen arteko itunak egin ahal izango dituzte. Taldeko beste ordezkari bat joango da hurrengo bilerara (beste 10 minutu).

## Azterketa

Jokoia egindakoan, ezinbestekoa izango da gazteei euren bizipenak eta sentipenak adierazteko aukera ematea, zer gertatu den aztertzea, taldeen jarrera zein den ikustea eta irudizko egoeratik aldentzea. Azterketa hori 3 etapatan egin ahal izango da:

- a. Euren bizipena adieraztea (10 minutu)
  - Zer sentitu du jokoan zehar? (frustrazioa, bidegabekeria, inork entzun ez diolako, boterea...).
  - Zer izan da erraza edo zaila egindako lanean?
- b. Eragileen rola aztertzea (20 minutu)
  - Nola aurre egin diote taldeek zentroaren irekierari?
  - Zer datu eman dituzte? Zeintzuk dira euren interesak?
  - Zeren beldur dira?
  - Zeintzuk dira proposamenak, egoerari ahalik eta ondoen aurre egiteko?
  - Nortzuk daude alde eta aurka?
  - Zeintzuk dira ekintza-baliabideak eta euren boterea?
  - Zeintzuk dira taldeen arteko indar-harremanak?

Azterketa amaitutakoan, dinamizatzaileak idatzizko laburpena egingo du, eta eragileen azterketaren ondorio nagusiak agertuko dira bertan.

d. Errealitatearekin erkatzea (50 minutu)

Irudizko egoera konplexuagoa eta aldagarriagoa den errealitatearen perspektiban lekuratu beharko da berriro, gezurrezko ideiarik eta/edo ideia murriztailearik ez finkatzeko. Honako hau egin liteke errealitatera igarotzeko: ikasleek ikerketa egin lezakete komunikabideetan euren eskualdean iheslarientzat irekitako zentroren bati buruz. Irekitako zentroek animazioa eskaintzen diete eskolai: ikasleek lekuko pribilegiaturen bat gonbidatu dezakete, rol-jokoan parte hartzeko eta egoera hori benetan nola gertatu den azaltzeko.

- Nola garatu da iheslarientzako zentroaren irekiera?
- Nolakoa izan da biztanleen, toki-agintarien eta elkarteen harrera?
- Gatazkarik egon da?
- Zeintzuk dira zentroaren irekieraren benetako ondorioak?
- Jokoa irudikatutakoak bezalakoak dira?
- Gatazkak konpondu dira? Beldurrak desagertu dira? Itxaropen berririk dago?
- Zeintzuk dira gaur egungo arazoak?
- Zein da iheslarien iritzia?

- Nortzuk dira zentroa eskualdean gizarteratzen ahalegindu diren eragile pribilegiatuak?
- Zer egiten dute? Zeintzuk dira euren helburuak eta aldarrikapenak?
- Zeintzuk dira euren ekintza-baliabideak eta eragina?
- Zeintzuk dira aldeak eta antzekotasunak, jokoan zer gertatu den kontuan hartuta?

### Ondorioak

Ondorioetan, taldeak, elkarreak etorkinen alde mugitzen direla nabarmendu daitezke. Jokoa, zentroaren irekiera zen hizpidea. Hala ere, zentzu zabalean, defendatutako balioen eta interesen arabera, zenbait mugimendu eta erakunde bete-bete lan egin dute eta lan egiten dute langile etorkinak hartzeko orduan, euren eskubideak onesteko orduan, arrazakeriaren aurka borrokatzeko orduan eta iheslarien, asilo-eskatzaileen edo “paperik gabekoen” eskubideak babesteko orduan. Taldeok ikuspegi sozialagotik, kulturalagotik edo politikoagatik jorratu ditzakete gai horiek, bai eta tokian-tokian, nazio-mailan edo nazioartean ere. Arduradun politikoei abian jarritako politikak babestu ditzakete, bidegabekeria mingarrienak gutxitzen ahalegindu daitezke edo gaitzetsi eta salatu egin ditzakete.

Eragile horiei esker, migrazio-politiken zein ondorioen inguruko jarrera zehazten dugu, eta askoz hobeto ikusten dugu zer esparrutan jardun daitekeen.

**1. eranskina.** Belgikako asiloaren fitxa

Belgikako asiloa	Iheslaritzat nor hartuko duten zehazteko, Belgikak Nazio Batuen Genevako Hitzarmenera jotzen du (1951). Hitzarmen horretan jasotako azalpenaren arabera, pertsona guztiak iheslariak izango dira, “arrazaren, erlijioaren, nazionalitatearen, gizarte-taldekidetzaz zehatzaren edo iritzi politikoen ondorioz sortutako jazarpen-ikaragatik euren nazionalitateko herrialdetik kanpo daudenean eta, beldur horien ondorioz, herrialde horren babespean egon nahi ez dutenean edo egon ezin direnean”.
Belgikako asilo-prozedura	<p>Asilo-eskaera aurkezten dutenetik, harik eta azken erabakia hartu arte (iheslaritzat hartze-ko edo lurraldetik alde egiteko erabakia), prozedura zenbait etapatan garatuko da:</p> <p>Asilo-eskaera bera</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Estatua zehaztuko da, eskaera bideratzeko.</li> <li>• Herrialdea Belgika bada, Atzerritarren Bulegoak azterketa egingo du, onargarria den ala ez zehazteko. Une horretan, eskaerak osteko azterketarako aukera emango duen erabakiko da. Halakoetan, asilo-eskatzaileak Belgikan itxaron ahal izango du azterketaren (azterketa sakonaren) emaitza.</li> <li>• Atzerritarren Bulegoak atzerritarren lurralde-sarbidea, egonaldia, egoitza edo urrunketa kudeatzen ditu, oro har.</li> <li>• Azterketa sakonean, Iheslarien eta Aberrigabeen mandatari nagusiak (CGRAK) iheslarien estatusa onetsia izango den ala ez aztertuko du lehenengo eta behin. Bigarren azterketa ere egin ahal izango da iheslarien errekurtsio-batzorde iraunkorrean.</li> <li>• Iheslarien eta Aberrigabeen mandatari nagusiak erabateko independentziaz aztertuko ditu jasotako asilo-eskaerak.</li> </ul> <p>Asilo-eskatzaileen harrera Belgikan</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Belgikako agintariek asilo-eskatzaileentzako harrera-aukeren kopurua dute aurreikusita. Iheslariak aukera horiek eskuratu ahal izango dituzte, harik eta iheslaritzat hartze-ko eskaerari buruzko behin betiko erabakia hartu arte. Asilo-eskatzaile berri bakoitzari harrera-zentro zehatza esleituko diote, eta izapideen fasean izena emateko derrigorrezkoa lekua izango da. 2001eko martxotik, asilo-eskatzaile berriek ez dute finantza-laguntza zuzenik jasotzen, harrera-zentroaren bidez eskaintzen dizkieten gauzako laguntza baizik.</li> <li>• Eskaeraren onargarritasunari buruzko behin betiko erabakia hartzen denean amaituko</li> </ul>

	<p>da zentroaren esleipena. Erantzuna ezezkoa bada, zentrotik bertatik kudeatu ahal izango dute aberriratzeko prozesua. Erantzuna baiezkoa bada, asilo-eskatzailleak lurraldean bizi ala izango dira, lan-baimena izango dute eta gizarte-laguntzarako zentro publikoak lagunduko die.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zentro irekiek eta itxiek ez dute inolako zerikusirik, asilo-eskatzailleak ezin dituztelako zentro horietan geratzera behartu. Nolanahi ere, zentroan bertan baino ez dago gizarte-laguntza kudeatzerik, izena derrigorrean eman beharreko lekua bada. Zentzu zabalean, harrera-zentroek “ostatua-elikagaiak-garbiketa” dituzte helburu nagusi, eta, era berean, gizarte eta medikuntza arloko oinarrizko laguntza eskaintzen dute. Gaur egun, 6.305 lagunentzako 35 harrera-zentro daude. Zentro horiek, hain zuzen ere, Gizarte Gaietako Ministerioak, Gurutze Gorriak edo CIREk (Coordination Initiative pour Refugies et Etrangers-ek) kudeatzen dituzte.</li> </ul>
--	--

## 2. eranskina. Rolen fitxa

Zinegotziak	
Ronfleurko herria	
<p>Ronfleurrek 10.000 biztanle ditu herrian eta inguruetan. Herria oparo samarra izan da, orain dela 30 urte abian jarri eta biztanle gehienei lana ematen zien kontserba-lantegiari esker. Lantegia, ordea, duela hiru urte itxi zuten, eta 540 langile kaleratu zituzten. Ondoren, langabezia ikaragarri igo zen, biztanle askok ez dute lanik aurkitu eta hainbat familiak arazo ekonomikoak dituzte. Jendea itxia eta samin samarra da.</p>	
Zuen jarrera	Zuen proposamenak
<p>Zinegotziak zaretenez, biztanleen erantzunak hartuko dituzue kontuan. Badakizueenez, biztanle gehienak kezkatuta daude iheslariak iritsiko direlako. Egoera horrek herriko ordena eta lasaitasuna aztoratuko ote dituen eta biztanleen kaltetan udalak ordaindu beharreko gastuak sortuko ote diren beldur dira. Zuen jarrera anbigua da. Batetik, Gizarteratzeko Ministerioak hartutako erabakia ezarri behar duzue, eta zentroa jarri behar duzue herrian. Bestetik, ez duzue hauteslerik galdu nahi hurrengo urteko hauteskondeei begira. Beraz, ahalik eta gehien lasaitu nahi dituzue biztanleak.</p>	<p>Biztanleei informazioa eskaintzea, harrera-zentroa jartzean sortuko diren ondorioak azaltzeko.</p> <p>Zentroko gizarte-langileen taldeak udalari laguntza gehigarri eskatuko ez diola bermatzea.</p> <p>Umeak eskolaratzeko prozesuari dagokionez, ez duzue alde zuretik ezer zehaztu. Bileraren zain zaudete, biztanleek zer nahi duten jakiteko: umeak zentroan bertan geratzea edo eskolara eramatea.</p>

Beste ideia batzuk proposatu

**Iheslarietako zentroko langileak**

## Ronfleurko herria

Ronfleurrek 10.000 biztanle ditu herrian eta inguruetan. Herria oparo samarra izan da, orain dela 30 urte abian jarri eta biztanle gehienei lana ematen zien kontserba-lantegiari esker. Lantegia, ordea, duela hiru urte itxi zuten, eta 540 langile kaleratu zituzten. Ondoren, langabezia ikaragarri igo zen, biztanle askok ez dute lanik aurkitu eta hainbat familiak arazo ekonomikoak dituzte. Jendea itxia eta samin samarra da.

## Zuen jarrera

Taldekide gehienok ondotoxoa dakizue nolakoa den biztanleen egoera eta ulertu egiten duzue zalantzak izatea iheslariak hartzeko orduan. Hala ere, zuen ustez, asilo-eskatzaileek egoera gogor-gogorak bizi izan dituzte, eta, herrialde aberatseko biztanleak zaretenez, lagundu egin behar diezue. Zuen iritziz, biztanleen eta iheslarien familien arteko loturak sortu behar dira baterako jardueren bitartez, biztanleek gizakiak direla ikus dezaten eta iheslariak hain isolatuta egon ez daitezen.

Oro har, gastu guztiak Gizarteratzeko Ministerioaren konturakoak izan ohi dira, eta Gurutze Gorriari ordainduko dio, zentroa kudeatu dezan. 2001eko martxotik, iheslariak ez dute esku-dirutako laguntzarik jasotzen, zentro irekietako gauzatarikoa laguntza baizik: ostatua, elikagaiak eta medikuntza. Ministerioak emandako diru-laguntzari esker, oinarritzko gastuak estaltzen dira, baina ez dago jarduerak antolatzerik. Egokitzeko epearen ostean, udalak aurrekontu osagarri txikia emango duela uste duzue.

## Zuen proposamenak

Umeak eskolaratzeko prozesuari dagokionez, herriko eskoletako ikasgeletan egon behar direlakoan zaudete (bata katolikoa da; eta bestea, publikoa). Horrela, bada, euren bizimodua ez litzateke hain isolatua izango, azkarrago ikasiko lukete frantsesa (jakin ez badakite) eta Ronfleurko biztanleen artean egingo lituzkete lagunak.

Beste proposamen batzuk egin, zentroa hiribilduan hobeto txertatzeko

“Ronfleur Batua” batzordea	
<p>Ronfleurko herria</p> <p>Ronfleurrek 10.000 biztanle ditu herrian eta inguruetan. Herria oparo samarra izan da, orain dela 30 urte abian jarri eta biztanle gehienei lana ematen zien kontserba-lantegiari esker. Lantegia, ordea, duela hiru urte itxi zuten, eta 540 langile kaleratu zituzten. Ondoren, langabezia ikaragarri igo zen, biztanle askok ez dute lanik aurkitu eta hainbat familiak arazo ekonomikoak dituzte. Jendea itxia eta samin samarra da.</p>	
Zuen jarrera	Zuen proposamenak
<p>Batzordeak zenbait jarduera antolatzen ditu kontserba-lantegiko langile ohiekin. Kide asko eta asko langabezian zaudete, eta ez duzue eskualdean lanik aurkitu. Beste batzuk alde zuzenetik erretiratutakoak dira, eta lantegiko bizimoduaren minez bizi dira. Familia guztiek ia-ia finantza-zailtasunak dituzte. Batzordeak ez du inolaz ere onartuko Ronfleurren iheslarietako zentroa jartzea. Nahikoa ordaindu duzuela eta, atzerritarren arazoez barik, udala Ronfleurko biztanleen arazoez arduratu beharko litzatekeela uste duzue. Are gehiago, zuen ustez, iheslarietako oso erraza da gizarte-laguntza eskatzea Belgikan inoiz lan egin ez arren, eta onura atera nahi diote. Zuen iritziz, iheslariak heltzean, herria aztoratu egingo da, eta anabasa sortuko da. Era berean, eragin txarra izango dira gazteentzat, eta delinkuentzia nahiz lapurretak egongo dira.</p>	<p>Zentroaren aurkako kanpaina egin duzue, baina ez duzute entzun.</p> <p>Udalbatzari eskatu nahi diozue iheslarietako ahalik eta harreman txikiena izateko biztanleekin eta, batez ere, gazteekin.</p> <p>Poliziak ondo baino hobeto zaindu behar du zentroa.</p>

Beste proposamen batzuk egin

**“Bihotza zabalik” elkarte pastoralala**

## Ronfleurko herria

Ronfleurrek 10.000 biztanle ditu herrian eta inguruetan. Herria oparo samarra izan da, orain dela 30 urte abian jarri eta biztanle gehienei lana ematen zien kontserba-lantegiari esker. Lantegia, ordea, duela hiru urte itxi zuten, eta 540 langile kaleratu zituzten. Ondoren, langabezia ikaragarri igo zen, biztanle askok ez dute lanik aurkitu eta hainbat familiak arazo ekonomikoak dituzte. Jendea itxia eta samin samarra da.

## Zuen jarrera

“Bihotza zabalik” elkarte pastoralala orain dela 10 urte sortu zen, Indiako legenardunentzako ospitale batean bizi den Ronfleurko apaiz bati laguntzeko. Hamabost bat boluntario zarete. Zenbait jarduera antolatzen dituzue, dirua biltzeko eta Indiarara bidaltzeko. Lantegia itxi ostean, elkartean boluntario gehiago daudenez, jarduera gehiago egiten dituzue. Zuen elkartean, ikasleen gurasoak eta hiru irakasle daude, eta neska-mutikoak Ronfleurko mundu txikian ez geratzea eta gaur egungo mundua zein beste kultura batzuk hobeto ezagutzea nahi dute. Urtero, giza eskubideen inguruko jaia antolatzen duzue, herriko biztanleak eta, batez ere, gazteak apur bat solidarioagoak eta irekiagoak izan daitezen. Eskolak ixteko arriskua dago, ikasle nahikorik ez dagoelako. Ume iheslariak eskolaratuz gero, ordea, salbatu egingo lirateke.

## Zuen proposamenak

“Bihotza zabalik” elkarteak zentro berrian hartuko dituzten asilo-eskatzailerei lagunduko die.

Umeak eskolaratzeko prozesuari dagokionez, herriko eskoletako ikasgeletan egon behar direlakoan zaudete (bata katolikoa da; eta bestea, publikoa). Horrela, bada, euren bizimodua ez litzateke hain isolatua izango, azkarrago ikasiko lukete frantsesa (jakin ez badakite) eta Ronfleurko biztanleen artean egingo lituzkete lagunak.

Beste proposamen batzuk egin



## Lekuko gonbidatuak

### Emile Kasibongo, Ruandako iheslaria

Emile Kasibongo dut izena. 1992. urteaz geroztik nago Belgikan. Zuzenbidea ikastera etorri naiz. 1994ko genozidioan, nire familiako kide eta lagun asko eta asko hil zituzten. Ondoren, emaztea eta hiru seme-alabak ekartzeko aukera izan dut. Baiezko erantzuna jaso baino lehen, asilo-eskatzaila izan naiz 5 urtez. Epe horretan, bi urtez bizi zian naiz familiarekin, Berlingenekoko iheslari-zentroan.

Niretzat, esperientzia gogorra izan da erabat, zenbait lekutatik datozen beste pertsona batzuekin bizi behar izan garelako. Pertsona horiek ez dakite beti frantsesez hitz egiten, eta oso kezkatuta edo aztoratuta daude euren egoeraren eraginez. Ikasle moduan, harreman ona izan dut jendearekin, baina zentroan bertan auzokoen gaitzespena eta arrazakeria sentitu dut batzuetan. Esate baterako, ez naute denda batzuetan atenditu. Izan ere, harreman atseginoak izan ditut, umeak eskolara hasi direnean eta auzoan lagunak izan dituztenean. Era berean, musika-talde batean ere egon naiz, eta kontzertu ugari egin ditugu. Herrialdetik botako ote gaituzten beldur izan gara, ezagutu ditugun asilo-eskatzaille gehienei ez dietelako eskaera onartu Belgikan 4 edo 5 urte igaro ondoren eta euren herrialdera itzuli behar izan direlako.

Orain, etxe txiki batean bizi gara Bruselan, eta jate txiki batean ari naiz lanean. Zoritxarrez, inoiz abokatu lan egingo ez dudala uste dut. Ez dakit zein den Ronfleurko egoera, baina iheslarien beldur ez izateko esan nahi nieke.

### Marina Kornisov, bielorrusiarra, asilo-eskatzaila

Marina dut izena. 19 urte ditut, eta mutil-lagunarekin etorri naiz Bielorrusiatik. 1999. urtean irten ginen handik, bertan lan egiteko aukera txikiena ere ez geneukalako. Herrialdea Loukaschenko diktadorearen erregimenaren menpe dago, eta, Chernobileko hondamendiaren ostean, elikagai gehienak kutsatuta daude, eta ume ugari daude gaixorik. Urtebete egon gara Polonian. Ondoren, Belgikarako autobusa hartu dugu.

Belgikan asiloa lortzeko, Atzerritarren Bulegoan eskatu beharra dagoela esan digute. Askotan joan eta gero, atenditu egin gaituzte. Gure bizitzari eta Bielorrusiarri buruzko galdeketa egin digute. Azkenean, bi aste zain egon ondoren, Ronfleurko CPASera (Gizarte Laguntzarako Zentro Publiko) bidali gaituzte.

Bertan esan digutenez, irekitzen dutenean, harrera-zentro berrira joango gara, harik eta gure asilo-eskaeraren behin betiko erantzuna jaso arte. Bien bitartean, Namurko familia baten etxean bizi gara. Herrialdetik botako gaituzten beldur gara. Gu ez gaituzte benetan jazarri, baina orain Bielorrusiarra itzuli behar bagina, gobernuak esperatu ahal izango genituzke, bertan Loukaschenkoren erregimena kritikatu dugulako.

Ez dugu dirurik eta laguntzarik jaso nahi. Beharrezko epean baino ez gara biziko zentroan. Ondoren, mundu guztiak bezala lan egin nahi genuke, eta gure seme-alabek herrialde aske batean duintasunez bizitzeko aukera izateko nahi genuke.



<b>Izenburua:</b>	Eragile bila... ikerketa-ekintza
<b>Gaia:</b>	Demokrazia eta Partaidetza
<b>Hartzaileak:</b>	16-18 urte
<b>Iraupena:</b>	4 ordu
<b>Arloa:</b>	Etika, Gizarte Zientziak
<b>Beharrezko materiala:</b>	“Elkarteen azterketaren eskema” 1. eranskinaren fotokopiak talde bakoitzarentzat.
<b>Helburuak:</b>	Etorkinen alde lan egiten duten elkarten eta erakundeen tipologia aztertzea. Politikan eta eredu bidezkoagoen bilaketan eragiteko orduan, hiritarrek jarduteko eta inplikatzeko dituzten aukerak onestea.

#### Laburpena / Nondik norakoak:

Ariketa honetan, ikasleak udalerrian etorkinen alde lan egiten duten tokian tokiko erakunde eta elkarteetara joango dira. Ikasgelara itzultakoan, aurkitutako eragileak lekuratuko dituzte toki-paisaian zein testuinguru sozio-politikoan.

#### Dinamikaren garapena:

##### 1. Topaketaren prestaketa (50 minutu)

Irakasleak helburuak eta lanaren garapena azalduko ditu. Hasteko, ikasleek ezagututako elkarten zerrenda egingo du. Etorkinen elkarteak, iheslarientszako zentroak, arrazakeriaren aurkako taldeak... izan daitezke. Zerrenda hori osatzeko, ikerketa egingo dute udalerrian, eta, horretarako, aurkezpen-liburuxkak bilduko dituzte, esate baterako.

Ikasleek galde-sorta egingo dute, elkarte hobeto ezagutzeko eta honako datu hauek biltzeko:

- Historia: Noiz sortu zen. Nork sortu zuen. Zeintzuk izan ziren lehen jarduerak.
- Helburuak: Zer lortu nahi duen epe luze eta ertainera. Zer ideal dituen.
- Jarduerak: Zer egiten duen.

- Kideak: Nork parte hartzen duen. Liberatuak eta/edo boluntarioak dituen. Etorkinen alde edo etorkinekin lan egiten duen elkarte den edo etorkinen elkarte den.

- Antolamendua: Nork egiten duen zer. Nola hartzen dituzten erabakiak.

- Finantziazioa: Nondik datozen fondoak.

- Arrakastak: Zeintzuk izan diren arrakastak. Zer aldaketa on lortu dituen.

- Arazoak: Zeintzuk izan diren oztopoak. Zeintzuk elkartean bertan eta zeintzuk elkartetik kanpo.

Agerikoa denez, proposatutako galderen zailtasuna ikasleen adinaren eta gaiari buruzko hausnarketaren sakontasunaren arabera izango da. Aldez aurretik

bildutako aurkezpen-liburuxketan lehen aldiz irakurtzean sortu daitezke galderak.

## 2. Topaketa (1 - 2 ordu)

2, 3 edo 4 laguneko taldeak izango dira, eta talde bakoitzak elkarte zehatza aukeratuko du berarekin biltzeko. Hobe da bisitatu beharreko elkarteak edo erakundeak mota desberdinetakoak izatea, emaitzak ahalik eta zehatzenak izateko. Taldeek hitzordua egingo dute elkarteko arduradunarekin edo kideren batekin, prestatutako galderak egingo dizkiote edo jarduera zehatzen batera joango dira.

## 3. Azterketa (50 minutu)

Ikasgelara itzulitakoan, taldeek aukeratutako elkarteak aurkeztuko dute, eta eragileen taula edo tipologia diseinatuko dute. “Elkarteen azterketaren eskema” 1. eranskinean, eragileak bereizteko eta lekuzartze eskaintzen dugu. Errazagoa edo zailagoa egiteko, nahi beste aldatu daitezke.

## 4. Ondorioak (20 minutu)

Ikasleak aztertutako elkarteen tipologiaren arabera lekuzartze dira. Erabilgarriak dira ekintza horiek? Zergatik eta norentzat? Nolako ekintzak defendatuko lituzkete eta zergatik?

Ondorioetan, taldeak, elkarteak etorkinen alde mugitzen direla nabarmendu daitezke. Jokoan, zentroaren irekiera zen hizpidea. Hala ere, zentzu zabalean, defendatutako balioen eta interesen arabera, zenbait mugimendu eta erakunde bete-betean lan egin dute eta lan egiten dute langile etorkinak hartzeko orduan, euren eskubideak onesteko orduan, arrazakeriaren aurka borrokatzeko orduan eta iheslarien, asilo-eskatzaileen edo “paperik gabekoen” eskubideak babesteko orduan. Taldeok ikuspegi sozialagotik, kulturalagotik edo politikoagatik jorratu ditzakete gai horiek, bai eta tokian-tokian, nazio-mailan edo nazioartean ere. Arduradun politikoek abian jarritako politikak babestu ditzakete, bidegabekeria mingarrienak gutxitzen ahalegindu daitezke edo gaitzetsi eta salatu egin ditzakete.

**1. eranskina.** Elkarteen azterketaren eskema

		1. elkart.	2. elkart.	3. elkart.	4. elkart.	5. elkart.
Norentzat	Banan-banakoa					
	Taldeakoa					
	Etorkinentzat					
	lheslari entzat edo asiloaren zain daudenentzat					
Ekintza-mota	Gizarte-arlokoa (ostatua eta lana aurkitzeko, arazo juridikoak konpontzeko... laguntza praktikoa)					
	Hezkuntza-arlokoa (etorkinentzako ikastaroak, jendearen sentsibilizazioa...)					
	Kultura-arlokoa					
	Politika-arlokoa (lege berrien aldarrikapena, eskubideen onspena...)					
Ekintza-maila	Tokian tokikoa					
	Nazio-mailakoa					
	Nazioartekoa					
Norekin	Etorkinekin					
	Etorkinentzat					

<b>Izenburua:</b>	Gazteei bost axola die politikak?
<b>Gaia:</b>	Demokrazia eta Partaidetza
<b>Hartzaileak:</b>	16-18 urte
<b>Iraupena:</b>	30 minutu
<b>Arloa:</b>	Etika, Gizarte Zientziak
<b>Beharrezko materiala:</b>	1. eranskinaren fotokopiak
<b>Helburuak:</b>	Demokraziaren formetako bat diren hauteskundeen zereginari buruz hausnartzea.

#### Laburpena / Nondik norakoak:

Ariketa honetan, jardun demokratikoa diren hauteskundeen zereginari buruz eztabaidatuko dugu. Formari begira, 4 urtean behin hauteskundeetan bozkatzten dugu (udal, autonomia eta estatu arlokoetan), batzar legegileetako ordezkariak aukeratzeko. Ordezkari horiek erabaki garrantzitsuak hartuko dituzte gure izenean, eta ondorio onak edo txarrak izango dituzte gure gizartearentzat. Hiritarrak garenez, gure eskubidea eta betebeharra da hauteskundeetan parte hartzea. Edonola ere, mundu guztia ez dator bat botoaren erabilgarritasunarekin.

#### Dinamikaren garapena:

Ariketa honetan, zenbait rol banatuko dira, eta, partaidetzan oinarritutako eztabaida antolatua bidez, nor bere argudioak azalduko dizkio taldeari. Ikaskideekin hitz

egitea eta eztabaidako galderari arrazoituta erantzutea da helburua: Bozkatzten duena erratu egiten da?

**1. eranskina.** Taldeetan banatzeko rolak**1. taldea.**

Politikari begira, gehiengodun alderdiarekin konprometitutako neska-mutilak zarete, eta botoa ematen joan beharra dagoela dio. Badakizue zer bozkatuko duzuen.

**2. taldea.**

Gutxiengodun alderdiaren jarraitzaileak zarete. Alderdi horri bozkatuko diozue, baina zuen botoa erabilgarria ez dela diotsue, alderdiak ordezkaritza izateko beste boto lortuko ez dituelako edo diputatu gutxi izango dituelako.

**3. taldea.**

Abstentzioaren alde zaudete, alderdien sistemaren gaur egungo funtzionamenduari ados ez zaudetelako. Izan ere, parte hartzeko eta hitz egiteko gaitasuna oso mugatuta dago. Horrez gain, benetako demokrazia partaidetza politikotik haratago erdietsi behar dela uste duzue. Zuen ustez, gizarte-mugimenduetan egon behar gara guztiok (ekologistak, feministak, auzokoen elkarteak, GKE...), gizarte-eraldaketetarako ekintza zehatzak proposatzen dituzten bakarrak dira-eta.

**4. taldea.**

Abstentzioaren alde zaudete, zuei bost axola dizuelako politikak. "Paso" egiten duzue, politikarietan eta politikan konfiantzarik ez duzelako (bizibide dutenentzat baino ez da onuragarria). Zuen ustez, zuek baino ez duzue arazoak konpontzerik.

<b>Izenburua:</b>	“Clandestino”
<b>Gaia:</b>	Kultura artekotasuna
<b>Hartzaileak:</b>	12 urtetik aurrera
<b>Iraupena:</b>	Ordubete
<b>Arloa:</b>	Hizkuntza, Literatura, Gizarte Zientziak
<b>Beharrezko materiala:</b>	Manu Chaoren Clandestino albumeko (© Virgin 1998) “Clandestino” abestia (Elenzaren web orrian dago eskuragarri, baina ez da bertso osoa eskaintzen, hezkuntza-helburuetarako baino ez delako erabiltzen).
<b>Helburuak:</b>	Migrazioaren ezagutza bultzatzea.

#### Laburpena / Nondik norakoak:

Manu Chaoren “Clandestino” abestian oinarrituta, letra ulertzeko bi ariketa proposatuko dira, eta, ondoren, oso egokiak izan daitezke, inmigratioari buruz eztabaidatzeko.



#### Dinamikaren garapena:

Abestia entzun baino lehen, ikasleei informazio apur bat eman jatorri espainiarreko kantari frantsesari buruz.

Zenbait hizkuntzatan abesten duela eta bere kantak gaur egungo gizarte-egoeraren adierazgarri dela azaldu. Egoera hori, gainera, Europakoa da sarritan; unibertsalagoa, batzuetan; eta hegoaldeko arazoekin zerikusia daukana, askotan. Kantaren izenburuari buruzko iruzkina egin eta ikasleei eskatu zer esan nahi duen asmatzeko (edo aurreko klasean izenburuaren esanahia bilatzeko esan, ariketa baino lehen azaltzeko. Era berean, Interneten bertan kantariari buruzko informazioa bilatzeko eskatu).

Kantaren letra entzun eta 1. eranskineko proposatu. Bertan, ikasleek zer hitz aldatu diren asmatu beharko dute.

Bigarren aldiz entzungo dute, hutsune guztiak bete ahal izateko. Oraingoan, orria izango dute aurrean.

Ondoren, 2. eranskina proposatu. Abestiaren testuari erreparatu behar dute. Esaldi hauen esanahia asmatzen saiatuko dira: el corazón de la grande Babylón / papel / mi vida la dejé entre Ceuta y Gibraltar / soy una raya en el mar / fantasma de la ciudad / Mano Negra... Lankideari azaldu zer iradokitzen dizuten zenbait hitzek. Horra hor Babylón (Babilonia), mano negra...

Ikasleek esaldi batzuen jatorria zein den asmatu beharko dute bertan. Bide batez, dinamizatzaileak inmigratioari buruzko eta ikasleen iritziei buruzko eztabaida sustatu ahal izango du.

**1. eranskina**

Solo voy con mi melena	
Sola va mi condena	
Comer es mi destino para olvidar la ley	
Perdido en el caparazón de la grande Babylón	
Me dicen el clandestino por no llevar mantel	
Pa' una ciudad del este yo me fui a caminar	
Mi niña la dejé entre Ceuta y Palomar	
Soy una barca en el mar	
Fantasma en la ciudad	
Mi vida va vendida dice la autoridad	
Solo voy con mi pena	
Sola va mi condena	
Vivir es mi destino por no llevar papel	
Perdido en el salchichón de la grande Babylón	
Me dicen el clandestino yo soy el quiebra ley	
Mano Verde clandestina	
Argentino clandestino	
Africano clandestino	
Marihuana ilegal	
Solo voy con mi melena	
Sola va mi condena	
Conocer es mi destino para burlar la ley	
Perdido en el sinrazón de la grande Babylón	
Me dicen el clandestino por no llevar papel	
Argelino clandestino	
Colombiano clandestino	
Boliviano clandestino	
Mano blanca, ilegal	



## 2. eranskina


La grande Babylon
Papel
Mi vida la dejé entre Ceuta y Gibraltar
Soy una raya en el mar
Fantasma de la ciudad
Mano negra

Nortasun-agiriak
Europako erdialdea.
Manu Chaoren lehenengo musika-bandetako bat. XIX. mendearen amaieran ziharduen erakunde anarkista baten izena da.
Etorkinen irregularrek nortasun-agiririk ez dutenez, legearen arabera ez “dira inor”.
Itsasoan hiltzea. Gibraltarko itsasartea pateran gurutzatzean, etorkin asko hiltzen dira itota.
Gauza txiki-txikia, ozeanoaren erdian. Afrikatik Espainiara Gibraltarko itsasartea zeharkatu nahi duen patera.

## 3. eranskina. Erantzunak

La grande Babylon
Papel
Mi vida la dejé entre Ceuta y Gibraltar
Soy una raya en el mar
Fantasma de la ciudad
Mano negra

Nortasun-agiriak.
Europako erdialdea.
Manu Chaoren lehenengo musika-bandetako bat. XIX. mendearen amaieran ziharduen erakunde anarkista baten izena da.
Etorkinen irregularrek nortasun-agiririk ez dutenez, legearen arabera ez “dira inor”.
Itsasoan hiltzea. Gibraltarko itsasartea pateran gurutzatzean, etorkin asko hiltzen dira itota.
Gauza txiki-txikia, ozeanoaren erdian. Afrikatik Espainiara Gibraltarko itsasartea zeharkatu nahi duen patera.



<b>Izenburua:</b>	Umeen esplotazioa. Jarduteko ideiak
<b>Gaia:</b>	Giza Eskubideak
<b>Hartzaileak:</b>	12-16 urte
<b>Iraupena:</b>	1-2 ordu
<b>Arloa:</b>	Hizkuntza
<b>Beharrezko materiala:</b>	Testuaren fotokopiak (1. eranskina).
<b>Helburuak:</b>	Umeen esplotazioa nola eta zergatik gertatzen den ulertzea.

#### Laburpena / Nondik norakoak:

Uruguaiako Eduardo Galeanoren “Patas arriba. La escuela del mundo al revés” liburutik ateratako testu-zatiaren bidez (1. eranskina), honako ariketa hauek egingo ditugu: testuaren ulermena, hiztegia eta sinonimoak, esaldien azterketa, ideia nagusiak, galderari erantzuteko talde-lana...

#### Dinamikaren garapena:

Galeanoren testuaren fotokopia bana eman (1. eranskina) eta adi-adi irakurtzeko eskatu. Testua irakurritakoan, honako ariketa hauek proposatu:

- Hiztegian bilatu zer esan nahi duten hitz hauek. Testuan bilatu non agertzen diren. Zer esanahi daukate testuan? Hitzon sinonimoa idatzi, baina jatorrizko zentzua galdu barik.
  - miseria - ogi-irabazl - ematen dizkiete - bahituak
  - gogor lan egin - esportazioa - ezkutukoa - kantina
  - distirutzen dituzte - pestizida - ezin merkeagoa
  - zereginak - emirrak - bananondoak - egonaldiak
  - bereizkeria
- Zer esan nahi du idazleak honako esaldi hauen bidez? Esangura bera duen beste esamolde bat bilatu.
  - Izarretik izarrera lan egitea.
  - Ahal denean lan egitea.

- Gaixotasun sendagarriak.
  - Sektore informala.
  - Ekonomia globalizatua.
  - Kautxu-zuhaitzetako esnea.
- Idazleak testuan adierazitako ideia/k nagusia/k nabarmendu. Ikaskideari azaldu eta antzekotasunak zein aldeak idatzi. Adostasunera iritsitakoan, gainerako ikasleei eman azalpenak.
  - Ikaskideekin jorratzekoa:
    - Zer gertatzen zaie munduko ume askori, testuan adierazten denaren arabera?
    - Nolako jarduerak garatu behar dituzte?
    - Zuk zeuk egindako jarduerak kontuan hartuta, badaukate antzik?
    - Zerk edo nork daramatza egoera horretara?

- Zer ondorio ditu umeentzat?
- Zer egin daiteke arazo hori konpontzeko?

Testuaren azterketa formala

5. Testuak zer informazio ematen digun eta nola egiten duen kontuan hartuta, narrazioa edo azalpena da?, zer osagai ditu?, zer genero literariotatik dago hurbilen?

6. Testua idazten erabili daitezkeen baliabide literarioei buruzko informazioa bilatu (Hizkuntzako liburuan bilatzen hasi, esate baterako) eta irakurri duzun testuan aurkitutakoak adierazi. Hona hemen zenbait adibide:

Alderantzaketa: “Ume gehienak txiroak dira; eta txiro gehienak umeak dira.”

Anadiplosia: “kafea biltzen dute Kolonbian eta Tanzanian, eta pestizidek pozoitu egiten dituzte; Guatemalako kotoi-ustiategietako eta Hondurasko bananondoetako pestizidek pozoitu egiten dituzte;”

Anafora: “fruta saltzen dute Peruko azoketan; eta txikleak, San Pabloko autobusetan;”

Asindetona: “Gizarteak zapaldu, zaindu, zigortu eta, batzuetan, hil egiten ditu: ia-ia inoiz ez die entzuten, eta inoiz ez die ulertzen.”

Diminutiboa: “esklabotxoak.”

Hitz-jokoa: “neskek mutilek irabazten duten apurtxo baina gutxiago irabazten dute, zerbait irabazten dutenean.”

Metafora: “satorrak dira Peruko meategietako galerietan, (...)”

Paralelismoa: “Ume gehienak txiroak dira; eta txiro gehienak umeak dira.”

Perifrasia: “ahal duenean lan egiten duen jendearen edo munduan ez lekurik ez lanik ez duen jendearen seme-alabak (...)”

Polisindetona: “Nekazaritzako zereginetan edo hiriko zereginetan edo etxeko zereginetan lan egiten dute.”

Sinekdokea: “(...) nesken besoak mutilenak bezain erabilgarriak dira.”

Zeharkako estiloa: “nire jabe berria zara?”

Era berean, aztertu nola darabilen Galeanok puntuazioa eta, testuaren indarra nabarmentzeko, nola hausten duen etengabe eta nahita paragrafoa puntu batez amaitzeko eta hurrengo letra larriz hasteko oinarrizko arau ortografikoa.

7. Testu honetan, zer nahiago du idazleak: egitateak ala iritziak? Nola adierazten du bere iritzia egitateak kalifikatzean? Zure ustez, zama moralik dauka testuak?, zer sentitu duzu testua irakurtzean?

**1. eranskina.** Testua

- Iturria:** Hurrengo testua liburu honetatik atera dugu: Patas arriba. La escuela del mundo al revés. Liburua Uruguaiako Eduardo Galeano idazleak idatzi du. 1998an, Siglo XXI argitaletxeak liburua argitaratu du Madrilan.
- Egilea:** Eduardo Galeano Montevideon (Uruguain) jaio zen 1940. urtean. Onespen handiko ibilbidea garatu du literaturaren zein kazetaritzaren arloan, eta hogeitik gora hizkuntzataraz itzulitako zenbait liburu idatzi ditu. Lehenengo eta behin, Argentinan erbeste-ratuta egon zen; eta 1973. urtetik aurrera, Espainian. 1985. urtearen hasieran, Uruguaira itzuli zen. Hona hemen bere lan adierazgarrien izenburuak: Las venas abiertas de América Latina (1971), Memoria del Fuego trilogia (Los nacimientos, 1982; Las caras y las máscaras, 1984; eta El siglo del viento, 1986), El libro de los abrazos (1989), Ser como ellos y otros artículos (1992) edo Las palabras andantes (1993).
- Laburpena:** Testuaren iturria den liburua zentzurik gabeko mundu bidegabeari egindako begirada kritikoa da, eta, bertan hipokresia, konformismoa, indibidualismoa, lehiakortasuna... dira nagusi. Ironiaz, gizarteak defendatzen omen dituen balioen eta benetan defendatzen dituen balioen arteko kontraesanak azaltzen ditu. Hona hemen kapituluaren izenburuak: “Bidegabekeriaren oinarritzko ikastaroa”, “Arrazakeriaren eta matxismoaren oinarritzko ikastaroa”, “Zigorgabetasunaren ikasgai magistrala” edo “Bakardadearen pedagogia”. Horrelako izenburuen bitartez, idazleak begiak irekitzen dizkigu ezkutatu egin ohi diren benetako alderdien inguruan. Nolanahi ere, bere ikuspegi kritikoak badu baikortasunik. Horrela, bada, azken kapitulua, “Kontraeskola”, asaldurarako gonbidapena da, Galeanok dioen “zorakeriarako eskubiderako” gonbidapena, alegia.

*“Orain dela ehun eta hogeita hamar urte, mirarien herrialdean egon ondoren, Alizia ispilu batean sartu zen alderantzizko mundua zer zen jakiteko. Alizia gure garaian biziko balitz, ez luke ispilurik zertan zeharkatutik, leihotik burua atera besterik ez luke-eta.” (2. or.).*

Amerika Latinoan, umeak eta nerabeak biztanle guztien erdiak dira ia-ia. Erdi horien erdiak miserian bizi dira. Bizirik dirautenak: Amerika Latinoan ehun ume hiltzen dira orduoro, goseak edo gaixotasun sendagarriek jota. Hala ere, gero eta ume txiro gehiago daude txiroak egin eta txirotasuna debekatzen duen eskualde honetako kaleetan eta lursailetan. Ume gehienak txiroak dira; eta txiro gehienak umeak dira. Sistemako bahitu guztien artean, eurak dira txaroen daudenak. Gizarteak zapaldu, zaindu, zigortu eta, batzuetan, hil egiten ditu: ia-ia inoiz ez die entzuten, eta inoiz ez die ulertzen.

Umeok, ahal duenean lan egiten duen jendearen edo munduan ez lekurik ez lanik ez duen jendearen seme-alabak, edozein jarduera ogi-irabazleren zerbitzura bizi behar dira txiki-txikitik, eta gogor lan egiten dute janari truke edo ezer gutxiagoren truke, mundu zabalean zehar. Oinez ikasi ondoren, jokabide oneko txiroei ematen dizkieten sariak zeintzuk diren ikasten dute: eurak tailerretako, dendetako eta etxeko kantinetako doako esku-lana dira edo enpresa multinazional handientzat kirol-arropa egiten duten esportazio-industrietako esku-lan ezin merkeagoa dira. Nekazaritzako zereginetan edo hiriko zereginetan edo etxeko zereginetan lan egiten dute bertako agintariaren zerbitzura.

Familiaren ekonomiako edo ekonomia globalizatuko sektore informaleko esklabotxoak dira, eta, bertan, munduko merkatuaren zerbitzura dauden biztanle aktiboen beheragoko mailan daude:

Mexikoko hiriko, Manilako edo Lagosko zabortegetan, beirak, latak eta paperak biltzen dituzte, eta janari-hondarreatatik lehiatzen dira putreekin;

Javako itsasoan murgiltzen dira, perla bila;

Kongoko meategietan bilatzen dituzte diamanteak;

satorrak dira Peruko meategietako galerietan, funtsezkoak dira altuera txikikoak direlako, eta, euren birikek gehiago ezin dutenean, ezkutuko hilerrietan uzten dituzte;

kafea biltzen dute Kolonbian eta Tanzanian, eta pestizidiek pozoitu egiten dituzte;

Guatemalako kotoi-ustiategietako eta Hondurasko bananondoetako pestizidiek pozoitu egiten dituzte;

Malaysian, kautxu-zuhaitzetako esnea biltzen dute, izaretik izarrera luzatzen diren lanaldietan;

trenbideak jartzen dituzte Birmanian;

Indiako iparraldean, beira-labeetan urtzen dira; eta hegoaldean, adreilu-labeetan;

Bangladeshen, hirurehunik gora zeregin garatzen dituzte, eta ezerezaren zein ia-ia ezerezaren artean dauden soldatak kobratzen dituzte inoiz amaitzen ez diren lanaldien truke;

gamelu-lasterketak egiten dituzte Arabiako emirrentzat eta artzain-zaldizkoak dira Plata ibaiko etxaldeetan;

Port-au-Princen, Kolonbon, Jakartan edo Recifen, jabearen mahaia zerbitzatzen dute, mahaitik erortzen dena jateko eskubidearen truke;

fruta saltzen dute Peruko azoketan; eta txikleak, San Pabluko autobusetan;

haizetakoak garbitzen dituzte Limako, Quitoko edo San Salvadorko izkinetan;

oinetakoak distirutzen dituzte Caracasko edo Guanajuatoko kaleetan,

arropa josten dute Tailandian eta futbol-oinetakoak josten dituzte Vietnamen,

futbol-pilotak josten dituzte Pakistanen eta beisbol-pilotak josten dituzte Hondurasen eta Haitin;

gurasoen zorrak ordaintzeko, tea edo tabakoa biltzen dute Sri Lankako ustiategietan eta Frantziako lurrintegietarako jasminak biltzen dituzte Egipton;

gurasoek alfonbrak ehuntzeko alokatzen dituzte Iranen, Nepalen eta Indian, goizaldea baino lehenagotik gauerdia igaro arte, eta, norbait euren bila doanean, “nire jabe berria zara”, galdetzen dute;

gurasoek ehun dolarren truke saltzen dituzte, eta lan sexualetarako edo era guztietako lanetarako eskaintzen dituzte Sudanen

Indarrez, armadek umeak errekrutatzen dituzte Afrikako, Ekialde Ertaineko eta Amerika Latinoko zenbait lekutan. Gerretan, soldadutxoek hil egiten dute, baina batez ere hil egiten dira: Afrikako azken gerretako biktimen erdiak izan dira. Gerran izan ezik, tradizioaren arabera eta errealitatearen irakasbidearen arabera arren lana besterik ez delako, nesken besoak mutilenak bezain erabilgarriak dira. Lanmerkatuan, ordea, emakumeen aurkakoa bezalako bereizkeria gertatzen da nesken aurka: neskek mutilek irabazten duten apurtxo baina gutxiago irabazten dute, zerbait irabazten dutenean.